

2012



BILDUMA



24



Errenteriako Udala
www.errenteria.net

BILDUMA 24

X Koldo Mitxelena Ikerketa Beka 2010

ERREENTERIA XVI. MENDE HASIERAN: MERKATARITZA ETA GIZARTEA

Iago Irijoa Cortés
David Martín Sánchez

BILDUMA:

Artxibo eta Argitalpenak Zerbitzuaren aldizkaria. Errenteriako Udala (Gipuzkoa)

Erredakzio Batzordea:

Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta

José Ramón Cruz Mundet

Leonor García Vázquez

Argitaratzen du:

Errenteriako Udala. Udal Artxiboa.

Idazlanak, harpidetzak eta administrazioa:

Errenteriako Udal Artxiboa

Errenteriako Udala

Herriko plaza, z/g

20100 Errenteria

Tfno.: 943 44 96 10

Fax: 943 44 96 60

E-mail: archivo@errenteria.net

Banaketa:

ELKAR

Portuetxe, 88

20018 Donostia

Tfno.: 943 31 03 01

Fax: isors@elkar.com

Lege Gordailua: SS-301/90

I.S.S.N.: 0214-624X

BILDUMA (Errenteria)

Antza komunikazioa grafikoa. Lasarte-Oria

Bildumako ale hau bideraturik dago elebitan argitaratzeko Errenteriako Udalak bi urtean behin ematen duen “Koldo Mitxelena” Ikerketa Bekaren 10. deialdiaren ikerketa lanaren bertsio laburtua. Deialdi horren ikerketa lan osoa ere argitaratu da formatu digitalean. Iago Irijoa Cortés-en eta David Martín Sánchez-en *Errenteria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)* eskuragarri duzue Udalaren web orrian argitaratuta: www.errenteria.net.

Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatu zuten: Joseba Etxarte Martín, lehendakaria; Elixabete Perez Gaztelu, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta, Mikel Zabaleta García eta Leonor García Vázquez. Epaimahaikoak Errenterian bildu ziren, 2010eko uztailaren 29an. Aurkezturiko 10 ikerketa proiektuak aztertu zituzten, eta aho batez erabaki zuten beka hori Iago Irijoa Cortés-en eta David Martín Sánchez-en lanari adjudikatzea. Lanak *Errenteria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)* izenburua zuen. Bigarren hautatua izan zen *Delincuencia civil y criminal en Errenteria a fines de la Edad Media y principios de la Edad Moderna (1475-1520)* izenburuko lana, M^a. Cristina Redondo Jarillo-k egina, eta hirugarren izan zen *Arcaida de celuloide. La imagen de Euskadi en el No-Do (1943-1981)* izenburuko lana, José Manuel Pelaez Roperok egina.

*Amonari.
Kapitain-etxeko seme, aitona Benito Cortés Cortés zenari.*

*Per Lucia,
che come Thomas Barcot, già appartiene alla società di Errenteria.*

LABURDURAK

AGI: Archivo General de Indias (Sevilla).

AGS: Archivo General de Simancas (Simancas).

RGS: Registro General del Sello.

CC: Cámara de Castilla.

CMH: Contaduría Mayor de Hacienda.

aip. lan.: aipatutako lana.

Ald.: Alderatu.

ARChV: Archivo de la Real Chancillería de Valladolid (Valladolid).

au. / at.: aurrekaldea / atzekaldea.

BEHSS: Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián.

CSIC: Centro Superior de Investigaciones Científicas.

EHU-UPV: Euskal Herriko Unibertsitatea-*Universidad del País Vasco*

EUA: Errenteriako Udal Artxiboa.

f.g.: foliatu gabe.

fol./folk.: folioa / folioak.

GAO-AGG: Gipuzkoako Artxibo Orokorra-Archivo General de Gipuzkoa (Tolosa).

CRI: Auzi Kriminalak.

MCI: Mandiolaren eskribautza. Auzi Zibilak.

MEJ: Mandiolaren eskribautza. Auzi Betearazleak.

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia.

GPAH-AHPG: Gipuzkoako Protokoloen *Artxibo Historiakoa- Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa (Oñati)*.

GUA: Goizuetako Udal Artxiboa.

HH. EE.: Hainbat egile.

IEA: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (Iruñea-Pamplona).

LUA: Lesakako Udal Artxiboa.

NAO: Nafarroako Agiritegi Orokorra – *Archivo General de Navarra* (Iruñea-Pamplona).

orr.: orrialdea(k).

OUA: Oiartzungo Udal Artxiboa.

PUA: Pasaiaiko Udal Artxiboa.

RAH: Real Academia de la Historia.

EGILE ETA ITZULTZAILEEN OHARRA EUSKARAZKO BERTSIOARI

Euskaratzea egiterako garaian, eta gaur egun dagoen Erdi Aro eta Aro Berrirako hiztegi tekniko baten gabeziaren aurrean, hainbat hitz tekniko (bereziki udal karguei edo udalbatzari lotutakoak) garaiko dokumentuetan, Aita Larramendiren *Diccionario Trilingüe...* bezalako euskal idazle klasikoen lanetan edo itzultzaile zein egileen irizpideetan oinarritu dira. Erraztasunak emateagatik, eta lanaren euskarazko bertsioak erabilgarritasun handiago bat izan dezan, honako glosario txikia aurkeztea beharrezkoa dela deritzogu:

Saria: acostamiento.

Muga-zerga: arancel.

Batzarra: ayuntamiento (bilera).

Harresiaurre: barbacana.

Hiri-ondasunak: bienes de propios.

Kai-zerga: cayaje.

Udalbatza- (hitz-elkarteetan): concejil.

Udalbatza: concejo (instituzioa).

Udalbatzar: concejo (udalbatza-ren/erreji-menduaren bilera).

Batzar orokor: concejo abierto/general.

Zenbaki-eskribau: escribano del número.

Hamabi nagusi: jurado mayor.

Lonjari: lonjero.

Diruzaina: mayordomo.

Biztanle: morador.

Upamehe: pipa.

Upamehegile: pipallero.

Sarobe, saroe: sel.

Auzotar: vecino.

Kontu-ikuskatzaile: veedor de cuentas.

Halaber, garaiko abizen patronimikoen eta toponimikoen artean dagoen gaztelaniazko “de” partikula kendu egin dugu eta bere ordez, abizen toponimikoari lotuta “-ko(a)” atzizkia jarri zaio, bukaeran “a” bat gehituz, deklinatzeko arazo gutxiago dakartzalako. “De” mantendu diren kasuak Gipuzkoaz eta euskal eremuaz kanpoko pertsonetan izan da. Hainbat taulatan, ordea, ez dugu ez bata eta ez bestea jarri, hasierako helburua abizena azpimarratzea baitzen.

Toponimo handiei dagokienez, euskarazko testuan euskal formak hobetsi dira, nahiz eta ofizialak ez izan, Bilbo edo Iruñea kasu. Toponimia txikiak zailtasun handiagoak aurkeztu ditu. Irizpide orokor moduan, garaiko testuetan agertzen den formarik hedatuena jartzea erabaki dugu (hala nola, Allangue eta ez Allangoa). Zailtasunik nabarmen-

nenak euskara eta gaztelania bateratzen zituzten izen konposatuak izan dira, hala nola “Berreizun de Suso” edo “Basanoaga La Mayor”. Lehengo kasuan “Goikoa” jartzea erabaki dugu eta bigarrenan, berriz, “Handi”.

Izen-abizenetan, irizpidea euskal grafian normalizatzea izan da (Migel, Gillen, Santxo, Grazia izenak edo Altzate, Illarregi edo Urantzu abizenak), ez, ordea, abizena agertzen zaigun forma eraldatuko lukeen eran idaztea (Yerobi: Igerobi; San Esteban: Doneztebe, eta abar). Erdal kutsuko abizenak (Illescas, Frechilla, San Vitores) erdal formatan utzi dira.

AURKIBIDEA

LABURDURAK	11
EGILE ETA ITZULTZAILEEN OHARRA EUSKARAZKO BERTSIOARI	13
AURKIBIDEA	15
SARRERA	17
I. OIARTZUNEN INDEPENDENTZIA ETA BERE ONDORIOAK	23
1. Lur berriak, jurisdikzio berria	24
2. Berrikuntzak erlijio munduan	27
3. Probintzia-egituran izandako aldaketak	30
II. HIRIGUNEA ETA ONDASUN HIGIEZINAK	33
1. Koroen arteko gerra, etengabeko arriskua	33
2. Hirigunearen garapena	37
2.1. Dorretxeak	44
2.2. Burdinolak, errotak eta beste hainbat higiezin	48
2.3. Lonja	56
a) Funtsezko eraikina udalbatzaren ekonomian	56
b) Hainbat lonja badian zehar? Kokapenaren arazoa	60

III. MERKATAL DINAMIKA XV. MENDE AMAIERAN ETA XVI. MENDE HASIERAN	67
1. Pasaiaiko badia, tentsio gunea	69
2. Errenteriaren merkataritza-esparruak	74
3. Lehorreko merkataritza: Nafarroarekiko harremanak	89
4. Merkatal jarduera, urrutiko eta leku ezberdinetako jendea biltzearen isla	94
IV. ERRENTERIAKO ELITEA XVI. MENDE HASIERAN: IRIZAR ETA LA RENTERIA	113
1. Kargu politikoen betetzea	114
2. Udalbatza-errenten eta hiri-ondasunen errentamendua	117
3. Familia nagusiak eta beraien arteko loturak	121
AZKEN HITZA	151
GRAFIKOAK, TAULAK ETA ZUHAITZ GENEALOGIKOAK	
I GRAFIKOAK: LONJAREN ERRENTAMENDUA (1517-1544)	58
I TAULA: ABIZENEN ETA UDALBATZA-KARGUEN ARTEKO ERLAZIOA (1517-1544)	114
II TAULA: IRIZAR, LA RENTERIA, AKORDA ETA ZURUBIZTARREK LORTUTAKO ERRENTAMENDUAK	118
III TAULA: LA RENTERIARREN ONDAREA (1531-1546)	136
I ZUHAITZ GENEALOGIKOA: IRIZAR	127
II ZUHAITZ GENEALOGIKOA: LA RENTERIA	149

SARRERA

Hemen aurkezten dugun lanak, 1495-1544 urte bitartean Errenteriako udalbatzaren eta hiribilduaren ezagueran eta azterketan sakontzea du helburu. Garai hori aukeratzeko arrazoiak bi izan dira: batetik, XV. mendearen amaierak eta XVI. mendearen lehen erdialdeak Errenteriaren eta eskualdearen historian oso garai interesgarria osatzen dutelako, loraldi eta zabalkuntza garaia, hain zuzen ere.

Bestetik, Oarsoaldean aro berri bat ate joka dugulako, 1474 eta 1495 urte bitartean jazotako hainbat gertakarik, aurreko mendeetan bizi zen egoera aldatuko baitute. Garrantzitsuena, zalantzarik gabe, Oiartzunen behin betiko independentzia eta honen eta Errenteriaren artean emango den banaketa izango da. Hala, XVI. mendeko lehen hamarkadetan, Oreretako lekuan kokatutako hirigunea, “Villanueva de Oiartzun” izatetik “La Rentería”ra pasako dena¹, estrategia berriak abian jarzera behartuta egongo da.

Prozesu honen guztiaren jatorria 1320 urtean dugu, “Oiartzungo hiribildu berria” edo “Villanueva de Oiarso” izeneko hiribildua sortu zenean. Gertakaria bera ez da ez-ohikoa, baina bere izena oso adierazgarria da. Populazio gune hau,

¹ Azpimarratu nahi dugu paragrafo hauetan protagonista nagusia izango den hiribildua izendatzeko izen ofiziala erabiliko dugula (Errenteria). Ez dagokigu gaur egungo auzotarrek beraien herria izendatzeko erabili nahi duten izenaren inguruko eztabaidan sartzea eta ezta horretarako zein izen den berreskuratu behar dutena esatea ere. Alabaina, gogoratu nahi dugu “Orereta” izenak populazio gune berria kokatuko zen lekuari erreferentzia egiten diola; ziurrenik, hori hautatzerako orduan, bailarako hainbat biztanle han edo inguruetan bizi zirelako. Dena den, azpimarratu behar dugu hiri-gutunean leku honi ez zaiola (Azpeitia, Tolosa edo Ordiziako kasuetan ez bezala) “puebla” izenarekin aipamenik egiten, alegia, antolatutako eta finkatutako populazio gune moduan.

“Villanueva de Oiartzun” izenari dagokionez, XIV eta XV. mende artean hartu zuen izen ofiziala izan zen. “La Rentería”, berriz, laurehungarrenaren amaieran, ziurrenik Oiartzunen independentziaren ildotik eta bailararen eta hiribilduaren arteko nahasketarik ez izateko, gailendu zen izena dugu.

Edonola ere, nafar dokumentazioan “Rentería” izena dagoeneko XIV. mende erdialdean dugu, 1357 urtean (ikus HH. EE.: *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1256-1548)*). Donostia: GFA, 2000, 57. dok., 144 orr.). Halaber, gutxienez XVI. mendeko bigarren herenetik aurrerako nafar dokumentazioak ere, “Errenteria/ Herrenteria” euskal forma jasotzen du (ikus, adibidez, NAO. Procesos. 9183, 1533 urtea).

gainera, bere funtzio ekonomikoagatik ere ezaguna izango da: errenteria edo errentak ordaintzen ziren lekua, hain zuzen ere. Hauek, gainera, itsas merkataritza zein trafikoarekin lotutako errentak edo zergak dira, burdin eportazioari lotutakoak bereziki.

Gune berriak lortutako maila juridikoak zera esan nahi du: 1320tik aurrera bere udalbatzarra abian jarriko dela eta bere auzotarrek bertako agintariengatik epaituak izateko eskubidea izango dutela. Baina horrez gain, gune berria Oiartzungo bailarako eta Bailararen zentru politiko zein ekonomikoa bihurtuko da; izan ere, bailara, izate fisikoaz gain, Erdi Aroko erakunde juridiko eta politiko bat zen; 1237 urtetik, gutxienez, eskualdeko buru zena. 1320ko gertakariak egoera hau errotik aldatuko du, Bailara hiribilduaren menpe geldituko baita esparru guztietan; hau da, lehen lurraldeko buru ziren sakabanatutako guneak, Oreretan fundatuko den hiribilduaren jurisdikziopean geldituko dira.

Hala, XIV. mende hasieratik, Oiartzungo Bailaratik ezberdindutako populazio berria unitate politiko bat eratzen joan zen, bailararen gaineko eskumenekin gainera; Probintziaren elementu dinamiko bihurtu zen, bertako kideekiko berdintasun egoera teorikoan; eta, azkenik, Pasaiaiko badiaren kontrolaren inguruko borrokan eragile nagusienetako batean bilakatu zen, Oiartzungo bokale argia zen elementu geografikoari buruzko gatazkan, hain zuzen ere.

Izan ere, itsasoari lotutako jardueren garrantziaz ari bagara, gure hiribildua kostaldeari begira zegoelako da, nahiz eta ideia hau gaur egun irudikatzen zaila izan daitekeen. Bere kokapena, gainera, ez da ustekabekoa izango; aitzitik, oso ongi hautatua egongo da:

- Ondo babestua, edo hala nahi zuten bere auzotarrek, baina era berean, garaiko komunikabide onenen artean zegoen eta itsas-merkataritza internazionalaren bolumen garrantzitsu bat igarotzen zen senaia batera sarbide erraza zuena.
- Oiartzungo bailaran zehar barreitatutako guneekiko estrategikoki kokatua, eta hauen buru.
- Baso eta mendi ugari inguratua, baina Nafarroarekin zailtasun handirik gabe harremanetan jartzen zuen geografia esparru batean.

Orereta, Villanueva de Oiartzun, La Rentería,... garapen historiko baten isla dira, erakunde politikoak erabaki baten fruitu direla adierazten duten garapen batena, hain zuzen ere. Horregatik ezin dugu aipatu gabe utzi ikertutako urteak prozesu baten erakusle direla eta prozesu hau politiko dela, gaur egun hitz honek

duen esan nahi guztiarekin. Garai honetan antzinako bailara behin betiko bitan zatitua geratuko da eta hemendik aurrera, bai Oiartzunek eta baita Errenteriak ere, beraien gobernu berrantolatuko duten neurriak aurrera eramango dituzte.

Guk, ondorengo lerroetan, hiribilduak landutako estrategia aztertuko dugu, lurralde eta biztanle galera nabaria izan zuen testuinguru batean. Baina egoera zail honetan biziraupena ez ezik, arrakasta ere lortuko du, XVI. mendeko lehen erdialdean behinik behin. Gure asmoa, beraz, garai horretan hori posible egingo duten gertakari nagusiak jaso eta lantzea izango da.

Hala, ondorengo lana estrategia berri hori osatu zuten kate-mailak berreraikitzen saiatuko da; administrazio alorrean (Oiartzungo arroan dauden populazio guneen eta Bailararen hiribilduarekiko banaketaren gauzatzea), hirigintza esparruan (hiribilduaren eraikuntza), gizarte mailan (Errenteriako eliteen sorrera), ekonomian (zein jarduera garatzen ziren), eta abar.

1491 eta 1495 urte bitartean bi guneak (Bailara eta Hiribildua) elkarren aurka jarri zituen gatazka luzeari amaiera emango zaio; Errenteriak espazio eta biztanle berri batzuetara moldatu beharko da, azkenak gizarte aldetik trinkoagoak izango badira ere. Irtenbide hau, jakina, ez da arazo guztien konponbidea izango, baina bai aro berri bati hasiera ematen dion mugarri nagusia.

Honekin batera, hainbat gertakari jazoko dira XVI. mendeko lehenengo hamarkadetan. Batzuk, aurreko gertaerekin zerikusia dute; beste batzuk, aldiz, Gaztelako Koroaren politika internazionalarekin lotuak ageri zaizkigu. Hala, 1495 ondorengo urteek bi populazio guneen eskumenak mugatuko dituzten hainbat gertakari, erabaki eta konpokatik ikusiko dituzte. Testuinguru honek guztiak, beraz, eskualdeko historian garai berri bati hasiera emango dio.

Berrikuntza hauen atarian, baina, beste batzuk izango ditugu hainbat urte lehenago, 1475ean, Pasaiaiko portuaren aprobetxamendu zein jurisdikzioaren inguruan epai berri bat emango baita. Oraingo honek, aurrekoek egin zuten bezala, Donostiari eskumen handiagoak emango dizkio, Errenteriaren eta zonalde horretan interesak zituzten beste populazio guneen kaltetan. Oiartzunekin gertatu ez bezala, epai horrek ez du amaiera bat ekarriko, arazoaren areagotzea baizik. Hala, XVI. mendean zehar hainbat eta hainbat izango dira badiari lotutako istilu eta tirabirak. Horren adierazle, 1577an Errenteriak planteatuako Probintziarekiko independentzia saiakera izango da, mende batzuk geroago eskualdean eta Bidasoa Behean gertatu zen bezala.

Esan dugun bezala, garai honetan emango diren aldaketa batzuk Oiartzungo independentzia politikoaren ondorio zuzena izango dira. Batetik, eta ildo politiko horretatik jarraituz, hiribilduak eta bailarak Probintziaren egituraren zuten ordezkari-

tza sisteman jasotako aldaketak daude; Oiartzunen independentziak, bailarari bilkura horietan berezko ordezkari bat izateko aukera emango baitio. Bestetik, erlijioari lotutako berrikuntzak izango ditugu. Nagusia 1513an eman zen hiribilduko Maria Donea Zeruratzea elizaren eta Oiartzungo Lartaungo Done Eztebe eliza-matrizearen arteko banaketa izango da.

Beste hainbat berrikuntzek gure hiribilduaren barne dinamikarekin lotura izango dute. Lerro hauetan gai hau jorratuko ez badugu ere, beharrezkoa iruditzen zaigu Erreterari eta batez ere, bere udalbatzari lotutako aldaketak azpimarratzea. 1518 eta 1544 urteetan jaso eta funtzionamenduan jarriko diren ordenantzek udal hauteskunde zein hiribilduko kargu politikoen berregituraketa jasoko dute. Horregatik, lan honen itxiera kronologikoa bigarren urte horrek osatuko du.

Bi ordenantzetan hauteskunde sistema zein den eta zein pauso jarraitu behar dituen adostuko dira, eta udal karguen esparruak eta konpetenziak ezarri. Hau guztiak udal gobernuan parte hartzeko baldintzak gogortuko ditu, itxiera prozesu baten lehenengo mugarriz. Aldaketa edo berrikuntza nabarmenenak lehenengo koadernoan adostuko dira, arlo honetan 1544koa aurrekoaren errepikapen bat besterik ez delarik. Ondorioz, eraldaketa 1518koak hasiko du, urte gutxi batzuk lehenago dokumentatuak baditugu ere.

Azkenik, eskualdeko egoeran kanpo-faktoreek izan zuten eraginaz hitz egin behar dugu. 1512an hiribilduak pairatu zituen eraso eta erreketak, Errege Katolikoaren garaitik Gaztelako Koroak hasi zuen politika internazional berriaren isla izango dira, Nafarroarekin eta Frantziarekin aurrez aurre ipiniko dituenak. Pentsa daitekeen bezala, egoera honek ondorio nabarmenak izan zituen mugan zegoen Gipuzkoa bezalako lurralde batean, horren adibide garbia Erreterariak 1476an eta 1512an sufritutako bi suteek eskainiko digutelarik. Baina horrez gain, XVI. mendean zehar izango diren etengabeko zurrumuru zein talkek ere, berebiziko eragina izango dute gure hiribilduaren eguneroko bizitzan.

Sarrera honekin amaitzeko, ondorengo lerroak Koldo Mitxelena bekaren 2010-2011 deialdiaren bidez egindako lanaren laburpena direla ohartu behar dugu. Datozen orrialdeetan lan horren hainbat zati besterik ez dira jasoko; bereziki, historiografiak gutxi garatuta dituenekin edota ikerkuntza burutzerakoan zehaztu edo ezeztatu direnekin zerikusia dutenak. Dena den, jatorrizko lana Interneten kontsulagarri dago ondorengo helbidean: www.erretereria.net; hemengo lerroak osatzen dituzten datu eta erreferentziak, beraz, bertan topatu ahal izango dira.

Azkenik, ez genuke sarrera hau amaitu nahi lana posible egin duten pertsonen gure esker onak eman gabe, jatorrizko ikerkuntzan idatzitakoa errepikatzea bada ere. Lehenengo eta behin, hilabete hauetan artxibozain zein erakunde ezberdinetako arduradunengandik jaso dugun laguntza eta adeitasuna, besteak beste Goizueta,

Hondarribia, Lesaka, Oiartzun eta Pasaiako udaletatik eta Gipuzkoako Artxibo Orokorra-*Archivo General de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa-*Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa*, Nafarroako Agiritegi Orokorra-*Archivo General de Navarra*, Archivo General de Simancas eta Real Chancillería de Valladolid bezalako artxiboetatik.

Esker on zehatzetan, Leonor García eta Garazi López de Etxezarretak aipamen berezia merezi dute, ondorengo lerroen eta jatorrizko lanaren argitalpenean izan duten interesagatik. Beraiekin batera, Errenteriako Udalean Ainhoa eta Ruth aipatu behar ditugu, ikerkuntzan zehar egin ditugun eskaera amaigabeei erantzuna emateagatik; halaber, Txema Arenzanari erakutsitako interesa eta emandako laguntzaga eskertu beharrean gaude.

Orain arte gutxi erabilitako artxibo-iturrien erabilpen hobea eta beraien aprobetxamendua, bereziki Peio J. Monteanoren, Borja Aguinagalderen eta Ramón Martínen gomendio eta azalpenei zor diegu. Beraiekin batera, aipamen berezia merezi du *Bristol Record Office*ko Margareth McGregorrek.

Azkenik, lan hau posible egin duten ikerlarietara eta profesionalerara ere esker onak eman beharrean gaude, beraiekin izandako elkarrizketa, emandako gomendio eta utzitako materialeek lan honetan berebiziko eragina izan baitute. Gure eskerrik beroenak, beraz, Ernesto García Fernández, Imanol Vitores Casado, Álvaro Aragón Ruano, José Ángel Lema Pueyo, María Rosa Ayerbe Iribar, Javier Elorza Maiztegi, Kote Gebara, José Antonio Azpiazu eta José Ramón Cruz Mundet-i. Aipamenik bereziena David Zapirain Karrika doktoreak merezi du, jatorrizko lana, baina bereziki ondorengo lerroek, berarekin ordaingabeko zorra jaso baitute.

I.

OIARTZUNEN INDEPENDENTZIA ETA BERE ONDORIOAK

Sarreran aipatu dugun bezala, Behe Erdi Aroko Erreneriaren historian aro berri bati hasiera ematen dion gertakaria Oiartzunen behin betiko independentzia da. Ondorioak ez ziren bakarrik herri-mailako politikan eman; erlijioan eta Probintziako egituraketan ere, beraien eragina nabarmena izango da.



Oiartzungo Bailara, eskualdeko buru. XIII. mendean zehar, gutxienez 1237tik, eta XIV. mende hasiera arte, bailaran zehar sakabanatutako populazioak, udalbatzarren bitartez, izan ziren lurralde horretako buru. 1320tik aurrera eta 1495era arte, berriz, Oretako lekuan hiribildu bat fundatzeak, Bailararen buruzagitza hau menpekotasunean bihurtuko du, harresiak inguratzen zuen gunea politikoki eta ekonomikoki lurralde osoko buru bilakatuko baita. Ondorioz, hamaika istilu eta tirabira sortuko dira. Argazkian, Oiartzungo Elizalde auzoa (Iturria: eu.wikipedia.org/Oiartzun).

1. Lur berriak, jurisdikzio berria

Errenteriarri hiribildu titulua eman zion mesedearen ildotik emango diren lehenengo arazoak alde batera utziko baditugu ere, XVI. mendearen atarian sortuko den egoera ulertzeko 1491ko errege-betearazlea eta 1495eko mugarritzea baino hamarkada batzuk lehenago izango den gertakari bati erreparatu behar diogu. 1453 urtean Gaztelako Endrike IV.a erregeak Oiartzuni emandako hiri-gutunari, hain zuzen ere. Berebiziko garrantzia duen mesedea dugu, bailararen independentzia baitzekarren.

Mesede horrek bi guneak zatitzen zituen, fiskalitate, jurisdikzio eta politika mailan banatuz. Besteak beste, bakoitzak udal kargu propioak izango ditu, bakoitzean ospatuko ziren udal hauteskundeetan hautatuz. Baina pribilegio hau ez da aurrera aterako; izan ere, nahiz eta Endrike IV.ak berak (1470 eta 1472an) eta Errege Katolikoek (1484ean) hiri-gutuna berretsi, Errenteriak, Gipuzkoako Ermandadearen laguntzaz, bere ezarpena bertan behera geratzea lortuko baitu. Ondorioz, ondorengo hamarkadetan hiribilduaren eta bailararen arteko erlazioek txarrera egingo dute.

1490 inguruan egoera oso larria zen; larriegia Gipuzkoan bertan konpontzeko. Hori dela eta, Oiartzunek eta Errenteriak arazoari irtenbidea bilatzeko auzia Errege Katolikoek eskutan utzi zuten. Hala, 1491ko apirilean erregeen epaiak bien arteko banaketa xedatu zuen, luraren mugatzea aginduz, lehenengo pausoak 1493an eman zirelarik. Alabaina, mugatzearen ondorioz, Errenteria, lehen zituen lurraldeen zatirik txikienarekin gelditu zen eta hori konpontzeko asmotan, lurraldea zatitu zen hiru zatietatik bat hiribilduari eman zitzaion.

1453ko hiri-gutunaren antzera, 1491ko epaiak bi guneen eskumenak arautzen zituen. Ordutik, populazio bakoitzak bere udal kargu propioak izendatuko zituen, probestua izan ezik. Azken hau partekatutako kargua izango zen, urte batean Errenteriak izendatuz eta hurrengoan, aldiz, Oiartzunek. Portuaren ustiapen eta jurisdikzioari dagokionez, biek era aske eta amankomunean izango zuten. Alabaina, hiribilduak hainbat arlotan lehentasuna edota berak bakarrik eskumenak izatea lortu zuen, tartean Probintziako Batzarretako ordezkariarena. Hau Errenteriarren esku geldituko zen, prokuradoreak berak bakarrik izendatu zitzaizkeelarik.

Neurri hauek baina, ez zuten giroa baretu. Bi aldeek 1491ko epaiaren hainbat puntu apelatu egin zituzten eta auziaren amaiera 1495ean etorri zen. Denbora tarte honetan ere salaketak izan ziren, hala nola Errenteriak jarritakoak, Oiartzunekin zituen herri-basoen ustiapenean izan ziren irregulartasunei buruzkoak. Edonola ere, urte horretan erregeek aurreko epaia berretsi zuten eta honekin batera, beraien ordezkariak 1493an egin zuen mugarritzea baieztatu eta hau amaitu zedila agindu zuten, honen inguruan egin ziren azken prozedurak 1495eko uztailean eman zirelarik.

Arazoak, ordea, ez ziren guztiz amaitu. 1505ean, Joana I.goa erreginak bere gurasoen erregealdian egindako lur-banaketa errespetatu zezatela agindu zuen eta horrez gain, populazio bakoitzeko auzotarrei bestearen lurretan zuhaitzak moztea debekatzen zuen, baldin eta udalbatza bakoitzaren baimena ez bazuten. Halaber, erreginaren aginduak Oiartzun eta Errenteriak zituzten herri-lurren ustiapena abeltzaintzari lotua egongo zela ebatzi zuen. Horrez gain, aurretik hainbat auzotarri ezarritako isunak baliorik gabe uzten zituen, giroa baretu nahian.

Ebazpen hauek 3 urte beranduago baieztatu baziren ere, oraingoan aldaketa nabarmen eta esanguratsu bat ezarri zen, bien muga-lurrekin lotua. Zehazki, 1508ko apirilaren 11n Errege Kontseiluak lurralde zati horren ustiapena arautu zuen: ordutik, bertan zegoen egurra, mugan zeuden Oiartzungo baserrien beheko suetarako izango zen. Orduz geroztik, *su-egurra* deritzon ustiapenaren nondik norakoa ezarriko da, izenak baso-baliabidearen erabilera oso argi adierazten duelarik. Epai honek egur horrekin ikatza egitea (hau da, egur-ikatza) debekatzen zuen, bailarako populazio zati garrantzitsu eta itzal handiko baten interesen kontra joanez, olagizonen eta inguruan zeuden burdinola jabeen kontra, alegia. Beraz, ez da harritzekoa 1505-1508 bitartean Oiartzunek zonalde horretako baliabideen aprobetxamenduaren inguruan aurkeztu zituen alegazio zein erreklamazioen artean, burdinolek zituzten beharrak ere aipatzea.

Egia bada ondorengo hamarkadetan istiluek beherantz egin zutela, oraindik ere hainbat tentsio biziko dira. Oso esanguratsua da, Errenteriak eskatuta, 1515 eta 1544 artean *su-egurraren* errege-betearazlearen hainbat kopia eskuetsi egitea, tentsioek jarraitu zutelaren seinale. Tirabira hauek hainbat arrazoigatik sortuko dira. Batzuk hiribilduen zein auzotar ezberdinen artean barneratua zegoen ohitura batengatik izando dira, hau da, edozein aukera baliatuz mugarriak mugitu edo lekuz aldatzearena. Oiartzungo udalbatzak Errenteriaren aurka oso kexu adierazgarriak adierazten zituen 1544ko urtarrilaren 2an, hiribilduak honakoa egin zuela adieraziz: “...*tentado e mobido en poner nuevos mojones entre su jurisdicción e d’este dicho concejo donde y en partes nunca hubo mojones*”².

Hainbat kexa merkataritzarekin zerikusia zuten. Aipagarrienak, gero ikusiko dugun bezala, Errenteriak eta Goizuetak, bien arteko merkatal harremanak hobetzeko, Oiartzundik pasa gabe eraiki nahi zuten bidearen inguruan izan ziren; beste protesta batzuk, aldiz, Oiartzun zein Errenteriako auzotarrek ondoko populazio gunearen lurretara beraien aziendak bazkatzera eramateagatik sortu ziren. Bestek beste, errenteriarrek beraien ahuntzak bailararen lursailetara eramatearen ondorioz, Oiartzungo justiziek egin zituzten atxiloketengatik³.

² OUA, C-2-1-1, 11 au. fol.

³ Hainbat adibiderako, ikus EUA, C-5-II-1-7 eta EUA, C-5-II-2-1.

Arrazoa edozein delarik ere, salaketa hauek guztiek erakusten dutena zera da: bailararen independentziaren ondoren Errenteriak lur gutxiago zuenez, bere biztanleek lursail horiengan egin zuten presioa eta ustiapena areagotu egin zela. 1491 eta 1514 artean Errenteriarekin muga egiten zuten Oiartzungo lurretan 40 baserri berri erakiitzea eta horrez gain, hainbat saroe herri edo laborantza-lur bihurtzea edo beraietan basetxe edo burdinolak ezartzea, lurrak pairatutako presio handiago horren lehen zantzua dira⁴. Prozesu hau, baina, ez zen zonalde horretan bakarrik gertatu; aitzitik, eskualde osora zabaldu zen, tartean Astigarrarekin muga egiten zuten lurretara. Honen lekuko, Juanes Tafallakoak 1538an egindako adierazpena dugu: “...vive en jurisdicción de Murguía, que es cerca los límites de la jurisdicción de La Rentería, y sabe y ha visto que de siete, ocho años a esta parte, en la comarca de la casa do este testigo mora, se an hecho algunas heredades y se an çerrado de valladares”⁵.

Batzuetan, lursailak udalbatzaren baimenarekin ustiatu ziren; beste batzuetan, ordea, bere oniritzirik gabe. Honen adibide, aktek islatzen dituzten salaketa ugariak ditugu. Kexu hauek, Errenteriako auzotarren presioa hiribildutik gertu zeuden lurretatik haratago zihoala adierazten digute. Alegia, ez bakarrik erakargarritasun handiagoa zutenetan, lur emankorrangoetan edo nekazal ustiapen handiago bat izan zezaketen horietan, baita urrutiago zeudenetan ere. Honen adierazle 1529ko haserreak ditugu, orduan, hainbat auzotar Añarbeko hiri-lursailak udalbatzaren baimenik gabe ustiatzen ari zirela salatu baitzen⁶.

Lurrarekiko presio handiago horren aurrean, dela orain ikusi dugun legez kanpoko ustiaketagatik, dela Oiartzungo independentziak sortu zuen barruti murrizketagatik, Errenteriako udalbatzak lur berriak behar zituela argi ikusi zuen. Hauetako hainbat Murgia-Astigarrarekin muga egiten zutenetan egongo dira, bereziki Murgia oinetxearen jabetzen zati zirenetan. Errenteriak bertan lurrak eskuratzeko egin zituen lehen datuak 1504 urtean ditugu. Oso data esanguratsua da, bai Oiartzungo independentziaz eta baita *su-egurraren* inguruko eztabaidetatik gertu dagoelako. Ondorioz, 1495ean izandako lur txikiagotzearen aurrean, gure hiribilduak lurrak eskuratzeko saiakerak oso goiz hasi zituelaren adibide dira⁷.

Errenteriaren berezko interes honi, Murgia oinetxeak XVI. mende hasieran bizi zuen egoera zaila gehitu zitzaion. Oso adierazgarria da Astigarragako hainbat

⁴ ARAGÓN RUANO, A.: *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*. Bilbo: EHU-UPV, 2009, 130-132 orr.

⁵ ARChV. Pleitos Civiles, Zarandona y Walls, Fenecidos, 756-3.

⁶ EUA, A-1-2, 4. pieza, 40 au.- 42 at. folk.

⁷ AGS. RGS. 1504-II, 155 fol.

auzotarrek leinu horri erositako hainbat eta hainbat lursail, 30 eta 40ko hamarkadetan zehar Errenteriaren eskuetara pasatzea. Guretzako, hiribilduak biztanle horiek nolabait erabili zituelako seinale da, Murgiako jaunen aldetik jaso zezakeen ezetzaren aurrean. Dena den, gune hori ez da gure hiribilduaren inbertsio puntu bakarra izango: bertako Intsusaga, Aginatz Egia edo Ieralegi lursailez gain, udalbatzak Oiartzunen eta Hondarribian zeuden Isturitzaga, Abendaño, Garitohana eta Perubeltz Oihana bezalako lurak ere eskuratuko ditu, eta horiei Allangoa eta Usaskue sarobeen zati batzuk eta Lezetako eta Itxeta bezalako mendilurrak batuko zaizkie⁸.

Jabetzan eskuratutako lursailez gain, Errenteriak beste hainbaten ustiapena lortuko du. Adierazgarrienak Orreagako Kolegio-elizak eta Oiartzungo Ugarte oinetxe garrantzitsuak zituzten sarobeen kasua izango da. Ordainetan, hiribilduak urtean 22 dukateko zentsoa ordaindu beharko du, kopuru nahiko txikia.

Espazioarekiko interes honetan, udalbatzak oso bestelako taktika bat jarriko du abian, baina oso esanguratsua dena: bere auzotarren lurren jabetzaren eguneratzea, alegia. Adibiderik garbiena 1523an dugu. Errejimenduak, hiribilduak jasan zituen suteek eragindako notario-dokumentazioaren galera aprobetxatuz, aurreko hamarkadetan hainbat auzotarrei saldutako lursailak berreskuratzeari ekin zion; izan ere, dokumentaziorik gabe, auzotarrek ezingo zuten eskuratu zituzten udal-lur horien jabetza frogatu. Esan bezala, 1523an, udal gobernariak udalbatza ezberdinek azkeneko 40 urteetan saltzera behartuta egon ziren lursailen egoera zein zen jakiteko saiakera egin zuten. Erosleak salmenta eskriturak aurkeztera behartu zituzten; hala ez egitekotan, lurak errejimenduak hiri-ondasun deklaratu zituen eta, ondorioz, bere jabetzen zati izatera pasako ziren⁹.

2. Berrikuntzak erlijio munduan

Oiartzunen independentziak ez zuen Errenteriak ordura arte bere jurisdikzioan zituen lur edo biztanleen gaineko eskumen aldaketa bakarrik ekarri. Egoera horrek beste hainbat ondorio izan zituen, bai erlijio mailan, baita politika mailan ere.

Erljio mailan, kanpo eta barne aldaketen artean ezberdindu behar dugu. Lehenengoei dagokienez, ohartu behar dugu garai honetan Pasai Donibanetik Hondarribira zihoan Gipuzkoako lurraldea Baionako gotzaindegiaren barnean zegoela,

⁸ Adibideetarako, ikus EUA, C-5-IV-4ko 2, 3, 6, 8 eta 14 espedienteak; EUA, C-5-II-2-1; EUA, C-5-IV-1-1; JIMENEZ DE ABERASTURI, J. C. (zuz.): *Errenteriako Historia*. Errenteria: Errenteriako Udala, 1996, 98 orr.

⁹ EUA, A-1-2, 1.go pieza, 26 au.-29 au. folk.

Gipuzkoako Artzapez-Barruti Txikia osatuz¹⁰. Probintziako gainontzeko lurraldea, Kalagorriko gotzaindegiaren pean zegoen Deba bailarako barne-zati bat izan ezik, Iruñeko apezpikutzak bere gain zuen eremua zen. Ondorioz, Gaztelako Koroaren Omuga-lurralde bat, erlijio arloan atzerritarren esku zegoen eta beraz, Probintziako esparru handi batean, eragin erlijioso-politikoa errege gaztelarren interes ezberdinek zeharkatzen zuten. Egoera honen aurrean, XVI. mende hasieran, errege gaztelarrek Frantzia eta Nafarroaren eragina mozteko edo ekiditeko saiakerak indartu zituzten.

Azken erreinu horren konkistak eta Karlos V.aren aldeko gotzain iruindarraren izendapenak, Nafarroak Gipuzkoan zituen eskumenen inguruan neurririk ez harzea ekarri zuen eta orduz geroztik, Frantziaren eraginpean zegoen zonaldean



Oiartzungo Lartaungo Done Eztebe eliza. 1320tik aurrera hiribiduak bere gain politika eta ekonomia esparruak hartu bazituen ere, XVI. mende hasiera arte, bailara zen eskumen erlijiosoak zituena (Argazkia: panoramio.com/photo/32416947).

¹⁰ CURIEL YARZA, I.: *La parroquia en el País Vasco-cantábrico durante la Baja Edad Media (c.1350-1530)*. Bilbo: EHU-UPV, 2009, 43-48 orr.; FORTÚN L. J.: "Guipúzcoa y las diócesis de Pamplona y Bayona". In: ORELLA UNZUÉ, J. L. (arg.): *El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521)*. *Actas del Simposio celebrado en la Universidad de Deusto (San Sebastián) con motivo del Vº centenario del nacimiento de Ignacio de Loyola (1-5 Octubre de 1990)*. Bilbo: Ediciones Mensajero, 1991 491-501 orr.; eta TENA GARCÍA, M.ª S.: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía, (1200-1500)*. Donostia: Dr. Camino, 1997, 281-288 orr.

jarriko zuten begirada. Egoeraren behin betiko aldaketa 1566-1567 artean izan bazen ere, aurreko hamarkadetan hainbat berrikuntza izan ziren, urte gutxi batzutan gaztelar erregeen interesak nolabait aurrera egin baitzuten. 1524-26 urte bitartean adibidez, Artzapez-Barruti Txikiak independente izatea lortu zuten eta 1526tik 1532ko apirilera arte, Iruñeko eliz-barrutiaren zati izatera pasa zen. Orduetik eta 1567ra arte, baina, Baionakoaren barruan egon zen.

Honek guztiak esan nahi du gure ikerkuntza garaian Erreteriak hainbat aro edo etapa biziko dituela: denborarik gehiena Baionako gotzaindegiko zati izango bada ere, 1524 eta 1532 artean independente edo Iruñeko eraginaren pean (Gaztelarren interesen alde, beraz) egongo da. Eta egoera hau aktetan ageri zaigu, gai berdinetan gure auzotarrek gotzain edo eliz-epaitegi ezberdinetara joko baitute¹¹.

Baina hiribilduarentzat askoz garrantzitsuagoak izango dira barne aldaketak, horietako hainbat Oiartzunen independentziarekin lotuak. Nagusiena, dudarik gabe, Maria Donea Zeruratzea elizaren patronatua eskuratzea izango da. Harrigarria gerta badaiteke ere, gogoratu behar dugu 1320tik aurrera, nahiz eta bailara politikoki eta ekonomikoki hiribilduaren menpe egon, erlijio mailan XVI. mende hasiera arte Oiartzungo Lartaungo Done Eztebe parrokiaren pean egongo dela. Honek hiribilduaren elizarekiko lehentasuna mantendu zuen, bere parrokia izaera gordez, antzintasun handiagoa dela eta. Ondorioz, eliz-errenta nagusienak (hamarrenak eta hasikin edo lehenengo fruituak) bildu eta jasotzerakoan eta Erreteriarra zerbitzu erlijiosoan ematera zihoazen eliz-gizonen izendapenean, Oiartzunek bere agintea eta eskumenak mantendu zituen, hiribilduaren gainetik.

Jurisdikzio zibilarekin gertatu bezala, eliz-esparruan eman ziren lehen tirabirak hiribilduaren fundaziotik bertatik zetozen. Hiribildua sortu eta urte gutxitara, auzotarrek beraientzako propio izango zen eliza eraikitzeke eskaerak egiten hasi ziren, Oiartzunen urruntasuna eta bertara iristeko zeuden bideen egoera kaskarra zela eta. Askotan parrokia-eliza berri baten sorrerak, tenplu berriari hamarrenak eta hasikinak kobratzeko aukera eskaintzen zion, hau da, jatorrizko elizak errenta gutxiago jasotzea. Horregatik, ez da harriztekoa hasieratik Oiartzun eliza berriaren eraikuntzaren aurkako jarrera izatea eta horren inguruan Baionako gotzainak emandako mandatuak berehala ez betetzea. Eliz-errenten garrantziaren adibide gisa, Erreteria eta Oiartzunen banaketa erlijioso gertatu ondorengo urteetan jazotako iskanbilak ditugu; hala, 1516an Erreteriak salaketa jarri zuen korrejido-rearen aurrean; aditzera ematen zuenez, Oiartzungo auzotarrak bere jurisdikzioan indarrez sartu ziren, hamarrenak jasotzeko asmoz¹².

¹¹ Hainbat adibide EUA, A-1-2, 2. pieza, 29 at.-31 au.; EUA, A-1-4, 16 au.-17 au. eta 30 au.-at.; eta EUA, A-1-5, 1 au.-2 at. eta 18 at.-20 au. folioetan.

¹² EUA, E-4-III-1-1.

Eliza eraiki bazen ere, XVI. mende hasiera arte honek ez zuen parrokia izaera lortu. Hiribilduak egindako presioek erantzuna izan zuten eta hala, nahiz eta 1515eko erdialdera arte egia bihurtu ez, 1513ko martxoko Aitasantuaren bulda batek Oiartzun eta Errenteriako eliz-kabilduak behin betiko banatzen zituen. Halaber, hamarren eta hasikinen inguruan zera xedatzen zuen: ordutik parrokia bakoitzak bere jurisdikzioakoak zirenak jasoko zituen, horien laurdena Baionako gotzainarentzat izango zirelarik¹³.

Halaber, 1513ko dokumentuak bailararen eragina moztu zuen beste esparru garrantzitsu batean. Momentu hartara arte Oiartzungo eliz-kabilduak hiribilduko bikario eta benefiziodunak izendatu bazituen, hau da, Errenterian zerbitzu sakratuak egiten zituzten kargu erlijiosoak, ordutik eskumen hau hiribilduaren esku geldituko zen. Hala, horietako karguren bat hutsik gelditzekotan, heriotza edo uko egiteagatik, auzotarren batzar orokor batek egingo zuen hautaketa. Izendapena gotzainari jakinaraziko zitzaion eta honek izango zuen azken hitza, akordioa berretsiz edo ezeztatuz¹⁴.

Azken esparru honetan beste aldaketa garrantzitsu bat jazoko da, 1527 urtea baino lehenago, Errenteriako auzotarrek bikarioa eta benefiziodunak izendatzeko ahalmena errejimenduaren alde besterenduko baitute¹⁵. Ondorioz, eliz kargu berriak hautatzeko ahalmena udalbatzak izango zuen, nahiz eta izendapena egin ondoren, erabakia batzar ireki batean aditzera eman. Eskumen honen bidez, esparru hori gobernu politikoa kontrolatzen zuten familia garrantzitsuenen esku gelditzen zen, beraien hainbat interes aurrera ateratzeko plataforma bihurtuz, ahaide edo lagunak kargu horietan izendatzen zituztelarik. Ziurrenik eliz kargu hauen biziarteko baldintza, bereziki benefiziodunena, esparru honetan hamaika eztabaida sortzearen arrazoia izango da. Izan ere, hauek biziarteko karguak ziren eta politikoak, aldiz, urtero aldatzen ziren.

3. Probintzia-egituran izandako aldaketak

Aurreko berrikuntza edo aldaketekin batera, 1491-95eko gertakarien ondorioz sortzen den testuinguru berriak Gipuzkoako Probintziaren antolakuntza politikoa eta bere Batzarretan ere eragina izango du. Oiartzunen independentziak Gipuzkoako lurraldean entitate berri baten sorrera ekarriko du, eta Probintziaren egituraketan izango zuen ordezkartzaren inguruan neurriak hartzea beharrezkoa izan zen.

¹³ AZCONA T. de: "La creación de la parroquia de Rentería en 1513". In: *Oarso*, 1986, 19-20 orr.

¹⁴ EUA, A-1-4, 162 at. fol.

¹⁵ EUA, A-1-2, 3. pieza, 9 at.-11 au. folk.

Oiartzunen nahiak bere independentziaren ildotik areagotuko badira ere, Batzarretan berezko ordezkari izatea bailararen erreklamazio zaharren artean zegoen. Ordura arte, Erreteriak izendatutako prokuradoreak izan ziren bi populazioak ordezkatu zituztenak eta ondorioz, hiribilduaren interesak ziren Probintziako batzarretan islatzen zirenak. Pentsa dezakegunez, Oiartzun honen aurka zegoen.

Baina ordezkari propio bat izateko asmoekin batera, bailarak beste helburu batzuk ere zituen buruan. Hala, Ermandadeko alkatea hautatzeko eskumenagatik borrokatu zen eta lorpen honen bidez, Probintziako ordezkariak biltzen ziren lekuetako bat bihurtzeko asmoa erakutsi zuen, hau da, batzarleku izatea.

Ermandade-alkatea Probintziako Ordenantzetan jasotako delituak jazartzen zituen ofiziala zen. XIV. mende amaieran, 1397an, Gipuzkoako Ermandadeak alkatetzak 8 barrutitan banatu zituen. Erreteriak eta Oiartzunek Donostiako barrutia osatzen zuten, Astigarraga, Donostia, Hondarribia eta Usurbilekin batera. Alabaina, barrutietan Batzarretan ordezkari izatea zuzena zuten populazio guzuek bazeuden ere, alkatearen izendapena hura osatzen zuten gutxi batzuen esku besterik ez zegoen. Gure kasuan, eskumen hau Donostiak, Hondarribiak eta Erreteriak bakarrik zuten. Izendapena egiteko txandak 4 urteko epean oinarritu ziren: Donostiak bi urtetan egingo zuen eta Hondarribiak eta Erreteriak, aldiz, bakoitzak urte batean.

Ermandadeko alkatearen izendapenak probintzia-bileren ospatze-lekua mugatu zuen, izendapena egiteko eskumena zuten hiribildu eta populazio guzuetan bakarrik bilduko baitziren. Ondorioz, Gipuzkoako geografian erakunde independente izateak ez zuen ziurtatzen guzuek horien berdintasun politikoa, baina eskumen gehiago lortzeko lehen pausoa izan zitekeen. Horregatik, Oiartzunek ordezkari propioa eta zuzena izateari ekin zion eta hau lortu ondoren, horrek ahalbideratu zitzakeen beste aginpide batzuen inguruko eskaerak egiten hasi zen.

Esparru hauetan bailarak borroka gogorra izan zuen, legedia ere bere aurka baitzegoen. 1463ko Ermandadeko ordenantzek Erreterierekiko menpekotasuna xedatzen zuten neurriak jasotzen zituzten eta halaber, Errege Katolikoen 1491ko epaiak prokuradoreen izendapena Erreterieraren esku bakarrik uzten zuen. Oiartzunek, baina, ez zuen amore eman.

1505eko uztaileko errege-probisioaren bitartez, erreginak bi populazio guzuei beraien prokuradore propioa izendatzeko ahalmena eman zien eta halaber, Probintziako gastuak era bananduan ordainduko zituztela xedatu zuen. Erabaki hauek 1509ko apirilean ospatu ziren Zestoako Batzar Nagusietan berretsi ziren, eta bertan Oiartzunek ordezkari propioa izateari baiezkotzea eman zitzaion. Orduz geroztik, bailarak batzarleku izateko borroka areagotuko du eta Erreterierekin mendeetan zehar izandako talken lekuko, Batzarreetan hiribildua baino lehenago esertzeko

eta bozka emateko egin zituen ahaleginak ditugu, Probintziaren gastuen zati handiago bat ordaintzen zuela argudiatuz.

Berezko ordezkariak lortu eta gutxira, Seguran 1509ko abenduan ospatu ziren Batzar Nagusietan, Oiartzunek bere eskaerak argitara eman zituen; batetik, batzarleku bezala onartua izan zedin eskatzen zuen eta bestetik, Ermandadeko alkate karguaren ingurukoak azaldu zituen. Azken hauei dagokienez, Oiartzunek Errenterriak eta berak osatutako barruti berri baten sorrera eskatzen zuen, non bailarak alkatea 3 urtetik bitan izendatuko zuen eta hiribilduak, bestean. Baina Segurako Batzarrak ez ziren Oiartzungo eskaeren alde azaldu: Ermandade-alkateari eta batzarleku izateari buruzko neurriak errefusatu zituzten eta bozka emateko eta esertzeko lehentasun eskaerei dagokionez, ikerketa edo frogaketa bat egitea erabaki zuten.

Egoera urte gutxiren buruan aldatu zen. 1520ko apirilean, Ordiziako Batzar Nagusiek bailararen Ermandade-alkate bat izateko eskaera onartu zuten. Kasu honetan gainera, neurria haratago zihoan, kargua Oiartzunerako bakarrik izango zela adostu baitzen; hau da, alkate berri bat sortzen zen, Donostiako barrutitik bananduz.

Erabaki honek auspoak harrotu zituen eta inoiz ez bezala, Donostiak eta Errenterriak bat egin zuten hartutako erabakien aurka. Kontuan hartu behar dugu Oiartzunek lortutakoa ordura arteko egoera aldatzen zuela eta baita errotik aldatzeko aukera eman ere; hala, antzeko egoeran zeuden hainbat hiribildu eskaera berdina egin zezaketen eta ondorioz, antolatua zegoen hiribildu gutxi batzuen aldeko botere-oreka hori, non onuradun nagusienetako bat Donostia zen, apurte zitekeen.

Erabakien kontra azaldu zirenen saiakerek ez zuten, ordea, helbururik lortu: 1521eko apirilean Migel Eleizaldekoa Oiartzungo lehenengo Ermandade-alkate bihurtu zen eta 1526ko apirilean Errenterian ospatutako Batzar Nagusiek, Ordiziako akordioak berretsi zituzten, bat salbu: hiribilduan egingo ziren Batzar Nagusietan, geografikoki gertuena zen bailarako Ermandade-alkatea (Oiartzungoa, alegia) joateko eskaera hain zuzen. Donostia eta berarekin zeuden beste hiribilduek auzia errege-azialdietara eraman bazuten ere, Oiartzun garaile irten zen. Errege Kontseiluak 1540ko urtarrilaren 29an emandako epaian, bailarari berezko Ermandade-alkatea izateko eskubidea berretsi zion eta Ordizian adostutakoa baieztatu egin zuen¹⁶.

¹⁶ HH. EE.: *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*. Donostia: GFA, 2002.

II.

HIRIGUNEA ETA ONDASUN HIGIEZINAK

Aro berri honen hasieran emango den beste ondorio garrantzitsu bat, harresi barruko esparruaren moldatze eta berrantolaketa izango da. Hasiera batean hori bideratzeko arrazoirik nagusienek gerrak sortutako ondorioetan izango dute oinarri, bereziki 1476 eta 1512ko suteen ondorioz. Hau dela eta, harresiak indartu eta berri-tu egingo dira eta halaber, defentsarako azpiegitura berrien sorrera bultzatuko da.

Baina hiri garapenari lotutako kezka, badiak izango duen berezko garapen ekonomikoaren erakusle ere izango dira. Hazkunde honen ondorioz bi prozesu azpimarratu ditzakegu: batetik, hainbat ondasun higiezinaren eraikuntza edo eskuratzea, garraiolari zein merkatarien beharrei erantzuteko. Hauen artean lonja da dudarik gabe eraikinik azpimarragarriena, baina dinamika horri lotuta, burdinolak eta errotak ere protagonista izango ditugu; azken hauek, gainera, lehen mailako produktuen hornidura kontrolatzeko tresna bihurtuko dira.

Bestetik, eta merkataritzaren gorakadaren itzalean, pertsona gehiagoren finka-pena emango da. Batzuetan harresi barruko esparruan beraien bizitokia topatuko dute, baina gehienetan hauetatik kanpo ezarriko dira, batez ere hirigunearen ondoan sortuko diren errebaletan.

1. Koroen arteko gerra, etengabeko arriskua

Errenteriaren historia egiterako garaian, hainbat egilek azpimarratu izan dituzte frantziar eta nafar gudarosteek 1476an eta, bereziki, 1512an eragindako suteak eta hauek hiribilduan izan zituzten ondorio larriak. Aipatutako bigarren urtean gertatutakoak hiribilduaren ia suntsiketa osoa ekarri zuen; hau dela eta, ikertzaile batzuek Errenteriako Aro Berria orduan hasi zela adierazi dute. Baieztapen honen inguruko balorazioetan sartu gabe, bi gertakariak Gipuzkoa inguruetan hainbat monarkiek zituzten interesen emaitza izan zirela esan dezakegu.

Isabel I.a erreginak Gaztelako tronua eskuratzearen ondorioetariko bat, ordura arte Gaztelako monarkiak mantentzen zuen harreman internazionalen aldaketa izan zen, Frantziarekiko adiskidantza politika etsaitasunean bihurtuz. Halaber, Ehun Urteko Gerraren ondorioz, 1453an, Frantziak ordura arte Ingalaterrako koroaren zati zen Akitania berreskuratu zuen. Ondorioz, muga egiten zuten lurraldeetan gerra arriskua areagotu zen eta baita horrek sortzen zituen ondorio ekonomiko eta demografikoak ere. Gipuzkoak ez zuen asko itxaron egoera berria pairatzeko. 1476an Errenteriak eta Oiartzunek beraien lehen sute ezaguna jasan zuten, Albreteko jaunak gidatutako tropek Hondarribia setiatzeko kanpainian eragindakoa. Orduz geroztik alerta-egoera ia etengabekoa izango da, eta Gipuzkoa eta bere biztanleak XVI. mendean zehar dinamika horretan sartuta egongo dira hainbat modutan.

Frantzia eta Gaztelaren arteko tentsioa XVI. mendearen hasieran areagotu egin zen, besteak beste bigarrenak 1512ko espedizio ingelesari laguntza emateagatik. Azken honek Guyena zeritzon lurraldea (Lapurdi) Ingalaterrako koroarentzat berreskuratzea bilatzen zuen. Geratariak eragin zuzena izan zuen Errenterian tropen lurreratzea Pasaian izan baitzen, ekainaren 8an, eta hurrengo egunean kanpaldia gure hiribildutik gertu egin baitzuten. Azkenean espedizioak ez zuen bere helburua lortu eta hala, gipuzkoarrek gidatutako ontziterian, ingelesek urte horretako urriaren 24an itzulerako bidaia hasi zuten, Donostia, Errenteria-Pasaia, Getaria eta Hondarribian itsasoratuz.

Tropen atzera-egite honek ondorio latzak izan zituen gurean. Egoera aprobetxatuz, eta Nafarroako gaztelar konkistaren testuinguruan, nafar-frantses gudarosteek erasoak jo zuten, Donostia eta Hondarribia setiatuz eta inguruak arpilatuz. Errenteriantzat emaitza ezin okerragoa izan zen, erasoak hirigunearen harrapaketa, erreketak eta suntsipena ekarri baitzuen. Nahiz eta Lezoko eta Pasaiaiko auzotarren laguntza jaso, hiru etxek besterik ez zuten zutik iraun, Martin Perez Gabiriakoarena, Juan Zuri Zubieta-koarena eta Martin La Renteria-koarena. Hala zioten lekukotzek:

“no quedó ningund hedefiçio de casa en la dicha villa saluo las casas de Martín Pérez de Gabiria y de Joan Çuri de Çubieta y la casa antigua del capitán Martín de La Rentería. Que después que se retiraron los dichos françeses, alguna gente que del dicho lugar del Pasaje y del dicho lugar de Leço fueron a la dicha villa y con harto trabajo mataron el fuego que avía en las dichas casas se escaparon”¹⁷.

¹⁷ EUA, E-5-III-1-4, 285 au.-at. folk.

Ondorioz, soldadu ingelesei beraien etxeetara itzultzen lagundu zieten marinelen zein itsas-gizonek, minez eta atsekabez bete zituen irudi bat ikusi zuten bidaiari horretatik bueltatzerakoan. Halaxe zioen Sabad Iasakoak:

“este testigo fue de la dicha villa de La Rentería en vna nao de Martín de Arizabalo, vezino de la dicha villa, al regno de Ynglaterra, en vno con otras naos que fueron d’esta costa de la mar, con los yngleses que al tiempo estauan en esta Prouinçia de Guipúzcoa para los llebar al regno de Ynglaterra. Y al tiempo que boluió del dicho viaje a la dicha villa de La Rentería, vio que la dicha villa y casas y yglesia d’ella estauan quemadas y muchos vezinos d’ella, espeçialmente mugeres, absentes de la dicha villa”¹⁸.

Tentsioa urte gutxiren buruan itzuli zen. Berriz ere, Nafarroako erresumaren konkistaren inguruan, nafar-frantsesek berreskuratze kanpaina bati ekin zioten. Oraingoan honek arrakasta izan zuen eta Gipuzkoan bertan ondorioak izan zituen, Hondarribia beraien esku geratuko baita 1521ko erdialdetik 1524ko martxora arte¹⁹.

Hori gutxi balitz, azken gertakari hauek baino hilabete batzuk lehenago, Erreterian eragin zuzena izan zuten beste hainbat gertaera eman ziren. Kasu honetan, Gaztelako Komunitateen Iraultzaren testuinguruan Gipuzkoan bizitako barne gatazkaz ari gara. Izan ere, 1520ko azken hilabeteetan eta 1521eko hasierakoetan, Probintzia barne-arazo batek astindu zuen. Lurraldea bitan zatitu zen eta istiluak armak hartzeraino iritsi ziren. Esan bezala, Erreteria lehen mailako protagonista bihurtu zen Cristóbal Vázquez de Acuña korrejidorearen izendapenaren inguruan sortu zen arazo honetan. Honen aurka Tolosa, Ordizia, Segura eta Hernani buru zituen taldea agertu zen; talde honetan, gainera, Oiartzun zegoen, zalantzarik gabe Erreteriarekin zirauten istiluen adibide bat delarik.

Hala, korrejidorearen aurka azaldu zirenek Irun, Donostia eta Erreterian erasoak burutu zituzten. Udal aktek hainbat berri utzi dizkigute hauen inguruan: defentsarako prestaketak (harresiak eraikiz eta azpiegiturak hobetuz) eta lan horietan parte hartu zutenen hainbat izen, hala nola Altxate, Zabaleta eta Zarauzko jaunena.

1512-1524 urte bitartean arazorik larrienak gertatu baziren ere, Gaztela eta Frantziaren tentsio belikoek ondorengo hamarkadetan jarraipena izango dute.

¹⁸ Ibidem, 297 au. fol.

¹⁹ Gertakari hauen inguruan Gipuzkoan bizi izan zen egoerarako, ikus TELLECHEA IDÍGORAS, J. I.: *Hernán Pérez de Yarza, alcaide de Behobia. Las Comunidades y la guerra de Navarra (1520-1521)*. Donostia: Dr. Camino, 1979; AZCONA, T. de: “Las relaciones de la Provincia de Guipúzcoa con el reino de Navarra (1512-1520)”. In: ORELLA UNZUÉ, J. L. (arg.), aip. lan., 283-329 orr.; ESARTE MUNIAIN, P.: *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico*. Pamplona-Iruña: Pamiela, 2001; eta IRIJOA CORTÉS, I.: *Gipuzkoa, “so color de Comunidad. Conflicto político y constitución provincial a inicios del siglo XVI*. Donostia: GFA, 2006, 238 orr. (<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas04-es.php> helbidean eskuragarri).

Lehenengo ikarak eta usteak 1534ko urtarrilean ditugu. Orduan, errejimenduak armak eskutan izan behar zituzten eta erregeen zerbitzura egon behar zuten pertsonen errolda eta errepartimendu bat egitea agintzen zuen. Bi ziren zerrenda hau egiteko arrazoiak: batetik, garai hartako arma eskasia eta bestetik, hiribilduaren egoera. Hala, udalbatzak zera adierazten zuen: “*estábamos en frontera e abía fama que se hazía gente en França*”²⁰. 1535-1538ko aktarik ez izateak hiribilduan izan ziren ondorioak jakitea galarazten gaitu, baina badugu ondorengo gerra kapituluaren berririk, 1541-1544 artean eman zena.

1542ko abuztuan, adibidez, hiribilduko haragi-hornitzaile zen Urruñako auzotar Martikot Irigoitiakoak, errejimenduari honek Erreneriako jurisdikzioan zuen azienta ziurtatu ziezaioten eskatzen zion. Arrazoa honakoa zen: “*se espera guerra entre França y España porque abía venido mucha gente de armas de guerra a la çudad de Bayona e se temía que entrasen en esta provinçia*”²¹. Urrirako gerraren ondorioak nabarmenagoak ziren, merkatal trafikoan eragina izan zutelarik. Juan San Vitoreskoa lonja-errentatzaileak kexa garratzak jakinarazten zituen: gerraren ondorioz, inguruko burdinolen jarduera etenda zegoen eta beraz, lonjan ez zegoen haietatik bertara pisatzera eramaten zen burdinik, udal errentarik nabarmenaren eta San Vitoresen kaltetan²².

Egoerak ere, justiziaren jarduera eta hainbat auziren garapena baldintzatu zuen. 1544ko abuztuan, adibidez, korrejidoreak Oiartzun eta Erreneriaren artean zegoen ahuntz batzuen atzematearen inguruko auzia 30 egunez bertan behera utzi behar izan zuen, frantziar tropen sarreraren inguruko zurrumurruek zirela eta²³.

Ondorioz, ez da harritzekoa Erreneriako errejimendua Lapurdiko auzotarrekin akordio batera iristea, bestetan sinatu zituzten komenioak mantentzeko; helburua, aurrekoetan bezala, gerrak ekonomian izan zezakeen eragina ahalik eta gutxienekoa izatea zen²⁴.

Eragin zuzenez gain, Monarkia Katolikoak beste leku urrun batzuetan aurrera eramane edo planteatu zituen guda ekintzek sortutakoak ditugu; besteak beste, Turkiarraren aurka Mediterraneoan zehar izan zirenak. Gogoratu behar dugu, Granadako konkistaren ondoren, inguruetako etsai musulmanik nagusia Inperio Otomandarra zela²⁵. Gatazka hau gainera, Frantzia eta Gaztelaren artekoa baretzen

²⁰ EUA, A-1-4, 7 au.-9 au. folk.

²¹ EUA, A-1-5. 152bis au. fol.

²² Ibidem, 157bis at.-158bis at. folk.

²³ EUA, C-5-II-9-1.

²⁴ EUA, A-1-5, 155bis at.-156bis au. folk.

²⁵ Ikus LAPEYRE, H.: *Las monarquías europeas del siglo XVI. Las relaciones internacionales*. Barcelona: Nueva Clio, 1979.

zenezan areagotzen zen. Musulmanekin izandako tirabira nagusienak 30eko hamar-kadatik aurrera emango dira, Aljeria eta Tunisiako kanpainekin, bereziki. Guretik milaka kilometrora gertatu baziren ere, espedizio hauek udalbatzen finantza eta ogasunetan eragin zuzena izan zuten, Arrasateko kasuak erakusten ondo duen bezala. 1535ean antolatu zen eta gure auzotar Martin La Renteriakoa ontzidi-buru zuen espediziorako, adibidez, erregeak Probintziari gizonak eskatu zizkion²⁶.

Testuinguru honetan, ez da harriztekoa udal agintarien kezkarik larrienetako bat biztanleriaren defentsa izatea, tartean hiribilduko harresien konpontze, prestatze eta hobekuntza lanak zeudelarik. Batetik, mugaldeko eskualde batean oinarritzko defentsa baldintzak izateko; baina bestetik, hiritar eta landa munduaren banaketa sinbolikoa islatzen zuen elementua mantentzeko.

2. Hirigunearen garapena

Harresiek inguratzen zuten eremu barnean zeuden etxe, kale eta eraikinak inguruneke erreferentzia sinboliko nahiz fisikoa ziren. Ikuspegi ekonomiko batetik, gune horretan azokak eta truke nagusiak ematen ziren, udalbatzak, horiek bertan egiteko eskumen eta araudia baitzuen. Politika aldetik, harresiek hiribildua errebaletatik eta, bereziki, landa eremutik, bere jurisdikziopean zegoen lurretik, bereizten zuten; eta gogoratu behar dugu hirigunetik kanpo bizi zirenek, honekiko eta bertan bizi ziren auzotarrekiko hainbat betebeharrak eta murrizketa zituztela. Azkenik, hiribilduetako hesiek osasun aldetik beraien esanahi eta erabilgarritasuna zuten; besteak beste, izurriteak izaten ziren garaietan, ateak ixtearekin batera, kutsatutako pertsonak hiribildu barruan sartzea ekiditen baitzuten²⁷.

Nahiz eta babes-azpiegiturak izan, guda-gertakari ezberdinen ondorioek harresiek inguratutako eremua berreraikitzeke lanak behin baino gehiagotan oztopatu zituzten. Hainbatetan, gertaera lazarri horien ildotik hirigunetik urrun lurrak eta etxeak zituzten familia edo pertsonak, horietan bizitzen bukatzen zuten. Gainera, ondorioen arabera, hemen ematen zuten denbora luzatu zitekeen eta horrek hirigunea uste baino motelako berreraikitzea eta populatzea zekarren. Halakorik gurean dokumentatua badugu. Hau ikusteko ez dago 1514 urtean hiribilduak erregeen aurrean esaten zituenak irakurtzea besterik: *“nyngund veçino de la dicha villa quiere hedificar casas en ella syn que primeramente sean reparadas las çercas de la dicha villa e abiendo las cavas de manera que puedan estar seguros”*²⁸.

²⁶ LEMA, J. A.; ROCHA MARTÍNEZ, C.; eta VILLANUEVA ELIAS, E.: “La respuesta de un concejo guipuzcoano ante la guerra: Mondragón, 1500-1540”. In: *Sancho el Sabio*, 12 (2000), 11-36 orr.

²⁷ Ikus ARIZAGA BOLUMBURU, B.: *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*. Donostia: Kriseilu, 1990, 107 orr. eta hh.

²⁸ AGS. RGS. 1514-V.

Horietako auzotar bat Fernando Gabiriakoa izan zen. 1520an udal haustekundeetan gehiago parte ez hartzeko eskaera egiten zuenean, argudioetako bat 1512ko gertakariekin zerikusia zuen. Hain zuzen ere, orduan hiribildu barruan zituen etxeak (oso onak –“*muy buenas*”-, bere esanetan) erre zitzaizkiolaren ondorioz, “*se retraxo a bibir fuera de la villa a una su casería que tiene a media legua d’ella*”, alegia, hiribildutik ia 3 kilometrora²⁹.

Baina eragozpenak eragozpen, zalantzarik ez dago Errenteriak bere hirigunea gure garaian handitu zuela. Aitzindariak XIV. mende amaieran koka ditzakegu, azkeneko ikerkuntzek Kapitanenea kalea ordurako hiritartua zegoela azpimarratu baitute, hau da, uste zena baino 100 urte lehenago. Baliteke prozesu honek 1381ko epaiarekin zerikusia izatea. Orduan, Oiartzungo auzotar eta biztanleei hiri barnean etxeak izatera behartzen zitzaien eta ondorioz, hiriguneko populazioa handitu eta bere lehen hedapena emango zen, jatorrizko gunetik iparralderantz, badiarantz³⁰. Hala, Goiko Kale, Eliz Kale, Erdiko Kale eta Beheko Kalek osatzen zuten hasierako oinplanta karratuak hiruki formako baten itxura hartuko zuen. Ondorioz, Oreretan fundatutako hiribilduak lehen bultzada demografiko bat izango zuen XIV. mende amaieran. Baina ez da bakarria izango.

Berreraikitze eta zabaltzearen beste datu batzuk ikertzen dugun garaitik gertu ditugu, 1476ko erreketaren ondoren eta honen ildotik. 1479ko abuztuan, udalbatzak gune harresitua berreraikitzeke asmoa agertu zuen eta baita “*faser en ella casas e la ensanchar e acreçentar el seyño e edifiçios e reparos d’ella*”; horretarako, erregeei baimena eskatzen zien hainbat “*prados e juncares que están çerca de la dicha villa, que son comunes de la dicha villa e de la tierra de Oyarçun*” hartzeko³¹.

Asmo hauek arrakasta izan zuten, 15 urte beranduago, 1494an, harresi barruan zeuden eraikinak ez baitziren biztanleriaren hirigintza-beharrak asetzeko lain. Orduko asmoa harresiak zabaltzea zen, hiribilduak izandako demografia hazkundera dela eta: “*la dicha villa de Villanueva de Oyarçun se ha poblado de manera que es menester acresçentarse la çerca de la villa*”³². Urte horietan, gainera,

²⁹ AGS. CC. Memoriales y expedientes, 136-47.

³⁰ SARASOLA, N.: “La muralla de la Villa de Errenteria: Intervención arqueológica en el solar Kapitanenea 16”. In: *Oarso* (2006), 44-47 orr. Ald. IBÁÑEZ ETXEBERRIA, A.; eta AGUIRRE-MAULEÓN, J.: “Consideraciones arqueológicas en torno al urbanismo en Rentería en el siglo XVI”. In: *Bilduma*, 10 (1996), 29-43 orr. 1381eko epairako, ikus CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo I (1237-1470)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991, 17. dok.

³¹ AGS. RGS. 1479-VIII, 21 fol.

³² CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; y GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 84. dok.

halako ekimenek erregeen oniritzia zuten, mugaldean zeuden populazio guneen babes-azpiegiturak hobetzeko eta indartzeko proiektua martxan jarri baitzuten³³. Horregatik, ez da harritzekoa hainbat urte geroago, 1503an, erregeek Juan Otsoa Altzatekoarena zen lursail bat erabiltzeko mandatua ematea. Lurra harresiaren eta ibaiaren artean kokatuta zegoen eta harresiaurre edo gotorleku bat eraikitzeko helburuarekin erabili nahi zen³⁴.

Udal aktetan, azken azpiegitura honen inguruan hartutako neurri batzuei buruzko berriak jasota geratu dira. 1523ko martxoaren 18an, adibidez, hainbat auzotarrek errejimenduari ordainketa-erreklamazio bat egiten zioten, harresira eta gotorlekura bideratutako harri eta kare hornidura egiteagatik. Halaber, badakigu errejimenduak garai honetan Onofre Isastikoari harresi ondoan zuen baratze bat hartu ziola, “*para hazer un baluarte*” helburuarekin. Datuen gertutasuna ikusita, litekeena da adibide hauek testuinguruarekin lotura estua izatea, bereziki 1520-1521eko istiluek eragindako kalteekin³⁵.

Alabaina, gure epe kronologikoan harresien inguruan burutu ziren beste hainbat hobekuntza ez zeuden premia militarrei lotuak, hirigintza-beharrei baizik. Horren adierazle, gure garai osoan errejimenduak isunen bidez bildutako diruaren zati bat horietara bideratzen zuela da. 1523 urtean harresi “zaharren” inguruko aipamen bat badugu; egoeraz gain, uste dugu datuak ere antzinako azpiegiturari erreferentzia egiten diola, XV. mendearen amaierako zabaltzea egin zenean baino lehenago eraikitakoari, hain zuzen ere³⁶.

Ondorioz, Laurehunaren amaieran eman zen hirigintza-eraldaketak ez zuen aurreko harresiaren eraistea ekarri; aitzitik, hau mantendu egin zen, berria hainbat metro aurrerago eraikiz. Honen erakusle 1542an Gillen Isastikoaren eta Grazia Hendarakoaren artean eman zen eztabaida dugu. Hau lursail baten jabetzaren ingurukoa zen, zehazki, Jeronimo Isastikoaren baratzeen eta gotorlekuaren ondoren eta bi harresien artean (“*en medio de las dos cercas*”) zegoen bati buruzkoa³⁷.

³³ Donostian eta San Pedron egin nahi ziren lanen inguruan, ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación medieval de los archivos municipales de Lezo (1470) y Pasaia (1361-1520)*. Donostia, 2011 (argitaratu gabe), 46. dok.; eta IDEM: *Pasaia: hastapenak (XIV-XVI. mendeak) / Pasaia: orígenes (siglos XIV-XVI)*. Pasaia: Pasaia-ko Udala, 2009, 101 orr. Ikus baita, AGS. RGS. 1496-VIII, 6 fol.

³⁴ AGS. RGS. 1503-I, 187 fol.

³⁵ EUA, A-1-2, 1.go pieza, 26 au.-29 au., 37 au.-40 au. folk., eta EUA, A-1-5, 93 au.-at. folk.

³⁶ AYERBE IRIZAR, M.: “Errenteria. Orereta, 7. Torrekua dorretxea / Orereta, 7. Casa-torre Torrekua”. In: *Arkeoikuska* (2009), 357-358 orr.

³⁷ Ald. EUA, A-1-2, 1.go pieza, 50 at.-51 au. folk.; ibidem, 4. pieza, 7 at.-8 at. folk.; EUA, A-1-5, 155 at.-156 au. folk.



Gotorlekuaren eraiste lanak XX. mende hasieran, Eugenio Figurskik ateratako argazki batean (Irudia: Errenteriako Udal Artxiboa).

“Jesus Hominum Salvator” esaldiaren anagrama osatzen duten “IHS” hizkiak Andre Mari kaleko etxe bateko sarrera-arkuaren klabeetan ikusi dezakegun dekorazio elementuen adibide hau, XV. mende amaieran edo XVI. mende hasieran ugaritzen hasi zen (Argazkia: Iago Irijoa Cortés).



Batzuetan kexu hauek harresiak biltzen zuen gunearen arrakastaz eta horrek eskualdeko biztanleez haratago koentzat zuen erakarpenaz hitz egiten digute. Hala ikus dezakegu Martin Gabiriakoak 1542an aurkeztutako salaketan. Martin kexu zen Graziana izeneko emakume bat, hiribilduan jaiola ez zena, etxetxo bat eraikitzen hasia zelako, non eta “*donde el conçejo tiene echada mucha tierra por fortificar la villa*”³⁸. Salaketak bi gauza islatzen ditu. Batetik, halako higiezinak eraikitzeke hiri-lurzorurik ez zegoela. Bestetik, hirigunean zegoen behar hau ez zela bakarrik hiribilduko auzotarrena, baita beste hainbat lekutatik etorritako jendearena ere. Honek, Erreteriarik beste eskualde batzuetako pertsonak erakartzen zituela adierazten du, zalantzarik gabe badiaren garapen ekonomiko garrantzitsuaren ondorioz.

Honen ildotik, eta hainbat daturen bidez, gerra gertakarien edo izurriteen gainetik gure hiribilduak garapen demografiko positiboa ezagutu zuela antzeman daiteke³⁹. Errebalaren eraikuntza edo hiri-lurzorua aprobetxatzeko gabezia gain, 1535eko abuztuko datu batek ere ideia hori adierazten du: orduan, auzotarren batzar orokor batek Magdalena ondoko zelaietan zeuden lurra erostea erabaki zuen, bertan hainbat etxe eta tailer eraikitzeke asmoz⁴⁰. Demografia hazkunderen ideia bera ondoriozta dezakegu elizaren handitze-lanak burutzerakoan, hauek aurrera ateratzeko lurrik gabe geratu zirenean. Hasieran, lan horiek azpiegitura hori konpontzeko eta hobetzeko beste helbururik ez zutela pentsa genezake; baina ez dago zalantzarik esparru sakratua handitzeko lanak geroz eta eliztar kopuru handiago bati behar den moduko zerbitzuak emateko izango zirela⁴¹.

Azken finean, hirigintza-kezka hauek guztiak udal-agintarien ohiko arazoetako batzuk ziren. Hainbat hiribildutan halako esparruak legedi zehatz eta zorrotza zuen eta babes-egiturak hobetzea besterik bilatzen ez zuen araudi bat baino askoz gehiago zen. Ongi antolatutako hirigintza batek, etxeen altuera eta sakontasunari buruzko xedapenen bidez arautua, edota osasungarritasun-baldintzei eta garbitasunari buruzko ordenantzek, hiribilduaren eta populazioaren izen onean eta ospean ere berebiziko eragina zuten.

Erreterian ez dugu halako ordenantzarik gure garairako. Bada 1544ko ordenantzetan txerriak gune itxietan haztera behartzen duen kapitulu bat, besteak beste kaleko-zoruan eragiten zituzten kaleengatik; baina, hori kenduta, gehiagorik

³⁸ EUA, A-1-5, 139 at.-140 at. folk.

³⁹ Badakigu 1524, 1541 eta 1542 urteetan izurriteak pairatu zirela. Ikus EUA, A-1-2, 2. pieza, 19 at., 50 au.-52 au. eta 63 au.-64 au. folk.

⁴⁰ EUA, A-1-4, 89 au.-90 at. folk.

⁴¹ EUA, A-1-2, 3. pieza, 28 at.-29 au., 30 au.-33 au. folk.

ez dugu⁴². Horrek, dena den, ez du esan nahi nolabaiteko araudirik ez zegoenik; aitzitik, badakigu –idatziz jaso ez badira ere- urteetan zehar hirigintzarekin zerikusia zuten hainbat erabaki hartu zirela. 1494ean hiribilduak lortu zuen errege-probisioan, etxeak harresiez kanpo eta hesien kontra eraikitzea debekatzen zen, hori egiten zuenari eraiste isuna jarritz⁴³. Xedapen hau ondorengo urteetan indarrean egongo da baina aldaketa txiki batekin; izan ere, eraikuntza egiteko errejimenduaren baimena beharrezkoa izango da eta gainera, honek eraikinaren eraispn edota berreraikitze agindua emateko eskumena bere gain hartuko du⁴⁴. Hauez gain, eraikin berrien inguruko neurriak ere jarri ziren: besteak beste, altuera ezin zen ganbara bat baino altuagokoa izan eta, 1527an Isasti batxillerraren oinordekoen aurkako salaketak islatzen duen bezala, etxearen handitzeak kalea okupatzen bazuen, ezin zuen oinezkoen pasabidea eragotzi⁴⁵. Halako neurriak denda, tailer, errementeri eta ogibideekin zerikusia zuten eraikinei ere ezarri zitzairen, ez baitugu ahaztu behar halako azpiegiturak etxeen beheko solairuetan ezartzen zirela.

Halaber kale, ubide eta erretenen garbiketari buruzko mandatuak egongo dira; horiekin batera, partikularrek egiten zituzten kaien ikuskatzeak edo udalbatza-erai-kinen mantentzeari lotutako neurrien berri izango dugu⁴⁶.

Hirigunea narriatzen zuten eragilerik nagusienak suteak baziren ere, Errenterian garrantzia duen beste bat dugu, hiribilduaren kokapenarekin zuzenean lotutakoa. Gogoratu behar da historian zehar Errenteria badiaren ondoan kokatua egon dela eta urez nahiz itsasgoran ureztatzen ziren paduraz eta zingira-lurrez inguratua. Ondorioz, itsasoa kalte ugari sortuko dituen eragilea izango da. 1497an hiribilduko kaia eraikitzeko eta konpontzeko beharra aipatzen zen, itsasgorek sortutako kalteak zirela eta; dirudenez, ura hirigune barruraino sartzen zen eta etxeei kalte handiak eragiten zizkien⁴⁷. Berrogei urte beranduago, 1535ean, arazo berdinak elizaren kanpandorra larri ondatu zuen⁴⁸. Halaber, 1539an, euriteek eta ur-goraldiek kalte nabarmenak sortu zituzten, pertsonak nahiz animaliak ohiko bideetatik joatea galaraziz:

⁴² Beste arrazoen artean, zoria hondatzen zutelako. Ikus EUA, A-6-1-2, XLI. ordenantza.

⁴³ AGS. RGS. 1494-XI, 146 fol.

⁴⁴ Ald. adibidez, EUA A-1-4, 93 at. fol.

⁴⁵ EUA, A-1-2, 3. pieza, 44 at.-45 at. fol. Altueraren inguruko xedapenen adibide baterako, ikus EUA, A-1-4, 90 at. fol.

⁴⁶ EUA, A-1-2, 2. pieza, 73 at.-75 au. folk.; eta EUA, A-1-5, 108 at.-109 au. eta 122 at. folk.

⁴⁷ “quando la mar creçe entra el agua en la dicha villa e faze algunos dannos en las casas d’ella”. AGS. RGS. 1497-II, 267 fol.

⁴⁸ EUA, A-1-4, 86 at. fol.

“que esta villa tenía malos caminos desde Pontica haz a la casería de Juan Liçardi e también az Eançi. Espeçialmente debaxo de San Saluador, pasada la puente de piedra, cada vez que llueve toma el agua el camino, de manera que ningund hombre no puede pasar a pie (...) e asy bien está caydo la puente de la tejería (...)

Otrosy, (...) al tiempo que lluebe e el agua que viene de la casa de Martín Gaztelu az a la villa, antes que llegase a las puertas de la dicha villa, solían yr por fuera de la dicha villa az al baluarte parte, e parte az a la huerta de Miguel de Goyçueta; porque Gerónimo de Ysasti a çerrado el camino cursado por donde solían yr la dicha agua e ha hecha [sic] dentro a la dicha villa e entra la dicha agua e toda(s) las suçiedades que trae, por donde le viene daño e perjuyzio a toda la dicha villa”⁴⁹.

Halako egoerak ekiditeko lanik nagusienetako bat, badia eta bertaratzen ziren ibai nahiz errekek garbitzean zetzan. Jakina da mendeak joan ahala portua pixkanaka lohiz betetzen joan zela, ontzien ainguratzea bokaletik geroz eta gertuago zeuden guneetan egitera behartuz. Prozesua era naturalean gertatu bazen ere, Donostia bezalako hiribilduek nahiz eskualdeko biztanleen jarrerak eta utzikeriak berebiziko eragina izan zuten: zaborra, zikinkeria, gantza eta lastarako erabiltzen ziren zuhaitz edo harriak botatzeak ikaragarritzko gogortasuna zuen nahasketa sortzen zuten⁵⁰. Behin baino gehiagotan, Erreterriak bere auzotarrei eta baita merkatarari nahiz garraiolariari ere, beraien ontzietatik botatako lasta garbitzeko, kanalera botatzen zituzten harriak kentzeko edota bertan behera utzitako ontziak ateratzeko deia egin zien⁵¹.

Esan dugun bezala, batzuetan ubide eta kanaleen irekitzeekin lotutako lanak egin ziren. Ditugun datuen arabera, gainera, hauek atzerritarren esku utzi ziren. 1535eko irailean, adibidez, errejimenduak Flandrian zegoen bere alkate Onofre Isastikoari zera agindu zion: “*que traiga vn maestro para abrir la canal, ygoalado por vn año e las herramientas que neçesarias les pareçiere, e que benidos, sus merçedes pagarían el coste*”⁵².

⁴⁹ EUA, A-1-3, 9 at.-10 at. folk.

⁵⁰ Ikus. GOIENETXE PATRÓN, R.: “El informe Villalobos sobre el puerto de Pasaia (1617) o cuatrocientos años de propuestas para una ordenación lógica y racional del puerto y su gobierno”. In: *BEHSS*, 43 (2010), 419-470 orr.

⁵¹ EUA, A-1-4, 22 au. eta 86 au.-at. folk.; EUA, A-1-2, 2. pieza, 22 at. eta 29 au.-at. folk.

⁵² EUA, A-1-4, 95 au.-96 au. folk. 1571 urtean, Oiartzun eta Erreterriak errebaleko eta Ugarritzeko kai eta kanaleko konpoketa eta garbitze lanak enkantean atera zituzten, garbiketa ezak merkataritzari eragiten zizkion kalte larriak zirela eta. Ikus EUA, C-5-II-11-1, 243 au. fol.

2.1. Dorretxeak

Zalantzarik gabe, Erdi Aroko eraikin nabarmenetakoak dorretxeak dira. Askotan landa-munduarekin eta banderizoekin zuzenean lotu badira ere, guztiak ez ziren halakoak; hiribildu eta hirietan ere eraiki egin ziren. Azken hauek gune harresituak zituen ateetan bezalako leku estrategikoetan kokatzen ziren, erasoan aurrean defentsa hobea izateko. Eraikin handi eta sendoak ziren inguruko etxeekin alderatua, hauetako gehienak egurrez eginak baitzeuden. Itxura horri esker, dorretxeek sekulako ikus-indarra zuten hiribilduko biztanleentzat. Horregatik, familia nagusien inbertsio puntu ere izan ziren, beraien izen, ospe eta gizarte-maila nabarmentzeko elementu bikainak bihurtuz.

Gaur egun, Errenteriak aurrez-aurre dauden Morrontxo eta Torrekua izenekoak mantentzen ditu. Hiriguneko lekurik altuenean kokatuak, antzinako Nafarroako atearen sarreran daude, erresuma horretatik joan-etorrian ibiltzen ziren oinezkoak sartzen ziren lekuan. Beraien kokapenak, beraz, hiri munduko dorretxeek zutenaren adibide argia dira: harresiaren ondoan eta hiribilduko ateak bezalako leku estrategikoetan.

Bi hauek ezagunenak badira ere, gurean beste hainbat izan zirela badakigu, tartean lan ezberdinek jaso dituztenak: Gaztelu, Urdinso, Orozko eta Urantzu jauregia, hain zuzen ere⁵³. Horietako batzuk gure garaian azaltzen diren pertsonen abizen edo ezizenei aipamena egiten diete: “Morrontxe” goitizenaz ezagutzen zen Juan Migelez Arranomendikoari, Hernando Orozkokoari edota Martin La Renteria-Urantzukoari, besteak beste. Pertsona hauek eta dorretxeen izenak bat-etortzea, hain zuzen, gure ustetan eraikin horien lehenengo jabeen aurrean gaudela adierazten du; edo, behintzat, etxe horiei izena eman zietenak horiek izan zirela.

Aurreko datuen arabera, Errenterian gutxienez 6 dorre egon ziren. Horrenbesteko kopurua egotea hiribilduak zituen bost ateen eta gaur egun kontserbatzen diren dorretxeetan oinarrituz azaldu daiteke; alegia, ate bakoitzean bi dorretxe zeudela. Honek, gaur egungo hainbat egilek diotena geure eginez, momenturen batean 10 dorretxe inguru egon zirela esan nahiko luke⁵⁴. Kopuru handiegia dirudien arren, ez

⁵³ GÓÑI LARRAÑAGA, J.: *Historia de Rentería*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969, 66 orr.; TELLECHEA IDÍGORAS, J. I.: “Rentería a fines del siglo XVIII. Dos documentos de J. I. Gamón”. In: *BEHSS*, 8 (1974), 269 orr. (267-318).

⁵⁴ Hala diote HH. EE.: “Informe sobre Torrekua”. In: *Bilduma*, 7 (1993), 31 orr. (zenbaki monografikoa); eta AMUNDARAIN GANGOITI, M. L.; eta GEREÑU URZELAI, M.: “Santa Klara, 3 (Errenteria) / Santa Clara, 3 (Errenteria)”. In: *Arkeoikuska*, 2004, 393 orr. (392-393).

da ez-ohikoa Bizkaiako hainbat kasurekin alderatzen badugu: Balmasedak 18 zituen 1487an; Bilbok eta Portugaletetik, aldiz, hamabi 1500 urtean; eta kopuru berdina zuten Lekeitiok XVI. mendearen lehenengo erdian⁵⁵.



Morrontxo eta Torrekua, biak parez pare. Biek, bien artean zegoen atea kontrolatzuten, Nafarroa eta Oiarzundik zetozen edo bertara joan nahi zuten ibiltari, zamari zein zaldien sartu-itenaren lekuko zuzenak zirelarik (Argazkia: Iago Irijoa Cortés).

⁵⁵ Ald. GONZÁLEZ CEMPELLÍN, J. M.: "Las casas-torre en la Bizkaia de los siglos XV y XVI. El caso portugalujo". In: DÍAZ DE DURANA, J. R. y REGUERA, I. (arg.): *Lope García de Salazar: banderizo y cronista. Actas de las II Jornadas de Estudios Históricos "Noble Villa de Portugalete"*. Bilbo: Ayuntamiento de Portugalete, 2002, 80 orr. (65-93). Borja Aguinagaldek berriz, Donostiako hiru ateetako bakoitzean bi dorreoi eraiki zirela zioen. Ikus AGUINAGALDE, Fco. B. de: "La reconstrucción de un espacio urbano. Vicisitudes de las torres del Preboste, en la calle de las carnicerías (Embeltrán). Siglo XV-1813". In: *BEHSS*, 23 (1989), 112 orr. (79-131).

Erreteriarri dagokionez, informazio gehien kontserbatu duena Urantzu edo La Renteria jauregia izan da, zalantzarik gabe bere jabearen garrantziagatik. Alabaina, eta gutxi batzutan *dorre* izenarekin aipatua izan bada ere, gehienetan jauregi bezala egiten zaio aipamena. Horregatik, gure ustetan ez zen dorretxea bezalako eraikin irmo eta babes-kutsuko bat, harriz erakitako, hiritar edo bizileku kutsu handiagoko eta ondoko etxeetatik bereizten lagunduko zuten elementu apaingarriez hornitutako eraikina baizik⁵⁶. Izan ere, dokumentazioan aipatzen zaizkion mugek harresiaren ondoan kokatzen badute ere, ez dute hiribilduko aterik aipatzen. Hori dela eta, jauregi errenazentista batekin zerikusi handiagoa izango zuen, familiak eskuratutako ohorea eta izen ona islatzeko egin zena⁵⁷.

Antzeko kasuan dugu Hernando Orozkokoaren dorrea. 1811ko datuek erortzeko zorian dagoen eraikin bat bezala aurkezten digute. Orduan aipatzen den kokapena honakoa da: Beheko Kalean eta bi etxe artean. Ondorioz, ez zegoen ate baten ondoan. Hasiera batean, honek bere dorre izaera baztertu beharko luke baina Kapitainenearekin ez bezala, Orozko ez da behin ere jauregi bezala izendatzen eta hau dela eta, uste dugu kasu honetan dorre baten aurrean gaudela, nahiz eta hiriko sarrera baten ondoan kokaturik ez egon⁵⁸.

Beste dorretxeei dagokienez, dokumentazioak hainbat datu ematen baditu ere, ikerkuntzek jaso dituzten izenekin lotzea nahiko zaila da. 1535 urtean Frantzisko Igeldoren dorrea azaltzen zaigu, agian Lope Martinez Isastikoak aipatzen duen oinetxearekin lotura izan dezakeena⁵⁹. Aurreko urtean Juango de la Torre da halako eraikin baten jabe dena; bere abizenaren eta eraikinaren ezaugarrien arteko bat-etortze horrek Torrekuan pentsatzera eramán gaitzake, nahiz eta hipotesi hori ziurtatzeko bestelako informaziorik ez izan⁶⁰. Gazteluri dagokionez, ez dugu garai honetan inolako daturik topatu. Badakigu 1598an “Gastelako dorre” bezala egiten zaiola aipamena eta beraz, zilegi da pentsatzea ate horren ondoan zegoela, hau da, Donostiarako bidean (“Gaztelarako bidean”) zegoena. Alabaina, XVIII. mende amaieran Goiko Kalen kokatzen da, Torrekua edo Morrontxori dagokion lekuan⁶¹.

⁵⁶ Ald. ARÍZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 263 orr. eta hh. “Jauregi” eta “dorre” aipamenaren inguruan, ikus GAO-AGG MEJ 14. Ald. *Toponimia de Erreteria*. Erreteria: Erreteriarriko Udala, 2003.

⁵⁷ HH. EE.: *Erreteriarriko eraikuntza historikoak: udaletxea, Madalena ermita, Morrontxo dorrea, Zubiaurre jauregia, Kapitain etxea*. Erreteria: Erreteriarriko Udala, 1997, 215 orr. eta hh., bereziki 229-230 orr.

⁵⁸ *Toponimia de Erreteria*, aip. lan., eta bereziki, EUA, D-4-1-1.

⁵⁹ EUA, A-1-4, 96 au.-at. folk.; eta MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. San Sebastián: Ignacio Ramón Baroja, 1850 (Amigos del Libro Vasco-ren faksimil argitalpena, 1985), 94 orr.

⁶⁰ Aipamenerako, ikus EUA, A-1-4, 56 au. fol.

⁶¹ *Toponimia de Erreteria*, aip. lan. Lan honetan Gaztelu leku, etxe eta dorretxe bezala jasotzen bada ere, uste dugu lehenengoa beste biekkin ez datorrela bat. Alegia, kokapena ez dela berdina.

Hain zuzen ere, azken hau 1526an dokumentatua dugu, Frantzisko Arranomendi-koaren oinordeen dorretxeak (Morrontxo) eta Jeronimo Isastikoarenak jasotzen direnean⁶². Ez dugu uste bi pertsona izen aipatzean dorretxe ezberdinez hitz egiten ari direnik: 1530ean Isasti, Frantziskoren iloba zena, bere ama andre Marina Arranomendikoarekin dorretxe batean bizi zen eta, gure ustetan, eraikin hau Morrontxori dagokio. Frantzisko hil ondoren, dorrea honen arreba Marinaren esku geldituko zen, zeinak, gutxienez, 1535 arte jabetzen artean izan zuen⁶³. Honen ildotik, egile batzuek, XVI. mende erdialdean Morrontxo Migel Lasakoaren emazte, Katalina Aragoikoa erreginaren dama, eta 1554an zendutako Maria Lezokoaren eskuetara pasa zela diote. Ustez, azken honen guraso ziren Gillen Lezokoa eta Grazia Ierobikoa izan ziren bera baino lehenago dorretzeko jabe. Alabaina, Graziaren 1570eko testamentuak ez du horren inguruan ezer aipatzen eta baliteke Mariak beste bide bati esker higiezin hori eskuratzea⁶⁴.

Azkenik, hainbat testamentuk beste dorre baten inguruan emandako informazioaz hitz egin behar dugu. Batetik Martin Granadakoaren 1540koa dugu, non, jabe zen dorrearen kokapena adierazterakoan, honakoa zioen: “*ateniente a las çercas d’ella, junto con la puerta que sale desde la dicha villa para Leço*” edo beste era batera esanda, “*que sale de la plaça a los junctales*”; hau da, Zumardira ematen duen atean. Badakigu bere sotoek upategi funtzioa bete zutela, bereziki Ribadaviatik ekarritako ardoarentzako, dorretxeetan ohikoa zen erabilpen bat eman zitzaielarik⁶⁵.

Bestetik, eta aurreko eraikina identifikatzeko baliogarria dena, Martinen arreba Maria Martin Granadakoaren 1570ko testamentua dugu. Bertan, dituen ondasunen artean bere anaiaren dorrea aipatzen du, “Arizabalo dorretxea” bezala izendatzen duena. Datu honek, gainera, beste hausnarketa batera garamatza: Hernando Orozkokoaren etxea eta Arizabalokoarenak garai honetako udalbatzar gehienak ospatzen diren leku izanik, halako batzarrak dorretxeak bezalako eraikin azpimarragarrietan egiten zirela pentsa dezakegula, hain zuzen ere.

⁶² EUA, A-1-1, 16 au. fol.

⁶³ GAO-AGG CRI 2,2 eta EUA, A-1-4, 94 at.-95 au. folk.

⁶⁴ Testamenturako, ikus GPAH-AHPG 3/2013, 67 au.-73 au. folk. (3. foliazioa). Baliteke ondoren, hil baino lehenago, Maria Lezokoaren eskuetara bahitura bidez igarotzea eta hemendik bere seme Frantzisko Lasakoarengana. Morrontxoko jabeen ondorengotzaren inguruan, ikus PONTE ORDOQUI, E.: “Torres medievales de Rentería: Torrekua y Morrontxo”. In: *Bilduma*, 1 (1987), 53-68 orr.; eta bereziki, HH. EE.: *Errenteriako eraikuntza historikoak...*, aip. lan., 113-121 orr. Nahastea areagotu egiten da Arizabalo-Granada dorretzeko andre Maria Martin Granadakoa zenak, andre Maria Lezokoa izeneko alaba izan zuela kontuan hartzen badugu. Bere testamentuan Maria Martinek dorre hori bere alaba eta honen senar Albiz doktoareari uzten zien, baina ondasunen salmenta edo eskualdatzea debekatuz. Halakorik egitekotan, salmenta edo eskualdatzea baliorik gabe geldituko zen eta dorrea jesuiten eskuetara pasako zen, bertan eliza edo monastegi bat fundatzeko asmoz. Testamenturako, ikus GPAH-AHPG 3/2013, 35 au.-41 at. fol. (3. foliazioa).

⁶⁵ ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 68-6, 7 at. eta 22 au. folk.

2.2. Burdinolak, errotak eta beste hainbat higiezin

Dorretxez gain, badaude hiribilduan edo bere inguruetan kokatutako hainbat erai-kin interesgarri, hala nola, errotak, burdinolak, labeak edo teileriak. Guztiak manu-faktura eta ekoizpen zentruak dira, batzuk lehen mailako elikagaiei lotuak, besteak hiribilduaren ekonomiarentzako oinarrizkoak diren produktuei lotuak.

Hiribilduak inguruko salgaien trukatzeko edo salmenta puntuak direla kontuan hartuz, hau da, eskualdeko edo, hobe esanda, jurisdizkioko biztanleek halako jarduerak bertan egitera behartuak zeuden puntuak, berehala ulertuko dugu udalbatza ezberdinek lehen mailako produktuen edo udal-kutxari diru-sarrera nabarmenak lortzeko aukera eskaintzen zizkieteneko ekoizpena zentralizatu eta monopolizatzekeo tresnak abiaraztea. Hala, auzotarrak hiri-ondasunen zati ziren ondasun higiezinetan garia ehotzera, ogia egostera edo teilak egitera behartuak egongo ziren.

Bestalde, udalbatzak burdinolak eskuratzea edo beraien jabetzaren zati bat lortzea, Oarsoaldeko oinarrizko eta funtsezko negozio batean partehartzea bilatuko luke, ez baitugu ahaztu behar eskualde hori XIII. mende amaieratik burdin esportazio gune garrantzitsu bat bihurtu zela.

Gehienetan halako ondasunak errentamendu bidez ustiatzen ziren. Udalbatzak beraien kudeaketa enkante publikoan ateratzen zuen eta posturagile onenak eskuratzeko, eskuarki urtebeteko epeaz. Era honetan, udalbatzak bere behar eta gastuei erantzuteko diru kopuru handiak eskuratu zitzaizkien. Harrigarria bada ere, nahiz eta Errenferriako lursail gehienak udalbatzarenak izan eta Añarbeko burdinola XVI. mende amaieran hiribilduko ondare higiezinaren artean garrantzitsuena izan, udal-agingintariak ez zuten halako eraikinetan inbertitzeko asmoa agertuko 40ko hamarkada hasiera arte.

Errotei dagokienez, azpimarratu behar dugu badian zehar hainbat eta hainbat kokatuko direla: Herreran, Altzan, Donibanen, Molinaon edo Lezon, esaterako. Batzuetan gainera, komunitate horien kokatze eta finkatzean berebiziko garrantzia izango dute⁶⁶.

Errege Katolikoek 1491ko betearazleak agerian utzi zuen errotak udalbatzaren errenta nagusienetako bat zirela⁶⁷; baina egoera Oiartzunen behin betiko independentziarekin aldatuko da. Orduz geroztik errota gehienak bailararen jurisdizkioan geldituko dira eta 1499an, adibidez, bertan 19 zeudela badakigu⁶⁸. Galera honen

⁶⁶ Ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, op. cit., 71-72 orr.

⁶⁷ 1384ean jada, Oiartzun eta Errenferriako herri-ondasun bezala aipamena egiten zaie. Horrek, titulartasuna bi populazioen eskuetan egongo zela islatu dezake, hiribilduko nahiz bailarako biztanleak garia ehotzeko haietara joan beharko luketelarik.

⁶⁸ IRIXOA CORTÉS, I.; eta LEMA PUEYO, J. A.: *Documentación medieval del Archivo Municipal de Oiartzun. I. Libro de estimaciones fiscales de vecinos y bienes raíces (1499-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011, 1. dok.

aurrean, oso goizetik agertuko du Errenteriak errota berriak eraikitzeko asmoa. 1496an honakoa egiteko intentzioa adierazten zuen: “*fazer dos o tres açenas e molinos en el río que deçiende dende Oyarçun al Pasaje, que es çerca de la dicha villa*”, horretarako “*la madre del dicho río o otros cualesquier braços de agua*” hartuz⁶⁹. Argi dago beraz, banaketaren ondoren hiribilduak berehalako ahalegina egin zuela oso garrantzitsuak ziren udal-errentak mantentzeko.

Baina ez dirudi saiakera goiztiar hauek arrakasta handirik lortu zutenik. Aitzitik, ez dugu udal-erroten eraikuntzaren edo halakoak eskuratu zirelaren berririk 1542ra arte. Orduan, berrogeiko hamarkadaren hasieran, udalbatzak kudeaketak hasi zituen Alzateko jaunena ziren erroten zati baten jabetza eskuratzeko; alegia, “*Baxo*”, “*Beingoerrot*” edo “*Alzate*” izenarekin ezagutzen zirenena.

Errota hauen kasuak udal-jabetzari buruzko datu interesgarriak eskaintzen dizkigu, izan ere, nafar jatorriko leinuak hiribilduan zituen jabetzak saltzeko asmoa agertu zuenean, erroten inguruan zera aipatzen zuen: “*dichos molinos por tiempo avían seydo del concejo d’esta villa y que se los dio a la casa de Alzate por vía de enpeno*”⁷⁰. Alegia, Errenteriako udalbatzak XV. mende amaieran eraikitako errotak oinetxe horren eskuetara pasa zirela. Ez dugu honen zergatiari buruzko daturik, agian babes edo militar kutsuko laguntza baten ordaina izan zitekeen. Litekeena da bahitura hau 1503 urtea baino lehenago gertatzea. Orduan, erreginak egindako mesede bati esker, Alzate leinuak hiribilduan zituen errotak Martin Santxez Zamudiokoarengana pasa ziren, bide batez Alzateko jaunak 1476ko Errenteriako erasoetan izandako partaidetza zuzena zigortuz⁷¹. 1542ko datuak ikusirik, geure buruari Zamudioren aldeko mesede hori bete zen ala ez galde egin diezaiokegu. Guk ezetz uste dugu eta gertatzekotan, denbora gutxian bertan behera gelditu zela.

Edonola ere, hiribilduak makina horren laurdena berreskuratu zuen 1542an. Oso esanguratsua da data hauek labore-soberakin garai batekin bat etortzea, errejimen-duak gariaren ehotzea eta banaketa era zuzenago batean egiteko saiakera islatuko bailuke, soberakinak bere interesen arabera kudeatzeko asmoz. Gainera, badakigu laurden horren lehen errentatzailea beste hiru laurdenak eskuratu zituen Juanes Zubietakoa ontzi-maisua izan zela. Honek higiezin horren kudeaketa hobe bat erakutsiko luke, udalbatza kenduta, Zubieta errotaren funtzionamendu egokian interesatua zegoen lehenengo pertsona baitzen⁷².

⁶⁹ AGS. RGS. 1496-X, 324 fol.

⁷⁰ EUA, A-1-5, 129 at.-130 au. folk.

⁷¹ AGS. CC. Cédulas, 6, 232-I. Rodrigo Alzatekoaren partaidetzari buruz, AGS. RGS. 1476-III, 109 fol. eta AGS. RGS. 1479-XI, 63 fol.

⁷² EUA, A-1-5, 154bis au. fol. Ald. EUA, A-1-1, 114 at.-115 at. folk.

Beingoerrota ez zen gure hiribilduak errentan atera zuen errota bakarra; honez gain, Gabirierrotako erroten laurdena zegoen. 1470 urtea baino lehenago Gabiriola burdinolaren ondoan eraikitako errota hauen historia Altzatekoen nahiko beretsua da⁷³. Salbuespen bakarra da udalbatzak 1542ra arte ez zuela beraietan inolako parte hartzerik izan, harik eta urte horretako uztailaren 8an, Zabaletako jaun zen Juan Perez Gabiriakoak, udalbatzari bere erroten laurdena dohaintzan eman zion arte⁷⁴.

1540 urtean Erreteriolako burdinolaren uharka igotzearen inguruan auzia izan zen. Dirudenez, lan horrek, aurretik Gabirierrotara iristen zen haina ur iristea galarrastzen zuen eta ondorioz, ordura arte mantendutako ehotze-bolumena txikitu egin zen. Auzi horretan aurkeztu ziren lekukoek, errota horiek eskualdeko onenak zirela adierazten zuten eta bertara jende andana joaten zela, baita lehorte garaietan ere. Ondasun higiezin horren errotari zen Juanes Elorbidekoak zera adierazten zuen:

“en tiempo de las dichas sequías solían yr a los dichos molinos muchos trigos a moler, que los llebaban los dueños de los tales trigos porque en los tales tiempos de sequías, *avunque dexaban de moler otros muchos molinos çircunveçinos, los dichos molinos de Gabirierrota no dexaban de moler*; e después que se alçó la dicha presa e se abaxaron las dichas açequias, los que biuen en los dichos molinos han de buscar trigo para moler, haziendo costa de moças para lo coger, lo que no hazían antes”⁷⁵.

Dena den, errota garrantzitsua bazen ere, baieztapen guzti hauek ezin ditugu hitzez hitz hartu. Gogoratu behar dugu auzia errotaren jabe zen Zabaletako jaunaren eta Erreteriola burdinolaren jabeen artekoa zela eta beraz, oso arrunta litzateke lehenengoak aurkezten zituen lekukoek bere alde egitea, errota, inguruko onena zela adieraziz.

Altzate eta Gabirierrota garrantzitsuenak izango badira ere, badugu halako beste higiezin daturik, Pontikako errotak kasu. Hauei buruzko informazioari dagokionez, badakigu XV. mendean zehar abizen bereko leinuaren esku egon zirela baina 1498 urte inguruan, Olaiztarrek (Altzateko jaunen ahaide zirenek) laurden bat eskuratu zutela⁷⁶.

⁷³ CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección... I*, aip. lan., 56. dok.

⁷⁴ EUA, A-1-5, 154bis au.-155bis au. folk.; eta EUA, A-1-1, 117 at.-119 au. folk.

⁷⁵ GAO-AGG MCI 142, XI au. fol.

⁷⁶ Juanes Pontikakoa hil zenean (1506 urtea baino lehenago), bere ondasunen artean aipatzen dira (ikus ARChV. Reales ejecutorias, 269-4), baina 1456ko epaiak ez ditu jasotzen, Pontika etxeari eta bere zubiari bakarrik erreferentzia egiten diolarik (ald. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección... I*, aip. lan., 41. dok.). Dokumentazioak, ordea, Olaiztarrek beraien zatia 1498 inguruan eskuratu zutela dio (ikus ARChV. Civiles, Zarandona y Wals, Fenecidos, 756-3, 101 at. fol. eta hh.). Ald. AGUIRRE SORONDO, A.: *Tratado de Molinología: los molinos de Guipúzcoa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1988, 514 orr. Egile honek erreferentzia bakarra topatzen zuen, 1568 urtekoa zena.

Beste errota batzuk Errotaberri izenekoak izan ziren. Hauen inguruan oso dokumentu interesgarria kontserbatzen da, beraien hasierari ematen diena, hain zuzen ere. 1520ko urriaren 3an, Juan Alzatekoak, Juanes La Renteriakoari “*Ribera*” izeneko lekuan zuen lursail bat saldu zion, Juanesek errota bat eraiki zezan⁷⁷. Errota berria kokatu behar zen lekuak harresien ondoan zegoen Alzateko errotaren ubide zaharrarekin muga egiten zuenez, hainbat baldintza ezarri ziren salmenta hori aurrera eramateko, tartean errota berriaren uharka eta ubidearen erabilera eta eraikuntzari buruzkoak. Baldintza interesgarrienetako bat, ordea, jabetza eta etorkizunean egin zitekeen salmentarekin zerikusia zuen. Hala, Juan Alzatekoak errota berriaren erdia, bera eta bere oinordekoentzako gordetzen zuen. Halaber, bi aldeetako batek bere zatia saldu nahi izatekotan eta bestea interesatua egotekotan, azken honi saldu beharko lioke eta ez beste inorri.

Hauetz gain, badira dokumentazioak oso gutxitan aipatzen dituen beste errota batzuk, Jeronimo Isastikoarenak edo Pedro Aragurengoia oiartzuarrarenak kasu. Azken honi dagokionez, Aranguren baserriaren ondoan kokatutako Aranguren-errotaz ari dela uste dugu. Isastiren kasuan, aldiz, ez dugu uste Oiartzungo Isasti errotarekin bat datorrenik, Jeronimorenak Gabirierrotako ur-iturri bera erabiltzen baitzuen eta, ondorioz, Errenteriolatik beheranzko bidean kokatua egongo zirelako⁷⁸.

Azkenik, 1529 urte amaieran errejimendua Juan Perez Arriagakoa altzatarrak altxatu nahi zuen errotaren eraikuntza galarazten saiatu zen. Arriagak lur batzuk ba omen zituen “*junto al brazo de la mar que va del Pasaje a Molinao*” eta hori aprobetxatuz “*avía de tomar el agoa del dicho brazo de mar*”. Uharka eraiki nahi zuen lekua Errenteria, Donostia eta Oiartzunek zuten gune amankomun batean zegoen, baina ez dirudi bere saiakera aurrera atera zenik⁷⁹.

Errotekin gertatu bezala, ikertzen dugun garaian burdinoletan egindako inbertsioa oso txikia izango da. Egia bada gure auzotarrek burdinari lotutako negozioan parte hartze zuzena izan zutela, udalbatzak ez zuen jarrera irmo bat erakutsi; ondorioz, jabetza hauek ezohikoak izango dira. Eta egoera hau harrigarria da eskualdeko baso zein ur aberastasuna, meatzeak, Oarsoaldean kokatu ziren burdinola ugariak, ondoko eskualdeetan zeuden burdinolekin izandako harreman estua eta Añarbeko burdinolak XVI. mende amaieratik aurrera udalbatzari eman zizkion diru-sarrera garrantzitsuak kontuan hartzen baditugu⁸⁰.

⁷⁷ EUA, E-7-I-14-3 eta AGUIRRE SORONDO, A., aip. lan., 513-514 orr.

⁷⁸ EUA, A-1-4, 21 au.-22 au. folk. eta bereziki, GAO-AGG CO MCI 142.

⁷⁹ EUA, A-1-2, 4. pieza, 45 au.-at. eta 55 au.-at. folk.

⁸⁰ DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, vol. I: *Historia*. Donostia: Luis Haramburu, 1983, 154-173 orr.; eta TELLECHEA IDÍGORAS, J. I.: “*Rentería...*”, aip. lan.

Hiribilduari buruzko ikerkuntza bat egiten saiatu zen lehen egileetako batek, Juan Ignazio Gamonek, 1476ko erasoak hainbat burdinola suntsitu zituela zioen. Urte hartan bost zeudela adierazten zuen: Gabiriola, hirigune barruan eta Gabiriaren jabetza zena; Pontikakoa, izen bereko leinuarena; Errenteriola, udalbatzarena eta geroago Fanderia egongo zen lekuan kokatua; eta Oiartzungo mugan, bailararen jurisdikziopean, Gabiola eta Suerringoak⁸¹. Datu hauek aintzat hartuz, XVI. mendea baino lehenago Errenteria olagune garrantzitsua zela pentsa dezakegu. Ideia hau baina, jaso ditugun datuei nolabait kontrajartzen zaie: Pontika errota zelako eta ez burdinola, Gabiola eta Suerrin Oiartzunen zeudelako eta Gabiriola, aldiz, hirigunetik aldenduta zegoelako. Alabaina, ohartu behar dugu 1465 eta 1499 urte bitartean hainbat burdinolen berri badugula: Añarbe, Gabiriola, Errenteriola eta, agian, “*Peña de Aya*” izenekoena⁸².

Su-egurraren auzian, Oiartzunek, mugan baina bere jurisdikziopean, 6 burdinola zeudela aipatzen zuen, nahiz eta zehazki zeintzuk ziren ez adierazi⁸³. Datu hauen arabera, eta ondasun higiezin horien izenak jakin gabe, badirudi bailararen independentziaren ondorioz errotekin gertatutakoa burdinolekin ere jazo zela; gehienak Oiartzunen lurretan gelditu zirela, alegia.

Añarbe XVI. mendeko 80ko hamarkadan eraikia zela aipatu izan bada ere, bere inguruan ditugun datuak mende luze bat lehenegokoak dira. Bere lehen aipamena 1465ekoa da, erregeak Bartolome Zuloagakoari burdinola horrek ordaintzen zituen errege-eskubideak eman zizkionean⁸⁴. Ez dugu datu gehiagorik 1503 urtera arte, Errenteriako udalbatzak berreraiki zuela jakiten dugunean; saiakera honek ez zuen aurrera egin, 1510 urtean bere jarduera etenda baitzegoen. 1503 urtea Oiartzungo independentziaz nahiko hurbil dagoen data izanik, baliteke berreraikuntza horrek Errenteriak bere inguruko burdin-ekoizpena kontrolatzeko eta, hori aprobetxatuz, diru-sarrerak lortzeko saiakera islatzea. Hau da, 1495eko egoera berriak Errenteriarentzat burdinola gehienen galera ekarri zuenez, udalbatzak, XV. mende amaierarako jarduna etenda duen Añarbe burdinola berriz funtzionamenduan jartzea pentsatu zuela; baina ahalmen handiagoko eta hirigunetik gertuagoko burdinolak zeudenez, bere jurisdikzioan egon ala ez (alegia Gabiriola, Renteriola, Gabiola eta Suerrin), Añarbeko saiakerak ez zuen aurrera egin. 1529-1540 urte

⁸¹ GAMÓN, J. I.: *Noticias históricas de Rentería. Prólogo y notas de Serapio Múgica. Serapio Múgica y Fausto Arocena. Reseña histórica de Rentería*. Donostia: Nueva Editorial, 1930, 72 orr.; GOÑI LARRAÑAGA, J., aip. lan., 47 aip. lan.; CRUZ MUNDET, J. R.: *Rentería en la crisis del Antiguo Régimen (1750-1840). Familia, caserío y sociedad*. Errenteria: Ayuntamiento de Rentería, 1991, 89 orr.; eta AGUIRRE SORONDO, A., aip. lan., 503-532 orr.

⁸² Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socioeconómicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*. (Edición preparada por M.ª Rosa AYERBE IRIBAR). Donostia: Dr. Camino, 1997, 60-74 orr.

⁸³ EUA, C-5-II-1-5, 4 at. fol.

⁸⁴ DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 60 orr.

bitartean zonalde horri buruz ditugun datuek hipotesi hau baieztatzen dute, ez baitute burdinolarik aipatzen⁸⁵.

Are gehiago, 1540an errejimenduak Añarbe berriz funtzionamenduan jartzeko beste saiakera bat egin zuenean, orduan zeuden aztarnak aprobetxatuz egingo zela zioen; alegia, eraitsita zegoela⁸⁶. Orduan ekimena aurrera atera zela dirudi, nahiz eta urte gutxirako izan; izan ere, 1556an, uholdeek egurrezko uharka suntsitu zuten; hamarkada batzuk itxaron beharko dira, beraz, ahaleginak gutziz aurrera egin dezan⁸⁷.

Garai honetarako dokumentatuak ditugun beste burdinolei dagokienez, Gabiriola eta Erreteriola alegia, hainbat arazo ematen dituzte kokapen zein jabetzaren inguruan. Alabaina, eta horiek argitzeko zerbait luzatuko bagara ere, irtenbidea emateko aukera dugula uste dugu⁸⁸.

Idea orokorra biak, gerora Fanderia izango denarekin batera, burdinola berdinak direla kontsideratzea izan bada ere, Luis Miguel Díez de Salazar bezalako egile batzuk ezberdinu egin zituzten. Ikertzaile honek Gabiriola bi lekutan kokatzen zuen, gaur egungo Erreteriolako Gabiria baserrian eta Gabiriolan; Erreteriola, aldiz, Fanderian.

Kontsultatutako dokumentazioak hainbat arazo aurkezten ditu, Gabiriarrak Erreteriolako zati baten jabe zirela aipatzen baitu; ondorioz, aipatutako bi burdinoletan leinu berdinak jabetza izatea, Gabiriola eta Erreteriolaren datuak nahasteko arriskua ematen du. 1547an duela hainbat urtetatik Zabaletako jaunek (Gabiriarrak) Erreteriolako laurdena zutela adierazten zenean, ez zen Gabiriolari buruzko aipamenik egiten. Baina urte berean, Gabiriako jaunak Erreteriolako beste jabeen aurka zuen auzian, Juan Elorbidekoa errotariak honakoa zioen:

“si la dicha presa de la dicha herrería de Renteriola no se alçara según e como de presente está alçada e si no se abaxara la entrada del agoa en las açequias e calçes de la dicha herrería, el dicho Juan Pérez de Gabiria, si quisiera, pudiera hazer e edificar una herrería sutil, buena e probechosa en el lugar donde paresçe que solía aber herrería antes, que es junto a los dichos molinos de Gabirierrota, que paresçe segund el sitio e senales que ay, que solía aber en el dicho sitio herrería grande, segund las muchas çepas e senales que ay...”⁸⁹.

⁸⁵ Ikus ARChV. Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 41-3, 30 au.-31 at. folk.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 62 orr.

⁸⁶ Ald. ARChV. Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 41-3, 25 au.-at. folk.; EUA, A-1-1, 11 au.-at. folk.; eta EUA, A-1-5, 54 au.-at. folk.

⁸⁷ Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 61-62 orr.; eta JIMÉNEZ DE ABERASTURI, J. C. (zuz.), aip. lan., 89-90 orr.

⁸⁸ Hauetan jarriko dugu begirada, Altzate eta Berdabiokoak alde batera utziz. Azken bi hauen berri Zobacok egindako mugarritzean besterik ez dugu eta bertan, gainera, bigarrenari “herrería vieja cayda” bezala egiten zaio aipamena. Ikus. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan., 85. dok. Sakontzeko, jatorrizko lanera jotzea gomendatzen dugu.

⁸⁹ GAO-AGG CO MCI 142, XI au. fol.

Hau da, aspaldi Gabirierrota erroten ondoan burdinola bat eraikia zegoela; gure ustetan, Gonzalo Morok portuaren inguruan eman zuen 1397ko bere epaian aipatzen zuena eta 1470ko mugarritzean azaltzen dena⁹⁰. Ondorioz, badirudi XVI. mendearen hasieran Gabiolak lanari utzi egin ziola eta honen hutsunea betetzeko, 1530 urte inguruan Erreteriola eraikitzea erabaki zela⁹¹.

Hala, Díez de Salazar zena bide onetik zihoan baina Gabiriolarako ematen zuen kokapena ez zen zuzena. Aipatu bezala, azken hau Erreteririako Gabiria baserriaren ondoan eta Gabierrota ondoan kokatzen zuen, elkarrengandik aldentuta dauden bi puntutan, alegia. Ikertzaile berak ohartarazten zuen Lezon ere Gabiria izeneko baserri bat zegoela, gure garaian Hondarribiko jurisdizkioa zena. Eta datu honek oinarritzko galdera planteatzen du: Gabiriola Erreteririako Gabiria baserriaren ondoan egon baino, Lezoko Gabiria baserritik gertu egon al zitekeen?

1470ean Hondarribiko mugak ezartzeko balio izan zuen mugarritzea jarraitzen badugu, argi dago Gabiriola aipatzen denean Lezoko Gabiria baserriari buruz ari direla eta ez Erreteriria hegoaldean eta Palaziozorra ondoan dagoen izen berekoari. Dokumentu horretan Juan Perez Gabiriakoaren Barkardaztegi izeneko mendien inguruan hitz egiten da, Agirre eta Gabiria etxe eta basetxeen artean daudenak. Erreteriria eta Oiartzungo lur direlaren adierazpenarekin batera, honako hau jasotzen da:

“e yendo adelante, los dichos montes de el dicho Juan Pérez de Gaviria, llamados Barcardástegui, por término e jurisdicción de la dicha Villanueva y tierra de Oyarzun; e yendo dende adelante a las casas y caserías llamadas Gaviria (y) de Aguirre, lo que es faz a la parte de Lezo (...); y yendo dende adelante por entre las tierras y heredades y términos de las dichas casas y caserías de Aguirre y Gaviria, a las que vienen a la ferrería llamada Gaviriola y dende por las azequias que por encima de la dicha herrería yban al molino que el dicho Juan Pérez tenía ante la dicha herrería y por do corría y seguía de la guía que venía al dicho molino al río mayor llamado el río de Oyarzun...”⁹².

Eta honek, Gabiriola Lezoko Gabiria etxetik gertu eraikita zegoela adierazten du.

Erreteriolari dagokionez, errege-dokumentazioak 1450ean aipatzen badu ere, 1499ko Oiartzungo mugarritzeak ematen digu daturik gehien⁹³. Besteak beste,

⁹⁰ Ald. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, I, aip. lan., 25. dok.; eta IDEM: *Colección...*, II, aip. lan., 56. dok.

⁹¹ Martin Isastikoa errotariaren alargun zen Maria Etxalarkoak, 1547ko auzian zera aipatzen du: duela 19 urte biak Gabirierrotan errotari bezala bi urtez bizitzen egon zirela, “antes de que se alzase Renteriola”. Ald. GAO-AGG CO MCI 142, f. g.

⁹² Ald. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, I, aip. lan., 56. dok.; IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan. 1. dok., 127 at.-128 au. folk.

⁹³ DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 70-71 orr.; eta IRIJOA CORTES, I.; eta LEMA PUEYO, J. A., aip. lan., 1. dok.

Errenteriolarako bidean, Gabierrotatik gertu zeuden Salvatore Deun basilizak eta Darieta etxeak jabetzak zituztela, eta Errenteriolatik eta bere ubidetik gertu zegoen Aranguren etxeak ere, inguruan hainbat lur zituela.

Burdinola hauen inguruko azterketari amaiera emateko Gamonen hitzak berrartu behar ditugu, Gabiriola eta Errenteriola azpiegitura bera diren ala ez kontsideratzearen inguruan sortutako arazoa hein batean argitzen duten datuak ematen baitizkigute. Izan ere, egileak akats batzuk egin bazituen ere, tartean Gabiriola hiribildu barruko burdinola kontsideratzearena, biak ezberdintzen zituelako. Errenteriolari dagokionez, udalbatzarena zela aipatzen zuen eta baita burdinolen artean zaharrena zela⁹⁴; horrez gain, erasoaren ondoren (1476koa? 1512koa?) Gabiriola errota bihurtu zela zioen. Azken hau 1547an ditugun datuekin bat dator eta halaber, Lope Martinez Isastikoak 1625ean eman zuen informazioa azalduko luke: Errenteriola lanean zeuden burdinolen artean sartzea baina Gabiriolari buruz, aldiz, inolako aipamenik ez egitea.

Datu hauekin, eta 1499-1547 urte bitartean izandako bideari buruzko informazio zehatzagoen ezean, gure ondorioa hau litzateke: Errenteriolak XVI. mende hasieran lanari utzi ziola baina hainbat hamarkaren ondoren berreraiki zela, Gabiriola erortzeko zorian baitzegoen. Hala azalduko litzateke Diez de Salazarrek Gabiria-Zabaletarrek bi burdinoletan zuten partaidetzaren aipua.

Laburbilduz, XV. mende amaieran biak funtzionamenduan egongo lirateke, bat Gabierrotan eta bestea geroago Fanderia kokatuko zen lekuan, nahiz eta urte gutxiren buruan biek jarduerak eten zituzten. Beranduago, 1530 urte inguruan, Errenteriola berreraiki egin zen, Gabiriarren eta Goizuetarren ekimenez⁹⁵. Ondorioz, Gabiriola beti Gabiriarren esku egon bazen, Errenteriolaren jabetza, hauek eta Goizuetarrek izango dute. Errenteriako udalbatzak, berriz, ez zuen azken horretan inolako partaidetzarik izan, bere begirada Añarben jarri zuelako⁹⁶.

Azkenik, labeen edo teilerien inguruan datu gutxi batzuk besterik ez ditugu topatu. Lehenengoei dagokienez, 1541ean Añarben bat zegoen eta horrez gain, bada-kigu hainbat auzotarrek hirigunean izan zituztela, Maria Martin Sarastikoak 1492an kasu⁹⁷. Teileriei buruz ez dugu informaziorik aurkitu. Zabalbiden bat zegoen, 1491tik aurrera Oiartzungo elizari hamarrenak ordaintzen zizkiona. Bali-teke datu falta honen arrazoia gure auzotarrek Oiartzunen zeuden azpiegiturak erabili zituztelako izatea; XVI. mende hasieran bailaran 8 zeuden eta gainera,

⁹⁴ GAMÓN, J. I., aip. lan., 72 orr.

⁹⁵ GAO-AGG CO MCI 142.

⁹⁶ Nahiz eta geroago partaidetza izan. Ikus GAMÓN, J. I., aip. lan., 423 orr.

⁹⁷ Añarbekorako, EUA, A-1-5, 97 au.-at. folk. Maria Martinen laberako, ARChV. Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 11 at. fol.

Errenteriako udal-aktek haietara joaten ziren bideen konponketari buruz hitz egiten digute⁹⁸.

2.3. Lonja

a) Funtsezko eraikina udalbatzaren ekonomian

Burdinola eta errotek hainbat hiribildutan izan zuten pisu nabaria Errenterian eman ez zela aipatu badugu, hau udalbatzaren finantzetan itsas-trafikoari lotutako errentek izan zuten garrantziagatik da. Izan ere, diru-sarrera nabariak ematen zituzten bi errentek, arlo honekin zerikusia izango dute: batetik, eta bereziki, lonja; bestetik, sisa eta kai-zerga.

Lonja, XV. mende erdialdetik hasitako merkataritza-hedatze zikloan guztiz txertatutako azpiegitura da. Berari esker, Errenteriak badiak itsas-merkataritzan zuen garrantziari etekin nabarmena atera zion. Lonjak, hiribilduek beraien portuetara iritsi edo ateratzen ziren salgaien gainean hainbat eskubide kobratzeko azpiegitura izan ziren. Gainera, produktuak saldu aurretik bertan pisatu behar ziren eta ondo-

ERRETERIA XIX. MENDE HASIERAN. Aurreko 3 mendeetan izan zuen ia irudi bera islatzen du.



Henry WILKINSON ingelesak 1838 inguruan marraztutako Errenteriarren bista (San Telmo Museoa -Donostia-, P 1784).

⁹⁸ EUA, A-1-2, 4. pieza, 9 au.-10 au. folk. Oiartzungo labeei eta teileriei buruzko informaziorako, ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta LEMA PUEYO, J. A., aip. lan.

rioz, halako eraikin bat izateak, merkatal-trafikoa kontrolatzeko eta salerosketetan iruzurrak ekiditeko aukera bikaina eskaini zien hiribilduei⁹⁹.

Errenteriak 1497 urtean erregeendandik lonja ezartzeko eskumena lortu zuenetik hainbat produkturi muga-zergak ezarri zizkien, salbuespen gutxi batzuk ezik 1485etik Donostiak aplikatzen zituenak zirenak. Hauekin batera, pisatze-zerbitzuagatik, produktua lonjan ematen zuen denboragatik eta salerosketagatik ere kobratzen zen. Burdinaren salmentaren inguruan, adibidez, ezberdindu egiten zen lonjan saltzen zen burdinari eta Nafarroa edo Oiartzundik sartzen zenari ezarri beharreko alkabala. Hau gutzia jakinarazteko, eraikinaren ateetan muga-zerga taula eskegi egiten zen¹⁰⁰. Hauek biltzearekin batera, lonjak beste funtzio nabarmen eta famatu bat zuen, “errenteria” izatearena, alegia; hala, burdinarekin lotutako hiru erre-zergak biltzen ziren: alkabala, albala eta hamarren zaharra.

Errotekin gertatu bezala, udalbatzak lonjaren kudeaketa errentamendu bidez egiten zuen. Batzuetan kontratua bi urterako bazen ere, ohikoena urtebeteko epea izaten zen. Hau azaroaren 1ean hasten zen, baina udalbatzak zituen beharren arabera kontratua hainbat hilabete edo urte lehenago egin zitekeen. 1520ko abenduaren 21ean, adibidez, Arnaot Ierobikoari lonja bi urteko epeaz eta urtean 190 dukateko errentaren truke eman zitzaionean, kontratua 1521eko amaieran hasiko zen indarrean, Martin La Renteriakoarena amaitu ondoren. Halaber, Migel Zurubizkoarekin 1523-1524 eta 1524-1525 urteetarako kontratua hitzartu zenenan, hau 1521 ekainaren 20an ospatu zen¹⁰¹. Azkenik, udalbatzak 1529ko apirilaren 4an lonjaren 1531ko errentamendua erramatatu zuten, hau da, 1530eko abenduaren 1ean hasiko zena¹⁰².

Lonjariaren betebeharren artean garrantzitsuenetako bat, azpiegituraren kudeaketa bere mesederako ez erabiltzean zetzan. Hala, hitz eman behar zuen ez zuela, bere negozio propioetan edota birsalmentan garestiago saltzeko helburuarekin, berarentzako eta ezta bere senideentzako burdin kintalik erosiko; honen bidez errentatzailea udal-errenta baten kudeaketaren bidez aberastea edo, behintzat, onuradun bakarra ez izatea ekidin nahi zen eta horretarako, lonjariak zinpekoa egin behar zuen. Neurri hauekin, aurretik eman ziren iruzurrak saiestu nahi ziren, nahiz eta gure garaian horien inguruko hainbat froga izan. Hala, 1539an Martin Perez Akordakoak bere negozioetarako 900 kintal burdin erosi zituela aitortzen

⁹⁹ Ikus ARENILLAS SAN JOSÉ, O.: “El Portugalete que conoció Lope García de Salazar: aspectos políticos, sociales, económicos y urbanísticos”. In: DÍAZ DE DURANA, J. R. eta REGUERA, I. (arg.), aip. lan., 220-221 orr. (199-231).

¹⁰⁰ EUA, A-1-5, 128 at. folk.

¹⁰¹ EUA, A-1-1, 4 au.-at. folk.

¹⁰² EUA, A-1-2, 4. pieza, 19 at.-20 au. folk.


zuen; hainbat hilabete beranduago, 1539-1540ko lonjari izan zen Frantzisko Ibañez Frechillakoak ere, Katalina Iparragirreri 71'5 kintal erosi zizkiola onartzen zuen, Migel Beroizkoa donostiar merkatarri garrantzitsuaren eta Donostian bizi zen Francisco de Miranda merkatarri burgostarraren naora bideratuak zeudenak¹⁰³.

Batzuetan, ordea, errentatzaileari hainbat burdin erosteko baimena ematen zitzaion, baina produktua bere ontzi edo negoziatan bakarrik erabiltzeko baldintzarekin. Orokorrean, udalbatzaren lizentzia hauek ekidin gabeko galerak edo kalteak izaten zirenean ematen ziren, hala nola, gerrek edo izurriteek eragindakoen ondorioz. Horiek izan ziren, adibidez, 1523ko urrian Martin La Renteriakoaren emazte Maria Martinez Akordakoa eta 1524ko abuztuan Migel Zurubizkoa baimentzeko arrazoiak¹⁰⁴.

I GRAFIKOA

LONJAREN ERRENTAMENDUA (1517-1544)

Hondarribian bezala, Errenteriako lonjariak lonjara sartu eta bertatik irtetzen



¹⁰³ EUA, A-1-3, 5 au.-at. folk. eta EUA, A-1-5, 63tris au. eta 64 au. folk.

¹⁰⁴ DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías en Guipúzcoa...*, II, aip. lan., 46 orr. Ald. EUA, A-1-2, 1.go pieza, 53 au.-55 au. folk.; eta EUA, A-1-2, 2. pieza, 50 au.-52 au. folk.

ziren produktuen kontu-liburua izatera behartua zegoen. Guri dagokigunez, gaur egunean ez dugu halako dokumenturik topatu baina badakigu bere garaian errentatzaileek izan zituztela, Martin Aiakoaren heriotzean egin ziren ondasunen inbentarioan ongi islatzen den bezala¹⁰⁵.

Esan dugunez, lonjak diru-sarrera nabariak eman zizkion Errenteriako udalbatzari. I grafikoan ikus dezakegu errentamenduaren balioa pixkanaka igo egin zela, bi igoeraldian izan zituelarik, 1519-1527 eta 1529-1539 urte bitartean, hain zuzen ere. Udalbatzak errenta honengatik lortzen zuen dirua hainbat helburu betetzeko bideratzen zuen, besteak beste, hainbat pertsonak udalbatzaren izenean ordaindutako gastuei aurre egiteko. Hori dela eta, halako kasuetan lonja hipotekatzea ohikoa izaten zen¹⁰⁶.

Halakorik egitea udalbatzaren aurka jokatu zezakeen. Diru-sarrerak lehen bait lehen lortzeko beharrak errentamenduak ahalik eta azkarren egitea ekarriko lukenez, uste baino diru kopuru txikiagoagatik akuran emango ziren. Hala, Martin La Rentereriako udalbatzak Pedro Martinez Enderikakoa merkataria bilbotarrarekin zuen zorra kitatu zuenez, ordainetan 1517ko lonjaren errentamendua eman zitzaion, 120 dukatetan baloratu zena. Hainbat lekukoren arabera, baina, prezio hori ohikoa baino 50-100 dukat gutxiago zen eta ondorioz, datu honek, errenta gerora 1521ean ikus ditzakegun 190 dukat ingurugatik ematen zela aditzera ematen digu¹⁰⁷. Edonola ere, 1527-1531 bitartean ikus dezakegun beheranzko joera ezik, lonjaren errentamenduak argi egin zuen gora eta beraz, merkatal-trafiko handiago bat eta testuinguru komertzial positibo baten aurrean gaudela ondorioztatu dezakegu. Gainera, 40ko hamarkada hasieran beherakada bat hasi bazuen ere, balio altuak mantendu zituen, bai behintzat, gure garaiko urte gehienetan izan zirenekin alderatuta.

Udal kontuen inguruan dugun informazioa oso urria bada ere, argi eta garbi adierazten du lonjari atxikitutako udal-errenta hiribilduko nagusienetako bat izan zela. 1534 eta 1538 urteetan diru-sarrera guztien %30-a baino pixka bat gehiago izan zen. Lehenengo urtean 250 dukatengatik (93.750 marai) errentan eman zen, %30'51-a. 1538an, aldiz, 412 dukat (154.500 marai), diru-sarreraren %33'47-a. Beste urte batzuetan berriz, portzentaiak nabarmen egin zuen gora: 1522an, adibidez, nahiz eta 200 dukatetan (75.000 marai) errentan eman, sarrerei ia %46ko ekarpena egin zien (%45'93).

¹⁰⁵ GAO-AGG CO MCI 57.

¹⁰⁶ Hainbat adibidetarako, ikus EUA, A-1-1, 22 au.-23 at. folk.; eta EUA, A-1-5, 64 au. eta 60tris au.-61 tris at. folk.

¹⁰⁷ Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Olvidados, 277-4, 157 au. eta hh. fol. Errentamenduaren balioaren inguruan, ibidem, 70 at.-71 au. folk.

b) Hainbat lonja badian zehar? Kokapenaren arazoa

Ohikoa izan da Errenteriako lonja gaur egungo Foruen Enparantza dagoen lekuan kokatzea. Halakorik adierazteko oinarri dokumentalak hartu dira, 1497 mesedea hain zuzen ere. Bertan ezarritako xedapenen arabera, lonjaren kokalekua honakoa izango zen: “*la casa de Pero de Amasa, vesino de la dicha villa, que está junto con la puerta que salen de la dicha villa para la villa de San Sebastián a man izquierda*; por quanto al presente la dicha villa non tiene facultad para faser e hedificar nueva casa e loja”.

Ordutik, eta eraikinaren eraikuntza amaitu bitartean, etxe horrek lonja funtzioak beteko zituen; baina beranduago, espresuki sortutako eraikin berrira lekualdatuko zen. Hau ez zen 1499 urtea baino lehen gertatu. Hala ematen du aditzera Esteban Santrazelaikoak, Juan Perez Idiakaizkoaren aurka bere iloba Frantzisko Arranomendikoak zuen obligazioa bete zuenean; izan ere, Estebanek, Frantziskok Juan Perezi zor zizkion kintal burdinak ordaindu zizkionean, hauek Pedro Amasakoaren etxean egon zirela aipatzen da eta ondorioz, lehenengo urteetan lonja funtzioa etxe horrek bete zuela islatzen duen datua da¹⁰⁸.

Esan bezala, 1497ko dokumentuak Amasaren etxea behin-behineko lonja zela zioen, berria eraiki arte. Harriagarria bada ere, ez dakigu hau noiz egin zen. Egile batzuek 1539 urte inguruan eraiki zela diote, Pedro Amasakoaren etxea ezusteko sute batek erre zuenean. Baina urte horretako aktek ez dute gertakari honen inguruan ezer adierazten¹⁰⁹.

Kontsultatutako dokumentazioak, gainera, teoria hau ezeztatzen du. XVI. mendeko bigarren erdialdean lonja Maria Juan Aldabekoaren etxean egon zen eta ondoren, 1569ko otsailean, Fernando Orozkokoaren oinordekoenean¹¹⁰. Hala-ber, 1553an Oiartzunek halako azpiegitura eraiki gabe zegoela adierazten zuen eta Errenteriak ez zuen baieztapen hau ukatzen; aitzitik, urtebete lehenago, hiribildua Jeronimo Isastikoarenak ziren zoru batzuetan begirada jarri zuen, bertan udaletxea eta lonja eraikitzeko asmoz¹¹¹. Azkenik, nahiz eta 1549an egin ziren kaleen lauzadura-lanen zerrendan lonja-etxea (“*casa de la lonja*”) agertu, aipamen orokor bat dela uste dugu; hau da, funtzio hori zuen etxe partikular bati erreferentzia egiten zitzaiola, udaletxearekin hamarkada hauetan gertatu zen bezala¹¹².

¹⁰⁸ Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1668-4, 81 au. fol.

¹⁰⁹ Ald. BOZAS URRUTIA, E.: *Andanzas y mudanzas de mi pueblo (Rentería en la leyenda y en la historia). Nere herriaren ibillaldiak eta gora-beherak (Errenteria kondarian eta ipuin-zaharretan)*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1976, 121 orr.

¹¹⁰ DIEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías en Guipúzcoa...*, II, aip. lan., 303 orr.

¹¹¹ EUA, C-5-II-11-1, 51 au.-at. folk.; eta HH. EE.: *Errenteriako eraikuntza historikoak...*, aip. lan., 18 orr.

¹¹² EUA, A-1-6, 20 au. fol.

Ondorioz, gure garaian ez zen lonja eraiki eta funtzio hori betetzeko etxe partikularrak erabili ziren, errentatzaileenak bereziki. Honen inguruan dugun adibiderik garbiena 1541ko abuztuaren 31koa da. Egun horretan ospatu zen udalbatzarrean, errejimenduak errentatzaileek “*han de tener lonja e fierros en sus casas en perjuicio de la villa*” buruz eztabaidatu zuen, eta honek argi eta garbi adierazten du ordura arte halako eraikinik ez zegoela eta funtzio horretan lonjaren ardura hartzen zutenen etxeak erabili zirela¹¹³. Honen ildotik, badakigu 1520a baino lehenago Martin La Renteriakoa kapitainaren etxea lonja moduan erabili zela eta garai honetan pertsona bera errentatzaile izan zela¹¹⁴. Halaber, orain darabilgun hipotesia Amasaren kasuak berak baieztatu dezake, lonjari izan baitzen XV. mende amaieran eta 1497an azpiegitura bere etxean jartzeko arrazoirik nagusia hori izan zelakoan gaude¹¹⁵.

Datu hauekin batera, orain arte ezezagunak ziren batzuk topatu ditugu, Oiartzun eta Errenteriaren arteko tirabirak lonjaren esparrura hedatu zirela adierazten ditugutenak.

1540an udal aktek “*la rentería del peso de las benas que el dicho conçejo [Errenteriakoa] tiene en el canal del Pasaje, cerca las casas de Vizcaya*” buruzko aipamena egiten dute, orain arte oharkabean pasa dena¹¹⁶. Hirigunetik aldentuta zegoen azpiegitura honen zergatirako hainbat hipotesi pentsa daitezke: lonja eta pisua (errenteria) banatuak egotea; lonjak kokapen aldaketak izan izana edo, 1539ko ustezko sutearen hipotesia jarraituz, azpiegitura hau (edo, behintzat, errenteria) pasaitar gunen horretan behin-behinean kokatzea. Gure ustetan, baina, Bizkaiaiko errenteriaren aipamena ulertzeko XV. mende amaierako eta XVI hasierako hainbat datuetara jo behar dugu.

Lehenengo eta behin, 1478ko Oiartzun eta Donostiaren arteko akordio eta elkarrenganako barkamen hitzarmenean jarriko dugu begirada. Dakigunez, elkarren artean izandako liskarren ondorioz sortutako dokumentua da. Bertan jaso ziren xedapen ezberdinen artean, hiribildu donostiarraren jurisdikziopean zeuden lurretan lonja baten eraikuntza zegoen. Honek, Oiartzunera kanpotarrek zekarten eta lurreratu behar zuten alearen erdia gordetzeko balioko zuen eta baita bailaratik portua erabiliz itsasoratuko zen burdina biltzeko; bertan bildutako erretegi dago kienez, erdi bana banatuko zituzten Oiartzunek eta Donostiak¹¹⁷.

¹¹³ EUA, A-1-5, 111 au.- at. folk.

¹¹⁴ Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 497-1, 38 au. fol.

¹¹⁵ Ald. AGS. RGS. 1503-IV, 91 fol.

¹¹⁶ EUA, A-1-5, 16 at.-17 at. folk.

¹¹⁷ CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan., 70. dok.

Ez dakigu hitzartutako eraikina baldintza horietan eraiki zen ala ez. Gure ustetan Donostiak bai, halako azpiegitura bat eraiki zuten, kutsu militar argia eman ziolarik; San Pedroko dorre famatuaz ari gara, badian eskumenak zituzten portuzainen bizileku zena. Alabaina, Erreteriak 1478ko akordioari apelazioa jarri ondoren, uste dugu hau ez zela bere osotasunean burutu; hau da, Donostiak berak bakarrik erabiltzeko eraikina altxatu zuela.

Izan ere, gure hiribilduak Donostia eta Oiartzun arteko hitzarmena bertan behera gelditu zedin eskatzen zuten eta horrekin batera, berezko lonja bat eraikitzeko eskubidea izatea eskatu zuten. Azken finean, ezin dugu ahaztu 1477 eta 1485 urte bitartean, Donostiak, Pasaiako portuan eskumen gehiago ematen zizkieten epaien baieztapenekin batera, hiribildutik igarotzen ziren salgaiei zerga ezartzeko eta lonja eraikitzeko pribilegioa lortu zuela. Mesede hauekin, Erreteriak bere merkatal-jarduera garatzeko aukerak murriztuak ikusi zituen. 1497an, baina, oso neurri esanguratsua hartu zuten: berak ere lonja propioa ezartzeko baimena eman ziezaioten eskatu zien erregeei, kaiaren berreraikitzea bideratzeko lanetan laguntza eskatzearekin batera. Lan hauek bertara joaten ziren merkatarien mesedetan zirela zioen eta gainera:

“a cabsa que en la dicha villa non ay lonja en que esté el peso en que se pesen las mercaderías que se venden e compran en la dicha villa, los mercaderes e trantes que van a ella a comprar e vender reçiben muchos engannos e fravdes e colusiones, porque cada vn veçino de la dicha villa tiene dos pesos con que compra e otro con que vende”¹¹⁸.

1478ko akordioa ez zela aurrera atera uste dugu, xedapen horri dagokionez, behintzat. Honek, eta Erreteriak lonjaren mesedea eskuratzeak, Oiartzunen erantzuna ekarri zuten, lonja propioa eraikitzeko eskaera eginaz. Erabaki hau Erreteriarren jarreran zetzan, hainbat urtetatik, Oiartzundik nao eta bateletan jeisten ziren eta zuzenean badian ainguratutako itsasontzietan kargatzen zituzten hainbat salgaiei lonjan kobratzen ziren eskubideak aplikatu nahi zizkielako:

“...qu'estando los veçinos e moradores del dicho valle e tierra en posesyón e costumbre antigua de llevar a cargar sus fierros e mercaderías al puerto de Oyarçun, llamado el Pasaje, e a los puertos de San Sebastián e Fuenterrauía e a otros puertos comarganos pagando de las dichas mercaderías los derechos a nos pertenesçientes e no más, diz que de pocos años acá, los veçinos de Villanueva de La Rentería fizieron vna lonja en la dicha villa e que quando los veçinos e moradores de la dicha tierra de Oyarçun yvan a cargar e cargavan en ella los dichos sus fierros e mercaderías, pagavan allí çiertos derechos de loaje e peso e guarda. E que

¹¹⁸ Ibidem, 92. dok.; eta EUA, C-5-II-11-1, 229 au. fol.

agora, quando los veçinos e moradores del dicho valle e tierra de Oyarçun lleuan los dichos sus hierros e mercaderías en bateles e gabarras por el juncar de la mar abaxo a los cargar en las otras fustas qu'están en el dicho puerto del Pasaje, diz qu'el conçejo e veçinos de la dicha villa de La Rentería les prenden e demandan derechos de loaje e peso como si lo llevasen a la dicha lonja, nunca lo aviendo vsado ni acostumbrado pagar ni aviendo cabsa. Porque en lo qual diz que sy así pasase, la dicha tierra e veçinos d'ella reçeibirían mucho agrauio e daño e çesaría mucha parte del trato d'ella, [honakoa egin ez zedin eskatuz:] qu'el conçejo e veçinos de la dicha villa de La Rentería pidiesen ni llevasen los dichos derechos e dexasen pasar los dichos sus fierros e mercaderías libremente al dicho puerto del Pasaje..."¹¹⁹.

Zalantzarik gabe, eztabaidaren ildotik Oiartzunek lonja eraikitzearen gaia mahai gainean jarri zuen, bere ekonomia eta finantzei onurak ekarriko zizkiela argudiatuz. Hala, 1504ean honakoa eskatzen zuen:

"que los dichos sus partes fasta agora, con la grand neçesydad de los fuertes e duros tiempos que en estas partes ha auido, mayormente desde la quema que los françeses fisyeron en el dicho valle e tierra e su anteyglesia con mucha gente e casas, no han podido haser una lonja en el dicho su puerto del Pasaje e se han fatigado en llevar sus fierros e mercaderías los dichos sus partes a puertos estraños, teniendo el dicho conçejo lugar pronto e aparejado para la haser en el dicho su puerto; e que agora la querrián haser e hedificar en el dicho su puerto en el logar llamado el puerto de Leço, donde no ay lonja alguna..."¹²⁰.

Oiartzunek Lezotik gertu lonja bat eraiki nahi izan zuen, Errenteriako gun e harresitutik urrun eta, teoriar, honek zuen lonjaren kontrako aldean. Baina gure hiribilduak eraikuntzari aurre egin zion, bailarak aukeratutako lekua bere jurisdikzioa zela argudiatuz eta, ondorioz, Oiartzunek lonja bat eraiki nahi izatekotan, bereak ziren lurretan egin zezala esanaz eta ez hiribilduarenak zirenetan¹²¹. Hala, Lezotik gertu zeuden lurak Errenteriarenak izatearen aipamena, hasieran aipatu dugun "Pasaiaiko pisuarekin" zuzenean lotu behar dugula uste dugu; hau da, Bailarak XVI. mende hasieran bere lonja eraiki nahi zuen lekuan hiribilduak pisu hori kokatu zuela, bailaratik jeisten zen burdinaren kontrol zuzenagoa bilatuz eta sinbolikoki, Oiartzunen asmoen aurrean, inguru horretan zituen lurren jabetza azpimarratuz.

Oiartzunen portu-interesak *su-egurraren* betearazlean ere agerian geratzen zen. Orduan, itsasertzek eta ihitzek Errenteriaren eta bere artean aprobetxamendu amankomuna izan zezatela eskatzen zuen. Baina, hala ere, gogoan zuen liskarrak

¹¹⁹ AGS. RGS. 1503-VIII, 160 fol.

¹²⁰ AGS. RGS. 1504-X, 331 fol.

¹²¹ AGS. RGS. 1504-X, 111 fol.

jarraitzekotan, gune horien jabetza zatitu beharko zela. Eta hau gertatzen bazen, berari hainbat lur egokituko zitzaizkion, lonja propioa jartzeko balioko zitzaizkiok¹²². Alegia, oraindik 1505-1508 urte bitartean eraikin hori egiteko asmoa agertzen zuen.

Baina ez dirudi Oiartzunen nahi hauek aurrera atera zirenik. 1536ko abenduan bailarak Errenteriak lonjan kobratzen zituen eskubideen gaineko partaidetza izatea eskatu zuenean, alegatuak Errege Katolikoen 1491ko epaian oinarritzen zituen. Bereziki, Errenteriari zegozkion itsaso zati eta itsasertzak hiribildurako eta bailararako aprobetxamendu amankomuna izango zutela jasotzen zuen xedapenean. Hala, ihitzak ere portuko erriberatzat hartu zitezela eskatzen zuen eta ondorioz, beraien ustiapena amankomuna izatea; oraingoan, baina, 30 urte lehenago ez bezala, ez zuen lonjaren eraikuntza eskatzen. Aitzitik, eraikinaren eta lur horien gozamina eta kudeaketa amankomuna izatean jartzen zituen bere saiakerak. Baina hau ez zen erdi banakoa izango. Probintziaren gastuak ordaintzeko erabiltzen zen errepertimendu sutenaren sistemaren oinarrituz, lonjaren bidez biltzen zen diruraren bi heren bailararentzako izan zitezela nahi zuen, Errenteriak beste herena jasoko zuelarik. Eskaera edozein delarik ere, azpimarratu nahi duguna zera da: ordura arte eskualdean eraikitako lonja bakarra Errenteriarena zela¹²³.

Hala, XVI. mende hasieran berezko lonja eraikitzeari buruz egin zituen eskaerak jaso zituzten ezezkoen aurrean, Oiartzunek taktikaz aldatu zuen; ordutik, hiribilduan kokatutako lonjaren ustiapenaren zati bat eskatuko zuen. Hala, 1536 eta 1565 artean, auzi luze bat jazoko da, lonjaren erabilera eta ustiapenaren inguruan. Azken honen ondorioz, bailarak lortu zuen nahi zuena, lonjako kudeaketan esku hartzea; hortik aurrera errentamendua bi udalbatzen onespenearekin egin beharko zen. Epaia, baina, ez zen guztiz bere aldekoa izan, kudeaketa erdi bana izango baitzen. Hala, Errenteriaren eskumen galeraren ordainetan, Oiartzunek ordur geroztik eta ordura arte lonjan egin ziren hobekuntzek eta beste hainbat lanek eraginda-ko gastuen erdia ordainduko zuen¹²⁴.

¹²² “e qu’el dicho puerto del juncar e su ynterese e aprovechamiento heran comunes e non se les podía quitar la facultad que sus partes [Oiartzun] tenían de faser casa de loja, pues que de otra manera non se podrían aprovechar del dicho puerto (...). Lo otro, porque quedando por común el dicho juncal e puerto quedaría descordia, e se deuiera mandar qu’estuuiese la comunidad en todo o partirse la comunidad todo e partirse del todo e no se fazer partiçión solamente lo que la villa quería, porque los dichos sus partes, quitádoles los montes, ternian neçesidad de tratar por la mar”. Horregatik, zera eskatzen zuten: “que los dichos sus partes pudiesen gozar del dicho juncar e puerto como los de La Rentería e fazer allí lonja aparte de la que la villa tenía”. EUA, C-5-II-1-5, 5 au.-at. folk.

¹²³ *Ibidem*, 6 at. fol.

¹²⁴ Laburpen baterako, ikus: DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías en Guipúzcoa...*, II, aip. lan., 302-303 orr.; eta GOÑI GALARRAGA, J., aip. lan., 50 orr.

Baliteke auzi honen ondorioz hiribilduak lonjaren kokapena aldatzea eta hasieran zegoen lekuaren kontrako aldean jartzeko erabakia hartzea, horrela Oiartzun ibaitik igo edo jeisten zen burdina hobeto kontrolatuko zuelarik. Hipotesi hau nolabait ondorioztatu daiteke 1569an gertatu zen lonjaren kokapen aldaketa kontuan hartzen badugu: Fernando Orozkokoaren etxeak Beheko Kalen baitzeuden¹²⁵.

Laburbilduz, zera esan dezakegu: Errenteriak ez zuela lonjara bideratutako erai-kin berezi bat, gutxienez XVI. mendeko bigarren erdira arte. Ordura arte, azpiegitura hori hainbat etxe partikularretan kokatu zen, bai hainbat ikerkuntzek aipatu duten lekuan, baina baita beste batzuetan ere, bereziki errentatzaileenak zirenetan. Bestalde, 1538 eta 1540 artean dokumentazioak aipatzen duten *Pasaiako pisuak*, Errenteriaren saiakera bat agertuko luke Oiartzunek ibaitik behera garraiatzen zuen burdina kontrolatzeko, bailarak hainbat hamarkada lehenago bere lonja propioa ezartzeko aukeratu zuen puntuan jarritz.

¹²⁵ 1811ko aipameneren arabera. Ikus EUA D-4-1-1 eta baita *Errenteriako Toponimia*, aip. lan.

III.

MERKATAL DINAMIKA XV. MENDE AMAIERAN ETA XVI. MENDE HASIERAN

Pasaiaiko badiako merkatal-jarduera, bereziki burdinaren esportazioari lotutakoa, XIII. mende amaieratik dokumentatua dugu. Bailarako meatzeek, baso eta ur aberastasunarekin batera, eskualdean burdinola ugari ezartzea posible egin zuten: bertan, eraikin hauentzako oinarritzkoa zen egur-ikatzza egiteko beharrezkoa zen egurra zegoen, ibaietako urek burdinolak martxan jartzeko indar eragilea ematen zuen eta meatzeek, Bizkaiatik inportatutako minerala baino neurri txikiagoan bazen ere, lehengaiak hornitzen zituzten higiezin horiek. Honekin batera, itsas jardueren garapenak, arrantzak eta garraioak bereziki, inguruko burdinolatan ekoizten zen burdina Europako hainbat lekutara esportatzea posible egin zuen; eta honek, ordaintan, Gipuzkoan zegoen labore eskasiari aurre egiteko tresna sortu zuten, aleen inportazioari lekua irekiz.



Ontzi baten marrazkia 1590/05/30ko eskritura batean
(GPAH-AHPG, 3/3403, 90 at. fol.)

Merkatal garapen honi lotutako datuak nahiko goiztiarrak dira. Burdin esportazioari buruzko 1293-94 datuez gain, XIV. mende hasieran bide beretik doan informazioa ere badugu. Batetik, Hondarribia eta Getaria arteko itsas-bidea finkatzeko asmoarekin, badiako bokalean, San Pedroko Ondartxotik gertu, ainguraleku bat ezarri zen 1318an; bestetik, 1328an Irun eta Oiartzuni emandako Burdinolen Foruak esparru honetako langileei abantaila garrantzitsuak eskaini zizkien. Badia eta eskualdea, beraz, geroz eta pisu handiagoa izaten ari zirela ondorioztatu dezakegu.

Gertakari hauei oso esanguratsua den beste bat gaineratuko zaie: 1320ko Villanueva de Oiartzun hiribilduaren fundazioa, hain zuzen ere. Egia da hasiera batean populazio gune hau sortzeko arrazoirik nagusiena inguruko biztanleei babeslekua ematean zetzala. Dokumentuak hori oso argi uzten du:

“el conçeio de Oyarço, porque ellos sean mejor poblados sean mejor poblados e sean más aguardados de mal e de danno (...), por quanto ellos eran poblados en frontera de Navarra e de Gascuenna e las sus casas de morada eran apartadas las unas de las otras e non eran poblados de so uno. E quando acaesçia que algunas gentes malas, assí de Navarra e de Gascuenna commo de Guipusca, por y acaesçian que porque tan ayna non se podían acorrer los unos a los otros para se defender d'ellos, de los males e tuertos e robos que los fasían e recibían (...) E por quanto fuessen más aguardados e deffendidos d'estos males (...) nos pidían merçed que toviésemos por bien de les dar nuestro preuilegio porque todos de so uno fisiessen puebla de villa en el dicho logar de Orereta”¹²⁶.

Baina honekin batera, hasierako paragrafoetan aipatu ditugun datuek eskualdea garraio eta merkataritza jardueren pixkanako garapen bat ezagutzen ari zela adierazten digute. Hori dela eta, testuinguru ekonomiko positiboak ere hiribildua fundatzeko berebiziko arrazoi bat eskaini zuelakoan gaude. Izan ere, Oreretako lekuan ezartzen zen hirigune berria bailarako burdinoletatik aldenduta eta badia ondoan kokatua zegoen. Alegia, industriari edo abeltzaintzari lotutako jarduerak aurrera eramateko horren aproposa ez zen lekua, baina bai, ordea, merkataritzari eta itsasoari lotutakoak garatzeko aukera bikaina eskaintzen zuena.

Dirudenez, hamarkadak igaro ahala, hiribildu berria geroz eta garrantzia handiagoa eskuratzen ari zen eta lehenengo tentsioak Oiartzun eta Errenteriarren artekoak izan baziren ere, handik gutxira beste eragile batek hartuko du protagonismo nagusia borroka honetan: Donostiak, alegia.

¹²⁶ CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, I, aip. lan., 3. dok.

1. Pasaiaiko badia, tentsio gunea

Oiartzunekin gertatu bezala, Donostiarekin izandako tirabirak hamarkada luzeetatik zetozen, baina 1456 urtearen atarian areagotu egin ziren; hain zuzen, urte horretan emandako epaiak liskar armatuak eta hildakoak aipatzen zituen¹²⁷.

Epai honek 1376koa berresten zuen, Errenteriari bertara, Oiartzunera eta eskualdeko burdinoletara zuzenduak zeuden salgaien lurreratzea uzten ziolarik; halaber, Villanuevako arrantzaleek badian zehar arrantzua askatasunez egin zezaketzen. Baina horrekin batera, epaiak Donostiari eskumen gehiago ematen jarraitzen zuen. Hala, Oiartzungo portura iristen eta porturatzen ziren Errenteriako auzotar ez ziren itsasgizonen ontziek, ordura arte Donostian lehorreratzten zuten ogiaren eta beste salgaien zatia hiribildu honetan lurreratzten jarraitu behar zuten. Honez gain, eta merkatal-jarduera bati bideratutako produktuei dagokienez, erdia Donostian deskargatu behar zen eta beste erdia berriz, ezin zen badian lehorreratu. Ondorioz, Oarsoaldeko merkataritza garapena galarazteko saiakerak bere horretan zirauen. Bistan da, baina, 1456ko epaiaren ondoren izan ziren gertakariak ez zutela arazoa konpondu. Izan ere, aurreko urteetan gertatu bezala, 1473an eskualdean oso liskar larriak jazo ziren: 100 hildako, lapurretak eta etxe-erreketak, besteak beste.

1475ean emandako epai berri bat egoera baretzen saiatuko da. Urte horretako maiatzean, Migel Santxez Ugartekoak eta Juan Martinez de Radak beraien epaia argitaratu zuten, Juan de la Villa eta Gonzalo García de Villadiego doktoreek hila-bete batzuk lehenago emandakoa berretsiz¹²⁸.

1456 urtean bezala, portuaren errege-titulartasuna baieztatzen zen eta beraz, bi aldeei arrantzan aritzeko, itsasontziak bertan izateko eta hauen sartu-irtena egiteko askatasuna ematen zitzaien. Lehorreko mugei dagokienez, bokalearen eta Molinao artean eta itsasgorak ureztatzen zituen lurak Donostiaren jurisdikziopean sartuko ziren, eta horiekin batera honako mugetan zeudenak: “*dende arriba fasta donde atienen los términos e juridiçión de la dicha villa de San Sebastián en la tierra firme e junta con la dicha ribera por donde sube la cresçiente de la mar fasia la dicha Villa Nueva de Oyarçun*”. Baina aurreko epaiak adosten zuen moduan, Errenteriako auzotar eta biztanleak, ontziak eta salgaiak, gure hiribilduaren jurisdikziopean egongo ziren.

Alabaina, Donostiari portuaren eta uraren jurisdikzioa ematen jarraitzen zitzaion. Orokorrean urarekiko bi jurisdikzio mota zeuden: hiribildu bakoitzarena bakarrik

¹²⁷ Ibidem, 44. dok.

¹²⁸ CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan, 64. dok.

zena (hau da, Donostia, Errenteria edo Hondarribiarena) eta metatua, alegia, justizia ezberdinek eskumena zutena. Matxingo lurmuturretik Basanoagaraino, Labordako erroten parean, metatze-jurisdikzio esparrua izango da. Matxingotik Lezoko elizaraino zihoan irudizko lerroak, aldiz, Errenteriarri bakarrik zegokion jurisdikzioa osatzen zuen. Basanoagatik Herrerarainoko zatiak Donostiarena bakarrik zen jurisdikzio-gunea osatuko luke, nahiz eta hemen egon zitezkeen Errenteriako, Oiartzungo edo bailarako burdinoletako auzotarren eta ontzien gain, Urumeako hiribilduak eskumenik izan ez¹²⁹. Badakigu Errenteria eta Donostia arteko mugetako bat Molinaoko senaiatik haratago zegoela eta mugarriak Basanoaga Txipi eta Basanoaga Handi etxeetan izateaz gain, beste bat “vn poco más azia La Rentería, del dicho seno de mar”-n zegoela¹³⁰.

Hasiera batean, XIV. mende amaieran, elkarren arteko arazoak konpontzeko, Donostiak bide judizialarekin batera San Pedroko gunea populatzeari ekin bazion, 1475eko epaiarekin badiako itsas-trafikoa kontrolatzen zuten ordezkarien inguruko eskumenak areagotzea lortu zuen.

Hala, momentu horretatik aurrera, Donostia izango zen portuzainak izendatzeko eskumena izango zuen hiribildu bakarra. Portuzain hauek portuan eskubide nahiz zerga ezberdinak biltzeko ardura zuten ofizialak ziren eta, horrez gain, itsas-trafiko osoa ikuskatzen zuten, badian sartzen eta ateratzen ziren salgaien kontrol zorrotz bat eramanez¹³¹. Donostiak lortutako neurriaren garrantzia nabaria da, bereziki kontuan hartzen badugu XIV. mendera arte portuzainen izendapena badian eskumena zuten hiribildu ezberdinek egiten zutela eta ez, ordea, bakarrak. 1475eko epaiaren bidez, Donostiak izendapen hau bere esku bakarrik egon dadila lortuko du; ondorioz, ofizial horiek Urumeako hiribilduaren interesen babesle bihurtuko dira¹³². Gainera, badiako edozein biztanlek legea betetzen ez bazuen, Donostiak betearazte neurri bizkorragoak erabili zitzaizkeen, hala nola, portuzainen bizileku zen San Pedroko dorretik kanoikadak botaz. Adibide bat 1527ko martxoaren 6ko udal-aktan jasotzen da; orduan, errejimenduak Gaspar Pontikakoari dorrera joateko mandatua egin zion, “*a les requerir que non tiren al flayn porque lo traen los d’esta villa*”¹³³.

¹²⁹ Ald. OUA, C-4-8-1, 298 fol.

¹³⁰ GAO-AGG CRI 2,2, passim. Juan Sanz Pikardiakoaren lekukotza hartzen dugu.

¹³¹ Ikus GAO-AGG CO CRI 1,4.

¹³² Horiei buruz, ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 97-98 orr. Egile honek jada, 1475eko epaia Donostiaren eskumen aregotzean izan zuen garrantzia aipatzen zuen.

¹³³ EUA, A-1-2, 3. pieza, 12 at.-13 au. folk. 1537an izan ziren arazoetan dagoeneko aipatzen zen donostiarrek zera egiten zutela: “adrecaban la artillería de la torre del Pasaje”. GAO-AGG CO CRI, 1,4. Beste adibide baterako, oraingoan Hondarribiko auzotar batekin lotutakoa, ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 101 orr.

1475eko epaiarekin batera, Donostiak eta Oiartzunek 1478an sinatutako bake eta elkarrekiko barkamen akordioa aipatu behar dugu. Bereziki, portuko erabilpen amankomuna adosten bazuen ere, 1376 eta 1475 urteetako epaiak berresten zituelako eta merkatalgaien kontrolari eta fiskalitateari atxikitutako xedapenak zituelako; besteak beste, lonja baten eraikuntza. Baina honez gain, bi populazio horien arteko akordioak askoz esanguratsuagoa den zerbait islatzen du, ez baitzuen Erretereria aintzat hartzen. Are gehiago, honek ez zuen hitzarmenean parte hartu¹³⁴. Normala denez, gure hiribilduak 1475eko epaia eta 1478ko akordioak apelatu egin zituen, nahiz eta arrakasta handirik lortu ez. Izan ere, 1479ko apirilaren 28an, Errege Katolikoek Erretereriaren eskubideak errespeta zitezen xedatzen bazuten ere, Donostia eta Oiartzungo eskaerak aintzat hartuz, bi dokumentuen betetzea agindu zuten¹³⁵.

Liskar hauetan Donostiaren asmoak ez ditugu portuaren jabetza eskubidearen defentsa bezala ikusi behar, aitzitik, dokumentazioak argi uzten du behin eta berriz portua “publikoa” zela, erregearena. Hiribildu horren nahiak, beraz, errenten eta diru-sarreraren defentsarekin lotu behar ditugu. Portuaren gaineko jurisdikzioaren zaindari zen heinean, bere auzotar ez zirenei itsasoaren erabilera bermatzen zien oinarrizko beharrak asetzeko, baina inoiz ez horren bidez etekinak atera, aberastu edo dirua lortzeko. Dokumentazioak oso ongi azaltzen du jarrera hau: Erretereriaren arrantza jarduera eta hainbat produktu hiribildu honetara iritsi zitezela uzten zen, baina oinarrizko beharrak asetzeko bakarrik, merkataritzari aurrera egiteko aukerarik eman gabe¹³⁶.

Alabaina, ez dirudi Erretereriaren merkatal-jardueraren garapenari muga jartzeko ekimenek beraien helburua guztiz lortu zutenik. Aitzitik, datuek hori ematen ari zela adierazten digute. Eta adibide ezin hobea dugu 1475eko epaia posible egin zuen berehalako gertakarian: donostiarrek Pasaiara garia lurreratu eta burdina esportatzeko asmoarekin iritsi berri zen itsasontzi ingeles baten atxikitzean, hain zuzen ere. Donostiak produktuen karga eta deskarga kontrolatzeko asmoen ondorioz, etengabeko liskarrak eta kexuak emango dira. 1501ean adibidez, Donostia eta Erretereriaren arteko tirabira Sebastian Isastikoak bere karabelan merkataria ingeles batzuen baba kargamentua Erretereriara eramateagatik sortu zen¹³⁷.

¹³⁴ CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan., 72. dok.

¹³⁵ *Ibidem*, 73. dok.

¹³⁶ ARÍZAGA BOLUMBURU, B.: “La actividad comercial de los puertos vascos y cántabros medievales en el Atlántico”. In: *Historia, Instituciones, Documentos*, 35 (2008), 29 orr. (25-43).

¹³⁷ Ikus OUA, C-4-3-2, 139 au.-206 at. folk.

Beheko kaleko 3 zenbakiko arkuan dagoen elementua. Honek, "IHS"-en ordez, gurutze formako aingura bat eta izarrak diruditen bi elementu ditu (Argazkia: Iago Irijoa Cortés).



Gertakari hauek guztiak ez zeuden indarkeriaz salbu eta batzuetan, hiribilduetako nahiz Probintziako ordezkariak erasoak pairatu behar izan zituzten. 1530ean, agintari donostiarrek Jeronimo Isastikoa eta Martin Santxez Villaviciosakoa donibandarra atxilotu zituzten, Pasai Donibaneko beste hainbat auzotarrekin batera Donostiako probestuordea eta berarekin zihonan eskribaua iraindu eta jotzeagatik. Dirudenez, hau guztia azken bi hauek Isasti ontzi-maisu zen Villaviciosaren naoan zegoen garia ikuskatzera joan zirenean gertatu zen¹³⁸.

Istilu larrienetako bat 1534an eman zen, Donostiak korrejidorearen aurrean salaketa jarri ondoren. Antza denez, Santxo Alkizakoa hondarribiarrak Donibanen mahaspasa kargamentu bat lurreratu zuen, Donostiak duela gutxi lortutako errege-betearazle batek xedatuakoaren aurka joanez. Probintziako merioak kargamentua ikuskatzeko asmoa agertu zuenean hasi zen iskanbila. Hondarribiko eta Errenteriako alkateek ere parte hartu zuten, eta arazoaren inguruan erabaki bat hartzeko Donibanen ospatu zuten bileran merioa agertu zenean, hau hiltzeko zorian egon ziren¹³⁹.

Liskarretan ere, udalbatzako agintarien atxiloketak izan ziren. 1520an, adibidez, Bordeletik zetorren eta badian lehorreratu zen gari eta ardo kargamentu bati buruz zuten auziaren testuinguruan, Errenteriako alkateek Donostiako alkate Martin Ibañez Ibaizabalgoa espetxeratu zuten¹⁴⁰.

¹³⁸ GAO-AGG CO CRI 2,2.

¹³⁹ EUA, C-5-I-1-7.

¹⁴⁰ OUA, C-4-5-4, 75 au.-82 at. folk. eta AGS. RGS. 1520-VI, 5 fol.

1537an antzeko zerbait gertatu zen¹⁴¹. Donostiako errejimenduko hainbat kide, batel batean itsasoraturik, portuko jurisdikzioari urteroko bisita egiteko asmotan zeudela, Labordako puntatik haratago iritsi ziren justizia-makila goian zutela, jurisdikzio-eskumena islatzen zuen itxuran, alegia. Dirudienez, Labordan “*está puesto por señal un palo yncado en el suelo del dicho puerto*”, Donostia eta Erreneriaren arteko jurisdikzio muga adierazten zuena. Handik gutxira, Juan Akordakoa alkate erreneriarrak hamar gizon bildu zituen donostiarren batelera joateko asmoz, guztiak “*armados de lanças, espadas, vallestas, escopetas, arcabuzes, dardos, coraças, coseletes, rodela e piedras e otras armas ofensibas e defensibas*”, hauetako batzuk, dirudienez, donibandarrekin emanak. Donostiarrengana iristerakoan, Akordak alkate donostiarrari, bertan egoteko baimentzen errege dokumenturik izan ezean, hortik alde egiteko eskatu zion, Erreneriaren jurisdikzioan baitzeuden. Hau esan ondoren Donostiako pinazan sartu egin zen, bertan zeudenei agente-makilak uzteko eta preso hartuta berarekin Erreneriara joateko aginduz. Donostiako udalbatza-ofizialen erantzuna berehalakoan eman zen:

“Y en esto, los de la dicha pinaça arremangaron con armas que trayan contra el dicho alcalde y contra los otros que con él yban, e vno d’ellos asió al dicho alcalde de La Rentería de la espada que traya en el ciento e gela sacó hasta la mitad; y el dicho alcalde le acudió con la mano yzquierda y le defendió y hirieron vn poco en el dedo a Juanes de Leçañin, ansy puesto a favor del dicho Juanes de Acorda, su alcalde; saltaron este confesante [Domingo Zubietakoa] y los otros que yban con él para que obedeciesen al dicho alcalde; y en esto çesaron las armas de la vna parte a la otra e de la otra a la otra y por el dicho Juanes de Acorda fueron presos”.

Denbora pasa ahala, egoerak okerrera egin zuen. Atxiloketaren ondorioz, donostiarrak, espetxeratuak zeudenak askatzeko asmoz, Erreneriara armaturik joan nahi zutelaren zurrumurrua piztu zen. Juan Akordakoak berak San Pedroko dorreko artilleria prestatzen eta Donostiatik gizon armatuak etortzen ikusi zuela adierazten zuen. Egoera honen aurrean, Erreneriako alkateek beraien auzotarrei hiribildutik ez ateratzeko eta armak prest izateko agindu zieten eta, bidez batez, beraien ere neurriak hartzen hasi ziren: bi gabarra prestatu zituzten bonbarda lodiekin eta bertso izeneko artilleria pieza arinekin, eta hainbat pertsona bidali zituzten laguntza bila, tartean, eskualdean zehar eta Nafarroan ibili zen Zabaletako jauna. Zorionez, Alonso de Sedeño korrejidorea Erreneriara iritsi eta egun gutxira, giroa baretu eta ondorengo hilabeteetan liskarrak bide judizialek bideratzea lortu zuen.

Portuaren inguruko interes-talka honetan, Pasai Donibane eta Erreneria batera arituko dira Donostiaren aurka, honek lehenengo bien itsas-merkataritzaren garape-

¹⁴¹ GAO-AGG CO CRI 1,4.

na kontrolatu nahi zuen eta. Baina beraiekin batera, esparru horretan interesak zituzten beste populazio-guneeek ere hartuko dute parte. 1529 urtean adibidez, Erreterriak, Oiartzunek eta Pasai Donibaneek Gortera joateko prokuradoreak izendatu zituzten, portuaren defentsari eta mantentzeari buruzko hainbat erreklamazio egiteko asmoarekin.

Urumeako hiribilduaren aurkako borroka honen ondorioz, arlo juridikoan populazio-guneei gastu ugari sortuko zaizkie. Egoera hau ikusiz, ez da harritzekoa Donostiaren kontra zeuden komunitateek gastu horiei aurre egiteko kutxa bat sortzea. Hala, Hondarribiak, Erreterriak eta Pasai Donibaneek 300 dukat jartzea erabaki zuten helburu horretarako. Agidanez, Hondarribiko konkistak eta okupazioak hiribildu hau egoera tamalgarrian utzi zuen eta Donostiaren aurkako auzietan beharrezko zituen funtsak biltzea ezinezkoa zitzaion. Ondorioz, hiru populazioek gastuak erdi bana ordainduko zituztela erabaki zuten: Erreterria alde batetik, eta Donibane eta Hondarribia bestetik. Alabaina, ez dirudi neurri honek emaitza onik lortu zuenik. 1535ean, Donibane dirua jartzeko adostu zen banaketa errentagarria ez zela argudiatu zuen eta berak eskatuta, ordutik boltsa hau erabiltzeari utzi zitzaion. Ekimena aurrera atera ez bazen ere, Donostiak ez zuen aukera galdu eta portuaren inguruan ez ezik, hiru herrien akordioa bere aurka hainbat arlotan egiteko elkarte, monopolio eta azpikeria zela salatu zuen¹⁴².

2. Erreterriaren merkataritza-esparruak

Ikus daitekeenez, Pasaiaiko portuak eskualdeko bizitza politiko zein ekonomikoaren eragile eta oinarrietako bat zen. Donostiak bere eskubide eta eskumenak errespetatu zitezten behin eta berriz egiten zituen saiakeren bitartez, Erreterriak merkatal-jarduera garatzeko izan zezakeen berezko gaitasuna itotzen edo mugatzen saiatu zen. Baina dokumentazioak erakusten du, eragozpenak eragozpen, jarduera honen ondorioz gure hiribilduak hainbat biztanle erakarri zituela; batzuk inguruetatik etorritakoak, beste batzuk berriz, urrunagotik ailegatu zirenak.

Horregatik, Oreretako lekuan fundatu zen Villanueva de Oiarso hiribilduaren sorrerak bailarako hainbat biztanlek somatzen zituzten babes-beharrei erantzuten baziren ere, arrazoi ekonomikoek berebiziko faktorea izan zirela uste dugu. Ezin dugu, beraz, fundazioa hauetatik banandu. Zentzuzkoa dirudi hiribilduaren sorrera eskatu zuten bailarako biztanleen artean, Orereta inguruetan finkatuak zeuden hainbat pertsona edo familia ere egon zirela pentsatzea eta, ondorioz, maila politiko garatuago bat zuen populazio baten eraketak merkatal-dinamikaren itzalean sortutako beharrei ere erantzungo ziela. Hala, leku hartan ezarri zen hiribildua badiako mer-

¹⁴² OUA, C-4-3-2.

katal trafikoa kontrolatuko zukeen gunea bihurtuko litzateke, bereziki burdin esportazioari dagokionez¹⁴³.

Populazio berri hau, badian fisikoki kokatua zegoen hiribildu bakarra izaki, eskualdeko zentru ekonomiko nagusia bihurtuko zen eta bere egoerak, hein batean burdin ekoizpena bideratutako bailara bat bere gain hartuz, Errenteriako edota badiatik gertu zeuden biztanleei beraien ogibidea itsasoarekin lotutako jardueretara bideratzea posible egingo luke, dela arrantzara, dela garraio edo merkataritzara. Hala, bailarako familiek lurrarekin eta burdinolekin zerikusia zuten jarduerak izango zituzten bitartean, hiribildukoek itsasoarekin izango lituzkete. XV. mende amaieran, egoera hau erakusten duen dokumenturik badugu, hiribilduko auzotarrak “*no se aprouechan de los dichos términos e montes (...) solamente los que tienen ferrerías, e que todos los más vecinos de la dicha villa biven por la mar e no se aprouechan de los dichos términos*”, aipatzen zenean¹⁴⁴.

Dena den, itsas-jardueratan badian zehar barreiatutako jendeak parte hartzen zuen eta bertan kokatu ziren komunitate ezberdinen arteko hartu-emana oso estua zen. Errenteriako auzotarrak Donibane edo San Pedroko ontzietan edo horko auzotar ziren ontzi-maisuen agindupean engaiatu ziren, baina alderantzizko joera ere eman zen. 1517an, adibidez, Pedro Zubietakoak Pasai Donibanen iloba bat zuela adierazten zuen (bere lehengusinarekin alaba zena) eta gainera, bera, itsas-gizon moduan horko auzotarrekin itsasoan ibilia zela. Donibanen eta San Pedron ahaideak zituen Pedro Agirrekoak, aldiz, hauxe zioen: “*desde veinte años poco más o menos tiempo a esta parte que a mareado por mar en compañía de muchos vecinos del Pasaje de Fuenterrauía, en nauíos de La Rentería, donde este testigo es ueçino*”¹⁴⁵. Azkenik, 1540an, Juan Perez Zubietakoak eta Esteban Alzatekoak Pasai Donibaneko auzotar Migel La Lanakoarekin batera pinaza bat pleitatu zuten, honako helburuarekin: Migelek Ingalaterrarako bidaia egiteko, bertan gari eta artilez kargatzeko, eta kargamentuarekin Errenteriara itzultzeko¹⁴⁶.

Gure auzotarren jarduera lekuak oso ugariak izan ziren. Pasai Donibane eta Donostiaren arteko 1517-1518ko auzi batean badiako biztanleek Kantauri itsasoan dauden Laredo, Santander, Ribadeo, Viveiro, Ferrol, Muxía eta A Coruña portuak eta Cádiz, San Lúcar, Puerto de Santa María eta Málaga bezalako portu andaluzia-

¹⁴³ Egile batzuen arabera, Europako hainbat eskualdetako garapen demografikoa eta ekonomikoa (bereziki merkataritzari dagokiona) ez datoz bat XII. mendetik. Ikus DUTOUR, Th.: *La ciudad medieval. Orígenes y triunfo de la Europa urbana*. Barcelona: Paidós, 2004, 145 orr. Ald. CASADO ALONSO, H.: *El triunfo de mercuro. La presencia castellana en Europa: (siglos XV y XVI)*. Burgos: Cajacírculo, 2003, 21-28 orr.

¹⁴⁴ AGS. RGS. 1497-I, 219 fol.

¹⁴⁵ IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 87. dok., 100 au., 103 au. eta 128 at.-129 au. folk.

¹⁴⁶ *Ibidem*, 55 at.-56 at. folk.

rak ezagutzen zituztela aipatzen zen. 1531n, aldiz, gure badia Britainia, Frantzia, Ingalaterra eta Portugalgo ontziak porturatzen zirela esaten zen¹⁴⁷.

Hauekin batera, produktu mota ugari iristen zen. 1497an lonjan kobratu behar ziren muga-zeren taulak aipatzen zituenez gain, Donostiako hamarren zaharren 1488 eta 1511ko muga-zergek ere adibide ugari eskaintzen dizkigute: lehenengoak 60 produktu baino gehiago jasotzen zituen; bigarrenak, berriz, 50 inguru¹⁴⁸. Horien artean ardoa, sagardoa, baba, bihiak, urdin-belar pastela, erretxina, oholak, arraina, mahaspasak, pikuak, gantza, intsentsua, merkurioa, kortxoa, arpillera, ezta, mela-za, Kornuallesko eta Portugalgo sardinak, papera, kotoia edo beira.

Baina batez ere, badia burdin esportazio eta gari eta oihal inportazio puntu zen. Burdina Oarsoaldean nahiz Nafarroan ekoiztutakoa izan zitekeen; azken finean, ez dugu ahaztu behar Erreterriak, Hondarribia eta Donostiarekin batera, Erreinu Zaharreko merkatarientzako portu naturala osatzen zuela eta beraz, guretik nafar produktuei eta, hein txikiago batean, aragoarrei ere irteera ematen zitzaizela, besteak beste artileari. Berdin gertatzen zen badia iristen ziren arraina, mundruna, oihalak edo larruak bezalako produktu inportatuekin, ez baitzeuden gure zonaldera bakarrik bideratuak; badakigu Ingalaterratik gurera iristen ziren larruak barrukaldean banatzen zirela, Nafarroan edo Aragoi¹⁴⁹.

Merkatari eta garraiolari batzuek urdin-belar pastela, ardoak, arrainak edo babak ontziratzen zituzten bitartean, Mutrikuko merkatariek burdina eta Pasaiara iristen zen erretxina kargatzen zuten beste leku batzuetara eramateko asmoz. Hala, bokalea inportatutako produktuen esportazio gune bihurtzen zen, hau da, banaketa gune.

1463 urtetik Mutrikutik badia ardo-esportazioan ibilitako Pedro Ibartzukoa mutrikuarra honen erakusle da. Berak aipatzen zuenez:

“mareando por mar (...) solía continuar muchas bezes cada año, tres o quatro años en algunos años [sic] e otras bezes dos bezes por año en el dicho lugar del Pasaje, yendo con sus pinazas cargadas de vino (...), e solía entrar con las dichas mercaderías por el dicho puerto del Pasaje y en todo el dicho tiempo (...) solían husar (...) de descargar los dichos vinos e aua en el dicho lugar del Pasaxe de la parte de Fuenterrauía (...) fasta agora puede auer veinte e quatro años, poco más o menos, tornó a ir com [sic] bino desde la dicha uilla de Mostrico [sic] para el dicho lugar del Pasaxe de la parte de Fuenterrauía (...) y a descargado los dichos uinos en el dicho lugar del Pasaxe con lizenzia que en la dicha uilla de San Sebastián a pedido por

¹⁴⁷ PUA, 1665-4; eta IRIXOA CORTES, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 52 orr.

¹⁴⁸ Ald. TELLECHEA IDÍGORAS, J. I.: “El ‘diezmo viejo’ de San Sebastián (1511-1571)”. In: *BEHSS*, 11 (1977), 49-68 orr.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: “El diezmo viejo y seco, o diezmo de la mar de Castilla (siglos XIII-XVI). (Aportación al estudio de la fiscalidad guipuzcoana)”. In: *BEHSS*, 15 (1981), 244 orr. eta hh. eta 3. eranskin dokumentala (187-314). Ald. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, 87. dok., 135 at. fol.

¹⁴⁹ GAO-AGG CO MCI 38.

cinco o seis bezes que a ydo (...) Y dixo más heste testigo, que en el dicho tiempo (...) *largó algunas bezes las dichas pinazas en que solía lleuar los dichos uinos e yerro en la uilla de La Rentería, e tomada la dicha carga de yerro solían tornar a salir por el dicho puerto del Pasaje para la dicha uilla de Motrico e para la dicha uilla de Onoharra [sic]...*¹⁵⁰.

Gure protagonisten jarduera esparrua, ordea, gipuzkoar hiribilduetatik edo penintsulako kostaldetik haratago joango da. Europako merkatal testuinguruan txertatutakako badia baten aurrean gaude eta ondorioz, bertako biztanleak kontinentean zehar ikusteko parada izango dugu, bai Atlantikoan eta baita Mediterraneoan ere.

Horren erakusle argia Erreterriako udalbatza osatzen zuten ofizialek ematen digute, beraien udal-jarduna hainbatetan eten behar izan zutelako bidaiatzen edo itsasoan egoteagatik. Gure garaian adibide ugari izango ditugu horren inguruan. 1527 urtean, Migel Goizuetakoa hamabi nagusiaren hainbat ordezeko izendatuko dira, itsasoan edo bidaiatzen ari zelako; berdin gertatzen da urte berean Martin Arano Hoakoarekin¹⁵¹. 1534ko urtarrilaren 11n, Martin Perez Sarakoa errejidorea bere naoan bidaiatzen ari zen ("*viaje en su nao*") eta urte bereko azaroan, Jeronimo Isastikoak bere udal betebeharrak utzi zituen Flandriarako bidaia egin behar zuelako¹⁵². Hilabete batzuk geroago, 1535eko urtarrilaren 4an, Onofre Isastikoa izango da bazkaldu ondoren ospatu behar zen udalbatzarrera joango ez dena, bere ontzian joan behar zuelako¹⁵³. Azkenik, 1542an hautatu ziren alkateak, Migel Nobleziakoa eta Arnaot Ierobikoa, antzeko egoeran izan ziren: bata Andaluzian baitzegoen; bestea, aldiz, Ingalaterrara bidaia egiteko prest¹⁵⁴.

Hain zuzen ere, Ingalaterra izango da badiako eta, ondorioz, Erreterriako merkatalgune garrantzitsuetako bat¹⁵⁵. Horren erakusle, hiribilduko udalbatzaren ekimen bat dugu; izan ere, ingelesak bakarrik ordaindu beharko luketen alkabala mota bat ezartzea adostu zuen. Aplikatzen hasi eta gutxira, hainbat pertsonak beraien kezka agertu zuten neurriak hiribilduko merkatal-jardueran ondorio negatiboak zituelako, ordurako ingeles batzuk Erreterria utzi eta Donostiara joanak baitziren¹⁵⁶.

¹⁵⁰ IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 87. dok., 153 au. fol.

¹⁵¹ Urtarrila amaieran "ido en veaje" zegoen eta azaroaren 20ean bere ordezeko bat izendatuko da, itsasoan egoteagatik. Martin Arano Hoakoaren ordezkariaren izendapena urriaren 2an egiten da. Ikus EUA, A-1-2, 3. pieza, 9 au., 30 au.-at. eta 36 au.-38 au. folk.

¹⁵² EUA, A-1-4, 8 at. eta 53 au.-55 au. folk.

¹⁵³ *Ibidem*, 59 au. fol.

¹⁵⁴ EUA, A-1-5, 151 at.-152 au. folk.

¹⁵⁵ Behe Erdi Aroko eta Bostehuneko merkatal-bideen inguruan, INCLÁN GIL, E.: "El dinero de la mar": el comercio de la costa vasca con Europa en los siglos XIV al XVI". In: GARCÍA FERNÁNDEZ, E. (arg.): *Bilbao, Vitoria y San Sebastián: Espacios para mercaderes, clérigos y gobernantes en la Edad Media y en la Modernidad*. Bilbo: EHU-UPV, 2005, 17-78 orr.


¹⁵⁶ Gertakarirako, ikus DÍEZ DE SALAZAR, L.: *Ferrerías en Guipúzcoa...*, aip. lan., 327 orr., 701. oharra.

1403: INGELESEN ERASOA, IRUÑEKO MERKATARIAK ZERAMATZAN ERRENTERIAKO ITSASONTZI BATEN AURKA

Gure epe kronologikotik kanpo badago ere, ez dugu Errenteriak eta bere auzotarrek XV. mende hasieran izan zituzten jardueren adibide den aztarna dokumental bikain bat aipatzeko aukera galdu nahi. Batetik, badiaren lotura internazionalak islatzen dituelako; bestetik, Nafarroarekin izan ziren merkatal-harremanen adibide argia delako. Garai honetan, gainera, hartu-eman hauek areagotu ziren, 1401eko abuztuan, Gaztelako Endrike III.ak merkatarri nafareri, beraien salgaiak itsasoratzeko zein lurre-ratzeko Oiartzungo eta Errenterriako portuak erabiltzeko eskumena eman zuelako.

Oraingoan Gillen Puykoa eta Juan Monrealgoa merkatarri iruindarrei gertatutakoaren lekukotza aurkezten dugu. Biek Villanueva de Oiartzungo Santa Maria ontzian burdina eta erregaliza kargatu zituzten besteak beste, edo dokumentuak dioten bezala: “*ils auoient affrette une barge apelle Semte Maria, de la Ville Nebe de Wyarson, roialme de Castille*”. Hala-xe irakurri daiteke handitu dugun testu zatian.

Londresko *Public Record Office* artxiboan gordetzen den dokumentua, Puyk 1403ko uztailaren 3an Ingalaterrako erregeari luzatutako eskaera da, ontzia eta salgaiak berreskuratu nahian. Dirudienez, Flandriako Sluis hirira zihoazenean, ekainaren 19an William Fynne eta Stephen Brown izenekoek atzeman egin zituzten, ontzia Boulougne eta Calaisera eramanez eta bertan salgaiak lurreratuz.



“Suplie (...) humblement Guilliam de Puy, merchant de Pampylon, pour ly et pur Johan de Mount Reall, du dite cite, que come la, on ils auoient affrettee...”



“...une varge apelle Semte Marie, de la Ville Nebe de Wyarson...”
(PRO SC 8/228/11438)

Harreman hau agerian uzten duten datu goiztiarrak baditugu ere, Ingalaterra eta Gipuzkoaren arteko merkatal-loturak, euskal eta britainiarren arteko merkataritzak 1450-1540 garaian izan zuen gorakadarekin areagotu egin ziren¹⁵⁷. Ezaguna da Bristolgo oihal merkatuaren zati handi batek penintsulako erreinuak zituela bere bezero nagusi; 1485 eta 1518 artean, adibidez, hango ekoizpenaren %70a Gaztela eta Aragoiko koroetara bidali zen¹⁵⁸. Ordura arte gaztelar eta frantziar monarkiek mantendu zuten adiskidetze politikak ingeles eta euskaldunen artean istilu ugari sortu zituen, bi aldeen artean sinatutako hitzarmenek ondo azaltzen duten bezala. Gaztela eta Ingalaterraren harremanak geroago baretu baziren ere, tentsioak XV. mendeko bigarren erdialdean nabariak izango dira, baina ez dira bi aldeen artean zeuden merkatal erlazioak gutxitu edo moteltzeko gai izango.

Esan bezala, ingeles eta gipuzkoarren arteko harremanen adibide nabaria XV. mendearen bigarren erdialdean hitzartu zituzten akordioetan dugu. Bi dira azpimarratzekoak: batetik, 1467ko uztailen Ingalaterraren eta Gaztelaren artean sinatu zen Westminstergo Ituna. Honek merkataritza librea baimendu zuen eta bi koroen meneko ziren itsasgizonek pairatutako lapurreta eta erasoen kalteordaina ezartzen zuen. Bestetik, Gipuzkoarentzako adierazgarriagoa dena, 1481ean Probintziak berak eta Ingalaterrako erregeak sinatutako akordioa dugu. Honen bidez, 10 urtez bi aldeen arteko merkataritza bermatzen zen, marka-letrak debekatuz. Azkenik, merkataritza honen arintasunaren erakusle, Errege Katolikoen 1504ko pribilegioa dugu; mesede honi esker, galarazitako produktuak ezik, ingelesek beste edozein salgai esportatzeko askatatsuna izango zuten, ontzi gaztelar (eta bereziki euskaldun) nahiz ingeles bidez egingo zena¹⁵⁹.

Probintzia Ekialdeko (Hondarribia, Pasaia, Erreterria eta Donostia) ontziak Ingalaterran ikusteko, 70eko hamarkadak hainbat berri ematen dizkigu. Erreterriari dagokionez, 1471n bi itsasontzi ditugu, 1474-1475 artean bat eta 1485-1486 bitartean hiru; hauez gain, bertan izan ziren ontzi pasaitarrak ezin ditugu ahaztu, ziur ez badakigu ere, gure auzotarrak horien eskifaien parte izango zirelako¹⁶⁰.

¹⁵⁷ INCLÁN GIL, E., aip. lan., 63 orr.

¹⁵⁸ IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 47-49 eta 52 orr.

¹⁵⁹ ARIZAGA BOLUMBURU, B.: "La actividad comercial...", aip. lan., 40 orr. 1481eko itunerako, BAZÁN DÍAZ, I.: "Degollaron a todos los dichos treynta e tres yngheses e asy degollados dis que los lançaron en la mar". Las hermandades vascas y la lucha contra la piratería en la Baja Edad Media". In: *Itsas Memoria*, 5 (2006), 69-93 orr., bereziki 4. eranskin dokumentala.

¹⁶⁰ CHILDS, W. R.: "Commercial relations between the Basque Provinces and England in the Later Middle Ages, c. 1200-c. 1500". In: *Itsas Memoria*, 4 (2003), 58 orr. (55-64) eta IDEM: "El Consulado del Mar, los mercaderes de Burgos e Inglaterra". In: *Actas del V Centenario del Consulado de Burgos (1494-1994). Tomo 1: Apertura del centenario (21 de Julio de 1994) y Simposio Internacional, "El Consulado de Burgos" (28, 29 y 30 de Septiembre de 1994)*. Burgos: Diputación Provincial de Burgos, 1995, 351-420 orr.

Garai honetako errenteriarren artean aipagarriena Martin Igeldokoa maisua dugu, merkatal-jarduera 1463 eta 1493 artean mantendu zuena¹⁶¹.

Berarekin batera beste bi nabarmenduko dira: Pedro Idiazabalgoa eta Juan Migelez Arranomendikoa. 1471tik aurrera, Bristolgo nahiz hemendik gertu dagoen Taunton hiriko merkatarien garraiolari lanetan ikus ditzakegu. Arranomendi Ingalaterran hil zela uste dugu, bertan hainbat auzien inguruko kudeaketak egiten ari zelarik¹⁶². Idiazabali dagokionez, badakigu William Midwayri hainbat oihal hartu zizkiola, ordainetan 4 burdin upel eman behar zizkiolarik; horrez gain, 1496an Londresen ageri zaigu¹⁶³.

Beste adibide garrantzitsu bat ontzi-maisu Juanto Perez Goizuetakoa dugu. 1485eko martxoan testamentua egiterakoan bi zor besterik ez zituen aipatzen, biak burdin eta oihalekin zerikusia zutenak; biak, baina, oso adierazgarriak dira, Bristolgo auzotarrekin baitzituen: bata Thomas Harper merkatariarekin eta bestea, aldiz, Aymont Estoc izenekoarekin¹⁶⁴. Azkenik, lotura honen adibide bat 1503an dugu. Orduan, Bristolgo merkatari zen Aymont Minotek eta gure auzotar Lope Gartzia Isastikoak konpromiso bat hitzartu zuten, Bristolgo auzotar Laurence Aultonek Isastiri ordaintzea hitz eman zuen diruari buruzkoa¹⁶⁵.

Hala, denborarekin bi aldeen arteko negozioak sortuko dira. Adibide bat John Esterfieldek ematen digu. Gutxienez 1480tik Gaztelara larru esportazioarekin lotutako merkatari honek, urte horietan Juanto Perez Goizuetakoa eta Maria Martin Sarastikoa senar-emazteek eraikitako naoaren zati baten jabe zen; ontzi horretan ere, Hondarribiko probestu Juan Santxez Benesakoak partaidetza zuen. Beste adibide bat William Woseley merkatarian dugu. 1527 eta 1531 artean bere alargun eta oinordekoek Errenteriako udalbatzari ordainketa bat eskatu zioten, honek Williamekin hainbat burdin kopururen inguruan hartu zuen obligazioa zela eta. Ditugun datuen arabera, Woseley XV. mendetik Bordeleko ardoarekin merkatari-tzan ibili zen eta 1503an, berriz, Hondarribian dugu, oihal esportazioari loturik¹⁶⁶.

Merkatari, faktore eta garraiolari atzerritarrekin izandako harreman onek, batzue-

¹⁶¹ CHILDS, W. R.: "Commercial relations...", aip. lan., 59 orr.; IDEM: "El Consulado del Mar...", aip. lan., 382 eta 405 orr.; eta IDEM: *Anglo-Castilian Trade in the later Middle Ages*. Manchester: Manchester University Press, 1978, 227 orr. Datu gehiagorako, ikus FERREIRA PRIEGUE, E. M.^o: *Galicia en el comercio marítimo medieval*. A Coruña: Fundación "Pedro Barrie de la Maza"-Universidad de Santiago, 1988, 501 orr., 32. oharra.

¹⁶² Hala adierazten da ARChV. Reales Ejecutorias, 245-41, 3 au. folioan. Ikus baita, AGS. RGS. 1493-VI, 281 fol.

¹⁶³ ARChV. Reales Ejecutorias, 195-47 eta AGS. RGS. 1493-VIII, 147 fol.

¹⁶⁴ ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 7 at. fol.

¹⁶⁵ GPAH-AHPG 3/285, 6 au. fol.

¹⁶⁶ Ibidem, 14 au. fol.



Severn ibaiko estuarioa eta Bristolgo kanala 1595 inguruan.

Ingalaterrako hiri hau izango da, ezbairik gabe, Errenteriako auzotarren merkataritza-helmuga nagusienetakoa (British Library. Irudiaren iturria: www.europeana.com).

tan arlo horretan aritzen ziren Errenteriako auzotarrei eragozpenak sortu zizkieten, jarduerak era egokian ezin jorratuz. 1527ko azaroan, Onofre Isastikoak, zeinak esanguratsuki bere naoa Bristolera bidaiatzeko pleitatu zuen, kexua aurkezten zuen udalbatzaren aurrean. Hiribilduko lonjan burdina erosteko adina diru bazuen ere, ezin zuen hori egin Migel Zurubizkoa lonjariak honakoa egiten zuelako: “*compra el fierro que viene a la lonja para no vezinos de la dicha villa*”¹⁶⁷.

Baina Bristol eta Errenteriaren arteko lotura estuak adierazten dituen adibide ezin hobea 1540ko martxoaren 17ko aktan islatua dugu. Orduan, bi hiribilduen arteko hartu-emanak senidetatsun moduan definitzen ziren:

“Platicado el regimiento con el señor Juan Oynter, mercader inglés, de cómo el conçejo de esta villa e los d’ella hasta agora han tenido mucha amistad e hermandad con los señores de la villa de Bristol, e cómo el año proximo pasado, para ayuda de los gastos de los cayes e canales nuevos que este conçejo ha fecho avían puesto, que pagasen ciertos maravedís de alcabala e que porque no poner cosa nueva el dicho conçejo ha quitado aquello e les hazen libres de todo ello como avían seydo en los años pasados, e qu’el dicho Juan Oynter les hiziese relación d’ello a los dichos señores de Bristol e a los que más quisiere. E qu’él, sy quisiere el dicho Juan Oynter, al tiempo que partiere lleve una carta sellada con el sello d’esta villa para que vean la voluntad d’esta villa para que dure la dicha hermandad e amistad con los dichos señores de Bristol e lo mismo será para con todos los mercaderes yngleses. E el dicho Juan Oynter dixo qu’él les haría relación e pidió la dicha carta para lo que dicho es e los dichos señores mandaron dar”¹⁶⁸.

Zalantzarik gabe, Bristol zen Pasaiako badiak Ingalaterrarekin zuen lotura estua-

¹⁶⁷ EUA, A-1-2, 3. pieza, 35 au.-36 au. folk.

¹⁶⁸ EUA, A-1-5, 35 au.-36 at. folk.

ren erakusle nagusia, baina ez, ordea, bakarra. Baditugu hainbat datu Plymouth eta Londres ere gure biztanleen jo muga zirela adierazten dutenak. 1550ean Juanes Mendizabalgoa tolosarraren eta Gregorio Akordakoa errenteriarren arteko auzi bat izan zen, lehengoak bigarrenari eginiko mailegu bati buruzkoa. Mailegua, biak Londresen zeudenean egin omen zen; hau dela eta, auzian agertzen diren lekukoek Ingalaterrari buruzko hainbat ekarpen egiten dituzte. Pedro Sableokoak 1530etik Ingalaterrara hainbat bidaia egin zituela zioen, negozioak Londres, Bristol eta beste hainbat lekutan hitzartuz. Martin Berrobikoak eta Migel San Estebangoak ere, antzeko adierazpenak egin zituzten¹⁶⁹.

Ingalaterrako oihalak ez ziren handik ekarritako produktu bakarra. Bristoldik bertatik alea ere ekartzen zen, Juanes Zubietakoa ontzi-maisuak 1529an adierazten zuen bezala¹⁷⁰. Halaber, gure auzotarrek han larruak erosi zituzten eta gero, Errenteriara iristerakoan, barrukaldean banatu zituzten. 1527an, Martin Ezkurrakoak Gillen Lezokoari eta hainbat ingelesei larru kargamentua erosi zien, hau Nafarroan eta Aragoian banatzeko asmoarekin; eta hala egin zuen, Iruñean, bertako hainbat zapatariei saldu baitzien¹⁷¹.

Datuek Ingalaterrarekin harreman estu bat izango dela adierazten badute ere, ez da gure auzotarren norako bakarra izango. Errenteriako ontziak, edo bere auzotarrak eskifaia moduan parte hartzen zutenak, helmuga zuten lekuetan ere pleitatzan ziren. Alegia, behin hara iritsita, garraiatzen zuten salgaien lurreratzeak eta bertan egin zituzten egonaldiak beste merkatari edo faktoreekin harremanetan jartzeko aukera eman zien. Hala, hauek ere kontratatu egingo zituzten beste hainbat lekutara joateko: flandriar, frantziar, andaluziar eta portugaldar hirietara, besteak beste. Bestalde, bidaia berdinak hainbat jardueratan aritzeko aukera ematen zuen, Martin Santxez Villaviciosakoa donibandarrak 1536an aipatzen zuen bezala: Irlandako arrantzura bidaian, Arroxelan geldialdia egin zuen gatzaz hornitzeko eta bide batez, bertan, merkatari nafar bati zuzendutako produktuak deskargatu zituen¹⁷².

Kasu hauetan ere, badiako populazio gune ezberdinetako biztanleen artean zegoen harreman estua kontuan hartu behar dugu. Hala, komunitate ezberdinetako auzotarrek ontzia, eskifaia, produktuak eta helmugak partekatzen zituzten. Horietako adibide bat Juan Goizuetakoak ematen digu, 1506 urtean Irlandako arrantzura Anton Ituraingoa pasaitarraren karabelan joan baitzen¹⁷³.

¹⁶⁹ GAO-AGG CO MEJ 31. Plymouthi buruz, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 120 au. fol.

¹⁷⁰ EUA, A-1-2, 4. pieza, 30 au.-31 at. folk.

¹⁷¹ GAO-AGG CO MCI 38.

¹⁷² IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 52 orr.

¹⁷³ ARChV. Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 24 at. fol.

Badakigu gure auzotarrak Irlandan arrantzuan ibili zirela eta halaber, Flandrian eta Britainian ere izan zirela; baina, harrigarria bada ere, azken bi herrialde horien inguruan badiak eman ditzakeen daturik azpimarragarrienak Pasaia aldetik datoz, ez Erreteriarik: Martin Trintxerrekoa, adibidez, 1534an Sluis eta Arnemuidentera joango da eta Amberesen hilko da 1535 inguruan; aipagarriena, gure kronologiatik haratago badao ere, Pedro Igeldo merkataria sanpedrotarraren kasua dugu, Amberes izan baitzuen bizileku 1570a baino lehen¹⁷⁴.

Gure protagonistei dagokienez, badakigu 1485 urtea baino lehen Juanto Perez Goizuetakoa Flandriara joan zela eta Bordele eta Arroxelako pertsonekin hainbat obligazio hartu zituela¹⁷⁵. Bestalde, Martin Aiakoa Cádizetik Flandriarako bidaiaria egin zuen 1537a baino lehen eta handik bi urtera, 1539an, Martin Perez Sarakoa eta Esteban Herediakoa bertan zeuden¹⁷⁶. Halaber, Juan Granadakoa Arnemuidenten egon zen 1501ean¹⁷⁷ eta hiri berdinean porturatu ziren Erreteriarako hainbat auzotar 1529an, Juan Martinez Gabiriakoak Sabad Isasakoa iraindu eta hiltzen saiatu zenean¹⁷⁸. Azkenik, badakigu XV. mende amaieran Sebastian Isastik Arroxlara hainbat produktu eraman zituela, tartean, sardinak¹⁷⁹.

Atlantiar isurialdeak merkatal jardueratan nagusitasuna izango badu ere, gure auzotarrek ez zituzten beste gune batzuk alboratu. Datuak urriagoak dira, baina Andaluzian eta Mediterraneoan ikusteko aukera eskainiko digute. Granadako konkistak aukera berri bat emango du zonalde horietan negozioak egiteko, Koroak hainbat euskal hiribilduri Andaluziatik beraien hornidurarako beharrezkoa zuten garia ateratzeko baimenak eman baitzituen eta honek kontaktuen areagotzea ekarri zuelako. Erreteria ez da salbuespena izango eta 1503an, adibidez, Andaluziatik eta Granadako erreinutik garia ateratzeko baimena lortu zuen, Sevillatik eta bere lurretik izan ezik¹⁸⁰. Ale merkaturik nagusienak Frantziak, Britainiak eta Ingalaterrak osatuko dituzte, baina frantziarrek sustatutako prezioen egoera eta gartzelar Koroaren dinamika

¹⁷⁴ IRIXOA, CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 55-57 orr. Alabaina, ez genuke ahaztu behar Erreteria eta Flandriaren arteko lotura islatzen duen XVI. mende hasierako adibide bikaina ere badugula, elizako errataula, hain zuzen ere. Ainhoa Rodríguez Lópezen ustetan, 1505-1510ean Flandrian egindako eta kronologia berean handik ekarritako erretaula da. Ikus RODRÍGUEZ LÓPEZ, A.: "La técnica pictórica en relieve del brocado aplicado en el tríptico de la Asunción Coronación de la Virgen de Rentería". In: *Bilduma*, 23 (2010), 87-17 orr. Gure ustetan, baliteke etorrera Erreteriararen independentzia erlijiosoarekin zerikusia izatea, eta beraz, 1515 urte inguruan kokatu beharko genuke.

¹⁷⁵ ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 27 at. fol.

¹⁷⁶ GAO-AGG CO 57 eta ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2, 90 at. fol.

¹⁷⁷ ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1668-4, 90 au. fol.

¹⁷⁸ Kereila kriminalerako, ikus GPAH-AHPG 3/910, 129 au.-131 at. folk.

¹⁷⁹ OUA, C-4-3-2, 160 au. fol.

¹⁸⁰ AGS. CC. Pueblos. Legajo 16-1, 45.

internazionalak, merkatu ezberdinak irekiko ditu, andaluziarra eta Ipar Afrikakoa kasu; hala, Hondarribia eta San Pedroko auzotarrak bertara joango dira¹⁸¹.

Euskal ale beharrei europako hainbat herrialdeetako merkatariek zituztenak batuko zaizkie. Westminstergo Itunak (1467), Mendebaldeko Andaluziaren eta Flandria eta Ingalaterraren arteko merkataritza sustatuko du, Pasaia badiako helmuga nagusia eta Penintsula hegoaldea lotuz. Ingelesen eta Sevillaren arteko harremanetan gipuzkoarrek garraiolari papera beteko dute, nahiz eta Deba eta Urola arroek lehentasuna izango duten Gipuzkoa ekialdekoen aurrean¹⁸².

XV. menderako, Errenteriako auzotarren agerpena Andaluziako kostaldean datu zuzenekin dokumentatua dugu. Kasurik aipagarriena baina, kortsariotza eta itsas lapurreta jardurei lotua dago. Juan Granadako, “Zaharra”, zonalde horretan izan ziren hainbat erasoen protagonista izango da, Errege Katolikoek kapitain jardunaren osagarri bikaina bihurtuko dituelarik¹⁸³. Gure ustetan jarduera hauek testuinguru militarrekin lotu behar dira; izan ere, 1481ean turkiarren Rodasko setioa altxatzeko antolatu zen ontziteria ez zen aurrera atera eta hori dela eta, hainbat itsasontzi, Granadako Gerra bitartean Itsasertza zaintzeari ekin zioten, itsas lapurreta ekintzak eginez¹⁸⁴.

Juanen eta beranduago jorratuko dugun bere izen bereko semearen inguruko informazioez gain, Errenteriako biztanleek Hegoaldean egingo dituzten agerpenek XVI. mendeko lehen erdialdearen hamaieran izango dute protagonismo berezia. Adibiderik esanguratsua Martin Granadakoan dugu, bere 1540ko irailean egin zuen testamentuan; izan ere, hau Sevillako Santa Maria kolazioan zegoela egin zuen eta, gainera, Portugalekiko loturak islatzen ditu¹⁸⁵. Bestalde, nahiko esanguratsua da Martinen arreba Maria Martin Granadako Bergarako zenbaki-eskribau zen Juan Gartzia Eginokoarekin ezkontzea; hau Egin-Malleakoen ahaide zuzena zen, alegia, Andaluzian interesak zituen merkatarri bergararren leinu garrantzitsu batena. Juan Gartzia berak Malagan ondasunak zituen, eta baliteke hau izatea Martin inguru horietan egotearen arrazoia¹⁸⁶.

¹⁸¹ RONQUILLO RUBIO, M.: *Los vascos en Sevilla y su tierra durante los siglos XIII, XIV y XV. Fundamentos de su éxito y permanencia*. Bilbo: Bizkaia Foru Aldundia, 2004, 99-100 orr. 1476ean, Gipuzkoak 1.000 kahize ateratzeko baimena lortu zuen, 600 garizkoak eta 400 garagarrezkoak. Guztiak Hondarribiko probestu zen Juan Santxez Benesakoak atera zituen. Bi urte beranduago, 1478an, auzotar partikularrek aterako dute alea, tartean Anton Escalantekoa eta Domingo Quexokoa pasaitarrek.

¹⁸² *Ibidem*, 213 orr. eta hh.

¹⁸³ Gertakari hauen laburpenerako, ikus AGUIRRE SORONDO, A.: “Juan de Granada, corsario de Rentería”. In: *Oarso* (2007), 117-118 orr.

¹⁸⁴ FERREIRA PRIEGUE, E., M.^a, aip. lan., 772 orr.

¹⁸⁵ ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 68-6.

¹⁸⁶ OLIVERI KORTA, O.: *Mujer, casa y estamento en la Gipuzkoa del siglo XVI*. Donostia: GFA, 2009, bereziki 150, 191, 207-208 eta 446 orr.

Gregorio Akordakoa Andaluziarekiko harremanaren beste adibide bat dugu. 1538an, auzi baten apelazioan aurkezteko deia egin zitzaion. Dirudienez, berak eta Indietara 1537an joan zen Blasco Nuñez Vela jenerala buru zuen armadako beste ontzi-maisuek, erregeari soldata eta pleitatzeen inguruan zor zitzaienaren ordainketa eskatu zioten. Dokumentazio honetan, gainera, Akordari Sevillako auzotar bezala egiten zitzaion aipamena¹⁸⁷.

Erdi Aroko beste ekonomia-esparru nagusiari dagokionez, Mediterraneoari alegia, merkataritzarekin lotutako lanen inguruan informazioa urriagoa da. Litekeena da arlo horretan gure auzotarrek duten jarduera nagusia, bai behintzat Irizar edo La Renteria bezalako abizen garrantzitsuen kasuan, turkiarren eta itsaslapur berebreen aurkako borroketan jarri behar izatea, halako ekintzek ohorea, izena eta irabazi materialak emango baitzikiete. Dena den, jarduera militarrek merkataritza eta garraioarekin uztartu zituztelaren datuak ere baditugu.

Andaluziaren kasuan bezala, XV. mendearen amaieran Mediterraneoarekiko harremanen uztartzean, zonalde hau Ingalaterrarekin kontaktuan jartzen zuten merkatal-bideek berebiziko garrantzia izango dute¹⁸⁸. Gure auzotarrek merkataritza ingelesan edo Irletan interesak zituztenen garraiolari gisa arituko dira, aurretik beraiekin zituzten lotura estuak aprobetxatuz. Erretereriako auzotar Migel Urdinolakoak, adibidez, Valentzian bizi ziren hainbat merkataritza italiarren salgaiak (almendrak eta ardoa, besteak beste), Londres eta Bristolera eraman zituen¹⁸⁹. Beraz gain, lehenago aipatu dugun Martin Igeldokoa ere inguru hauetan arituko da.

Dena den, nahiz eta Valentzia zein Kataluniako kostaldea Ingalaterra edo Flandriaren eta Mediterraneoaren arteko bideen testuinguruan egin, zonalde honetan kantauriar merkataritza pleitatzailen moduan ere arituko dira: 1475ean, aipatutako Igeldok bi merkataritza galiziarrek eman zioten arrainaz kargatu zuen bere naoa, Turiako hirira joateko asmoz¹⁹⁰. Halaber, badakigu 1524an Juan Lopez Isastikoak Valentzia edo Mallorcara hainbat ahalorde bidaltzeko asmoa zuela, hainbat pertsonak zor zioten dirua biltzeko asmoz¹⁹¹.

Italiari dagokionez, datuak ez dira oso ugariak eta turkiarren eta XVI. mende hasieran areagotu ziren Italiako Gerren testuinguruan kokatu behar dira. Alabaina,

¹⁸⁷ AGI. Patronato, 277. sorta, 4. zbkia., r. 268; eta AGI. Justicia, 826. sorta, 2. zbkia., r. 2, 1.º pieza. Auzian Nikolas Lezokoak eta Juan Eborakoak ere parte hartzen dute, ziurrenik Pasai Donibaneko auzotarrak direnak.

¹⁸⁸ INCLÁN GIL, E., aip. lan., 66-68 eta 70-76 orr.

¹⁸⁹ HIÑOJOSA MONTALVO, J.: "Intercambios y relaciones entre Valencia y las ciudades marítimas del norte europeo". In: REGLERO DE LA FUENTE, C. M. (koord.): *Poder y sociedad en la Baja Edad Media hispánica. Estudios en homenaje al profesor Luis Vicente Díaz Martín, tomo 2*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 2002, 997 orr. (993-1005).

¹⁹⁰ FERREIRA PRIEGUE, E. M.^a, aip. lan., 512 orr., 96. oharra.

¹⁹¹ EUA, A-1-2, 2. pieza, 33 au. fol.

merkatal-jarduerek beraien lekua izango dute. Martin Irizarkoak 1522an testamentua egin zuenean, udalbatzak berarekin zituen zorren artean Erroman igaro zituen lau hilabeteetan izan zituen gastuak, ziurrenik eliz arloarekin erlacionatutakoak, aipatzen zituen. Baina horrez gain, denbora tarte horretan Napolin ere egon zela adierazten zuen, eta ez udalbatzarentzat lanean, aitzitik, “por otros negoçios particulares” baizik¹⁹². Juan Martínez Arizabalokoa, aldiz, Juan Aldabekoaren naoan zihoala, 1527an Siziliako Agrigento hirian porturatu zela badakigu, Aldabek bertan testamentua egin zuenean lekuko gisa aritu baitzen¹⁹³.

Italialdeko adibide nabarmen bat Gregorio La Renteriakoak eta 1530ean egin zuen bidaiak ematen digu. Urte horretan Mesinako portura iritsi zen, ontzian zerman burdina lurreratuz. Kargamentua utzi ondoren, Sardiniako Aglientu herrira joan zen, naoa gariz kargatuz; handik Veneziarako bidaia egin zuen, alea utziz, ontzien-tzako oholtza eta zuhaitzak hartuz eta Mesinara itzuliz. Azkenik, salgaiak hemen lehorreratu ondoren, Andrea d’Oria militar garrantzitsuak ontzia bahituran hartu zuen, antolatu zen kortsario-kanpainarako behar zuelako¹⁹⁴.

Aurreko adibidea baina, txiki gelditzen da Juan Granadakoak “Gazteak”, eskaintzen digun informazioarekin. Bera da merkataritza norakoen sintesi bikaina. XV. mende amaiera eta XVI. mende hasiera artean hainbat bidaia egin zituen: Flandriatik Bartzelonara eta Siziliara joan zen; hemendik, gariz kargatuta, Oran eta Berberiarra joan zen, ondoren Andaluziara bidaiatuz eta itsasaldia Ingalaterran amaituz¹⁹⁵. Bere joan-etorrien zuzeneko pasarte bat Murgiako auzotar Diego Alkizakoaren lekukotzagatik dakigu, hiru urte eman baitzituen Granadarekin bidaiatzen. Hona zer zioen:

“El dicho Juan de Granada hizo con la dicha nao algunos buenos viajes, espeçialmente los viajes siguientes, conviene a saber:

Del Andaluzía a Yrlanda e dende a Cáliz; e dende fue a Vélez-Málaga a cargar de pasas y dende fue a Flandes. Y de Flandes fue cargado de trigo a Varçelona y dende fue a Mobindro y ende se cargó de vinos y fue a Palermo cargado de vinos. Y en la dicha Palermo se cargó de trigo y fueron a Túnez.

Fueron con la dicha nao cargados de moras a Eljer y ende se cargó de trigo la dicha nao y fueron con el dicho trigo a Túnez y lo descargaron. Y dende se fueron con la dicha nao a Tranpana, que es en Çeçilia, y ende cargaron de trigo la dicha nao otra vez y fueron con el dicho trigo a Saona, donde descargaron el dicho trigo y ende salió este testigo de la dicha nao y se vino a la tierra”¹⁹⁶.

¹⁹² GPAH-AHPG 3/293, 1 au.-2 at. folk.

¹⁹³ Testamentua GPAH-AHPG 3/305, fols. 118 au.-119 at. folioetan.

¹⁹⁴ ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 467-2, 89 au. fol.

¹⁹⁵ ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1668-4, 55 at.-56 au. eta 70 au. folk.

¹⁹⁶ Ibidem, 85 at. fol. Mobindro, Tranpana eta Saonako herriak Valentziako Sagunto (XIX. mendera arte Murviedro bezala ezaguna zena) eta Italiako Trapani eta Savona dira. Alkizak berak aipatzen zuen Irlandatik Cádizera kargamentua larruek osatzen zutela. Halaber, dokumentazioak aipatzen du Oran eta Berberian egon ondoren Andaluziara joan zirela eta bidaia Ingalaterran amaitu zutela.

Azkenik, Indiei eta Ternuari so egin behar diegu. Egia bada XVI. mendearen erdialdera hurbiltzen goazen heinean beraien garrantzia geroz eta nabarmenagoa dela, oraindik 40ko hamarkadan atlantiar ardatzak, Bristol-Flandriatik Cádizera joaten denak, gure badiako auzotarren merkataritza eta garraio jardueratan berebiziko garrantzia izaten jarraituko du. Alegia, Erdi Aroan finkatu ziren bideak indarrean zeudela ikus daiteke. Horren erakusle Migel Arizabalokoak 1547 eta 1554 artean egindako bidaiak ditugu. Horietako bat bale-ehizara eta beste bat Ternuara egin bazituen ere, XV. mendean ikus ditzakegun helmugak gehiengo izan ziren: besteak beste, bi bidaia Flandriara, beste bi Ingalaterrara eta Bristolera, bidaia bana Arroxe-lara, Galiziara eta Cádizera, eta azkenik, itsa-armadan egindako bi bidaia¹⁹⁷.

GENOA 1704 urtean. Domingo Zurubizkoa bezalako Errenteriako auzotarrek ere, hiri hau ezagutu zuten.



MORTIER, Pieter (1661-1711): “Stadsprofiel van Genoa”. In: *Nouveau Theatre d’Italie*. Amsterdam, 1704. (Iturria: www.geheugenvannederland.nl).

Itsas-merkataritzak ondorengo paragrafoetan landuko dugun lehorrekoarekin alderatuta izan zuen nagusitasunak, hainbat arrazoi zituen. Horien artean nahiko arrunta den bat dugu; itsasoan arrisku gehiago baziren ere, etekinak handiagoak izateko aukera baitzegoen. Eta gure protagonistek hori buruan zuten:

“diçen que los que tratan con hierro y mercaderías acostumbbran a ganar syete por çiento comúnmente por año, con los maravedís que así traen en el dicho trato, y estos ganan hordinariamente entre los tratantes que tratan por tierra, avnque por mar ay otras ganancias mayores con su riesgo”¹⁹⁸.

¹⁹⁷ GAO-AGG CO MEJ 44.

¹⁹⁸ ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 216 at. fol.

Horregatik, negozio hauetan inbertsio handiak behar ziren eta, jakina, auzotar ezberdinen arteko laguntza ere beharrezkoa zen: armadoreak, ontzi-maisuak, pilotuak, marinela, merkataria eta abar. Pixkanaka lanean oinarritutako hartu-eman hauek familiartekoak izatera pasako dira eta ondorioz, familia politikoen kideak negozio berean ikusteko aukera izango dugu, beraien ondorengoen lotura bultzatuko duen faktore bat izango delarik.

Ahaideen arteko laguntza oso ohikoa izango da, bereziki salgaiak bide ezberdinetan zeuden hirietara zuzentzen baziren. Irizartarrek, adibidez, gerra garaian egindako ekintza gogoangarriek emango dizkieten ohore eta sariekin batera, merkataritza eta garraioarekin zerikusi handia zuten Zurubiz eta Darieta bezalako abizenekin zituzten loturak aprobeztatuko dituzte esparru horretan aurrera egiteko. Hala, Atlantikoan (Bordelen, Ingalaterran edo Lisboan) zein Mediterraneoan zehar (Mallorcan, Andaluzian, Genoan, Valentzian) salgaiez beteriko ontziak gidatu zituzten. Maria Martin Irizarkoa eta Migel Zurubizkoa senar-emazteek zuten nao batean, beraien seme Domingo maisu bezala egon zela badakigu. Eta honek Levante eta Italia aldean bidaiatzen zuen bitartean, Donostiako ontzioletan eraiki zuen karabela bat bere koinatu Juan Perez Darietakoaren esku geratu zen, azken honek Bordele, Lisboa eta Londresera bidaiatu zuelarik¹⁹⁹.

Martin eta Pedro La Renteriakoa anaiek ere ontziak jabetzan zituzten²⁰⁰; lehenengoak gainera, bere kodiziloan hiru galeoi utzi zituen. Eta azken datu honek oso ongi islatzen du negozioetan familiak zuen garrantzia; Martinen seme Juan Perez eta Gregorio, hiru galeoi horietako biren pilotu izan baitziren eta bestea Juan Amasakoaren eskutan gelditu baitzen. Aipatu behar dugu gainera, Amasaren izen bereko semea La Renteriakoaren birbiloba andre Maria Lopez Elduaiengoaren senarra izan zela²⁰¹.

Batzuetan, berriz, ontzi baten eraikuntza amortizatzeko, honen zati bat eskuratu zezaketen pertsonak bilatzen ziren. Hori da Juanto Perez Goizuetakoaren eta bere Elisabet ontziaren kasua, non beste hiribildu eta herrialdeetako pertsonen parte hartzea ikus dezakegun. Izan ere, ontziko zati batzuen jabe Hondarribiko probestu Juan Santxex Benesakoa eta Oiartzungo auzotar Juan Mirandakoa izan ziren eta, ondoren, azken honen zatia John Esterfield merkataria ingelesak lortu zuen²⁰².

Lotura hauek Errenteriako auzotarrak jo mugan zituzten populazio-guneetara iristen ziren, non, askotan, komunitate bereko (hiribildu, herri, probintzia zein

¹⁹⁹ GAO-AGG, CO MCI 30 eta 74.

²⁰⁰ EUA, A-1-2, 2. pieza, 32 at. fol.

²⁰¹ ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 467-2.

²⁰² ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 48 au. fol.

erreinu) hainbat pertsona aurretik ezarriak zeuden. Ondorioz, urrun biritzeak ere, atzerriko leku jakin batean zeuden jatorri bereko kideen artean harremanak estutzeko eta elkarren artean hainbat negozio egiteko aukera ematen zuen. Hala, 1543an, Juanes Nobleziakoak Juan Lopez Isastikoarena zen ontzietako baten erdia erosi zuen Cádizen; Isastik Erretereriako auzotar zen Julian Goizuetakoarekin erdi bana zuen Santa Maria ontzia, hain zuzen ere²⁰³.

Erretererian ematen ziren salgaien merkataritza eta garraioari lotutako jarduerak, bertako auzotar ugariari Europako itsaso eta hainbat herritan zehar mugitzeko aukera eman zien. Garaiak horretarako aproposak ziren, XV. mende erdialdean hasitako oparotasun ekonomikoak bere horretan iraungo baitu Bostehunaren bigarren erdialdera arte. Hau dela eta, 40ko hamarkadatik aurrera pixkanaka Ternua bezalako norakoak pisua eskuratzen hasiko badira ere, gure garaian oraindik Erdi Aro amaieratik zetozen bideek berebiziko lekua izaten jarraituko dute, Bristol horren adibide garbia delarik.

Baina itsasoarekin lotutako garraiolari zein merkataritari lanek izango duten protagonismoaz gain, halako jardunek beste esparru batean ere garrantzia eta pisua lortuko dute: lehorrean, alegia.

3. Lehorreko merkataritza: Nafarroarekiko harremanak

Lehorreko merkataritzaren garapena, hein batean behintzat, Gipuzkoaren egoera geo-politikoan oinarritua dago; ez dugu ahaztu behar, bere ekialdeak bereziki, Nafarroako erreinuaren itsasorako bide naturala osatzen zuela. XIII eta XV. mende arteko hainbat dokumentuk nafar eta gipuzkoarren arteko merkatal harremanaz hitz egiten digute. Azpimarratzekoak dira erresuma bateko zein besteko erregeek merkataritari nafarrei emango dizkieten pribilegioak, portu gipuzkoarrak beraien itsasorako bide onenak izateko aukera areagotu eta finkatuko baitute²⁰⁴. 1401 urtean Gaztelako Endrike III.ak nafar merkatariei emandako pribilegioak, adibidez, Oiarzungo portua era askean erabiltzeko baimena ematen zien. Dokumentu honek gainera, Pasaia badiak Donostiako portuaren kaltetan eskuratzen ari zen garrantzia agerian uzten du, azken hau zakar eta arriskutsutzat jotzen baitzen (*“áspero et peligroso”*). 1435eko datuek berriz, Donostiara zihoan bidea erabilia goa zela adierazten digute, motzagoa eta zatirik gehiena Nafarroako lurretatik igarotzen zen Bera/Lesaka-Hondarribia bidearen kaltetan. Donostiaren erabilerak zuen nagusitasunak, Oiarzun-Erretereria-Pasaia ingurua ere erabiliko zela pentsa

²⁰³ GAO-AGG CO MEJ 39.

²⁰⁴ ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); ACHÓN INSAUSTI, J. A. (koord.): *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII-XV*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1987, bereziki 90-97 orr.

arazten digu, nahiz eta XV. mende erdialdean Oarsoaldean bizi zen egoera, ziurra eta segurua izatetik urrun egon. Donostiaren nagusitasuna ondorengo urteetako datu batzuetan ere agerian geratuko da: 1442an, adibidez, Nafarroako Joan II.ak Donostiatik eta Getariatik Nafarroara zihozzen guztiei, Tolosatik nahi eta nahi ez igarotzeko mandatua eman zien, 1443an eta 1491an berretsiko dena²⁰⁵.

Nafarroa eta Gaztelaren arteko tentsioek ondorengo hamarkadetan gora egin bazuten ere, XVI. mende hasierako hainbat datu produktuen garraioan ematen zen gipuzkoarren eta merkatarari nafarren arteko lankidetzaren adibide dira. 1504ko abenduan, Joana erreginak Flandriatik eta Ingalaterratik merkatarari nafarrek beraien erreinura garraiatzen zuten gariari inolako eragozpenik ez jartzea agintzen zien udalbatza gipuzkoarrei. Dokumentuak gainera, aipatu egiten du lehen garraio hori flandriar zein bretoi ontzietan egiten zela, baina momentu horretan jada, gehiena gipuzkoarren esku zegoela, merkeagoa baitzen²⁰⁶.

Izan ere, nafarrek beraien merkataritza-garapenean Probintzia erabiltzea guztiz zentzuzkoa zen. Horren erakusle Donostiak nafar eta aragoar artilearen esportazioan izan zuen lekua dugu. Hala, produktu horrek, bereziki Gaztelan ekoiztutakoak, XVI. mendearen amaieran krisi sakona pairatu zuenean, Donostiak hau ekiditea lortu zuen, bere esportazio jardueretan lekua zuen artilea, erresuma haietatik zetorrena zelako, ez Gaztelatik zetorrena²⁰⁷.

Lehen begiratuan, nafar produktuen ontziratze eta esportazioan Errenteriak izan zezakeen egoera Donostia edo Hondarribiarena baino ahulagoa dirudi, baina dokumentazioak argi erakusten du gure hiribilduak alor horretan bere papera jokatu zuela. Jarraian landuko ditugun Goizueta eta Errenteria arteko bide berriaren eraikuntzari buruzko datuez gain, beste portuen aldean Pasaia badiak zituen abantailak ere zerikusia izan zuten horretan; besteak beste, edukiera handiagoko itsasontzien porturatzea ahalbidetzen zuen eta horrek berebiziko garrantzia izango du, XVI. mendean sartzen goazen heinean halako ontziak geroz eta erabiliagoak izango baitira²⁰⁸.

Errenteriak beraz, Pasaia badiako hiribildu bezala, abantaila horiek aprotxatzerik bazuen. Alegia, ingurua erabiltzen zutenei eta bere itzalean garatutako merkataritza etekina ateratzeko aukera zuen, nahiz eta Donostia eta, hein txikiago batean, Hondarribia, parez-pare izan. Gure hiribilduko agintariek hirigunea baldintza onetan

²⁰⁵ Ibidem, 94-97 orr.

²⁰⁶ AGS. RGS. 1504-XII-16, 14 fol.

²⁰⁷ IMIZCOZ, J. M.ª: "Hacia nuevos horizontes: 1516-1700". In: ARTOLA, M. (ed.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia: Donostiako Udala-Nerea, 2000, 87-180 orr.

²⁰⁸ AZPIAZU ELORZA, J. A.: *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*. Donostia: Kutxa, 1990, I, 97-105 orr.

kontserbatzeko ahaleginak eta akordioak bultzatu bazituzten, merkatal-garrantzia berezia zuten komunikabideen mantentzeak ere hainbat proiektu, saiakera eta lan ezagutuko ditu. Horietan nabarmenena, Añarbetik eta Oiartzun ibaian zehar Goizueta ren eta gure hiribilduaren arteko komunikazioa erraztu eta Nafarroatik zetozen produktuei irteera hobea emateko burutu nahi zen bidea izan zen.

Komunikabidea egin edo hobetzeko lehen saiakera zehatzak topatzeko, gutxienez 1528ra arte joan behar dugu. Urte honetako apirilean Martin La Renteriakoarekin hitzartu zen lonjaren errentamendu kontratuak, udalbatzak bideen inguruan zituen zorrei buruzko informazioa ematen du. Eskritura honetan adostutakoaren arabera, errentamenduak balio izan zituen 200 dukatetatik 100, Juanes Galartzakoarentzat izango ziren, “*para hazer los camynos dende Nabarra a esta dicha villa, conforme a los capytulos e asientos que pasaron entre el dicho conçejo [Errenteriakoa] e los mercaderes de Nabarra*”²⁰⁹. Esaldiak, beraz, ordurako proiektuan interesa zutenek, honen inguruan burutu nahi zituzten asmoak nahiko aurreratuak zituztela adierazten du.



Goizueta gaur egun. Hiribildu nafar honek berebiziko merkatal-loturak izan zituen gure hiribilduarekin, 1529 eta 1542ko hitzaremen eta akordioek islatzen duten bezala. (Iturria: eu.wikipedia.org/wiki/Goizueta.org).

²⁰⁹ EUA, A-1-1, 32 au.-34 at. folk.

Errenteriako artxiboan oso esanguratsua den dokumentu baten kopia eskuetsia gordetzen da. Hain zuzen ere, 1528 urte hasieran, hainbat merkatari nafarrek eta Martin La Renteriaok egindako hitzarmena. Bertan, Nafarroatik zetozen produktu ezberdinei, bereziki artileari, ondorengo hiru urteetan Errenteriatik irteera ematea adostu zuten. Bi aldeak ordezkari gisa aritu ziren: merkatariak, beraien eta Nafarroako beste guztien izenean; La Renteria, aldiz, hiribilduaren izenean. Bertan, garraio hau nola egingo zen adostu zuten, tartean Lerindik Errenteriarara joango ziren bideen txukuntze eta hobekuntzari buruzko neurriak ezarriz eta gerra nahiz izurriteekin zerikusia zuten xedapenak jasoz.

Argi dago merkatariak ez ezik, hitzarmenak Goizueta bezalako nafar hiribilduak ere erakarri zituela, eta ez da harritzekoa, beraien ekonomiarako oso positiboa izango baitzen. Errenteriar ere, proiektuan pertsona (eta hiribildu) gehiagok parte hartzea komeni zitzaion, bidearen mantenuan sor zitezkeen eta ordaindu beharko ziren gastu kopuruaren murrizketa bat ekarriko lukeelako²¹⁰.

Hala, 1529ko otsailaren 4an, Goizuetako bi mezulari Errenteriako errejimenduaurrean aurkeztu ziren. Beraien helburua, Iruñetik gure hiribildura joango zen eta Goizuetatik pasako zen bidearen eraikuntzan laguntza eskatzea zen, “*de manera que buenamente pudiesen venir las azémillas cargadas con lanas e otras mercaderías (...) pues la costa hera grande e el probecho más para esta villa*”. Errenteria nafar merkatalgaien iritsiera eta ateratze puntu bihurtuko zuen proiektua zenez, errejimenduak ez zuen aukera galdu eta proiektuari bere oiniritzia eman zion, momentu horretan ordainketak egiteko udal-kutxa egoera onean ez bazegoen ere²¹¹.

Egoera ekonomiko honek, Donostiak Errenteriar “*sobre los caminos que ay e se han de haser de aquí a Navarra*” auzia jartzearekin batera, proiektua gauzatzeari ekidin zuela dirudi²¹². Horrek baina, ez zituen saiakerak baztertu. Adibiderik nagusiena 1540ko uztailaren 29an Errenteriak Goizuetarekin egindako hitzarmena dugu, berriz ere bidearen eraikuntzari buruzkoa.

Ordurako proiektua martxan zebilen, bideak “*trasados e començados a haser*” zeudela adierazten zelako eta, dagoeneko, 1539ko azaroan lan horiekin zerikusia zuten hainbat ordainketa egin zirela dakigulako²¹³. Halaber, 1540ko abuztuan, errejimenduak elizari mailegu bat eskatzea adostu zuen, Añarbera zihoan bidearen eraikuntza amaitzeko eta bertan eraikin bat egiteko asmoz; ziurrenik, azken honek lonja edo bertaratzen ziren produktuen biltegi funtzioa izango zuen²¹⁴.

²¹⁰ Hitzarmena EUA, B-6-3-2 espedientean.

²¹¹ EUA, A-1-2, 4. pieza, 8 at.-9 au., folk.

²¹² Ibidem, 48 au.-at. folk.

²¹³ EUA, A-1-5, 6 at.-8 at. folk.

²¹⁴ Ibidem, 64 au.-64 at. folk.

Bistan da bide berri hori Donostia, Hondarribia eta Oiartzunen interesen aurka zihoala, batez ere azpiegitura ez zelako beraiengandik pasako eta zuzenean Errenteriarara zihoalako. Alabaina, eta 1540ko azaroan Mutrikun ospatutako Batzar Nagusiek, Goizuetaren kexuak aintzakotzat hartuz, Oiartzun eta Ordiziak nafar herri horretako auzotarrei eginiko bahiturak altxatu bazituzten ere, proiektu berria bertan behera gelditu zen. Frantziaren aurka prestatzen ari zen gerra berriak eta honen ildotik, bide horretatik “*podrían entrar ejército e gente de guerra e syn ser sentidos en los lugares y puerto del Pasaje y de la dicha villa de La Rentería*” argudiatuz proiektuaren aurka azaldu zirenek aurkeztutako arrazoiek, eraikuntzak aurrera ez egitea posible egin zuten²¹⁵.

Saiakera hauek gauzatu ez baziren ere, Nafarroa iparraldeko populazioekin zegoen merkatal harremana guztiz finkatua zegoen. 1528 eta 1529an hitzartutakoek nafar artilearen esportazioa aipatzen bazuten, hainbat datuk beste ekonomia-esparru batera eramaten gaituzte; burdinera, hain zuzen. Izan ere, artileaz gain, Errenteriarako bidea Arano, Goizueta, Anizlarrea eta Bortzirietan ekoizten zen burdinari irteera emateko erabiltzen zen²¹⁶; halaber, gurean egur-ikatzak egiteko udalbatzak ateratzen zuen egurra erosten zutenen artean, populazio edo eskualde horietako auzotarrak agertzen dira. Baina hauez gain, beste datu batzuk ditugu.

Hala nola, 1524ko maiatzaren 12an ospatutako udalbatzarrean eztabaidatu zen gaia. Bertan, Lesakako hiribilduaren gutun bat irakurri zen. Lesakarrak Domingo Azelaingoa kapitainaren beldur ziren, honek Bortzirietako hainbat auzotarren aurka zuen errepresalia-gutuna gauzatzeko aukera zela eta. Honek eskualdeko auzotarrengan ikara sortzen zuen eta, ondorioz, bortziriarrak Errenteriarara beraien merkatalgaiak eramateari uzten ari ziren (“*no osan venir con sus mercaderías*”). Errejimenduak Azelaineekin hitz egin ondoren, akordio batera iritsi ziren. Domingo, gutxienez urte horretako San Juan egunera arte:

“aseguraba e aseguró a todos los veçinos e moradores de las dichas Çinco Villas e a sus bienes que venieren de las dichas Çinco Billas e sus ferrerías para la dicha villa de La Rentería (...) de yda e venida y estada, asy en esta villa como en los caminos por donde fueren e venieren”.

Erabakia, Azelain berarekin elkarrizketek iraungo zuten bitartean indarrean egongo zen. Errenteriako errejimenduak, beraz, Lesakako alkate eta udalbatzarkarguei akordioa jakinaraztea erabaki zuen²¹⁷.

²¹⁵ GPAH-AHPG 3/327, 109 au. fol. (4. foliazioa). Goizuetaren kexuetarako, ikus GUA, 2. sorta.

²¹⁶ NAO. Procesos, 8730.

²¹⁷ EUA, A-1-2, 2. pieza, 31 at.-32 au. folk.

Datu hauek guztiek oso ongi islatzen dute muga administratibo zein politikoen gainetik, mendeetan zehar hainbat populazio gunek jorratutako loturak indarrean zeudela; eta halaber, hauek eskualde ezberdinetako garapen ekonomikorako oinarritzkoak zirela.

Zalantzarik ez dago merkatal-harreman hauen indarrak eta garrantziak, gure hiribilduan Nafarroako mandalari, garraiolari edota merkatarien agerpen agerikoa ekarriko duela. XV. mende amaieran eta XVI hasieran Nafarroarekin zegoen lehorreko merkataritzaren adibide bat Juan Goizuetakoan dugu. Esteban Santrazelai-koak hala deskribatzen zuen:

“era en todo el tiempo que este testigo conoçió y era y fue hombre honrado y próspero y tratante de mulatero, teniendo mulos e criados con ellos y tratando con los dichos machos mercaderías de cueros y pescados y vinos y azeytes y en otras mercaderías, y él mismo por su persona comprando y bendiendo fierros en la lonja de la dicha villa de La Rentería, que los traya de la villa de Goizueta y de otras partes; y este testigo en todo el dicho tiempo le tubo al dicho Juan de Goizueta por hombre rico y endinerado”²¹⁸.

Merkatari honen oparotasuna 1519an egindako bere testamentuan ikus daiteke. Bertan ez du inolako zorrik aipatzen eta horrez gain, Iruñeko hainbat auzotarrek eta mandalari ugari berarekin zituzten ordaindu gabeko erreziboen berri ematen du; bere jardueraren eta lan esparruaren adibide bikainak direnak²¹⁹.

4. Merkatal jarduera, urrutiko eta leku ezberdinetako jendea biltzearen isla

Pentsa dezakegunez, merkataritzak sortutako loturak esparru horretatik harata-go joan ziren eta pertsonalago batzuetara igaro ziren, XVI. mende hasierako Errenteriako gizarteak ongi islatuko duen bezala.

Euskal Herriko zein Gipuzkoako kasuan gutxi ikertutako arloa bada ere, zilegi da pentsatzea urruti zeuden populazio guneen artean sortutako merkataritza-harreman estuek, denbora igaro ahala, hauen areagotzea eta sakontzea ekarri zutela; hau da, denbora tarte gutxi batzuetara mugatutako populazio mugimenduek (bidaiak beraiek edo negozioren batean aritzeko beharrezkoa zen denborak sortutakoek), luzeagoak ziren beste batzuei lekua utzi zietela. Historiografiak Donostian, Pasai Donibanen edo Altzan gaskoiek izan zuten eragina ikertu badu ere, azkenean lanek agerian utzi dute orain arte ezagutzen ez edo igarri besterik ez genuen

²¹⁸ ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 497-1, 31 au. fol.

²¹⁹ Testamentua ibidem, fols. 60 at.-62 at. folioetan.

beste mugimendu bat: XIV. mende amaieran Pasai San Pedron kantauri isurialde-
tik etorritako eta atlantiar eraginak izan zituen populazioarena, hain zuzen²²⁰.

Hau dela eta, zonalde berdinean dagoen Erreteriak halakorik ez izatea edo behintzat, eraginen bat ez sumatzea arraroa gerta zitekeen. Mugimendu horien kronologia guk ikertzen dugunetik urruti badago ere, aurrerapen gisa zera esan dezakegu: Erreteriarren eta badiako bokalean dauden komunitateen artean dinamika ezberdinak egon zirela. Pasaitar komunitateetan agertzen diren Cotillos, Gayangos, La Canal, Noya edo Villaviciosa bezalako abizen esanguratsuak Erreteriar azaltzen direnekin alderatzen baditugu, halako prozesua agerian gelditzen da; salbuespenak, Isasti edo Lezoz gain, Landrigner, San Matet eta Escalante dira²²¹. Hau harrigarria gerta daiteke populazioen arteko loturak eta gertutasuna ikusita, baina honek badu bere azalpena. Ezberdintasun honen oinarrian zera legoke: Oreretako lekuan hiribildua egiteko eskaeran bailarako biztanleak izan zuten pisua. Izan ere, fundazioa, San Pedro populatzeko mugimendurik nabarmenena eman gabe zegoenean eta Lezotik Donibanerako bidea egiten ari ziren biztanleak lehenengo pausoak besterik ematen ari ez zirenean jazo zen. Horregatik, Erreteriar Akorda, Gabiria, Isasti, Lastola edo Olaitz bezalako abizenak azalduko zaizkigu lehen momentutik baina ez, ordea, Pasaian agertuko diren adierazgarrienak. Alabaina, hiribilduaren erakarpen prozesuak gertuko guneengan eta urrutiago dauden batzuegan eragina izango du.

Zoritxarrez, ez dugu azterketa sakon bat bideratzea posible egiten duen iturri dokumentalik, nahiz eta ideia batzuk izateko erraztasunak ematen dizkiguten informazioak izan. Bergara, Bertiz/Ornoz, Endara, Eratsun, Ezkurra, Illarregi, Lesaka, Zubieta eta, bereziki, Goizueta bezalako abizen toponimikoak Nafarroako iparraldearekin izandako lotura sakonen adibide dira²²². Beraien artean ere Amasarrak ditugu, jaiotzaz lesakarrak direnak eta Igantzin burdinolak zituztenak²²³. Iparraldearekin mantendu ziren adibideak ere baditugu, Katalina Idiazabalgoaren testamentuko zorrak kasu²²⁴.

²²⁰ IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., bereziki 24-38 orr. Adibideak urriagoak badira ere, Erreteriar baditugu gaskoi eraginaren hainbat adibide toponimiko, "Pontica" eta "Alaberga" kasu.

²²¹ Ahaztu gabe Villaviciosa bezalako pasaitar familia garrantzitsuak Erreteriar auzotarrekin ezkondu zirela.

²²² Bergara abizena 1495ean ikus dezakegu Lesakan. Ikus LUA, 109 Liburua, 3 au. fol. Bestalde, Ornoz eta Bertiz abizenak, 1540ean errejidore izan zen Petri Sanzi bata zein bestearekin aipamena egiten zaio.

²²³ Zehazki, Berreizun Goikoa. Ikus LUA, 110. kaxa, 2 at. fol. (1535 urtea). Bestalde, 1495ean Pedro Amasakoa eskribauak adierazten zuen titulu hori nafar erregeak eman ziola. AGS. RGS. 1495-X, 179 fol.

²²⁴ Behe Erdi Arorako bada ere, Goyenetchek egin zuen ikerkuntza oinarrikoa da Baiona eta probintziako ekialdearen arteko loturak eta harremanak ezagutzeko. Ikus GOYHENETCHE, E.: *Bayonne et la région Bayonnaise du XIII^e au XV^e siècle*. Bilbo: EHU-UPV, 1990, bereziki, 345-363 orr.

Merkatal loturekin batera, harremanak, gure auzotarrek mugaren bi aldeetan egiten dituzten inbertsioetan agertuko dira. Pierres Gamongoak adibidez, Nafarroa iparraldean zeuden burdinolen inguruan inbertsio garrantzitsuak egin zituen²²⁵. Halaber, 1533an, Martin Perez Zamalbidekoak Eratsungo Asura burdinolaren hiru laurdenak errentan hartu zituen²²⁶. Gure garairako daturik goiztiarrena Martin Isastikoak ematen digu. Leitzatik gertu zegoen Eleuna burdinolaren jabe zen eta 1512an, nafar erregeak baimena eman zion ondasun hori berreraikitzeo, 10 urteko zerga salbuespenarekin batera²²⁷.

Bestalde, nafar auzotarrekin negoziotan aritzeak hainbat ondare higiezin eta lur eskuratu edo ustiatzeko aukera eman zien. Hala, Elamako olagizon Juanes Arbidekoak Juan Goizuetakoari zor zizkion kintal burdinen hornidura egin ez zionez, ordainetan Lesakan zituen etxeak eta sagardi zati bat eman zizkion²²⁸. Bestalde, eta Erreterian gertatu zen bezala, gure hiribilduko auzotarrek hainbat nafar herrietako hiri-ondasunen ustiaketan parte hartu zuten. 1537 inguruan, Diego La Torrekoak Eratsungo udalbatzari Asurako burdinolatik gertu zeuden hainbat mendi erosi zizkion. Kasu honetan, salmenta hau Diegok zituen negoziotara bideratua zegoen, ardo inportaziora hain zuzen. Izan ere, lur horietako egurra 1.000 bota egiteko erabiliko zuen, Diegok eta Zubietako auzotar zen Martitxo Oiarbidekoak upamehegileak hitzartutakoaren arabera²²⁹.

Negozioren inguruan sortutako harremanak esparru hori gainditu zutelaren isla ezkontza-hitzarmenak dira. Hala, Erreteriarren eta Nafarroa iparraldearen arteko kontaktua bi loturetan ikus dezakegu: batetik, Zabaletako jaunen eta Gabiriarren artekoa eta bestetik, Altxateko jaunen eta Olaitarren artekoa. Baina bi ezkontzak alde bateko zein besteko pertsonak izan zituzten erlazioen erakusle badira ere, biek ala biek beste esanahi bat dute. Izan ere, gizartean maila gorenean dauden leinuak dira eta horregatik, agian ez dira familia apalagoetan gerta daitekeen prozesuaren erakusgarri. Baina azken hauen inguruan hainbat datu ditugu eta horiei esker, gurean izango diren nafar kutsuko abizenek, loturak merkataritzatik gizartera pasa zirelaren prozesua oso ongi erakusten dute.

Adibiderik eredugarriena Goizueta abizenarekin dugu, gure hiribilduan etengabe agertzen baita. Alabaina, eta Lezo edo Villaviciosa bezalako abizen pasaitarren kasuan bezala, ez du esan nahi abizen hori duten pertsonak zuzeneko odolkideta-

²²⁵ Hainbat adibidetakako, ikus NAO. Procesos, 8851, 64734/16006330, 95274/16010853, 13804, 197560 edo 117999 espedienteak.

²²⁶ NAO. Procesos, 9183.

²²⁷ NAO. Comptos. 168. kaxa, 12. zbkia.

²²⁸ ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 497-1, 44 at. eta 47 at. folk.


²²⁹ NAO. Procesos, 143475. Botak, San Lúcar de Barramedako auzotar zen on Alonso de Bustorentzako ziren eta hara Pierres Gamongoaren nao batean joango ziren.

sunik dutenik; aitzitik, abizenak jatorri geografikoari aipamena egiten diolaren datu argiak ditugu.

Hau dela eta, askotan ez da erraza abizen bera duten familia horien nondik-norakoak fidagarritasunez berreraikitzea; eta Goizueta abizenaren kasua horietako bat da, gurean, XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran abizen hori duten odolkidetasunik gabeko bi familia topatu baititugu.

Lehenengoa Juanto Perez Goizuetarena da. Gutxienez XV. mende erdialdean Oarsoaldean finkatutako familia baten ondorengoa da, 1450a baino pixka bat lehenago bere osaba Martin Ibañez Goizuetakoa (*Martxin Urdin ezizenez ere eza-gutua*) eta Juantoren ama jaio baitziren. Baliteke azken honek eta bere senarrak, biek, Goizueta abizena izatea, Juanto Oiartzungo Garbunoa etxeko jaunaren bor-tea baitzen eta beraz, bere amaren edo ugazaitaren abizena hartuko zuen.

JUAN GRANADAKOAK MEDITERRANEOAN ZEHAR EGINIKO BIDAIAK (c.1500)



- | | | | |
|------------------------|------------|------------|-----------|
| 1. Bartzelona | 3. Palermo | 5. Aljeria | 7. Savona |
| 2. Murviedro (Sagunto) | 4. Tunisia | 6. Trapani | |

Bere ondorengoek hiribilduko hainbat familia garratzitsurekin lotura izango dute eta ondare nabarmen baten jabe izango dira. 1485eko bere testamentuan, Juan-tok karabela bat eta harresi barnean hainbat etxe zituela aipatzen zuen. 1492 urtean bere seme Juan Perez Grazia Irizarkoarekin ezkondu zenean, aldiz, bikote berriak etxe bat, bi enparantza, orube bat eta sagardi bat jaso zituen²³⁰.

Goizueta abizendun bigarren adarra beste Juan Goizuetakoa bat izango du ordezkari nagusitzat eta gainera, bera izango da Erreterian abizena finkatuko duena, XV. mende amaieran. Halaber, bere kasuak izen bereko nafar hiribilduarekin izan zituen harreman estuetan sakontzeko aukera ematen digu. Badakigu Juanek eta bere emazte Maria Lastolakoak, beraien seme zaharrena, Juantxe, Martin Goizuetakoa goizuetarraren alaba Juanarekin ezkontzea adostu zutela 1504an. Juantxeren berehalako heriotzak, baina, bikotea desegin egin zuen. Bi familien arteko lotura mantentzeko asmoz, beste ezkontza bat hitzartu zen: ordura arte Juan eta Mariaren aitagarrebakide zen Martin Goizuetakoa beraien suhi bihurtu zen, Maria Juan Goizuetakoarekin, Juan eta Mariaren alabarekin, ezkondu baitzen, urte batzuk geroago Juan Goizuetakoa eta Maria Lastolakoaren oinordeko izango zena.

Bigarren Juan Goizuetakoa hau jaiotzez goizuetarra zen eta, lehen esan bezala, Nafarroa eta Erreteriarren arteko bidearekin lotutako garraiolari eta merkatarri garrantzitsua zen. Baliteke bere lehenengo jarduerak garraiora bideratzea, denborarekin kudeaketa on batek merkataritzan aritzeko aukera eskaini ziolarik. Dirudienez, azken honetan aritzeak ere, onura eta aberastasuna ekarri zizkion; bai, behintzat, zonaldeko leinu garrantzitsu baten ondorengo batekin ezkontzeko lain, Maria Lastolakoarekin, alegia. Izan ere, nahiz eta Lastolatarrek gure garaian ia gizonetzko ondorengotzarik ez izan, ondasun ugariren jabe ziren: harresiaren barne edo honen ondoan zituzten hainbat etxe eta orubeez gain, harresiz kanpo ere hainbat higiezin izango dituzte²³¹. Ondorioz, lotura honetan Juanek aberasteko eta ondarea handitzeko aukera eta tresnak jarri bazituen, bere familia politikoak izen ona eta gizartean zuen itzala jarriko litzuke.

Hala, oso esanguratsua da Martin Goizuetakoaren eta Maria Juanen ezkontza-ospakizuna Erreterian, Maria Lastolaren etxean, egitea, Goizueta-Lastola bikotearen garrantzia handiagoa erakutsiko lukeelarik. Dokumentazioak, gainera, loturaren inguruan egindako negoziazioak eta jarraitutako hainbat pauso agerian uzten dizkigu. Juan Goizuetakoaren biloba zen Esteban Gerediakoa, adibidez, Goizuetara bidali zuten Maria Juan eta Martin Goizuetaren artean ospatu behar zen ezkontza jakinarazteko:


²³⁰ Bi eskriturarako, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1.

²³¹ ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 497-1.

“que avn este testigo fue unbiado por los dichos Juan de Goçueta e su muger a la villa de Goçueta al dicho Martín de Goçueta, para que el primer domingo siguiente beniese con la jente y la manera que quisiese a pasar el matrimonio con la dicha Mari Juan, y avn enbiaron con este testigo vna çestica de lengoados e barbarines e así bio que bino el dicho Martín aconpañado de hombres hondrados y benido, pasaron matrimonio e casamiento avnque este testigo no se alló presente al contrato matrimonial”²³².

Errenteriaren eta Nafarroaren arteko ekonomia nahiz giza-loturen barruan, harremanak sustatzen zituzten beste esparru batzuk kontuan hartzekoak dira. Hauen artean, orain arte gutxitan ikertutako batzuk daude, hala nola, hezkuntza. Hala, garraio, merkataritza edota letren munduarekin zerikusia zuten familiak zituen Errenteria bezalako gizarte batean, zilegi da pentsatzea horietariko askok letrek zuten garrantziaz jabetzea; behintzat, horiei lotutako oinarritzko ezagutzak eskuratzea, hau da, irakurtzen, idazten eta zenbatzen jakitea. Hauek lortzea etorkizunean giza-igoera bermatzeko balio zezakeen. Batetik, senideak idazkerarekin zerikusia zuten lanbideetara bidaltzeko aukera eskaintzen zuelako. Bestetik, kontabilitateak merkatal munduan zuen geroz eta garrantzia handiagoaren ondorioz, halako jakintzek negozioaren arrakasta errazago ekarriko luketelako.

Errenteriak inguruko herrietarako edota Goizueta bezalako merkatal-lotura estuak zituen populazio-guneetarako zuen erakargarritasunaren hainbat adibide ikusi ditugu. Haez gain, Migel Alduntzingoa goizuetarrak esandakoak beste datu garrantzitsu bat dira. Zioenez, bere aita Tomas zena gure hiribildura askotan etortzen zen eta egonaldi horiek “*solía posar en casa de la dicha María Juan de Lastola e de Juan de Goçueta*”; azken hau Goizuetan jaiotakoa izateaz gain, Tomasen urruneko ahaidea zen²³³. Litekeena da Tomasen harreman hauen ondorioz, 1518 urtean bere seme Migel gure artean eskolatzea erabakitzea, honek 15 urte zituela. Migelek oso argi adierazten zuen: “*qu’el año pasado de mill y quinientos y diez y ocho, este testigo solía estar en la escuela aprendiendo ler y escrevir en la dicha villa de La Rentería*”²³⁴. Baieztapen honek Errenterian



Hernando de Madriden sinadura

- Hern(an)do de M(a)dríd, escriuano-
(EUA, A-1-4, 66 at. fol.; 1535eko
otsailaren 5a).

²³² Ibidem, 41 at. fol.

²³³ Ibidem, 305 au. fol.

²³⁴ Ibidem, 305 at. fol.

maisuei buruz genuen lehen aipamena urte batzuetan atzeratzen du, orain arte 1523an jarri izan baita lehen datu zehatza²³⁵.

Alabaina, gure auzotarrek beraien seme eta senideak Gipuzkoako beste hiribildu batzuetara bidali zituzten zerbitzu hori jasotzera. Katalina Idiazabalgoak, adibidez, bere iloba Martin Granadakoan urrezko 7 dukat gastatu zituela zioen; arropaz eta oinetakoz hornitzeaz gain, ikasketak ordaindu zizkion: “*en la escuela que le tuve en San Sebastián y en otras partes en más de quatro años y a su maestro que le avezava escriuir e leer e contar*”²³⁶.

Baina nafar, gipuzkoar edo Iparralde kutsuko abizen toponimikoez gain, badaude esparru horiek gaintzen dituzten beste batzuk. Lehenengo eta behin Frechilla, Illescas, Madrid eta San Vitores abizenak aipatu behar ditugu, gaztelar jatorri bati erreferentzia egiten diotenak. Horietako batzuk merkataritza edo itsas-garraioari lotuak zeuden; Oiartzungo Txipito etxeko andre zen Maria Lopez San Vitoreskoak adibidez, testamentua 1554an egin zuenean, Francisco Gutiérrez de San Vitores merkataria burgostarraren lehengusina zela aipatzen zuen²³⁷.

Beraien jatorriari edo gure artean ezartzeko arrazoiari buruz datu gutxi baditugu ere, badago informazio ugari emango digun eta oso adierazgarria den dokumentu bat, orain arte gutxi erabilitakoa gainera. 1528an Probintziako Batzarreen aginduz egin zen judu, kristautu, mairu edo beraien ondorengo zirenei buruzko espedientea, hain zuzen ere²³⁸. Berari esker, aipatu ditugun abizenen inguruan hainbat datu eman ditzakegu. Izan ere, lau abizenak 1528an agertzen dira eta guztiei judu, kristautu edo hauen ondorengo bezala aipamena egiten zaie, nahiz eta gehienentzako ondoriorik gabeko aipamena izan zela dirudien.

Hernando de Madrid eskribaua adibidez, maisu bezala aritzeaz gain, udalbatza-eskribau izan zen hainbat momentuan, 1527 eta 1529 artean; gure artean izango dugu 1535 arte gutxienez²³⁹. Bestalde, Hernandoren anai Juan Fernández Illescaskoa, 1524an prokuradore sindiko izango da eta urte batzuk beranduago

²³⁵ GOÑI LARRAÑAGA, J., aip. lan., 93 orr.

²³⁶ GPAH-AHPG 3/310, 10 at. fol.

²³⁷ GPAH-AHPG 3/2009, 118 at. fol.

²³⁸ ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía Guipuzcoana. El control de judíos, conversos y extranjeros en Guipúzcoa durante el siglo XVI*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1995. Iago Irixoa Cortésekin ere ez du erabiltzen, nahiz eta bere ondorioak, bereziki “Griego/Griega” abizenaren kasuan, inkestetan aipatzen diren datuekin bat etorri. Ald. ibidem 23, 24, 87, 88 eta 100 orr. eta IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 31 orr. Egia esan, Gipuzkoan atzerritarrek izan zuten agerpena ikertzeak ez du jarraipen handirik, ez Erdi Aorako eta ezta XVI. mende hasierarako ere. Egin diren ekarpenen inguruan, ald. ARAGÓN RUANO, A.: “«Con casa, familia y domicilio». Mercaderes extranjeros en Guipúzcoa durante la Edad Moderna”. In: *Studia Historica. Studia Moderna*, 31, (2009), 155-200 orr., non XVII-XVIII. mendeetan begirada jartzen den eta XVI. mende amaierako datu batzuk aipatzen badira ere, aurreko hamarkadei buruz ia informaziorik ez dagoen.

²³⁹ EUA, A-1-2, 3. pieza, 17 at.-18 at. eta 40 au. folk. eta EUA, A-1-1, 63 at.-64 au. folk.

Donostian auzotartuko da²⁴⁰. Biak idazkera eta zuzenbideari lotuta egotea ez da doako aipamena, agidanez, XVI. mende hasieran Malagan prokuradore jardunetangon egon zen Diego Hernández de Illescasen semeak baitziren²⁴¹.

San Vitorestarren inguruan ditugun datuen arabera, beraien jatorria Burgos da. Espedienteak dioenez, Errenteriara iritsitako lehenak Juan de San Vitores eta inkestak izenik aipatzen ez duen bere anaia izan ziren. Dirudienez, Juan, gure garaian dugun izen bereko pertsonaren aita zen eta Errenteriako auzotar Maria Perez Txipreskoarekin ezkondu zen, 5 seme-alaba izan zituztelarik (3 alaba eta 2 seme).

Alabaina, espedienteko datu guztiak ez datoz bat beste iturri batzuek aipatzen dituztenekin. Ezberdintasunak gure garaiko Juan San Vitoreskoaren aitaren inguruan hasten dira, 1528ko informazioa ez baitator bat Juan de San Vitoresekin, Diego de San Vitores merkatari burgostarrarekin baizik. Azken honi 1489an Donostiako auzotar bezala aipamena egiten zaio eta urte honetan, Maria Perez Txipreskoarekin ezkondu zen. Ez dakigu Diego judutarra ala kristautua zen, baina bai bere negozioak, Errioxako artilearekin lotutakoak, judutarrekin egiten zituela. Ondorioz, litekeena da gure Juan de San Vitoresen aita Diego izatea. Dena den, ezin dugu XVI. mende hasierako informazioa guztiz baztertu, bi arrazoigatik: bate-tik, 1528an Juan de San Vitoresekin batera bere anaia iritsi zelako (Diego?), Errenterian ere ezkondu zena; bestetik, Diego de San Vitoresek Katalina Etxabe-koa donostiarrarekin harremanak izan zituelako Maria Perez Txipreskoarekin ezkondu baino lehen, eta epai batek, azken lotura hau desegiteko eta Diego Katalinarekin bizi zedin agintzen zuelako. Ondorioz, gerta zitekeen epaitza betetzea eta Diego Katalinarekin bizi zen bitartean, Juan, Diegoren ustezko anaia, Maria Perezekin ezkontzea; hala, bikote honen ondorengoak Juan eta bere anai-arrebak lira-teke; baina hau guztia hipotesi hutsa besterik ez da²⁴².

²⁴⁰ EUA, A-1-2, 2. pieza, 71 at.-73 at. folk. 1528an, Donostian ezkondu delaren aipamena egiten da. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces...*, aip. lan., 77 orr.

²⁴¹ Abizen bereko herri toledoarrean (Illescas) jatorria dutela aipatzen bada ere (ORELLA UNZUÉ, J. L., aip. lan., 77 eta 81 orr.), Malagarekin lotura handiagoa izan zezaketela deritzogu. Badakigu Diego Hernández 1508an Malagako lokatzaren gaineko alkabalarren eta Yunquerako hiribilduko alkabalen errentatzailea izan zela (SUBERBIOLA MARTÍNEZ, J.: "Alcabalas de Málaga. Del arrendamiento al encabezamiento (1501-1518)". In: *Baetica. Estudios de Arte, Geografía e Historia*, 27 (2005), 376 orr. (363-387). Ángel Sánchez Galán bezalako egileek Diego Fernández de Illescas kristau zaharra zela diote, baina badakigu komunitate kristautuekin harremanak izan zituela eta 1508, Almogiako kristautuek beraien prokuradore izendatu zutela. Ikus. SÁNCHEZ GALÁN, A.: "Los moriscos de Málaga en la época de los Reyes Católicos". In: *Jabega*, 39 (1982), bereziki 58 eta 72 orr.


²⁴² Ikus. AGS. RGS. 1489-VI, 145 fol., non, Diegori, Alonso de San Vitores merkatari burgostarraren seme bezala aipatzen zaion. Artilearen inguruko negozioetarako, ikus AGS. RGS. 1489-V, 153 fol.; AGS. RGS. 1490-II, 189 fol.; eta AGS. RGS. 1495-IX, 149 fol.

Edonola ere, Hernando de Madriden eta Juan Fernández de Illescasen kasuan bezala, ez dirudi San Vitorestarrek bizikidetzan arazo askorik izan zutenik. Errenteriarako dokumentatua dugun Juanek hainbat udal kargu bete zituen 1526 eta 1539 urte bitartean, udalbatza-errenten errentatzailea izan zen eta hainbat errejimentu bere etxean ospatu ziren. Horrez gain, bere gizarteratzearen frogarik adierazgarriena Hondarribian ospatu ziren 1539ko Batzar Nagusietan dugu, bertan Errenteriako prokuradore izan baitzen. Alegia, Gipuzkoako aitonsemeak biltzen zituen erakundean parte hartu zuen, inkesta egin eta 11 urtera²⁴³.


Juan San Vitoreskoaren sinadurak

1) 1539-05-21

2) 1539-07-09



Iturria: EUA, A-1-3, 15 at. fol.



Iturria: EUA, A-1-3, 23 at. fol.

Juanen arrebak ere abizenaren txertatze adibide izango dira. Juanek bere egoitza bezala Errenteria aukeratu bazuen, bere arreba Katalina, Magdalena eta Maria Lopezek Oiartzun izango dute bizitoki; hirugarrena gainera, Txipito etxeko andre izango da.

Amaitzeko, San Vitores-Txipres bikotearen beste semea ezagutzea falta zaigu, 1528ko txostenak adierazten duenez, 5 seme-alaba izan baitzituzten, garai horretarako bat hilda bazegoen ere. Topatu dugun informazioa datu hauekin bat datorrelakoan gaude, Logroñon 1521eko ekainean alardea egin zuten Errenteriako tropen artean Alonso San Vitoreskoa azaltzen baitzaigu, dokumentazioan beste inon topatu ez duguna. Horregatik, data horretatik gertu zendu zela uste dugu²⁴⁴.

²⁴³ Ikus EUA, A-1-3, 22 at.-26 at. folk.; eta EUA, A-1-5, 6 at.-8 at. folk.

²⁴⁴ AGS. CMH. Contaduría del Sueldo, Primera Serie, 95-I sorta, f. g.

1528ko espedientean Frechillarrak Palentziako izen bereko hiribildutik zetozela aipatzen bada ere, ditugun datuek, gurean bizi izan zen adarra Salmancatik etorri zela dirudi. Behintzat, Katalina eta Frantzisko Frechillakoa errenteriarren ren osaba-izebak, 40ko hamarkadan unibertsitate-hiriko auzotar bezala aipatzen dira eta horietako bat gainera, Fernando Ibañez de Frechilla doktorea, bertako unibertsitateko katedradun izan zen²⁴⁵. Familia honek Gipuzkoako kostaldearekin izan zituen kontaktuak, gutxienez XVI. mende hasierakoak dira. Izan ere, Katalina Ibañez Frechillakoa, Pero Alonso de Frechilla zenduaren alaba, Martin Aiakoarekin ezkondu zen 1517 urtean.

Katalinaren anaia eta Peroren seme zen Frantzisko Ibañez hiribilduko bizitzaren hainbat esparrutan ikusteko aukera izango badugu ere, bereziki errenta-errentatzaile moduan, bere aitari buruz ia ez dugu informaziorik. Badakigu garraiolari eta nao baten jabe zela eta Donostiarekin erlazio estua zuela, han bizi izan baitzen eta testamentua bertan egin baitzuen. Graziana San Estebangoarekin harremanak izan zituen, Katalina honen emaitza izan zelarik, baina ez dakigu beste seme-alabak harreman horren fruitu izan ziren ala ez. Ziurrenik ez, dokumentazioak, Graziana urte gutxira Donezteben ezkondu zela baitio eta Katalinak Martin Aiakoa senar hartu zuenean, bere anaia Frantziskok 2 urte besterik ez zituelako.

Edonola ere, Frechillaren seme-alabek Aia eta Ierobi bezalako familiekin ezkonetzeak nolabaiteko garrantzia islatzen du, ziurrenik Fernando Ibañez de Frechilla doktore eta unibertsitateko katedradunak emandakoa²⁴⁶.

Aurrekoak adibide interesgarriak dira, guztiak 1528ko espedientean agertzen baitira eta honen ondoren presio gutxi jasan zutela dirudielako. Baina hauez gain, badaude oso erakargarriak diren beste bi kasu eta, gainera, Europa mailako mugikortasuna erakusten dutenak.

Egia esan, antzeko adibideak topatzeko berriz ere San Pedro eta Pasai Donibane-ko komunitateek eskaintzen dizkiguten datuerara jo behar dugu. Biak baitira, Donostian edo Hondarribian Behe Erdi Aroan gaskoiek izan zuten garrantzia kenduta, beraien egituraketan atlantiar isurialdeko biztanleen (bretoi, galestar edo ingeles) eraginaren lekuko argienetako bat²⁴⁷.

²⁴⁵ Ald. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces...*, 83 orr.; eta ARChV. Reales Ejecutorias, 1571-2.

²⁴⁶ Frechillari buruzko datuetarako, ikus GAO-AGG CO MCI 57. Martin de Huete eta Francisco Felipe bezalako pertsonen buruzko datuak ere baditugu, baina nahiko eskasak dira. Badakigu bigarrenak 1541ean udal-diruzain funtzioak utzi behar izan zituela Ciudad Rodrigora joan behar zuelako; horregatik, bertakoa ez bazen, inguruan jaiotako pertsona zela uste dugu. EUA, A-1-5, 117 at.-118 au. folk.

²⁴⁷ IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan. Duela gutxi egindako ikerkuntza baterako, ikus SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; eta ARIZAGA BOLUMBURU, B.: "Protéger et contrôler la présence et les activités des étrangers dans les villes portuaires du nord de la Couronne de Castille au Moyen Âge". In: *Annales de Bretagne et des pays de l'Ouest*, 117 (2010), 209-222 orr. Ikus baita, IRIXOA CORTÉS, I.: "Atzerritarrek Erdi Aro amaieran: Pasaia-ko badiako populazioen adibidea (XIV. mende amaiera - XVI. mende hasiera)". In: BEHSS 45 (2012) (prentsan).

Aipatu dugunez, bokaleko komunitateetan prozesu hauek eman ziren garaian, hau da, XIV. mende amaieran eta XV.aren hasieran, ez zuten Erreterian horrenbesteko eragina izan; baina egoerak aldaketa izango du gerora, populazio gunea badiako hiribildu moduan eskuratzen ari zen garrantziaren baitan. Horregatik, baliteke orain ikusiko ditugun gertakariak hainbat hamarkada atzeratu behar izatea, nahiz eta datu goiztiarragorik topatu ez dugun. Edonola ere, gure ikerkuntza garaia osatzen duten urteetarako badugu informazioa.

Lehenengo datuak garai honetarako gipuzkoar iturrietan ia gorde ez den dokumentu mota batek eskaintzen dizkigu; auzotartze gutunak, alegia. Zehazki, 1529ko ekainaren 2an Erreterriako errejimenduak eman zuena:

“Este día, ante sus mercedes pareció Thomas de Brotan e dixo que hera su voluntad de benir a vivir a esta villa de La Rentería con su muger e familia, e que tenía alquilada su casa donde hazía su habitación e morada en la casa de Juan Sans d’Echabe, e que le tomasen e tubiesen por vezino de la dicha villa. E que él estaba presto e cierto de pagar todas las derramas e cosas que los vezinos de la dicha villa pagan e de hazer con su persona e bienes lo que otro vezino semejante debe hazer, e de goardar los pribilejos de la villa a todo su poder. E luego reçibieron juramento en forma del dicho Thomas, que goardará los prebilejos de la villa a todo su poder e hará con su persona e bienes como otro vezino de la dicha villa. E echando la confusión del juramento que en tal caso se requiere, dixo que ‘sy, juro’ e ‘amén’, e se obligaba e obligó con su persona e bienes de goardar e complir todo lo susodicho.

E asy reçebido el dicho juramento e obligación, sus mercedes dixieron que lo reçebían e reçebieron por vezino de la dicha villa al dicho Thomas de Corcan e que gozase de todos los prebilejos de la dicha villa segund otros vezinos d’ella gozan e deben gozar”²⁴⁸.

Auzotar honi buruz ez dugu gure garaian inolako daturik, baina 1547 udal-hauteskundeetarako hautesle bezala Martin Corcam izeneko bat badugu. Agian, Corcamen gizarteratzearen garrantzia erakutsiko luke, bere ondorengo batek hiribilduko bitzita politikoaan partaidetza izan zuela azalduko bailuke²⁴⁹.

Auzotartze-gutunak Thomasek gure artean hainbat denbora zeramala adierazten badu ere, ez dugu bere ogibide zein Erreterriako gizartearekiko zituen loturen inguruan daturik lortu²⁵⁰. Dokumentuak ematen duen informazioaren arabera, ez

²⁴⁸ EUA, A-1-2, 4. pieza, 29 au.-30 au. folk. Eskribauak Thomas Corcamen auzotartze-gutuna bezala aipamena egiten badio ere, ondoren, abizena “Brotan” bezala idazten du.

²⁴⁹ EUA, A-1-4, 97 au. fol.

²⁵⁰ Ziurrenik, hau argitzeko, beste leku batzuetan kontratua bideragarri izateko eskatzen zen fidatzaile baten inguruko datuek lagunduko ligukete, baina ez dugu hauen berri. Ald. PILES RÍOS, L.: *La población de Valencia a través de los “Libres de avehinament”*. 1400-1449. Valencia: Ayuntamiento de Valencia, 1979, 20-22 orr.

zen hiribilduan bakarrik finkatu, bere emazte eta seme-alabekin bizitzeko asmoa adierazten baitzuen. Emaztea nongoa zuen ez dakigu, ordea. 1528an aipatzen zen Martin de Corcam bat, adibidez, Errenteriako auzotar zen emakume batekin ezkondua omen zegoen, eta badakigu Corcam hau gutziz gizarteratua zegoela. Adibide gisa 1527ko abenduaren 15ean hainbat auzotarrek emandako ahalordea jarri dezakegu, horien artean Corcam honek parte hartuko baitu²⁵¹.

Eskriturak, Thomas hiribilduko auzotar baten maizter bezala aipatzea, higiezin merkatuaren inguruan oinarrizko datu bat ematen digu; izan ere, garrantzitsua izango zen merkatal-dinamismo nabarmena zuten hiribildu eta populazio gunee-tan, hau da, beste batzuetan baino hainbat lekutako jende gehiagoren iritsiera ikusi-ko zutenetan²⁵². Etxe propiorik ez izatea maila ekonomiko apalago bat adierazi dezake, gaitu gabeko langile bati erreferentzia egingo liokeena edo, behintzat, lan-sustatze edo gizarte-igoera aurreikuspen gutxiago zituen bati; agian, urtaroen araberako ogibide bati lotua. Alabaina, ondorengo hamarkadetan Corcam abizena agertzeak adierazi dezake Thomasek momenturen batean hiribarnean etxea lortu zuela (udal-hauteskundeetan parte hartzeko baldintzetako bat), gizarteratu zela eta komunitatearen baitan nolabaiteko iritzi ona zuela. Dena den, hau guttia Thomas eta Martinen artean egon zitekeen odolkidetasunaren ondorioa izango litzateke eta agian, ez zegoen halakorik.

Martin Corcami buruz, 1528ko inkestak hainbat datu interesgarri ematen ditu. Lehenengo eta behin, bere balizko jatorria. Dokumentu horretan Irlandan jaiotako zela aipatzen zen, bere gurasoak ere hangoak zirelarik. Honek, Ingalaterrarekin alderatuta, garrantzia gutxiago duen esparru geografiko batekin harremanetan jartzen gaitu, edo berari buruzko datu gutxiago ditugunarekin, baina, hala ere, garaiko gipuzkoarrek ezaguna zutena. Izan ere, Irlanda gure marinelen helmugetako bat zen, bereziki sardina eta sardin-zaharraren arrantzuan aritzeko; gainera, hango portuetan lehorreratzen ziren, beraien ontzietarako beharrezkoak ziren produktuez hornituz eta bertako jendearekin truke jarduerak eginez.

Corcamen kasua, baina, ez zen bakarra izan. Inkestak hainbat irlandar aipatzen ditu Pasai Donibanen edo San Pedron bizitzen, momentu honetara arte ezagutzen ez genuen edo topatu gabeko datuak direlarik. Hauei guztiei Corcam abizenarekin aipatzen zaie eta gure iritziz, Goizueta abizenarekin gertatzen den bezala, ez du

²⁵¹ IEA. Ollacarizqueta, 75 kartoia, 20 zbkia., LVII au.-LXIII at. folk.

²⁵² Orokorrean, auzotartzeetan jartzen ziren baldintzen artean, hiribilduan hainbat denbora lehenago bizitzen ego-
tea zegoen. Baliteke honek atzerritarrek etxeak jabetzan eskuratzea behartzea, izan ere, auzotar maila lortze-
ak, hiribilduan era iraunkoragoan ezartzeko asmoa islatuko luke. Auzotartze kontratuen inguruan, ikus DíEZ
DE SALAZAR, L. M.: "Régimen municipal en Guipúzcoa (s. XV-XVI)". In: *Cuadernos de Sección. Derecho*,
1 (1984), 85-87 orr. (75-129).

esan nahi badian ezarritako familia bereko kideak zirenik, irlandar horiek esparru geografiko berdinetik zetozela baizik²⁵³.

1528ko dokumentuak, Martin Corcam Juan Perez Sarastikoaren alaba Mariarekin ezkondu zela eta ordurako 3 seme-alaba zituztela ere jasotzen du. Martin honen eta 1529an agertzen zaigun Thomasen datuen arteko desfaseak zera islatuko luke, lehena bigarrenaren seme edo ondorengo ez zela; ondorioz, inkestan aipatzen den Martin eta 1547an agertzen zaiguna pertsona bera zirela uste dugu. Hori baieztatzeko, Pasaian bere abizen bereko hainbat irlandarri buruzko aipamena dugu, ahaidetasun loturei baino, esparru geografiko berdinari erreferentzia egingo liokeena.

Badago Pasaia badiak erakargarritasun, inmigrazio eta kokapen leku bezala adierazten duen beste datu bat. Posible da, hasieran, biztanle horietako batzuek badiako bokalean kokatutako komunitateetan ezartzea, pixkanaka barruranzko bidea egitea eta Erreterian auzotartuak amaitzea. Eta Thomas Corcamen kasua halakoa izan zela uste dugu; izan ere, auzotartze-gutunaren hasieran Brotan abizenarekin egiten zaio aipamena eta izen-abizen bereko pertsona 1531ko Pasai Donibaneko udalbatzar orokor batean dokumentatua dugu. Gainera, bi lekutan auzotartua egoteak ez du inolako kontraesanik; behin baino gehiagotan ematen den egoera da eta gainera, ez zaio trabarik jartzen²⁵⁴.

Edonola ere, bai Thomasen eta baita Martinen kasuak ere, europar jatorriko pertsonen Erreterian eta eskualdean XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran izan zuten gizartzeratze prozesuen erakusle dira.

Azkenik, etorkin europearren inguruan ez-ohiko adibide bati erreferentzia egin behar diogu²⁵⁵. Thomas Barcot bristoladarrari buruz ari gara, egile batzuek gure geografian epe luzez bizi izan ziren atzerritarren lehenengo adibide bezala aipatu dutena²⁵⁶. Aurreko lan batzuek, ingeles honek garaiko testuinguru belikoaren baitan

²⁵³ Corcam-en kokapenari buruz, ald. IRIXOA CORTÉS, I.: "Atzerritarak...", aip. lan.

²⁵⁴ GAO-AGG CO CRI 2,2. Ahaztu gabe, 1541eko otsailan, Donibaneko kopero eta hainbat auzotarrek eman-dako ahalordean Juan Corcangoa agertzen zaigula. Ikus PUA, 1626-2, 256 au.-258 at. folk.

²⁵⁵ Orain arte aipatutakoekin batera, Cristobal Bullar edo Ballartekoa dago (batzuetan Bulart edo Bulac bezala idatzia), 1540ean errejidore izan zena. 1528ko inkestak ez du aipatzen eta bere inguruan ere ez dugu inolako daturik topatu. Badakigu errejidore izan zen urtean hainbatetan errejimenduko bileretan ez zuela parte hartu itsasoan zegoelako eta ondorioz, bere lanbidea esparru horrekin erlazionatua egongo zen (adibide batzuetarako, ikus EUA A-1-5, 35 au. edo 59bis au.-at. fol.). Baliteke egindako bidairan batean hiltzea eta horregatik berari buruzko daturik ez izatea. Bere semetasunari buruz, jatorri bat jartzea zaila da (Ballack alemaniarretik?), baina bere abizena 1499 inguruan jaiotako Magdalena Balac-ekoa donibandarraren antza du (ald. HUA, E-7-I-1-4, 72 au. fol.).

²⁵⁶ CHILDS, W. R.: "Commercial relations...", aip. lan., 62 orr.

eta 1512-1537 artean egin zituen espiotza lanen inguruan Gipuzkoan izandako bizipenak jorratu dituzte²⁵⁷. Guk baina, gure garaian probintzian egin zuen ohiko bizitzaren inguruan datu ugari bildu ditugunez, hauetan jarriko dugu begirada.

Dokumentazioak Barcot Errenteriako nahiz Hondarribiko auzotar bezala aipatzen du; azken honetan ikus dezakegu 1501 urtean jada, orduan Rodrigo de Valladolid merkataria burgostarraren eta Thomas Baron Bristolgo merkatariairen arteko auzian epaile izendatua izan baitzen, Thomas Huarrekin batera²⁵⁸. Bere agerpena, ordea,



BRISTOLGO IKUSPEGIA 1581EAN, Joris HOEFNAGELen (1542-1600) arabera. Irudi hau Georg BRAUN eta Franz HOGENBERG “Civitates Orbis Terrarum” (1572-1612), lanean agertu zen eta William Smithek 1565ean egindakoan oinarritzen zen (http://historic-cities.huji.ac.il/british_isles/bristol/maps/braun_hogenberg_III_2.html).

²⁵⁷ SANTOYO, J. C.: “De crónicas y tiempos británicos. Historia de una expedición militar inglesa en Guipúzcoa (Junio-Octubre de 1512)”. In: *BEHSS*, 8 (1974), 3-71 orr. Lan honen 56-63 orrialdeak Barcoten gorabeherei buruz dihardute.

²⁵⁸ GPAH-AHPG 3/283, 15 au.-19 au. folk., non merkataria ingeles eta Bristolgo auzotar bezala aipamena egiten zaion.

hainbat urtetan atzeratu dezakegu 1537an esaten zituenak kontuan hartzen baditugu. Orduan, Donostiaren eta Errenteriaren berri zuela adierazten zuen, “*porque las ha visto y estado en ellas y en cada vna d’ellas muchas vezes e conosco a los más de los vezinos de la dicha villa de La Rentería (...) de quarenta e siete años a esta parte, poco más o menos*”²⁵⁹. Alegia, 1490etik gure artean egon zela.

Badakigu Hondarribiko hirigunean hainbat ondasun eskuratu zituela eta hortik kanpo zegoen Gontzalonea basetxeko jabe ere izan zela, garai honetan “Bacocen basetxea” (“*la casería de Bacoc*”) izenez ezaguna zena²⁶⁰. Hiribilduan zituen jabetzek azaldu dezakete bere alaba Isabela Juan Perez Untzakoa batxillerrarekin ezkontzea, azken hau eta Thomas bizilagunak baitziren. Bien arteko harreman hau lan-esparruan ikus daiteke, Thomas, bere morroi Juan Mesan eta Juan Perezen seme Baltasar, Untzak 1528an emandako konpromiso baten lekuko izan ziren eta²⁶¹.

Azken urte honetan Thomas Errenteriako biztanle eta auzotar bezala aipatzen bada ere, ez dakigu gure hiribilduarekin harremanak noiz hasi zituen. Ziurrenik era naturalean sortutakoak izango ziren, gipuzkoar kostaldean zehar burutu zuen merkatal-jardueraren ondorioz Pasaiako badiara ere joango zelako. 1467 inguruan jaioa eta 1549 urtea baino lehenago zendua, Errenteriako auzotar zen Katalina San Matetekoarekin ezkondu zen eta bikoteak gutxienez hiru seme-alaba izan zituen: Isabel, Maria eta Tomas²⁶². Badakigu, gainera, Endrike VIII.aren informatzaile edo espia lanetan aritu zela 1512-1530 artean, erregeari Gaztelako Koroarekin zerikusia zuen informazioa emanez.

Baina jarduera diplomatikoez gain, bere benetako lanbidea merkataritzari lotua egongo da, bereziki hainbat merkataritari ingelesen laguntzaile bezala; hala, badakigu 1517 urtetik gutxienez, Thomas Howellentzako faktore lanetan zebilela²⁶³. Bere herrikideek gure artean oso ongi ikusia zegoela zioten, eta ez da harrizkoa: 20ko hamarkadako dokumentazioak Irun, Hernani eta Hondarribiko auzotarrekin oihalen inguruko negoziotan zebilela erakusten baitigute. Martin Igiñiz upelgile irundarrak, adibidez, 100 pipa luze eta 50 tonel on zor zizkion, Thomasek hauen ordainetan dirua eta oihalak aurreratu zizkiolako²⁶⁴.

²⁵⁹ OUA, C-4-5-4, 297 au.-at. folk. Ondorioz, bere agerpena 20 urtetan atzeratzen da. Ald. SANTOYO, J. C., aip. lan., 56 orr. eta HH. EE.: *Hondarribiko baserriak*. Hondarribia: Hondarribiko Udala, 2003, 207-208 orr.

²⁶⁰ HH. EE.: *Hondarribiko baserriak*..., aip. lan., 207-208 orr.

²⁶¹ GPAH-AHPG 3/298, 23 au.-at. folk.; eta GAO-AGG CO MCI 54.

²⁶² GAO-AGG CO CRI 2,2; eta GAO-AGG CO MEJ 24.

²⁶³ CONNELL-SMITH, G.: “The ledger of Thomas Howell”. *Economic History Review*, 2nd series, III (1950-1), 367 orr. (CHILDS, W.: “Commercial relations...”, aip. lan., 62 orrialdean aipatuta).

²⁶⁴ GPAH-AHPG 3/292, 29 au.-at. folk. Bere jardueren hainbat adibidetarako, ikus GPAH-AHPG 3/291, 10 au.-12 au. folk.; eta GPAH-AHPG 3/294, 5 au.-6 at. eta 32 au.-33 at. folk.

Ikerkuntzek diotenez, 20ko hamarkadaren amaieratik aurrera Barcot espiotza lanetan buru-belarri sartu omen zen, merkataritza-jarduerak alboratuz. Are gehiago, egoera honek txirotasunera eramán zuela azpimarratu izan dute hainbat egilek. Baina ditugun datuen arabera, ideia hori zalantzatan jarri beharrean gaude, 30eko hamarkadan zehar merkatal negozioetan arituko baita²⁶⁵. 1530eko urrian, adibidez, Ingalaterratik zetorren gari, babarrun, olo, ilar eta bilgor kargamentua esportatzeko baimena lortu zuen; urtebete beranduago, William Brat ingelesak, Thomasentzat ziren babak kargatu zituen Errenteriako nao batean²⁶⁶. Azkenik, 1535 urtearen amaieran, Guillen Langekoak eta Pascual Montesrutkoak gure auzotarraren eta beste bi merkatarari ingelesten aurkako salaketa jarri zuten, oihal batzuen inguruan²⁶⁷.

Thomasen gizarteratze nabarmena erakusten duten datuak bere ondorengo bizipenetan ditugu. Orain arte beraien inguruan idatzitako artean, Thomas beraen hitzak aintzat hartuz, bere seme-alabek ingelesik ez zekitela zegoen²⁶⁸. Alabaina, gure ustetan dokumentazioak kontrakoa adierazten du; izan ere, 1521ean jaiotako Thomasen izen bereko semeak zera zioen: “*fue criado en la ciudad de Londres en mucho tiempo con mercaderes de la dicha ciudad*”, eta ordutik adierazpena egiten zuen urtera arte (1550 urtean), merkatarari ibili zela “*así en la dicha ciudad de Londres y otras partes del dicho rreyno de Ynglatierra*”²⁶⁹.

Tomas honek Errenteriako auzotar zen Petronila Isastikoa hartu zuen emazte. Ordutik, adar honek bi abizenak tartekatuko ditu, Probintziako dinamikan gizarteratzearen isla bezala eta ziurrenik, Isastiarrek Errenteriako gizartean zuten pisu nabarmenagoagatik²⁷⁰. Alabaina, Tomas honen beste seme batek, Juanek, bere aitonaren abizena mantenduko du eta hala ikusiko dugu 1576an, hiribilduko hamabi nagusi bezala hautatua izan zenean²⁷¹.

Thomasen alabei dagokienez, esan dugu Isabela Juan Perez Untzakoak batxillerrarekin ezkondu zela, zeina Errenteriako eta Hondarribiko udalbatzen abokatu bezala aritu zen²⁷². Bestalde, Maria alaba Hondarribian biziko da eta Juansun

²⁶⁵ Ald. SANTOYO, J. C., aip. lan., 58-59 orr.

²⁶⁶ EUA, C-5-I-3-4, 20 at.-21 at. folk.

²⁶⁷ GPAH-AHPG 3/305, 1 au.-at. folk.

²⁶⁸ Ald. CHILDS, W. R.: “Commercial relations...”, aip. lan., 62 orr. eta bereziki, SANTOYO, J. C., aip. lan., 56 eta 61 orr.

²⁶⁹ GAO-AGG CO MEJ 31, f. g. 1552 urtean adierazpen berdina egiten zuen. Ikus GAO-AGG CO MCI 160, 41 au.-at. folk.

²⁷⁰ Ald. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 57 orr., non egile honek Thomas bi aldiz ezkondu zela pentsatzen zuen.

²⁷¹ EUA, A-1-6, 103 at. eta 104 at. folk.

²⁷² Ikus, adibidez, HUA, A-1-2, 12 au.-at. eta 138 at.-139 au. folk.

Azkaingoa ontzi-maisua izango du senartzat. Azken honek 1527ko urtarrilaren 20an egin zuen bere testamentua eta bertan Mariarekin izandako semeak aipatzen zituen: San Juan, Juan eta Tomas²⁷³.

Argi dago Barcot gizarteratu zela, nahiz eta momenturen batean, 1535 urte inguruan eta ziurrenik erlijio-gatazkak zirela eta, estualdiren bat pasa²⁷⁴. Hala ere, hau kenduta, eman ditugun beste datuek Probintzian guztiz txertatua zegoen pertsona baten aurrean gaudela adierazten digute. Eta horren erakusle, beste datu oso esanguratsu bat dugu. Azpeitiko Batzar Nagusiek 1528an inkesta famatua egitea agindu zutenean, Hondarribiko egoerari buruzko informazioa eman behar zuen lekukoen artean Barcot bera zegoen. Orduan bertako auzotar eta Erretereriako biztanle bezala aipamena egiten zitzaion eta dakigunez, berak ere ez zuen inolako ondoriorik jasan²⁷⁵.

Orain arteko lerroetan eman dugun informazioaren arabera, Erdi Aroko azken mendean eta XVI. mendearen hasierako hamarkadetan bizi den testuingurua ez da garai ilun bat, ezta gutxiago ere. Aitzineko paragrafoek, orain arte historiografiak aurkeztu izan duen ideiarekin aurrean, gizarte ireki baten aurrean gaudela adierazten dute edo, bai behintzat, Probintziara kanpoko jendearen etorrerak uste baino mesfidantza gutxiago sortu zuela. Bistan da Bostehunaren hasieran bizi zen koiuntura positiboak, nazioarteko merkataritzaren garapenak lagunduta, gure artean hainbat lekutako jendea egotea bideratu zuela, bereziki kostaldeko portu eta hiribilduetan.

Atzerritar hauek Gipuzkoan eta Erretererian izan zuten gizarteratzea hiru faktorek eragingo lukete. Batetik, hemengo gizartea egituratzen zuten pentsamolde eredu berdinak edo oso antzekoak izatea; bestetik, udalbatzek ezartzen zituzten arauak betetzea, bizileku eta eguneroko bizitza egiten zuten lekuetako auzotarren antzera; eta batez ere, itsasora begira bizi zen Erretereria bezalako hiribildu batean egonik, atzerritar hauek zituzten kontaktu eta jarduerak, hiribilduko aberastasuna bermatzen zutela.

Erretereriako kasuan ditugun adibiderik nabarmenenek, hiribilduko bizitza ekonomiko zein politikoa ustez jatorri nahiko iluna zuten pertsonaien partaidetza zuzena eta ia etengabekoa adierazten digute. Bereziki azpimagarria da lehen aipatu dugun Juan San Vitoreskoaren kasua; 1539an, hau da, bere aita judutarren ondorengo zela behin eta berriz aipatzen zuen inkesta egin eta 11 urtera, hamabi nagusi eta Probintziako batzarkide izendatu baitzuten.

²⁷³ GPAH-AHPG 3/297, 66 au.-68 au. folk.

²⁷⁴ SANTOYO, J. C., aip. lan., 61 orr.

²⁷⁵ ORELLA UNZUÉ, J. L., aip. lan., 70 orr. eta hh., bereziki 70-125 orr. Ald. ibidem, 15 orr., non José Luis Orellak, Barcot Erretereriako auzotar zela adierazten duen. Bestalde, JIMÉNEZ DE ABERASTURI, J. C. (zuz.), aip. lan., 91 orrialdean aipatzen den Martin Greboni buruz ez dugu daturik topatu.

1510eko errege-probisioak argi erakusten du garai honetan auzotarrek eta udal agintariak halako pertsonekin nolabaiteko elkar aditze bat zutela. Hala, kristautuen auzotartzea debekatzear eta ordurako Probintzian bizi zirenei alde egin zezaten sei hilabeteko epea emateaz gain, dokumentu horrek pertsona horiek inork babestu eta lagundu ez zitzala agintzen zuen. Halakoak ere ondorengo urteetan errepikatu ziren eta, beraz, Gipuzkoan bizi zen eta kristau ona ez zelako susmoa bere gain zuen jendea legalki jazarria bazen ere, argi dago jazarpen hori ez zela oso gogorra izan. Mutrikun 1531n ospatu ziren Batzar Nagusietan, argi geratu zen “arraza txarreko” jendea edo hori izatearen susmagarri zena gipuzkoarrekin ezkontzen zela²⁷⁶; eta Erreterria, ikusi dugun bezala, ez zen salbuespena izan.

Alabaina, XVI. mendean sartzen goazen heinean, atzerriko biztanleak kontrolatzeko xedapenak areagotzen joango dira. Hori gertatzeko hainbat arrazoi egon ziren: udal-gobernuen itxiera handiago bat, nazioarteko egoera politiko-erlijiosoa eta, azkenik, Gipuzkoako elitea osatzen zuten hainbat familiek, beraien eskuetatik kanpo eta atzeritarren esku zeuden negozio garrantzitsuak lortzeko zuten interesa.

Hala, 1540an, gure hiribilduko errejimenduak, errege-pragmatiken arauak jarraituz, agindua eman zuten “*para que ningunos arlotes ni bagamundos estrangeros non anden por esta villa*”²⁷⁷. Neurri hau, udalbatzek garaiako pentsamoldean elkar-kidetzarako arriskutsuak ziren pertsonen kontrola bilatzen zuen politikekin lotu badaiteke ere²⁷⁸, badaude Probintziaren diskurtso politikoaren eraketan eta osaketan gutziz txertatzen diren beste batzuk. Auzotartutako atzeritarren kontrola bilatzen zuten xedapen hauek Zestoako 1527ko Batzar Nagusietan onartu ziren, eta beraien aitonsemetza frogatua ez zuten pertsonen auzotartzea debekatzen zuten arauetan oinarritzen ziren. Izan ere, 1539ko uztaillean errejimenduak eragile bat izendatzen zuen, azkeneko 12 urteetatik ordura arte ezkondu ziren gizon atzeritarrek beraien aitonsemetza erakutsi zezaten; hau da, 1527 urtetik²⁷⁹.

²⁷⁶ MORA AFÁN, J. C.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D.: *Una aproximación al estudio de la marginación social en Gipuzkoa Durante el Antiguo Régimen*, I. alea, 3-4 orr. (argitaratu gabe).

²⁷⁷ EUA, A-1-5, 14 at.-16 au. folk.

²⁷⁸ Udal agintariak txiro eta eskaleen inguruan zituzten jarrerei buruz, ald. BONACHÍA HERNANDO, J. A.: “«Más honrada que ciudad de mis reinos...». La nobleza y el honor en el imaginario urbano (Burgos en la Baja Edad Media)”. In: BONACHÍA HERNANDO, J. A. (koord.): *La ciudad medieval. Aspectos de la vida urbana en la Castilla bajomedieval*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 207 orr. (169-212).

²⁷⁹ “los que se han casado de doçe anos a esta parte en esta villa (...) muestren la ydalguía”; EUA, A-1-3, 24 at. fol. Litekeena da Barcotek urte batzuk lehenago aurkeztu zituen kexuak halako xedapenekin lotura izatea.

IV.

ERRENTERIAKO ELITEA XVI. MENDE HASIERAN: IRIZAR ETA LA RENTERIA

Errenteriak Aro Berrian eman zituen lehen pausoen hurbiltze honi amaiera emateko, familia nagusienei erreparatu nahi diegu. Gure asmoa, ordea, ez da bakoitza banan-banan aztertzea. Oraingoan gure helburua askoz xumeagoa da eta horietako bi hartuko ditugu ardatz bezala: Irizar eta La Renteria, hain zuzen ere.

Bi hauek aukeratzeko arrazoiak oso errazak dira. Batetik, historiografiak gorai patu dituen abizenak direlako, nahiz eta beraien inguruan jasotako informazio ia bakarra Koroaren zerbitzupuan egin zituzten gertaera militar gogoangarriei buruzkoa izan. Ikerketa ezberdinek ez dute abizen horien kiderik nabarmenenek ondasunen jabetzan edo hiribilduko eta Probintziako bizitza politiko zein ekonomikoan izan zuten pisu eta partaidetza aztertu; asko jota, beraien ezkontza batzuen inguruko datuak besterik ez dira eman²⁸⁰.

Informazio eskas hau da, gainera, beraien ikerketan sakontzeko bigarren arrazoia eskaintzen diguna. Gure garaian hiribilduko bizitza politiko zein ekonomikoan izan zuten etengabeko agerpena hiribilduan zuten arbaso falta agerikoarekin kontrajartzen baita. Akorda, Isasti edo Gabiria bezalako abizenek ez bezala, Irizar eta La Renteria oso gutxitan azaltzen dira dokumentazioan eta egiten dutenean, askotan maila garrantzitsu bat islatuz, gure garaian da, ez lehenago. Beste era batera esanda, XVI. mende hasieran da beraien sendotze eta finkatzea.

²⁸⁰ Ald. GAMÓN, J. I., aip. lan., 289 orr. eta hh.

1. Kargu politikoaren betetzea

Prozesu hori ulertzeko, 1490 eta 1515 artean udal kargu garrantzitsuenetan aritu zirenen zerrendan erreparatu besterik ez dugu egin behar. 25 urte horietan bildu ditugun datuen arabera, Irizar bat bakarrik dokumentatua dugu, Martin, kapitain famatuaren aita, alkate 1490 eta 1515 urteetan; Martin La Renteriakoa, aldiz, 1511an agertzen zaigu kargu horretan²⁸¹. Partaidetza eskas honek alde handia du 1517-1544 epearekin. Azken hau I. taulan ikus dezakegu eta oso datu esanguratsuak ematen ditu.

I TAULA

ABIZENEN ETA UDALBATZA-KARGUEN ARTEKO ERLAZIOA (1517-1544)²⁸²

ERREJIDOREEKIN		ERREJIDORERIK GABE	
10 KARGU EDO GEHIAGO			
Isasti	16	Isasti	10
La Renteria	13	La Renteria	12
Irizar	12	Irizar	12
Goizueta	10	Goizueta	8
5-9RA ARTEKO KARGUAK			
Zubieta	8	Zubieta	7
Gabiria	7	Gabiria	6
Akorda	6	Akorda	5
Ierobi	6	Ierobi	4
Agirre	6	Agirre	1
Pikardia	6		
Lezo	5	Lezo	4
Arizmendi	5	Arizmendi	1


²⁸¹ Martin Irizarkoarentzat, TENA GARCÍA, M.ª S., aip. lan., 609 eta 610 orr.; CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan., 79. eta 80. dok.; eta OUA, C-4-4-3, 330 au.-at. folk. 1511 urtean Martin Irantzukoa izenekoa da alkate, gure ustetan Martin La Renteriakoa dena (ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Olvidados, 277-4).

²⁸² Taularen oinarria, identifikatuak ditugun parte hartzeko eta erabakitzeko eskumena zuten udalbatza-karguek osatzen dute: alegia, 196 alkate, hamabi nagusi eta errejidoreetatik, 185. Halako karguetatik 5 eta 9 artean betetzen dituzten abizenak ere jartzea egoki deritzogu, bi arrazoigatik: batetik, batzuk familia garrantzitsuenen hurbileko ahaideak zirelako eta ondorioz, ondorengo lerroetan aipatuko ditugulako; bestetik, alkate eta hamabi nagusiek errejidoreekiko duten ierarkizazioa hobeto ikusteko. Informazio gehiagorako, jatorrizko lanera jotzea gomendatzen dugu.

Begirada bat botatzea nahikoa da Irizar eta La Renteriak, Isasti eta Goizueta bezalako abizenekin batera, udal-kargurik garrantzitsuenak bete zituztela ikusteko. Honek, aurreko urteekin alderatuta, oso egoera ezberdina aurkezten du. Izan ere, 1517tik, eta gure garai osoan zehar, beraiek izango dira udalbatzaren ofizio nagusietan, errejimendua osatzen dutenetan, arituko direnak. Beraiek izango dira batzarretan biltzen ziren eta hiribilduko gobernu-organoan hartzen ziren erabakietan parte hartzeko eta erabakitzeko eskumena zuten ofizioetan jardungo direnak, alkate, hamabi nagusi eta errejidore karguen portzentaia garrantzitsu bat betez.

Abizen hauek zuten pisua areagotu egiten da azterketa honetan hiribilduaren gobernuan eskumen eta eragin handiagoa zuten karguei so egiten badiegu, alkatei eta hamabi nagusiei, alegia. Ikus dezakegunez, errejidoreak kontuan hartzen ez baditugu, Isasti abizenak 16tik 6 kargu galtzen ditu; La Renteriak eta Irizarrek, aldiz, ez dute ia aldaketarik.

Horrez gain, hainbat abizenen egoera hobeto ulertzeko, aurreko lerroetan esandakoa hartu behar dugu kontuan: abizen bereko pertsonak senideak diren ala ez jakitea. Goizuetarren kasuan, adibidez, badakigu loturarik gabeko bi familia direla eta Isasti eta Gabiriarrekin ere beste horrenbeste antzematen da; azken hauen kasuan lotura zuzenik edo argirik gabeko hiru adarren aurrean baikaude. Isastiarrek “Errejidorerik gabe” taulan agertzen den beherakadak, adar ezberdinen aurrean gaudela pentsarazten gaitu. Batek kargu garrantzitsuak mantenduko lituzke eta besteak (edo besteek), berriz, garrantzia txikiagoa luke eta errejidore karguei lotuta egongo litzateke.



Udalbatzaren batzarretan hainbat senideen partehartzea islatzen duen adibidea: 1532ko urriaren 30eko batzarrean, Martin Irizarkoa kapitainak, Juan Perez La Renteriaok, Migel Zurubizkoak eta Juan Martinez Arizabalokoak parte hartu zuten; lehenengoak alkate moduan, bigarrenak alkateorde gisa eta azkeneko biak hamabi nagusi bezala. Guztiek senidetasun-loturak zituzten: Martin eta Migel koinatuak ziren, Juan Perez eta Juan Martinez bezala. Juan Perez, gainera, Martinen alaben koinatua zen, Ana Lopez eta Maria Esteban Irizarkoarena, hain zuzen.

Irudian, ezkerretik eskuinera, Martin Irizarkoaren, Juan Perez La Renteriaokaren eta Juan Martinez Arizabalokoaren sinadurak. Behelkadean, Migel Zurubizkoarena (EUA, A-1-1, 47 at. fol.).

Hau izango da, gainera, La Renteria eta Irizarrekin dagoen ezberdintasunik nagusiena. Gabiria, Isasti eta Lezo abizenak gure artean oso goiz izango ditugu eta horregatik, hamarkadak igarotzen doazen heinean, familia edo leinu horiek beste adar batzuk sortuko dituzte, hasieran zuten senidetasun lotura zuzen horiek galduz. Irizar eta La Renteriak, aldiz, ia ez dira Errenteriari buruzko 1474 urtea baino lehenagoko dokumentazioan azaltzen eta horregatik, gure garairako, kide ezberdinen arteko odol-harremanak zuzenak dira. Beraz, Goizueta, Isasti eta Gabiriarren atzean abizenen bereko familia ezberdinak daudela jakinda, I taulan islatzen diren datuek La Renteria eta Irizar tarrei pisu gehiago ematen diete. Horrez gain, bi abizen hauen inguruan dokumentazio gehiago dugula onartu behar dugu eta ondorioz, genealogien berreraikuntza fidagarritasun handiagoz egin daiteke.

Herri mailan lortuko duten garrantziaz gain, abizen hauek hiribilduaren ordezkartza-karguetan ere arituko dira, hala nola probintzia-batzarreetan, Gortean edo Valladolideko Errege Txantzilleritzan.

Esteban Irizarkoa izan daiteke horren adibide. Ez dugu berari buruz 1516 urtea baino lehenagoko daturik topatu, bere ibilbidearen lehen pausoak jakiterik ez dugularik. Urte horretan Ermandade-alkate kargua beteko du; 1518an, aldiz, Zestoan ospatu ziren Batzar Nagusietan arituko da hiribilduko prokuradore batzarkide bezala, Errenteriako hamabi nagusi izendatu zuten urte berean, alegia²⁸³. Hau da, gainera, udalbatzako ofizial bezala ikusten dugun lehen urtea, aurretik beste batzuetan jardun zela pentsa badezakegu ere. Ordutik gizarte politikoa finkaturko da eta hiribilduko ordezkari bezala ikusteko aukera izango dugu Hernaniko 1533ko Batzar Nagusietan eta 1534ean ospatutako Batzar Berezi batzuetan²⁸⁴.

Esparru ezberdinetan aritzeko dinamika honetan, erregearen aldeko zerbitzuak eta Gortearekin izan zitezkeen kontaktuak ere kontuan hartzekoak dira²⁸⁵. Azpimarragarria da mosen Pedro Irizarkoaren kasua, Martin kapitainaren eta aipatu dugun Esteban eskribauaren anaia; Karlos V.aren kapilau izatera iritsi zen eta, horrez gain, nafar eta frantsesen aurkako borrokan zein Komunitteen Gerran errege-armaden prestakuntza lanetan aritu zen²⁸⁶. 1518an jada, Pedro errejimenduko

²⁸³ IRIJOA CORTÉS, I.: *Gipuzkoa*, “so color...”, aip. lan., 238 orr.

²⁸⁴ ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550”. In: ORELLA UNZUÉ, J. L.; eta GÓMEZ PIÑEIRO, J. L.: *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Donostia: Gipuzkoako Batzar Nagusiak-GFA, 1995, 252 orr. (143-258) eta LARRAÑAGA ZULUEGA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A.: “Regesta de las Juntas Generales y Particulares de Gipuzkoa hasta 1550”. In: ORELLA UNZUÉ, J. L.; eta GÓMEZ PIÑEIRO, J. L., aip. lan., 130 orr. (103-141). Udal karguei dagokienez, alkateorde izan zen 1526an, alkate 1527 eta 1533 urteetan, hamabi nagusi 1537an eta udal eskribau, gutxienez 1524 eta 1539an; horrez gain, sisa eta kai-zerga errentan hartu zituen 1521ean.

²⁸⁵ OLIVERI KORTA, O.: *Mujer y herencia en el estamento hidalgo guipuzcoano durante el Antiguo Régimen (siglos XVI-XVIII)*. Donostia: GFA, 2001, 56-57 orr.

²⁸⁶ AGS. Contaduría Mayor de Cuentas, 1^ª época, 14. sorta.

ordezkari lanetan ibilli zen, Pedro de Nava korrejidoreak Errenteriaren, Donostiaren eta Hondarribiaren aurka emandako mandatua baliogabetzeko eskaera egiteko ahalordea eman zitzaioenan²⁸⁷. Ez da harrizkoa, beraz, udalbatzak Irizartarrak Txantzilleriara bidaltzea, hiribilduak martxan zituen auzietan aritzeko asmoarekin. Hala, Esteban Valladolidera joango da 1534an; Martin, aldiz, Gortera abiatuko da 1539 urtean eta bidean Valladoliden geldialdia egingo du, udalbatzak bertako auzitegian zituen auziak zein egoeratan zeuden jakiteko asmoz²⁸⁸.

Baina abizen hauek ez ditugu bakarrik esparru politikoan ikusiko; hiribilduko arlo ekonomikoan ere parte hartuko dute, udalbatza-errenten kudeaketa lortuz edota hainbat hiri-ondasunen ustiapena eskuratuz.

2. Udalbatza-errenten eta hiri-ondasunen errentamendua

Elite eta oligarkien gaineko ikerkuntzetan, ohiko ikuspegi politikoaz gain (hau da, udalbatzaren ala beste nolabaiteko kargu ezberdinetan aritzea), azken lanak pertsonen, familiek eta leinuek alor ekonomikoan jokaturako papera ere azpimarratzen ari dira. Alde batetik, errenta eta baliabide ezberdinen errentatzaileak nortzuk ziren ikerituz; bestetik, errentamendu prozesuan era batera edo bestera nortzuk hartzen zuten parte aztertuta. Posturagileak eta fidatzaileak zeintzuk ziren jakiteak, adibidez, udalbatza-sisteman botorearen kontrola eta jarduna zuten familia eta leinu ezberdinen arteko erlazioak era fidagarriago batean ikertzeko aukera ematen digu²⁸⁹.

Honen ildotik, argi dago hiribilduko elitea osatzen zuten familiek, esparru politikoaz gain, botorearen gaia udalbatzaren baliabideen kontrolaren eta hauetara iristeko behar ziren tresnen aldetik ere planteatu zutela; horregatik, abizen hauek errenta eta balibabide horien kudeaketa askotan eskuratu zutela pentsatzen dugu. Azken finean, arlo ekonomikoa botorearen beste esparru bat da eta bereziki garrantzitsua izan daiteke merkatal dinamika inportantea izan dezaketen hiribilduetan; hala nola, kostaldekoetan eta beraien portuak erakargarritasun handia zuen horietan. Izan ere, honen ondorioz sortutako jarduerak, muga-zergek eta hainbat hiri-ondasun errentek, udalbatzaren kutzari berebiziko diru-sarrerak ekarriko dizkiote.

²⁸⁷ AGS. CC. Memoriales y Expedientes, 131-3.

²⁸⁸ EUA, A-1-4, 18 au.-19 au. folk. eta EUA, A-1-5, 28 au.-29 au. folk.

²⁸⁹ Adibide baterako, ikus JARA FUENTE, J. A.: "Identidad corporativa y constitución política urbana: solidaridades económicas y poder en el marco de los procesos de afianzamiento de las rentas concejiles". In: GUERRERO NAVARRETE, Y. (koord.): *Fiscalidad, sociedad y poder en las ciudades castellanas de la Baja Edad Media*. Madrid: Universidad Autónoma de Madrid, 2006, 11-60 orr. Gipuzkoar kasurako, ikus ARAGÓN RUANO, A.: "Recaudadores municipales en Guipúzcoa en los inicios del siglo XVI (1500-1520)" (*En busca de Zaqueo: los recaudadores de impuestos en las épocas medieval y moderna. Pamplona, 11-13 de noviembre de 2010 kongresura aurkeztutako ponentzia*) (prentsan).

Gaur egungo hipotesi batzuek, kargu politikoak kontrolatzen zituzten familiek hiri-bilduko esparru ekonomikoa ez zutela zergatik modu zuzen batean gozatu behar defendatzen dute. Hala, alkate eta hamabi nagusi karguak betetzen zituzten abizenen eta errejidore ofizioetan aritzen direnen artean ezberdintasunak ikusi badaitezke, errenten munduan ere antzeko prozesua biziko litzateke. Ondorioz, hauetan parte hartzea edo beraien kudeaketa eskuratzea nahiko esparru irekia izango zen, benetako kontrola gutxi batzuen esku jarraituko bazuen ere²⁹⁰.

Hipotesi honi jarraituz, guk kontuan hartuko duguna zera izango da: errenten kudeaketa nortzuk eskuratu zuten jakitea. Batetik, Irizar eta La Renteria historia jorratzeko gure helburua betetzeko oso datu adierazgarriak ditugulako; bestetik, dokumentazioak posturagileen edo fidatzaileen inguruan ia daturik ematen ez digulako.

II TAULA

IRIZAR, LA RENTERIA, AKORDA ETA ZURUBIZTARREK LORTUTAKO ERRENTAMENDUAK

ERRENTATZAILEAK	ERRENTA	EPEA
Akorda, Gregorio	Lonja	1544-45
Akorda, Gregorio	Sisa eta kai-zerga	1544-45
Akorda, Martin Perez	Sisa eta kai-zerga	1536-37
Akorda, Martin Perez	Lonja	1538-39
Irizar, Esteban	Sisa	1521-22
Irizar, Martin	Lonja	1533-34
Irizar, Martin	Sisa eta kai-zerga	1545-46
La Renteria, Martin	Lonja	1517-18
La Renteria, Martin	Lonja	1518-19
La Renteria, Martin	Lonja	1519-20
La Renteria, Martin	Lonja	1520-21
La Renteria, Martin	Lonja	1529-30
Zurubiz, Migel	Lonja	1523-24
Zurubiz, Migel	Lonja	1524-25
Zurubiz, Migel	Lonja	1526-27
Zurubiz, Migel	Sisa eta kai-zerga	1527-28
Zurubiz, Migel	Sisa eta kai-zerga	1529-30
Zurubiz, Migel	Lonja	1530-31
Zurubiz, Migel	Sisa eta kai-zerga	1530-31
Irizar, Maria Martin (Migel Zurubizkoaren alarguna)	Lonja	1534-35

²⁹⁰ Horren inguruan oinarritzkoa dugu honako ikerketa: JARA FUENTE, J. A.: *Concejo, poder y élites. La clase dominante de Cuenca en el siglo XV*. Madrid: CSIC, 2001.

II. taula interes honen adibide oso argia da, izan ere, elkarren artean ahaidetasun loturak zituzten 4 familiek 1517 eta 1545 artean dokumentatuak ditugun 36 errentamenduetatik 20 lortu zituztela adierazten baitu. Bereziki azpimarragarria da lonjaren kasua, aipatu dugunez udal-errenta nagusia, 23 errentamenduetatik, abizen horiek 13 eskuratuko baitituzte. Halaber, sisa eta kai-zergaren errentamenduen erdia baino gehiago lortuko dituzte, hamahirutik zazpi, zehazki.

Pertsona horien artean Migel Zurubizkoa nabarmentzen da, batez ere lonjaren errentamenduan. Bitxia bada ere, Migelen garrantzia hau udalbatza-karguetan izan zuenaren alderantziz proportzionala da, azken hauetan oso agerpen txikia izan baitzuen. Bere koinatu Martin eta Esteban Irizarkoak, aldiz, kontrako kasua dira, arlo politikoari lehentasuna eman baitzioten; ondorioz, Zurubizen paper garrantzitsu hau beraiekin zituen loturetan oinarritua zegoela uste dugu, bere merkatal jarduerak horretan lagundu bazuten ere.

Akordarrek berriz, Gregorio eta Martin Perez aita-semeen bidez, bi errenta nagusien kudeaketa lortuko dute: bigarrena sisa eta kai-zergaren arduraduna izango da 1536an eta lonjarena 1538an; bere aita, berriz, bi errenten kargu egingo da 1544an. Zurubizen kasuan bezala, bi pertsona horiek, bereziki Martin Perezek, ez dute udalbatzaren kargu handirik beteko, horrek pertsona garrantzitsuak ez zirenik esan nahi ez badu ere. Gregorio ontzi-maisua adibide azpimarragarria da; alkate izango dugu 1523an, hamabi nagusi 1543 urtean eta kontu-ikuskatzaile 1534 eta 1542an. Horrez gain, hainbat errejimendu berezitan parte hartuko du, hau da, udalbatzarretan gai zehatz batzuk lantzeko udalbatzak espresuki deitzen zituen pertsonen artean egongo da. Gregorioren seme Juanes Akordakoak, aldiz, 1542-1543ko lonjaren errentamendua lortuko du beste hiru pertsonekin batera eta kargu politikoei dagokienez, 1524 eta 1530ean hamabi nagusi hautatua izango da, 1537an alkate izatea lortuko du eta 1525, 1529, 1531 eta 1535 urteetan diputatu izendatuko dute. Azkenik, Martin Perezi dagokionez, oso parte hartze eskasa izango du: errejidoreorde izango da 1524an eta kontu-ikuskatzaile 1534 eta 1535 urteetan.

Alabaina, errenta hauetan alkate zein hamabi nagusi karguak bete zituzten pertsonak ageri zaizkigu. Hala, Martin La Renteriakoak lonjaren errentamendua eskuratu zuen bost urtetan.

Errenten errentamenduaren inguruan azken ohar bat egin behar dugu. Izan ere, udalbatzaren diru-sarreretara ekarpen gutxi zutenetan, hala nola burdin-beten pisuan ("*peso de la vena*"), ez dira orain arte aipatu ditugun lau abizenak azalduko. Horrek, beraz, argi eta garbi adierazten du udalbatzaren arlo ekonomikoan jerarkizazio bat zegoela.

Errenteriako hiribilduaren hiri-ondasunei dagokienez, baso-ustiapenean oinarritutako lurrek udalbatzaren diru-sarrera nagusietako bat izan zirela esan beharra dago. Ditugun datuen arabera, horien bidez lortutako diruak, lonja eta sisa eta kai-zergarekin batera, diru-sarrera guztien %60-70a osatuko du.

Gure kasuan, hiri-ondasun hauen gehiengoak bailaran eta inguruetan zeuden burdinoletan du oinarri, Errenteriako basoek egur-ikatz egiteko beharrezkoa zen egurra erruz baitzuten. Ondorioz, honen salmenta bidez diru-sarrera handiak lortu ziren. Errentak bezala, egur honen salmenta enkante publikoan egiten zen eta lur-sail bakoitzean zeuden egur-kargak ziren ateratzen zirenak. Enkanteetan parte hartzen zuten pertsonen azterketa oso interesgarria da, gure hiribilduko auzotarrez gain, beste leku batzuetako merkatari edo burdinola jabe zein olagizonek parte hartu zutelako: besteak beste, Hernani, Donostia edo Oiartzungoak, baina baita Goizueta eta Arano bezalako nafar herrietakoak ere.

Gure auzotarren artean Akorda, Irizar eta La Renteria abizenak dira partaidetza nabarmenena dutenak. Martin Irizarkoak hiru salmenta eskuratu zituen; bere anaia Estebanek, aldiz, sei. La Renteriarrei dagokienez, Gregorio eta bere aita Martinek 5 eta 8 lortuko dituzte, hurrenez hurren. Gehien nabarmenduko dena, ordea, Martin Perez Akordakoa izango da. 1534 eta 1539 arte lortu zituen salmenten bidez, 7.520 ikatz-karga erosi zituen eta udalbatzari 136.195 maraitako ekarpena egin zion.

Azken pertsona honek Zurubizek Irizartarrekin zuen antzeko kasua aurkezten du. Izan ere, Martin Perez, andre Maria Martinez Akordakoaren anaia zen, Martin La Renteriakoa kapitainaren emaztea. Ondorioz, Migel Zurubizkoarekin Irizartarrekin lonjaren eta sisa eta kai-zergaren errentamendu ugari lortu bazituzten, La Renteriarrek emaitza berdintsua lortu zuten egur-kargen alorrean. Hala, esparru honetan Irizartarrekin parte hartze interesgarria izan bazuten ere, Martin eta Gregorio La Renteriakoaren eta Martin Perez Akordakoaren aldean, apala izan zen.

Jarduera hauek guztiek, jakina, bi abizenek olen munduan zuten interesen isla dira. Martin Perez Akordakoa, adibidez, Ieroa-Handi etxe oiartzuarretik gertu burdinola bat eraikitzen ari zen 1532 urtean, eta badakigu, halaber, Orkazpide eta Ugarteola burdinolak errentan hartu zituela²⁹¹; Martin La Renteriakoa, aldiz, Zuaznabar eta Torres burdinolen erdiaren jabe zen²⁹².

²⁹¹ GAO-AGG CO MCI 44. DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 38, 50 eta 51 orr.


²⁹² GAO-AGG CO MEJ 146.

3. Familia nagusiak eta beraien arteko loturak

Aro Berriaren hasierako Erreterian izan ziren bi familia nagusien gorabeherak aztertzen hasteko, lehenengo eta behin aipatu behar dugu dokumentazioan azaltzen diren lehenak Irizartarrak direla.

Datu ezaren aurrean, Martin Perez kapitain famatuaren aita Martin Irizarkoan jarri behar dugu kapitainez eta eskribauz osatutako familia garrantzitsu honen jatorria. Lehen aipamen dokumentala 1474ko irailekoa da, Erreteriak Donostiaren aurka zuen auzian Migel Santxez Ugartekoaren aldeko ahalordea ematen duten pertsonen artean azaltzen delarik. Hainbat urte beranduago, 1490ean, udalbatzaren karguetan ikusteko aukera izango dugu²⁹³. Urte honetan alkate izendatua izango da, eta 1515 eta 1521 urteetan berriz beteko du kargu hori. XV. mende amaieran Maria Esteban Lastolakoarekin ezkondu zen, eskualdeko leinu garrantzitsu bateko kidea; beraz, garai honetan Martinek nolabaiteko garrantzia zuen pertsona zela ondorioztatu dezakegu.

Hau kenduta, hari buruzko informazioa urria da eta dokumenturik nabarmenena bere testamentua dugu, 1522ko azaroaren 20ean egindakoa²⁹⁴. Aditzera ematen duen informazioaren arabera, badakigu udalbatzak berarekiko hainbat zor zituela, bai bere 1521eko alkate jarduerarekin lotuak eta baita Erroman igaro zituen 4 hilabeteekin zerikusia zutenak ere; azken hauek, ziurrenik, hiribilduko esparru erlijiosoaren inguruan izango ziren. Egonaldi honi buruz hitz egiterakoan, Martinek aipatzen zuen, bidaia hori aprobetxatuz, Napolin bere negozioetan hainbat denbora eman zuela. Honek merkataritzari lotutako jarduerak erakutsi dezake, agian garraiolari bezala; badakigu burdinaren negozioan interesak zituela eta, hau dela eta, produktu honen esportazioan aritu zelakoan gaude²⁹⁵.



Martin Irizarkoa nagusiaren sinadura (EUA, A-1-1, 4 au.: 1521eko ekaina).

²⁹³ CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan., 58 eta 83. dok.

²⁹⁴ GPAH-AHPG 3/293, 1 au.-2 at. folk.

²⁹⁵ Nikolas Agirrekoak upel bat sagardogatik dirua zor zion eta Juanes Akordakoak, aldiz, 12 kintal-burdin zor zizkion.

Bere lursailetan sagardoa ekoizten zuela badakigu ere, ez dugu, zoritxarrez, bere ondasunen inguruko berri askorik. Testamentua ospatu zen Lekunberri basetxeaz gain, Larratxipin zegoen lursail baten jabe zela besterik ez dakigu, udalbatzak bere emazte Maria Estebani 1496ean saldu ziona. Eskritura honek, baina, hainbat datu ematen ditu; izan ere, lursail honek Lekunberriko sagardiarekin muga egiten zuen eta honek, Martinek landa-ondasun higiezinaren inguruan inbertsio eta biltze-politika bat egin zuela adieraziko luke²⁹⁶.

Irizartarren ondareaz gehiago jakiteko, Martinen seme-alaben ezkontza-hitzarmentan jarri behar dugu begirada, bere ondorengotzan, beraz. Pedro semeak, elizgizon eta 1504ko martxoan baino lehenago Erreterriako benefiziodun izendatua²⁹⁷, Karlos I.aren kapilau izatera ailegatuko da urte gutxiren buruan. Honek Gortean mugitzeko aukera emango dio, bere anaian eta senideen aldeko mesedeak lorteko tresna bihurtuko delarik.

Pedroz gain, Irizar-Lastola bikoteak beste 5 seme-alaba izango ditu: Martin kapitaina, Esteban eskribaua eta Grazia, Maria Martin eta Maria alabak. Azken hiru hauen ezkontzek hiribilduko negozio-gizon, garraiolari eta merkatariekin egindako loturen adibide izango dira: Martin Santxez Darietakoa pilotuak Katalina hartuko du emazte gisa²⁹⁸, Maria Martin Migel Zurubizkoarekin ezkonduko da eta, azkenik, Graziak Juan Perez Goizuetakoa senar izango du.

Azken hauen ezkontza-hitzarmena 1492ko maiatzaren 15ean ospatu zen eta garraiolari garrantzitsu izandako Juanto Perez Goizuetakoaren oinordekoa, litekenen Italian garraio lanetan ibilitako baten alabarekin lotzen zuen.

Martin Irizarkoaren kasuan bezala, Juanto Perez Goizuetakoak 1485ean bere testamentua egin zuenean ez zuen bere ondasunen inguruan zehaztasun handirik egiten, nahiz eta harresi barruan eta jurisdizkioan etxeak, lurrak, mendiak eta sagardiak zituela adierazi. Baina horrez gain, nao baten jabe zela, kontu-liburu bat eta Bristolgo merkatarieri erositako oihal ingelesak aipatzen zituen eta ondorioz, ezkontza-hitzarmenak itsas-garraiolarien bi familia elkartu zituela dirudi. Ez dakigu hitzarmena adostu zuten bi aldeetako zeinek zuen garrantzia handiagoa, nahiz eta Juantok bere negozioetan esparru geografiko handia hartu. Ildo beretik, badakigu Martin Irizarkoak Aragoiko 90 florin hitz eman zituela ezkonsari moduan, 60 dukat inguru, oso altua ez zen kopurua. Gure ustetan, Irizartarrak oraindik maila apalago bat dutelako erakusle izan daitekeena.

²⁹⁶ EUA, A-1-1, 144 at. fol.

²⁹⁷ AGS. RGS. 1504-III, 324 fol.

²⁹⁸ Eta bere koinatu Martin Irizakoaren negozioetan bere izenean ariko dena. Adibide baterako, ikus EUA, A-1-1, 43 at.-44 au. folk. Zalantzarik gabe, Irizartarreko loturak errejimenduaren atek irekiko dizkiola uste dugu, hamabi nagusi izan baitzen 1536 eta 1540ean eta kontu-ikuskatzaile 1527 eta 1541ean.

1492ko ezkontza-hitzarmenak eta ondorengo urteetan sortutako auzi batek, Juantoren ondasunak pixka bat zehazten dituzte: hiribildu barnean dagoen etxe bat, bertan dagoen enparantza eta orube bat, bere labearrekin, Juango Aiakoaren etxe ondoan dagoen enparantza bat eta Alabergan dauden bi sagardi. Aiaren aipamenak Goizuetarren eta Irizartarren arteko lotura argitu dezake: izan ere, Aiaren emaztea Luzia Lastolakoa zen, Grazia Irizarkoaren ama zen Maria Esteban Lastolakoaren ahizpa. Hala, bizilagun bezala mantentzen ziren harremanek inguruko pertsonak zituzten negozioei eta egoerari buruzko ezagutza handiagoa ekarriko lukete, etorkizuneko ezkontzak erraztuz.

Martin Irizarkoaren seme-alaben loturekin jarraituz, Maria Martin Irizarkoaren eta Migel Zurubizkoaren artekoan jarri behar dugu begirada, azkenarentzako benetak giza-igoera bihurtu baitzen²⁹⁹.

Familia politikoak Migelentzat zuen garrantziaren adibide bikaina bere testamentuan dugu. 1534ko ekainaren 8an egindako eskritura horretan, bere emazteak eta testamentu-betearazleek agintzen zuten lekuan ehorts zezatela zioen. Betearazleen izenak oso esanguratsuak dira, bere koinatu Martin, Esteban eta mosen Pedro Irizarkoa baitziren; etorkizun espirituala familia politikoaren esku gelditzen zelaren adibide garbia. Halako neurriak Zurubizen arbaso aipagarrien gabezia agerian uzten du, aurreko xedapenak Irizartarrek elizan izango zuten hilobian ehorztea aurreikusten baitzuen eta ez, ordea, Migelen aita-amek edo beste odol-senideek izan zezaketen horretan. Migelek Irizartarrekin zuen senidetasun-babes erlazioa bere oinordekoa izendatzerakoan ere ikus dezakegu; Domingo bere semea oinordeko izendatzen eta ondasunen heren eta bostenean hobetzen bazuen ere, ondarearen administrazioa eta gozamina bere emazte Maria Martinen eskutan uzten zuelako. Domingo oinordekoak, gainera, ama begirunez tratatu beharko zuen eta horrez gain, “*tenga como a madre debe tener e dando las honrras que yo le solía dar*”.

Migel Zurubizkoaren familia garrantzitsu falta honek azalduko lituzke abizenak dokumentazioan utzi dituen aipamen eskasak. Hala, gure garairako Migel eta, hein txikiago batean, bere seme Domingo horren ordezkari bakarrak izan zirela esan dezakegu.

Azken hau 1535eko abuztuan Markesa Isastikoarekin ezkondu zenean, Migelek eta Maria Martinek ezkonsari gisa hainbat ondasun jarri zituzten: errebalearen zituzten etxeak eta baratze bat, eta Alabergan zeuden sagardi eta txaradi bat. Halaber, dokumentu berean Domingo beraien oinordeko izendatzen zuten, ondasunen heren eta bostenean hobetuz. Ezkontideek, gainera, 330 dukat jasotzen zituzten *propter nupcias* dohaintza moduan: horietatik 200 Migel bizi zenean jasotakoak

²⁹⁹ Zurubizen gorabeheretarako, ikus GAO-AGG MCI 74.

eta beste 100ak ondoren ordaindutakoak, 1535 apirilaren 26an hain zuzen ere. Horrez gain, ezkontza-hitzarmenak Migel eta Maria Martinen beste seme-alabei utzitako seniparteak ere aipatzen zituen: Graziari 200 dukat; 150 Magdalenari; eta azkenik, garai hartan ikasle zen Migel semeari, 120 dukat, ikasten jarrai zezan. Horrez gain, badakigu Zurubiz-Irizar bikoteak ordurako 200 tonatako nao bat bazuela.

Datu honek Martin Irizarkoarengan eta Juanto Perez Goizuetakoarengan ikusi ditugun garraiolari-merkatari jarduerekin harremanetan jartzen gaitu. Gainera, Migelen itsasontzia Levante aldean jardun zen, hau da, Martinek ezagutzen zuen esparru batean. Urte batzuk beranduago, gainera, Migelen seme Domingo hil zenean, buru zen ontzia Genoan saldu zen³⁰⁰.

Agidanez, Migel Zurubizkoaren jardunak eta merkataritza-negoziotan aritzeak, Irizartarrekin lotzeko ateak ireki zizkion, sozioalki igo eta hainbat ondasun higiezin eskuratzeko aukera bikaina lortu zuelarik³⁰¹. Domingo Zurubizkoak bere aitaren pausoak jarraitu zituen. Behin ezkontuta, berak eta Markesa Isastikoa bere emazteak, Migelen nao handiena eskuratu zuten eta baita karabela bat eraiki ere. Lehenengo ontziarekin Domingok Levante aldera jo zuen, Genoan hil zelarik; bigarrenarekin, berriz, bere koinatu Juan Perez Darieta itsasoratu zen eta garraiolari lanetan aritu zen.

Bistan da Martin Irizarkoaren alaben ezkontzek itsasoari lotutako jardunetan (garraioan zein merkataritzan) ari ziren pertsonekin izandako loturak islatzen zituztela. Eta dinamika horrek hurrengo belaunaldietan jarraipena izango du: Migel Zurubizkoaren eta Maria Martin Irizarkoaren alaba Katalina, Juan Perez Darietakoarekin ezkondu baitzen. Baliteke azken hau Katalina Irizarren zuzeneko ahaidea izatea, azken hau Maria Martinen arreba izateaz gain, Martin Santxez Darietakoa pilotuaren emazte izan baitzen³⁰².

Ikusi dugunaren arabera, garrantzia badute ere, Irizartarrak ez dira gehiegi nabarmentzen, baina oraindik Martinen bi semeen loturak ikusi behar ditugu. Batetik Esteban Irizarkoa eskribaua dugu, merkatarari eta garraiolariak beraien ondorengoetako batzuk notario-hezkuntzara bideratzen zituztelako adibidea. Hala, bere anai-arrebekin alderatuta, ezkontza-politika ezberdin bat agertuko du. Aurrekoen kasuan garraiolari eta merkatarari txikien arteko harremanaz aritu bagara, oraingoa Erretereriako Behe



³⁰⁰ Domingok etsaiei hartutako nao bat eta honen salgaiekin batera. Guzti honek Mediterraneoan turkiarren aurka izan ziren kanpainetan egindako zerbitzu militarrekin harremanetan jartzen gaitu.

³⁰¹ Zurubiz jada, 1518an hiribilduaren izenean ematen den ahalordean lekuko dugu. AGS. Cámara de Castilla, Memoriales y expedientes, 131-3.

³⁰² Ahaidetasunaren inguruan, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2, 62 au. fol.

Erdi Aroan garrantzia izan zuten leinuekin egindako loturaren aurrean gaude. Izan ere, Estebanek Maria Perez Garitakoa hartuko du emazte, hiribilduko familia zaharrenetako eta eskribauetz osatutako baten ordezkaria³⁰³.

Letren munduarekin zerikusia zuen ezkontza dela Estebanek bere testamentuan aipatutako zor eta ordainagiritan ikus dezakegu, horietako hainbatek epaiketa eta auzietan sortutako gastuekin lotura baitute. Badakigu, gainera, bere anaia mosen Pedrorekin harreman estua izan zuela, azken honek 1522 eta 1523 artean kostaldean zeuden errege-armadetarako hornidurak erosten ziharduenean Estebanen laguntza jaso baitzuen³⁰⁴.



Irizar anaien sinadurak (1535-02-17)

Ezkerretara Martin kapitainarena; eskuinera, berriz, Esteban eskribauarena (EUA, A-1-3, 68 au. fol.).

Badugu Esteban eta Mariak beraien bizitzan zehar metatu zituzten ondasunen berri³⁰⁵: bi etxe hiribildu barnean, bi baratze harresietatik kanpo baina hiribildu ondoan, Maleo basetxea, Urreizti-ederra basetxea, non mendiak, txaradiak, gaztainadiak eta sagardiak landatu zituzten, eta Kanpiziaga basetxea bere lursail, sagardi, txaradi, gaztainadi eta fruta-arbolekin. Halaber, Salbasurainen (Murgia) zeuden eta Murgiako jaunarenak ziren hainbat mendi erosi zituzten, non, urte batzuk geroago, Esteban eta Maria Perezen seme Martin Irizarkoak Floreaga etxea eraiki zuen.

³⁰³ AGS. CC. Memoriales y Expedientes, 121-168; CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, I, aip. lan., 9., 10., 19. eta 38. dok.; CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección...*, II, aip. lan., 79. dok.

³⁰⁴ Ikus GPAH-AHPG 3/293, 2. espedientea, 7 au.-8 au. folk.

³⁰⁵ Orain emango dugun informazioari buruz, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2.

Bien testamentuek, Mariarenak bereziki, bikoteak lortutako giza-hobekuntza adierazten digute: beraien lurak eta basetxeak maizterren bidez ustiatzea, morroi nafar zein oiartzuarrak izatea edota txerri-aziendaren jabe izatea, bien finkatzea adierazten baitute. Halako prozesua lurretan eta ondasun higiezinetan inbertituz emango zen, hauek sagardo ekoizpenera eta behi, ahuntz edo ardi-abeltzaintzara bideratuz³⁰⁶.

Jarduera hauei baina, merkataritza eta ontzigintza batu behar zaie. 1524an, adibidez, Estebanek 80 tonako nao bretoi bat erosi zion Azkaiñeko auzotar Martin Agorretakoari³⁰⁷. Horrez gain, eskribauak lortutako egur kargak aipatu behar dira, nahiz eta ola-munduan izan zuen partaidetzari buruzko daturik ez izan. Alabaina, oso adierazgarria da esparru horretan Estebani eta baita bere anaia Martini buruz ditugun lehen datuak 1531tik aurrerakoak izatea; izan ere, orduan, Estebanen iloba eta Martinen alaba zen Maria Estebanek Torres burdinola oiartzuarraren erdia lortu zuen Gregorio La Renteriakoarekin ezkontzeagatik³⁰⁸.

Irizarrekin amaitzeko, Martin Irizarkoa kapitainari buruz hitz egin behar dugu, bere ondorengo ezkontza-hitzarmenek adieraziko duten bezala, bera izango baita gehien nabarmenduko den senidea eta abizenari ospea eta ohorea emango dizkiona. Historiografiak bere ekintza militarretan jarri du begirada, bereziki 1527an burutu zuen Jean Fango frantses kortsarioaren harrapaketan; eta ez da harrizkoa hau azpimarratzea, abizenaren armarrria sortzeko aukera eman baitzion. Arlo militarraz gain, baina, baditugu beste hainbat datu.

³⁰⁶ GPAH-AHPG 3/294, 22 au.-at. folk.; eta ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2, 61 au. fol.

³⁰⁷ GPAH-AHPG 3/294, 28 au.-at. folk.

³⁰⁸ Halaber, badakigu Estebanek bere anaia Martini 200 dukat mailegatu zizkiola, azken honek nao baten eraikuntza egin zezan. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2, 94 at. fol.

I ZUHAITZ GENEALOGIKOA : IRIZAR*

Martin Irizarkoa
t. 1522

X Maria Esteban Lastolakoa



1529ko uztailean adibidez, urteko 30.000 maraitako saria jaso zuen, berak eta bere galeoiak egindako zerbitzuengatik. Datu hau, ordea, aurreko urteetan burutu-tako lanen ondorio besterik ez da. 1526ko abenduan, *La Magdalena* izeneko bere 625 tonako galeoiaren uretaratzearen berri izan zezala eskatzen zion erregeari eta 1528ko apirilaren 22an, arrazoi beragatik saria eskatzen zuen; eskaera honek, baina, 1531 urtean oraindik erantzunik jaso gabe jarraitzen zuen³⁰⁹.

Edonola ere, 1527ko gertakaria Martin Cádiz salgaiak garraiatzen zihoala gertatu zela azpimarratu behar dugu, merkatal-jarduera bat betetzen ari zenean, alegia³¹⁰. Hala, litekeena da Martin produktuen garraio lanak bere ontzi propioetan egitea, bai bere aginduz eraikitakoen bidez nahiz erositakoen bitartez. 1525eko uztailearen 14an, adibidez, Pedro Arizmendikoak bere *Magdalena* pinazaren erdia saldu zion 210 dukaten truke³¹¹. Bestalde, badakigu bere anaia Estebanek bezala, abeltzaintzarekin zerikusia zuten jardueretan aritu zela eta Magdalena ospitale ondoan baratze bat zuela, 1525ean Munjun Lesakakoari saldu ziona³¹².

* Legenda: e: ezkontza-data; h.: heriotza-data; j.: jaiotza-data; i: aipatzen den dataren ingurukoa; l.: aipatzen den data baino lehenago; t.: testamentu-data.

³⁰⁹ AGS. CMH. Contaduría del Sueldo, Segunda Serie, 4. sorta, f. g.

³¹⁰ BOZAS URRUTIA, E., aip. lan., 94 eta 96 orr.; edo GAMÓN, J. I., aip. lan., 297 orr.

³¹¹ GPAH-AHPG 3/295, 1 au.-at. eta 50 au.-at. folk.

³¹² GPAH-AHPG 3/3354, f. g.; eta GPAH-AHPG 3/295, 50 au.-at. folk.

Martinen familiaren inguruko informazioari dagokionez, bere emazteari buruz aipamen bakarra topatu dugu. Jordana Lekuonakoa zuen izena eta ziurrenik Oiarztunen jatorria zuen leinu baten ondorengo zen, bailaran Lekuona izena duten hainbat etxe baitzeuden³¹³.

Azkenik, ohore-ondareaz hitz egin behar dugu. 1527an armarrria izateko lortuta-ko mesedeaz gain, Martinek Erretereriako parrokia-elizan hilobia eskuratu zuen, bere familiaren ehorte-leku bihurtuko delarik. Bere alaba Ana Lopez Irizarkoak, adibidez, bertan ehorts zezatela agindu zuen, 1560ko otsailaren 16ean egin zuen testamentuan xedatutakoaren arabera³¹⁴.

Migel Zurubizen kasuak udal-errenten errentatzaile batekin izandako lotura islatuko duela esan badugu ere, ez da adibide bakarra izango. Hala, Irizartarrak beste batzuekin elkartuko dira, Martin Aiakoa kasu. Hau Martin Perez Irizarkoa kapitainaren amaldeko lehengusua zen, lonjako errentatzailea 1526-1527 eta 1527-1528 urteetan, eta 1536ko amaieran itsasoan hil zen, bere lehengusu Martinen nao batean zegoelarik. Aia eta Irizartarren arteko harreman estuak Martin Aiakoaren testamentuan ikus daitezke. Izan ere, berak bere ama Luzia Lastolakoa oinordeko izendatu ondoren, azken honek, bere azken borondatea adierazten duen eskrituran bere iloba Martin Irizarkoa kapitainarekin gauza bera egin zuen. Eta gertakari hau oso garrantzitsua da, ondasun berriak eskuratzeko balioko baitio, besteak beste, hiribildu barneko etxe bat eta atzean zuen baratze bat, Zubitxipin zegoen beste baratze bat, Erretereriola ondoko lursailak, eta Oiartzunen zeuden Ezkonsari basetxea eta sagardia³¹⁵.

La Renteriarrei dagokienez, beraien egoera historiografikoa Irizartarren antzeko dela adierazi behar dugu, frantziarren zein turkiarren aurka 1515etik aurrera egin zituzten ekintza belikoak direlarik orain arte aipatu diren datuak. Hauez gain, ezer gutxi genekien beraiei buruz³¹⁶.

Lehenengo eta behin, Irizar baino beranduago dokumentatutako abizena dela esan behar dugu. Hori hala izateko arrazoirik nabarmenena, hainbat lanetan aipatua izan den bezala, jatorrizko abizena Irantzu edo Urantzu zela da. Baliteke abizen toponimiko honek beraien jatorrizko herriari aipamena egitea, Iruni, alegia. Iran-

³¹³ Aipamenerako, ikus IEA. Ollacarizqueta, 75 kartoia, 20 zbkia. Oiartzungo Lekuona etxeei buruz, ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta LEMA PUEYO, J. A., aip. lan.


³¹⁴ GPAH-AHPG 3/2340, f. g.

³¹⁵ Guzzi horren inguruan, ikus GAO-AGG CO MCI 57.

³¹⁶ MARTÍNEZ DE ISASTI, L., aip. lan., 478-480 orr.; BOZAS URRUTIA, E., aip. lan., 96 orr.; GAMÓN, J. I., aip. lan., 289-290 orr., eta bereziki EUA, B-1-3-4. 1520-1521ean Gipuzkoan eman ziren arazoetan ere parte hartuko dute, zehazki Donostia buru zuen taldean. IRIJOA CORTÉS, I.: *Gipuzkoa, "so color de Cominidad"...*, aip. lan.

tzu abizena XV. mende amaieran agertzen zaigu lehen aldiz gurean: 1490ean Pedro Irantzukoa izeneko auzotar bat dago Oiartzunekin dauden arazoak konpontzeko Errege Katolikoek eman go duten epaia errespetatuko dutela hitz ematen duten auzotarren artean. Urte batzuk geroago, Irantzukoa abizena duten pertsona batzuk udalbatza-karguetan arituko dira: Martin (gure usteetan, Martin La Renteriakoa) alkate izango da 1511an eta Juanes, berriz, hamabi nagusi 1517an³¹⁷. Pertsona berdinak errejimenduko partaide gisa agertuko zaizkigu urte gutxiren buruan, baina oraingoan “La Renteria” abizena hartuta: Martin alkate izango da 1520an eta Juanesek, berriz, 1522an eskuratuko du kargu hori.

1500 urte inguruan, Martin, andre Maria Martinez Akordakoarekin ezkondu zen, hiribilduko familiarik zaharrenetako eta garrantzitsuenetako baten kide batekin, hain zuzen³¹⁸. La Renteriaren ahaide politikoen artean lehen ikusi ditugun hainbat pertsona egongo dira, beraz: besteak beste, hainbat kanpainia militarretan kapitain postuan parte hartuko duen Gregorio bere koinatua³¹⁹, edota azken honen seme Juanes eta Martin Perez Akordakoak. Azken hau, Oiartzungo lurrita errotaren ondoan kokatuko den burdinolaren jabea, gure hiribilduko ikatz-egurrerako egur kargen



Martin La Renteriakoa kapitain famatuaren armarrria eta sinadura.

³¹⁷ ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Olvidados, 277-4 eta EUA, C-5-II-4-2, f. g.

³¹⁸ ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados 467-2, 63 au. fol. eta hh.

³¹⁹ EUA, E-8-IV-1-1.

erosle garrantzitsuenetako bat eta Maria Martinez Arizabalokoaren senarra; alegia, La Renteriarrak ondorengo urteetan ezkonduko diren beste familia nabarmen bateko alaba.

Akordarren eta La Renteriarren arteko lotura Zurubiz eta Irizarrek dutenaren antzekoa da, nahiz eta lehenengo kasuan kide garrantzitsu gehiago topatzen ditugun. Hauetan ere udalbatza-esparruen arteko erlazio antagonikoa ageri da. Martin Perez ia ez da udal-karguen artean agertuko, baina bai, ikusi dugunez, errenten eta egur-kargen arloan. Juanes eta Gregoriorengan, berriz, maila politikoak izango du lehentasuna. Ondorioz, familia honetako kideek esparru ezberdinak bete zituztenez, udalbatzaren boteregune ezberdinetan eman zen parte-hartzearen banaketaren adibide oso argia osatzen dute.

Beste hainbatek bezala, Akordarrek itsasoarekin lotutako jarduera garrantzitsu bat izango dute. Martin Perezek Ondarroako pinaza bat pleitatuko du bertara garia garraiatzeko eta Bilbora oihalak eramateko; azken hiribildu honetan, gainera, mena erosiko du³²⁰. Juanes, aldiz, Flandrian egon zen, Pasai Donibanetik gertu zegoen errota baten jabe zen eta Martin Irizarkoa I.arekin negoziotan aritu zen³²¹. Azkenik, Gregorio garraiolari lanetan arituko da, bereziki Ingalaterrarekin, hainbat itsas-lapurreta ekintza pairatuko dituelarik, hala nola, Eskoziako erreginaren menekoek 50eko hamarkadan egindakoak. Lehenago, aldiz, 1537an zihon armadan parte hartu zuen. Uste dugu data hauetan Sevillako auzotar bezala aipamena egiten zaion izen bereko pertsona dela, eta horrek azalduko luke 1534 eta 1542 urte bitartean errejimenduetan parte hartu ez izana³²².

Martin La Renteriakoarekin jarraituz, udalbatzaren inguruko datuez gain, ez dugu Bostehunaren lehenengo 20 urteetan bere bizitzaren gaineko informazio askorik. Alabaina, honek erakusten du garai honetarako hiribilduko gizarte politikoan garrantzia duen pertsona zela: dagoeneko kapitain bezala egiten zaio aipamena 1518an, errejimenduak berari eta beste hainbat auzotar azpimagarriari ahalordea eman zienean. Urte horietan lonjaren errentamendua eskuratuko du eta halaber, garai honetan hainbat egur-karga erosiko ditu, ola munduan zituen interesen isla dena. Azkenik, hainbat mailegu egingo dizkio errejimenduari³²³.

³²⁰ EUA, E-7-I-1-1.

³²¹ Irizarrek berak, bere testamentuan Juanesek 12 kintal-burdin zor zizkiola aipatzen zuen. Errotaren inguruan, GPAH-AHPG 3/301, 13 au.-14 au. folk.

³²² GAO-AGG CO MEJ 31 eta GAO-AGG CO MCI 160. Sevillako auzotar bezala ikusteko, ikus AGI. Patronato Real, 277. sorta, 4 zbkia., r. 268; eta AGI. Justicia, 826. sorta, 2 zbkia., r. 2.

³²³ EUA, A-1-1, 6 au.-7 au. folk.; eta EUA, A-1-2, 14 at., 15 at. eta 140 at. folk.

Urte batzuk geroago bere irudia behin betiko goratuko da, 1529an Jean Fleurin kortsario frantsesa harrapatu ondoren, armarrria izateko errege-baimena lortuko baitu. Ondorengo urteetan Erregearen alde eginiko zerbitzuak oso kontuan hartzekoak dira. 1533ko urrian, Erreterian eraiki zuen 885 tonako galeoiaren neurketa eskatzen zuen, zor zitzaion saria kobratu nahian³²⁴. Beraien nao eta fustekin zerbitzatzera behartuak zeuden pertsonak zituzten sarien zerrenda batek, datarik gabekoa, zera jasotzen du: Martin La Renteriakoak 50.000 maraitako bat zuela bere 600 tonako Marieta galeoiagatik³²⁵. Bistakoa da Martinentzako berezko ontziteri baten eraikuntza edo jabetza izatea inbertsio garrantzitsua zela; hala, 1536ko otsailean 3 galeoi zituela aipatzen zuen, horietako biren buru bere seme Juan Perez eta Gregorio zirelarik.

30eko hamarkadaren hasieran Martin La Renteriakoak bere giza-mailan salto kualitatibo bat eman zuen. Aurreko urteetan zehar hartutako ardurek, errejimenduetan parte hartuz, hiribilduari dirua mailegatuz, hainbat kanpaina militarretan esku hartuz edota ondarea metatuz, aukera hori eskaini zioten. Hala, fruitu garrantzitsuak lortzera bideratutako ezkontza-politika bat antolatzen hasiko da.



Aljeriako Béjaïa hiria,

aurreko mendeetan Bugia bezala ezagutua, **1603an**. Populazio honek Martin La Renteriakoaren lehen ekintza gogoangarria ikusi zuen. Kronikek diotenez, 1515ean Aljeriatik hara joan zen bere aginduetara zeuden 5 itsasontziekin. Bertan, tropa musulmandarren setioa altxatzea lortu zuen, hainbat bandera eta artilleria atzemanaz

(Irudia: Espainia. Kultura Ministerioa. Archivo General de Simancas. Mapas, Planos y Dibujos, 18-52).

³²⁴ AGS. CMH. Contaduría del Sueldo, Segunda Serie, 6-2 sorta, f. g.

³²⁵ Bertan ere hiribilduko beste auzotar bati, Migel Nobleziakoari, aipamena egiten zaio. Honek ere sari berdina zuen bere San Salvador galeoiagatik AGS. CMH. Contaduría del Sueldo, Primera Serie, L-160, 5 au. fol.

Orain artekoa laburbilduz, XVI. mendeko hasierako 4 hamarkadetan bi pertsona adierazgarri ditugu, Martin Irizarkoa eta Martin La Renteriakoa kapitainak. Beraien aurrekoek Gabiria, Isasti, Olaitz edo Olaizola leinuek izan duten garrantzia izan ez badute ere, biak hiribilduko auzotarrentzako ohore eta izen onaren eredu bilakatu dira. Zalantzarik ez dago biek, beraien abizenak Errenteriako familia garrantzitsuenak bihurtzeko oinarriak jarri dituztela. Errotutako familiekin lotzea eta erregearen aldeko zerbitzuetan ekintza gogoangarriak egitea, ondareen finkapenaren funtsezko mugari izango dira. Baina horrez gain, aurrera egiteko ondare-maila bertsua duten familiak bilatu beharko dituzte. Horrek izaera endogamikoa duen ezkontza-politika bat ekarriko du eta, ondorioz, ondasunak handitzen eta finkatzen doazen heinean, ezkontza hautagaiak gutxiago izango dira, familia gutxiago izango baitira beraien maila dutenak. Ondorioz, denbora kontua zen Irizar eta La Renteriarren arteko lotura bat gertatzea; baten faltan, ordea, bi izango dira abizen horien arteko ezkontzak. Eskuratutako mailaren adierazgarri dena.

Martin Irizarkoak eta Martin La Renteriakoak beraien seme-alaben arteko ezkontza bikoitz bat adostuko dute: alde batetik, Ana Lopez Irizarkoa Jeronimo La Renteriakoarekin ezkonduko da eta bestetik, 1531ko martxoan, Maria Esteban Irizarkoa eta Gregorio La Renteriakoa izango dira beraien bizitzak elkartuko dituztenak³²⁶. Azken kontratu honek oso ongi erakusten du Irizararren, bereziki ezkontidearen adarrak, hiribilduko familia garrantzitsuenetako bat bihurtu zituen politika bat aurrera eraman zutela. Izan ere, Mariak aurkeztutako ezkonsaria 1.000 dukatekoa izango da, garai horretarako oso kopuru altua. Halaber, Gregorioren gurasoek ezkontzara aurkeztutako eta berari dohaintzan emandako ondasunek, apalagoak diruditen arren, garrantzia nabarmena dute. Horien artean azpimarragarriena, Torres burdinolaren erdia da, XV. mende amaierako Oiartzungo familiarik aipagarrienaren ondarea baitzen. Garraiolari familientzako burdinaren inguruko negozioak zuen pisuaren beste adibide bat da, horietan inbertituz beraien produktuekin negoziotan aritzeko aukera baitzuten³²⁷. Hauekin batera, ezkontza-hitzaurrenak Gregoriok bere anaia Jeronimori urrezko 100 dukat ordaintzea ezartzen zuen, ziurrenik seniparte moduan; eta bestalde, Martinek, bizi zen artean, bikoteari dohaintzan emandako ondasunen erdiaren gozamina beretzako gordetzen zuen.

Martin La Renteriakoaren beste bi seme-alabei, izen berekoa denari eta Estebania andreari, dagokienez, XV. mendean hiribilduan garrantzitsuak izan ziren familiekin, dorretxeetako jabe zirenekin gainera, izandako loturen isla dira. Hala, Martin La Renteria Maria Alonso Arranomendikoarekin ezkonduko da; Estebaniak, berriz,

³²⁶ ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 467-2

³²⁷ Torres etxearen eta bere jabetzen inguruan, IRIJOA CORTÉS, I.; eta LEMA PUEYO, J. A., aip. lan., 1. dok.

1519a baino lehenagotik errege-zerbitzuan aritu zen Juan Martinez Arizabalokoa izango du senar³²⁸. Bigarren bikote honen ondorengotza, andre Ana Arizabalokoa izeneko alaba bakarra, La Renteriarren garrantziaren adierazle izango da.

Arranomendiarrak hainbat jardueratan ibilitako familia ditugu. Kide batzuk Ingaltarrarekin merkataritzan ziharduten, “Morrontxe” ezizenez ezaguna zen Juan Migelez Arranomendikoa kasu; beste batzuk, ordea, eskribau karguak izan zituzten XV. mende amaieratik, tartean, 1504an hil zen Esteban Arranomendikoa; Frantzisko Arranomendikoak, aldiz, Zabaletako jaunaren alaba batekin ezkontzeaz gain, 1519a baino lehenago eskuratuko du errege-notario titulua. Frantziskoren arreba eta Juan Migelezen alaba zen andre Marinari dagokionez, hiribilduko nahiz eskualdeko antzinako abizenekiko lotura erakutsiko du; bere lehenengo senarra Juan Martinez Isastikoa batxillerra izan zen eta bigarrena, berriz, Lezoandia etxeko jaun Juan Nuñez Lezokoa. Halako prozesuak jarraipena izango du ondoren ere: Marina eta Juan Martinez batxillerraren seme Jeronimo Isastikoa Maria Juan Villaviciosakoarekin ezkonduko baita, Pasai Donibaneko auzotar Martin Santxez Villaviciosakoa merkatarikortsario garrantzitsuenaren alabarekin, alegia³²⁹.

Baina La Renteriarren ezkontza-politikan nabarmendu zena beste lotura bat izan zen. Izan ere, Erdi Aroko leinu gipuzkoar azpimarragarri batekin elkartuko dira, XIV. mende amaieratik Probintzian kargu garrantzitsuak bete zituen eta XV. mende amaierako Donostian eta XVI. mende hasierako Hernanin eragin oso nabaria izan zuena³³⁰. Elduaiendarrez ari gara.

Ezkontzarik aipagarrienak Hernaniko adarrarekin izango dira; Juan Lopez Elduaiengoa batxillerraren bi seme, Amador eta andre Maria Ruizek, Martin La Renteriaokoren seme eta biloba batekin esposatuko baitira 7 urteko epean. Juan Perez La Renteriaokoa andre Maria Ruiz hartuko du emazte 1532ko apirilean eta, ondoren, 1539 urtean, behin Martin La Renteriakoa hilda, Amador Elduaiengoa eta andre Ana Arizabalokoa (Estebania La Renteria-Urantzu andrearen alaba) elkartuko dira. Bi loturek agerian uzten dute ezkontza-politika endogamikoaren ondorioetako bat: herriko esparruan behin ezkongai izan zitezkeen maila bereko familiarik ez

³²⁸ MORA AFÁN, J. C.: *Arizabalotarrak: aldaketa garaiak Pasaian / La familia Arizabalo: tiempos de cambio en Pasaia*. Pasaia: Pasaiaiko Udala, 2008, 21 orr.

³²⁹ GAO-AGG CO MEJ 47. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 25-26 orr.

³³⁰ GARCÍA FERNÁNDEZ., E.: *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y elites urbanas en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2004, 314 orr.; AGUINAGALDE, Fco. B. de: “La reconstrucción...”, aip. lan., bereziki 128-129 orr.; AGUINAGALDE, Fco. B. de: “La genealogía de los Solares y Linajes guipuzcoanos bajomedievales. Reflexiones y ejemplos”. In: DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.): *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal*. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI). Bilbo: UPV-EHU, 1998, 181-184 orr. (149-206); eta TENA GARCÍA, M^a. S.: *La sociedad...*, aip. lan., bereziki 421-426 orr.

egoteak, kanporanzko bidea egitera behartuko baititu, beste hiribildu batzuetara jotzea, alegia³³¹.

Juan Perez La Renteriako kapitainaren eta Maria Ruiz Elduaiengoa andrearen 1532ko apirilaren 12ko ezkontza-hitzarmena Martin La Renteriakoak eta Juan Lopez Elduaiengoa batxillerrak adostu zuten. Bikote berriaren ondare higiezina ondasun ugari osatuko dute, tartean Zuaznabargo burdinolak. Halaber, Juan Martinez Arizabalokoaren etxeen ondoan eta Oiartzungo atearen gainean zegoen etxearekin (“*sobre la puerta por donde salen para Oyarçun*”) ere ezkonsaritutako dituzte, harresiaren bi aldetan zituzten zoruekin batera.

Hitzarmen honetan Juan Lopez batxillerrak oso baldintza adierazgarri bat ezarriko du, gure ustetan Elduaiendarren giza-maila handiagoa erakusten duena. Nagusitasun hau, aurreko mende t’erdian antolatutako politiken eta izandako lorpenen fruitua izango da, ibilbide historiko txikiagoa zuen La Renteria bezalako familia batek oraindik ez zuena. Hala, Juan Lopezek zera ezarriko du: andre Maria Ruiz bere alabak edo honen ondorengoez batxillerrak Hernanin zituen eta bere ondasunik nagusienak zirenen oinordeko bihurtuz gero, Juan Lopezen abizena edo ezizena hartu beharko zutela, Elduaien edo La Camara, alegia. Ondorioz, etxearen eta honen ondarearen oinordekoa emakume bat zenean, leinuaren antolaketa eta bizi-iraupena bermatzeko hartzen ziren neurrien adibide eredugarri baten aurrean gaude.

Honez gain, ezkontza-hitzarmen honek beste dokumentu interesgarri bat sortuko du. Martin La Renteriakoaren emazte zen Maria Martinez Akordakoak, 1533ko martxoaren 5ean, ezkontza-hitzarmena egin eta handik ia urtebetera, orduan adostutakoaren onartze-eskitura emango baitu. Eta honek, zergatik ez badakigu ere, Maria loturan ezarritako baldintzekin guztiz ados ez zegoela islatuko luke; hasiera batean, behintzat³³².

Hitzartutakoa hitzartua, bikoteak bizitza laburra izan zuen, ezkontza ospatu eta gutxira Maria Ruiz andrea hil egin baitzen. Horrek, baina, ez zuen bi abizenen arteko harremana hautsi; aitzitik, loturek aurrera jarraitu zuten, oraingoan Donostiako adarrarekin. Izan ere, Juan Perez La Renteriakoaren bigarren emaztea, Maria Gomez Labordakoa andrea, horien ondorengo zen: Pedro Labordakoa eta Maria Gomez Elduaiengoaren alaba, Juan Santxez Elduaiengoa batxillerraren eta andre Simona Engomezkoaren biloba eta amaren aldetik, Donostiako probestu ahalguztidun izandako Migel Martinez Engomezen birbiloba³³³.

³³¹ Honen inguruan, OLIVERI KORTA, O.: *Mujer y herencia...*, aip. lan., 160-163 orr.

³³² ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 467-2, 48 at.-49 at. folk.

³³³ AGUINAGALDE, Fco. B. de: “La genealogía...”, aip. lan., 181-184 eta 205 orr. Merkatari familien arteko beste lotura bat da, Laborda ontzi-maisu eta merkataria baitzen, Donostiako auzotarra baina jaiotzez Pasai Donibanekoa. Ikus IDEM: “La reconstrucción...”, aip. lan., 94 orr. eta hh.

Ez ditugu lotura horren xehetasunak ezagutzen baina badakigu, ordea, ezkontza berriak ez ziela La Renteriarren ondasun nagusienei oinordekorik ekarri. Ondorioz, hasieran pentsatu ziren planak aldatu beharrean izan ziren, ez baitugu ahaztu behar Martin La Renteriakoak bere seme Juan Perez ondasunen heren eta bostenean hobetu zuela³³⁴. Hala, azken honek Burgosen egin zuen 1540ko maiatzaren 24ko testamentuan, Maria Ruiz Elduaiengoarekin ezkondu zenean dohaintzan eman zizkioten ondasunen oinordeko bezala bere ama izendatu zuen. Dena den, ez zuen bere bigarren emaztea ahazten eta bitxiak eta oihalak uzteaz gain, sari pare bat ere eman zizkion. Hori egiteko arrazoiak ezin argiagoak ziren: “*por el amor que entre ella e mí ha avido*” eta “*por lo mucho que la he querido y quiero*”.

Eragozpen biologikoen gainetik, baina, bi familiek beste ezkontza bat ospatzea erabaki zuten, ziurrenik Elduaien eta La Renteriarren lotura eta oinordetza ziurtatzeko asmoz. Eta bat egite hau izango da guztietan adierazgarriena. Oraingoan, Juan Lopez batxiller hernaniarraren seme eta oinordeko zen Amador Elduainegoa batxillerra eta Martinen biloba zen Ana Arizabalokoa izango baitira ezkontideak. Hitzarmenak begibistan uzten du bi aldeen indarra; horretarako ez dugu Juan Lopezek dohaintzan ematen zuen ondasun kopuru ikustea baino, orokorrean “*muchos bienes raíces que él tenía e poseía en jurisdicción de las villas de San Sebastián y Hernani*” zirenak; beraien artean, hainbat burdinola³³⁵. Anaren aldetik, emandako 1.200 dukatetako diru-kopuru garrantzitsuaz gain, “*unas casas que doña Estebanía y Juan Martínez, difunto, tenían e poseían en la villa de La Rentería*”, basetxe bat bere sagardiekin eta hainbat gaztainadi, baratze, lursail eta mendik ezkonsaria osatuko dute.

Batzuk letren munduarekin (Elduaien) eta besteak arlo militarrekin (La Renteria) lotura sakonagoa badute ere, biek nagusitasun soziala dute amankomunean. La Renteriarren maila hau batzuetan dorre bezala aipatzen den beraien jauregi-etxean eta armarran islatzen da. Halaber, bi familiek burdinaren negozioan interes handiak dituzte: La Renteriarren kasuan, nahiz eta Estebaniak dohaintzan emandako ondasunen zati ez izan, Torres eta Zuaznabar burdinola oiartzuarren erdiak zituzten.

Zalantzarik ez dago Elduaindarrek beraien sareak eta eragina handitzen jarraitzeko aukera bikaina bilatu zutela, ohorea eta ondasunak metatzen ari ziren familiekin ahaidetasun harremanak ezarriz. Zer esanik ez, oraingoan bezala, ezkontzen zena (Amador, alegia) beraien oinordekoa bazen.

La Renteriarrek metatu zuten ondarearen inguruan, III. taulak ideia nagusi bat eman diezaguke. Hau egiteko erabili ditugun iturri nagusienak Maria Martinez Akor-

³³⁴ Testamentua ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 467-2, 50 au.-51 at. folioetan eta baita ibidem, 57 au.-60 au. folioetan ere.

³³⁵ GAO-AGG CO MEJ 14.

dakoa eta Martin kapitaina bikoteak izandako seme-alaben ezkontza-hitzarmenak izan dira. Ondorioz, jasotzen diren ondasunak bikote horrek beraien bizitzan zehar lortu zituztenak dira. Alabaina, horrek ez du esan nahi bertan guztiak daudenik. Hasteko, ez dugu topatu Martin eta Maria Martinen arteko ezkontza-hitzarmena eta beraz, ez dakigu Akordarrek nahiz Irantzuarrek dohaintzan zein ondasun eman zituzten. Halaber, zaila egiten zaigu 1531 eta 1536 urte bitartean zein salmenta edo erosketa egin zituzten jakitea, hau da, Gregorio La Renteriakoa ezkondu zenetik Martin La Renteriakoa hil zen arte. Izan ere, jakin baitakigu beraien bizitza amankomunean zehar, Martinek eta Maria Martinek hainbat ondasun eskuratu zituztela.

III TAULA: LA RENTERIARREN ONDAREA (1531-1546)

1531-03-02	1532-04-12	1539-10-28	1546
<i>Maria Esteban de Irizarkoaren eta Gregorio La Renteriakoa kapitainaren arteko ezkontza-hitzarmena</i>	<i>Juan Perez La Renteriakoa kapitainaren eta andre Maria Ruiz Elduaiengoaren arteko ezkontza-hitzarmena</i>	<i>Amador Elduaiengoa batxilerraren eta andre Ana Arizabaloakoaren arteko ezkontza-hitzarmena.</i>	<i>Maria Martinez Akordakoak bere alaba Estebania La Renteriakoari utzitako ondasunak.</i>
Gaur egunean bizi diren etxea.	Oiartzungo atearen gaineko etxeak, hiribildu barruan zein kanpoan dituzten zoruekin.	Estebaniak eta Juan Martinez Arizabalokoak zituzten etxeak beraien upel eta zurtoinarekin.	Jauregietxea eta enparantza zoria.
Aurren basetxea bere sagardi eta mendiekin.	Baratzea, andre Grazia Sarastikoaren etxearen ondoan.	Berueta etxea eta basetxea, bere sagardi eta gaztainadiekin.	Etzetik gertu dagoen lorategi bat.
Sagardi bat, Pasaiaruntz doan eskaileraren ondoan.	Baratze eta lorategia, andre Grazia Sarastikoaren ondoan.	Simon-oihan izeneko lursail zatia.	Juan Perez Darietakoaren ondoan dagoen baratze bat.
Baratze bat, Katalina Idiazbalgoaren ondoan dagoena.	Etxearen atzeko baratzea.	Berueta etxeko baratzea-	
Torres burdinolaren erdia.	Palazio etxe eta basetxea, bere lur, sagardi, mendi eta gaztainadiekin.	Juan Martinez Arizabalokoaren jaraunspeneko ondasun higiezinak: - Etxe on bat ("casa muy honrrada") bere baratzeekin. - Basetxe bat hiribilduko jurisdikzioan, bere sagardi, gaztainadi eta mendiekin. - 348 dukat, Zamalbide etxe eta basetxearen gainean.	Palazio basetxea, bere sagardi eta gaztainadiarekin.
	Ola-aldea lursailak eta erriberak, bere sagardi eta zuhaitziekin.		
	Ola-aldea izeneko mendi zati bat eta lursaiak, Errenteriolako ubideen ondoan.		Sagardi bat, Errenteriola burdinolaren ondoan.
	Zuaznabar burdinolaren erdia.		Zuaznabar burdinolaren erdia
			Lursail zati bat, Zuaznabar burdinolaren ondoan.
			Zairin lursail eta saroea.
			2.000 dukat, ordainketa-aginduetan.
			700 dukat, Elduaien batxilerrak eman beharrekoak.

Horien artean Ola-aldeako lurak ditugu, Juan Perez La Renteriakoaren eta andre Maria Ruiz Elduaiengoaren ezkontza-hitzaimean aipatzen direnak. Hasiera batean lursail horiek XV. mendeko Zuloaga leinu interesgarriarenak ziren; alegia, Isabel Katolikoaren diruzain izan zen Bartolome Zuloagakoaren leinuarenak. Badakigu 1522 urte inguruan Martin La Renteriakoak horren jaraunspenaren zati bat eskuratu zuela: besteak beste, Bartolomek hiribilduan izan zituen etxe bat eta sagardi bat. Hau dela eta, ziur ez badakigu ere, Ola-aldeako lurak tartean egongo zirelakoan gaude³³⁶.

Beste informazio batzuek, aldiz, Martin hil zenean utzitako ondarea honako ondasun eta jabetzez osatua zegoela adierazten digute:

“tres navíos (...) de preçio y valor de diez mill ducados; y en dineros e reçibos, quatro mill ducados; y en plata labrada, duzientos ducados; y en tapizes e paños e muebles de casa, quatrozientos ducados y más; y en bienes rayzes, la casa y torre llamada de Palaçio e la mitad de la ferreria de Luaznabar [sic] y la casería llamada del Palaçio con sus mançanales, tierras e montes e castañales, prados e pastos e ganado bacuno, obejuno, cabruno con tres huertas e vn mançanal e huerta, e medio sel llamado Çaerin e los montes llamados de Murgaga [sic]”³³⁷.

Edonola ere, datu gabezia honek ez die inola ere bikoteak lortutako edo kudeatutako ondasunei garrantzirik kentzen. Izan ere, 1531 urte inguruan taulan azaltzen den guztiak, familiak lortu zuen garrantziaren adibide bikaina ematen digu. Hainbatetan esan dugun bezala, halako prozesua emateko erregearen aldeko zerbitzuek berebiziko papera izango zuten. Tunisiako jardunaldian, 1535eko apirilaren 16 eta urriaren 3 artean, Martinek bere San Salvador galeoiarekin parte hartu zuen eta badakigu horregatik 1.524.720 marai zor zitzaizkiola; are gehiago, 1535 eta 1536 urte bitartean erregeari egindako zerbitzuengatik 4.078.032 marai zor zitzaizkion³³⁸.

Baina ondarearen metaketa, mantentzea eta handitzea ez zen ziurtatuta egongo oinordekorik gabe. Eta hasiera batean hau finkatua bazirudien ere, ondorengo urteetako gertakariak jaraunspen eta oinordetzaren inguruan hainbat zalantza eragingo dituzte. Martin La Renteriakoaren heriotza baino pixka bat lehenago, familia arteko eztabaidak egon zirela antzeman daiteke edo, behintzat, seme-alabetakoren bati egokitu zitzaion etorkizunak ika-mikak sortu zituela. 1536ko otsailean Martinek egin zuen kodiziloan, bere seme-alabetako biren inguruan oso baldintza adierazgarria ezartzen zuen; zehazki, alaba Estebaniaren eta erlijio mundurantz zihoan Martin

³³⁶ ARChV. Pleitos Civiles. Taboada, Olvidados, 1165-1.

³³⁷ ARChV. Reales Ejecutorias, 722-32, 1 at. fol.

³³⁸ ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls Olvidados, 467-2, 39 au.-at. folk.

ikaslearen inguruan. Baliteke arazo hauek hasieran beraientzat adostu ziren etorkizunetan aldaketak izateagatik sortzea. Martinen kasuan hala dela uste dugu, Maria Alonso Arranomendikoarekin ezkondu eta kapitain izan baitzen; etorkizun erlijiosoan utzi eta beste batera bideratu zelako zantzu argia.

Diogun bezala, kodiziloak hainbat tira-bira eta arazo islatzen ditu. Bertan, kapitain famatuak aurreko kodizilo batean Martin eta Estebaniaren inguruan izandako zalantzak edo eskrupuluak (“*por quanto por cierto codiçillo puse cierto escrúpulo*”) baliogabetzen zituen. Hala, bere emazte Maria Martinez Akordakoari, behin testamentu-xedapenak beteta, gelditzen zena hobeto zeritzon moduan banatzeko agintzen zion; hau da, Martinek bere seme-alabak barkatzen zituela.

Behin hilda, Martinen oinordetzak beste eragozpen bati aurre egin behar izan zion. 1540ko maiatzean Juan Perez La Renteriakoa, bitan ezkondu bazen ere, odol-ondorengo zuzenik izan gabe hil zen; familia, beraz, ezkontza-politikaren inguruan erabaki berriak hartzera behartuta zegoen. Juanek Burgosen testamentua egin zuela kontuan hartzen badugu eta, horren ildotik, Probintziatik hainbat denbora aldendua zeramala pentsatzen badugu, zilegi da oinordekorik gabeko etorkizun baten aurrean, senideak kezkatu egotea; izan ere, Juan, Martinen oinordekoa zen. Hori dela eta, Juan hil baino hilabete batzuk lehenago, 1539ko urrian, Elduaiendarrekin izandako elkarrizketa eta negoziazioek fruitua eman zuen: hilabete horretan bere aitaren oinordeko zen Amador Elduaiengoa batxillerraren eta Martin La Renteriakoa kapitainaren biloba zen Ana Arizabalokoa andrearen arteko ezkontza-hitzarmena adostu zen. Beste behin, lotura honek familia ezberdinek ondare, estatus eta ospe bereko ezkontideak bilatzearen garrantzia agerian uzten zuen³³⁹.

Ezkontideen eta beraien familien garrantzia ikusteko, ezkonsarrietan begirada jar-tzea besterik ez dugu, ondare-hierarkia ezkonsari-hierarkia batean agertzen baita. Oihane Oliveren iritziz, Gipuzkoako XVI. mendeko ezkonsarien batazbestekoa 100-200 dukat artekoa zen³⁴⁰. Ezkontza-hitzarmenei buruzko datu ugari ez badugu ere, ikerlari horren lanetan eta jaso dugun informazioan oinarrituz, gure hiribilduan La Renteria eta Irizar abizenak ondare-gailurra zirela argi eta garbi geratzen da. Maria Esteban Irizarkoaren eta Gregorio La Renteriakoaren ezkontza-hitzarmenean ezkonsaria 1.000 dukatetakoa zen, andre Maria Ruiz Elduaiengoaren eta Juan Perez La Renteria kapitainaren ezkontzan bezala; bestalde, Ana Arizabalok Amador Elduaiengoa senar hartu zuenean, 1.200 dukatetako ezkonsaria jarri zen. Halaber, datu batzuek Estebania La Renteriakoa andrearen eta Juan

³³⁹ OLIVERI KORTA, O.: *Mujer y herencia...*, aip. lan., 160 orr. eta hh.

³⁴⁰ *Ibidem*, 238 orr. eta 430. oharra; eta IDEM: *Mujer, casa y estamento...*, aip. lan., 61, 63 eta 65 orr.

Martinez Arizabalokoaren ezkontzan, ezkonsaria 1.500 dukat baino gehiagokoa izan zela adierazten digute³⁴¹. Irizararren igoera baieztatzen duen beste datu bat, beraiei buruzko lehenengo ezkontza datuetan datza; izan ere, XV. mende amaieran 60 dukatetako ezkonsarira ozta-ozta iristen ziren³⁴² eta 40 urte beranduago, aldiz, Probintziako bataz-bestekoa soberan gainditzen zuten.

Familien garrantzia neurtzeko bide bat ezkonsariena bada, bestea, hainbat pertsonen duten ohorea eta izen ona antzematen duten giza-jarraibide inmaterialak dira. Oraingoan, gaztelerazko “don/doña” edo euskarazko “jaun/andre” bezalako tratamenduez ari gara. Lan gutxi batzuek agerian jarri dute hitz horiek zuten garrantzia, bereziki Gipuzkoa bezalako gizarte batean; izan ere, estamentu bakarrean, kaparean, antolatutako gizartea zen eta ondorioz, pertsona zein leinu garrantzitsuenak nortzuk ziren adierazteko nolabaiteko tresnak erabiltzea oinarrikoa zen. Hala, “jaun/andre” trataera honek pertsona horiei ohore eta estatus maila emango zien eta beraien gizarte-mailaren erakusle bihurtuko da³⁴³.

Gizonezkoei dagokienez, gure ikerkuntzak jorratzen duen garaian elizgizonengan bakarrik ikusi dugu. Emakumezkoekin, baina, ez da berdina gertatzen eta honek garrantzia du. Agidanez, hasieran tratamendua banderizo ziren hainbat leinuren ondarea bakarrik izan zen, baina XVI. mendean, giza-igoera bizi zuten familia batzuetara hedatu zen. Horregatik, gure garaian tratamendu hori duten Errenteriako emakumeak, oinetxeetako leinuen ordezkari edota giza-mailaren gorenean finkatzen ari diren familietako kide izango dira. Garaiko dokumentazioan tratamendua aurkitzeak, beraz, Aro Berriaren hasierako Errenteriako gizartearen maila gorenean zeuden emakumeak nortzuk ziren eta zein familia edo leinuetako kide ziren jakiteko balioko digu.

XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran lehenengo adibideak ditugu: batetik, Zabaletako jaun zen Juan Perez Gabiriakoaren emazte andre Maria Ortiz Aginagakoa. Bestetik, Martin Ibañez Olaizkoaren emazte Maria Martin Lastolakoa andrea. Bi hauen errain zen Katalina Alzatekoa ere (Juan Martinez Olaizkoa batxillerraren emaztea) trataera horren eramaile izango da. Hiru kasuetan noblezia-etxe nafarrekin lotura sakona zuten emakumez ari gara, nahiz zuzenekoa

³⁴¹ ARChV. Reales Ejecutorias, 722-32. Litekeena da kopuru txikiago bat izatea, Gregorioena 1.500 dukat baino handiagoa izan zela aipatzen baita eta, dakigunez, 1.000koa izan zen.

³⁴² 57'6 dukat, 1474an Aragoiko florinak 240 marai balio zituela onartzen badugu. Hala jasotzen da honako lanean: SÁEZ, L.: *Demostación histórica del verdadero valor de todas las monedas que corrían en Castilla durante el reinado del señor don Enrique IV, y de su correspondencia con las del señor D. Carlos IV*. Madrid: RAH, 1805, 565-566 orr.

³⁴³ Tratamentuen gaiak aipamen berezia jasotzen du Oihane Oliveriren aldetik (OLIVERI KORTA: *Mujer y herencia...*, aip. lan., 249-252 orr.). Bera da, izatez, gaia jorratu duen ia ikerlari bakarra.

nahiz politikoa izan. Horrez gain, Behe Erdi Aroan garrantzia izan zuten Olaiz eta Lastola bezalako leinuei ere atxikituta daude. Andre Maria Ortiz Aginagakoa gainera, Pero Ortiz Aginagakoa merkatari donostiar garrantzitsuen eta andre Maria Juan Olaizolakoaren alaba zen; azken hau, Errenteria eta Oiartzungo leinu garrantzitsu bateko kide eta trataeraren eramaile ere zena³⁴⁴.

Alabaina, XVI. mendeko lehen erdialderako ditugun datuek orain arte behin eta berriz aipatutako hiru familiara bideratzen gaituzte: Akorda, Irizar eta La Renteria-ra, hain zuzen ere. Azkeneko bi kasuak dira aipagarrienak, esan dugun bezala, Erdi Aroan agertzen ez diren abizenak direlako eta ondorioz, tratamenduaren erabilera hedatu zelaren adibide garbia osatzen dutelako. “Andre” hitza jasotzen duen lehena Maria Martinez Akordakoa dela dirudi, Martin La Renteriakoaren emaztea, eta hortik bere ondorengo zuzenetara pasako da: Estebania La Renteriakoa bezalako alabetara, Ana Arizabalokoa bezalako bilobetara eta Urraca Belez Elduaiengo bezalako birbilobetara.

La Renteriari lotutako trataera, baina familia eta leinu politikoengandik datorreneko adibideak honako hauek liriateke: Ana Lopez Irizarkoa eta bere alaba andre Marina Urantzu-La Renteriakoa, Martin La Renteriako erraina eta biloba, hurrenez hurren. Egoera honetan ere, Juan Perez La Renteriakoaren emazte izandako andre Maria Ruiz Elduaiengo eta andre Maria Gomez Labordakoa daude, beste bi “andrerren” koinatak zirenak: Ana Lopez Irizarkoarena eta Estebania La Renteria-koarena, hain zuzen ere. Maria Ruiz eta Mari Gomezen kasuan, zalantzarik ez dago beraien tratamendua Errenteriarekin harremanik ez zuten bere aurrekoei lotua dagoela: Elduaiendarrei eta Engomeztarrei, hain zuzen ere.

Badago azken adibide bat, Juan Migelez Arramendikoaren alaba eta Frantzisko-ren arreba zen andre Marina Arranomendikoarena. Posible da bere ohore eta ospea bere aitak Morrontxo dorretxearen jabe izateagatik etortzea, baina ez genuke baztertu behar trataera bere ezkontzen ondorioa izatea; izan ere, eskualdeko pertsona garrantzitsuen emazte izan zen: Juan Martinez Isastikoa batxillerrarena eta Lezoandiako jaun Juan Nuñez Lezokoarena. Gainera, andre Marinaren kasua nahiko berezia da. Bere seme Pedro Isastikoari eginiko galdeketa batean, honek honakoa adierazten duen: “*que es sobrino del dicho Francisco de Arranomendi, hijo de una hermana suya vastarda*”. Eta Marinaren ustezko bortasun egoera hau da berezi egiten duena, “andre” tratamenduari kontrajartzen baitzaio. Oihane Oliveriren ustetan: “*el honor está también íntimamente unido a la legitimidad, es decir, únicamente los hijos legítimos heredan el honor de sus padres, no así los*

³⁴⁴ AGUINAGALDE, Fco. B. de: “La reconstrucción...”, aip. lan., 91 orr.

*bastardos*³⁴⁵. Horregatik, agian, Marinaren “andre” trataera emazte egoerari lotua egongo litzateke (senar nortzuk zituenaren ondorioz, beraz) eta ez, ordea, Arranomendi bat izateagatik.

Azken kasu honek, ohorea islatzen duen tresna honen jabe direnei buruz hitz egiterakoan, tratamendua noiz eskuratu zutenaren inguruko ausnarketa bat egitera garamatza. Alegia, ezkondu aurretik lortutakoa bada ala ezkontzak iraun bitartean eskuratutakoa; beste era batera esanda, emaztearen jaraunspen inmateriala den ala ezkontideek urteetan egindako lanen eta kudeaketa eta administrazio onaren ondorioz lortutako ikurra den. Irizar eta La Renteriaren kasuetan hau aztertzea interesgarria litzateke; izan ere, beraien kiderik nabarmenenak, abizenak hiribilduko izen nagusien artean finkatuko dituztenak, XVI. mendeko bigarren hamarkadan gailentzen joango dira, ez lehenago. Lehenengo abizenari dagokionez, adibidez, ez dugu Martin Irizarkoa kapitainaren arreba Katalina, Grazia eta Maria Martinengan “andre” tratamendua ikusi. Halaber, Maria Martinez Akordakoa tratamendu horrekin ikusten dugun lehen datuak bere seme-alaben ezkontza-hitzarmenetan agertzen zaizkigu eta hauek, La Renteria-Akorda bikoteak garrantzia nabaria eskuratu zuen garai batean ospatzen dira.

Azkenik, eta tratamenduen gaiari egin dizkiogun aipamenak aprobeztatuz, gizarte hartan emakumeak izan zuen paperaren inguruan ideia batzuk eman nahi ditugu aditzera; datuek, beraien inguruan dugun babesik gabeko edo gutxiagotasun egoerari buruz zehazpen batzuk egitea posible egiten baitute.

Lan-munduari dagokionez, topatutako informazioak gaur egun gaiaren inguruan ditugun ideia orokorrak adierazten ditu³⁴⁶. Hala, emakumeak udal-errenten errentamenduan parte hartzen ikus ditzakegu, Maria Martin Irizarkoa kasu, zeinak 1534-1535ean lonja errentan hartu zuen. Momentu horretan Migel Zurubizkoaren alargun bezala egiten zaio aipamena eta, dakigunez, bere senarra errenta garrantzitsu horren kudeaketa hainbatetan lortu zuten. Mariak, beraz, negozioaren nondik-norakoak ezagutzen zituen. Gainera, hiribilduko abizen garrantzitsuenetako baten kide zen eta, ondorioz, ez litzateke baztertu behar errenta horren lorpenean bere senideen eragina egotea. Edonola ere, errentamenduari buruzko datuetan, historiografiak emakume errentatzaileen inguruan jasotzen dituen ideiak betetzen

³⁴⁵ OLIVERI KORTA, O.: *Mujer y herencia...*, aip. lan., 251 orr. Pedroren lekukotza ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1668-4, 84 au. folioan. Azpimarratu behar dugu bere bortetasuna (jatorrizko lanean jorratu genuen gaia), Pedroren lekukotzan bakarrik aipatu egiten dela. Beste informazioek ez dute egoera honi buruzko aipamenik txikiena ere egiten.

³⁴⁶ Ald. MARTÍN ROMERA, M.ª Á.: “Mujeres de mercaderes, *Mujeres Mercaderes*. Testimonios de iniciativas femeninas en el ámbito comercial a finales del siglo XV”. In: *En la España medieval*, 32 (2009), 273-296 orr. artikuluan egiten diren ekarpen interesgarriak.

direla ikus dezakegu: alargun izatea eta lan edo errenta hori aurreko urteetan lortu duen gizon baten emazte izan izana; alegia, negozioaren xehetasunak ezagutzea³⁴⁷.



Iruñeko XVI. mende erdialdeko emakume merkataria, 1540-1550 inguruan egindako eskuizkribau anonimo frantziar baten arabera (Iturria: jessamynscloset.com/Basquegallery3.html).

Bestetik, itsasoarekin lotuak zeuden jarduerak (arrantza, merkataritza, garraioa, gerra) gure gizartean zuten pisuaren eraginez, senarretariko askok urte gehiena edo bolada luzeak itsasoan edo hiribildutik urrun zeuden lekuetan egiten zuten. Ez da harritzekoa beraz, egoera honetan emakumeek ondasunen kudeaketa eta administrazioa bere gain hartzea, hori bai, senarraren edo familiako beste gizonzkoen menpekotasuna agerian uzten zuten jarraibideen bitartez, lizentziak edo ahalordeak kasu. Estebania La Renteriakoak, adibidez, bere jabetza ziren lursail batzuetan etxola bat eraikitzea agindu zuen, lur horiek ustiatzeko asmoarekin. Alabaina, eraikuntza hau ez zen egin bere emazte egoeratik guttiz aldentuta, izan ere, badakigu etxea zein baldintzatan eraiki zuen: “*alçaba y hazía la dicha casa para hefeto de serbirse d’ella en dos o tres años asta que el dicho Juan Martines de Areyçabalo, su marido, beniese de sus viajes, porque a la sazón hera ultra mar*”. Hala, eraikinak izango zuen erabilpenari buruz hartuko zen azken erabakia, senarraren itzulerarekin lotua zegoen: “*y que benido él, desharían la dicha casa y arían otra muy buena casería*”³⁴⁸.

³⁴⁷ Ibidem, 290 orr. eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: *Santander en la Edad Media. Patrimonio, parentesco y poder*. Santander: Universidad de Cantabria-Ayuntamiento de Torrelavega, 2002, 346 orr. Ezkonsaria dirutan emateak emakumeak fidatzaile bezala aritzea ere ekarri zuen, nahiz eta guk horren inguruan daturik topatu ez dugun. Ald. MARTÍN ROMERA, M.ª A., aip. lan., 289-292 orr. Koroaren beste leku batzuetan ere, nahiko ohikoa zen emakumeak errentatzaile moduan edo hainbat errenta kudeatzen ikustea. Ikus, adibidez, DEL VAL VALDIVIESO, M.ª I.: “Portugaletoko gizartea eta haren tirabirak erdi aroaren bukaeran”. In: DÍAZ DE DURANA, J. R. eta REGUERA, I. (arg.), aip. lan., 277-297 orr.

³⁴⁸ ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Fenecidos, 756-3, 67 at. fol.

Gure hiribilduan gizonzkoek itsasoarekin izango duten harreman estuak ondorio demografikoak ere izango ditu. Jarduera horiek duten heriotza-tasa altua dela eta, gure artean bigarren eta hirugarren ezkontzak hainbatetan ikusteko aukera izango dugu. Erdi Aroan alargun bat berriz ezkontzea ez zen ez-ohiko kontua, eta XVI eta XVII. mendeetan joera hori ugartu zela dirudi. Gainera, ez Gaztelako zuzenbideak, ezta zuzenbide kanonikoak ere, ez zuten emakume alargun batek senarra hil ondorengo urtebetean ezkontzea zigortzen edo debekatzen, nahiz eta gizartean gehiago zen moraltasunak emakume alargunak dolua egitera behartu³⁴⁹.

Garaiko gipuzkoarrek ere oso kontuan zuten alargunak ezkontza-merkatuaren zati zirela. Martin Beduakoa merkatarri sanpedrotarraren kasuak oso adibide garbia eskaintzen digu, bere emazte Maria Ugartekoa hil eta bi hilabetera Maria Villaviciosakoa alargunarekin ezkondu baitzen³⁵⁰. Alabaina, ez dira alarguntasun egoera hori mantentzeko buruzko xedapenak sartzeaz ahazten, bikote nagusiaren ondorengotza ziurtatzeko asmoz. Trentoko Kontzilioaren ondoren neurri hauek areagotuko dira eta ohore, alarguntasun eta jaraunspen kontzeptuak batuta mantentzeko saiakeraren isla izango dira. Dena den, horrek ez du esan nahi aurreko garaian halakorik gertatzen ez zenik, izan ere, alarguntasunari buruzko ikuspegi hau, XVI. mende hasierako lekukotzetan ikusteko aukera izango dugu. 1507 eta 1511 artean bere alabaorde Maria Pontikakoarekin izan zuen auzian, Katalina Camongoa hala deskribatzen zen: “*muger de biuda e de honrra e honesta*”, nahiz eta Katalina eta bere zendutako senar Juanes Pontikakoa beraien artean ezkondu zirenean, bientzako bigarren ezkontzak izan³⁵¹.

³⁴⁹ BIRRIEL SALCEDO, M. M.^º: “El cónyuge supérstite en el derecho hispano”. In: *Crónica Nova*, 34 (2008), 13-14 orr. (13-44). Ald. FAUVE-CHAMOUX, A.: “El matrimonio, la viudedad y el divorcio”. In: KERTZER, D. I.; eta BABAGLI, M.: *Historia de la familia europea, vol. I: La vida familiar a principios de la era moderna (1500-1789)*. Barcelona: Paidós, 2002, 331-376 orr.

³⁵⁰ IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 36 orr. (1565-1567 urte inguruan gertatutakoa).

³⁵¹ ARChV. Reales Ejecutorias, 269-4, 17 at. fol.

Maria Martin Granadakoaren testamentua (1570): Erdi Aroko dokumentazioaren inbentario txiki bat.

Batzuetan, dokumentazioaren kontsultak gauza harrigarriak ematen ditu argitara edo, bai behintzat, aurkitzea espero ez ziren datu batzuekin topo egitea. Hori da Granada-Arizabalo dorretzeko andre Maria Martin Granadakoaren 1570eko testamentuaren kasua. Dokumentu hau, garai batean sortutako dokumentazioa aurreko mendeetako historia aztertzeko baliogarria izan daitekeelaren adibide bikaina da. Izan ere, Maria Martinen azken borondateen eskriturak, orduan zituen eskrituren inbentario nahiko zehatza jasotzen du; bertan ematariei, eskritura idatzi zuen eskribauari, dokumentuaren euskarriari (orokorrean pergaminoa) eta, garrantzitsuagoa dena, urteari buruzko datuak ematen ditu. Hala, 21 eskriturak osatzen duten inbentario batekin egin dugu topo. Zaharrena 1401 urtekoa; berriena, aldiz, 1569koa. Beraien artean datarik gabeko eskritura batzuk badaude ere, ematarien eta eskribauen izenak aintzat hartuz, gehienak XVI. mendeko bigarren herenetik aurrerakoak dira. Ondorioz, inbentario horren zati bat besterik ez dugu aditzera eman; dokumentaziorik zaharrena eta ezezagunena duena, hain zuzen ere.

Deigarriena, eta alfabetizazoiari buruzko ausnarketa bat egitera eraman gaitzakeena, zera da: eskrituren deskribapen zehatza egin bazuen ere, Mariak ez zuela bere testamentua sinatzen; alegia, ez zekiela idazten eta, hedaduraz, ezta irakurtzen ere.

“Las escrituras que yo tengo mías propias que haze a mi derecho son las siguientes:

- ❖ Primeramente, vna escriptura de compra y venta que los dos conçejos de Oyarçun e d'esta villa de La Rentería fizieron de vn pedaço de tierra de trezientos e ochenta pies de tierra de mançanos de medida de doze codos a Peroche de Ydiaçual, escripto en pargamino e sinado de Miguel Sanches de Vgarte, escriuano, con su sello. El qual dicho Peroche de Ydiaçabal era mi aguelo.
- ❖ Yten, otra escriptura de compra de otra tierra llamada Vidalamarta, escripta en pargamino, signada de Domenjón, escriuano, con su sello.
- ❖ Yten, otra escriptura bieja antigua, escrita en pargamino, que no se puede leer y está signada.
- ❖ Yten, el testamento de Martín Ybáñez de Ariçualo, mi reabuelo, vezino de la dicha Villanueva, signado de Vras de Aguirre. Está escripto en pargamino. De fecha del año de quatroçientos e quarenta e nueve años.
- ❖ Yten, otra escriptura de donaçión o traspaso, escripta en pargamino e signada de Esteban Ximenez de Çuloaga, escribano, que doña Mari Garçia de Leçañin fizo a su hermana María de Granada, digo que Estebanía de Granada fizo a la dicha Mari Garçia, de la tierra de Larnuga (Carnuga?), de fecha en la dicha Villanueva, a diez de setiembre de mill e quatroçientos e treynta e seys años.

- ❖ Yten, otra escritura de venta que Joan de Ganboa, sastre, vendedor, e Joan Matras d'Eyçaguirre, su fiador, vezinos de Fuenterrabía, a Martín Martines de Ariçabalo, veziño de la dicha Villanueva, qu'es signada de Martín Vras de Aguirre, escribano. Es compra de vna casa e pertenençias de junto a la puerta de // ³⁷at. Rementari. De fecha el año de mill e quatroçientos e sesenta e çinco años.
- ❖ Yten, el testamento, signado del mismo Juan Vras, escribano, de Estebanía de Larraul, viuda. De fecha del año de mill e quatroçientos e sesenta y tres. Está escripto en pargamino.
- ❖ Yten, otra escriptura de venta que Juangoxe de Arpide otorgó a favor de Pero Fernández de Gabiria, de vna tierra suya y monte que hubo de compra de Çaldamart. Es en pargamino, escripto e signado de Joan Martínez de Alçibia, escriuano del rrey. De fecha, cabe la ferrería de Gaviriola, año de mill e quatroçientos e diez e siete años.
- ❖ Yten, otra escritura de testamento de Martín Martínez de Ariçaualo, escripto en pargamino, signado del dicho Juan Vras, escribano, de fecha el año de quatroçientos e sesenta e quatro.
- ❖ Yten, otro testamento escripto en pargamino de Lope de Garrica, marido de Catalina de Arrieta, signado de Antón González, escribano, de fecha del año de mill e quatroçientos e vno.
- ❖ Yten, vna sentençia y declaraçión de los alcaldes e justiçia de Fuenterrabía, signada de Joan Martines de Vgarte, escriuano, del año de mill e quatroçientos e quarenta e tres.
- ❖ Yten, otra escriptura de donaçión de Esteban de Primaot e doña Pelegrina de Leçançin, fecha en fauor de Juango e Estebanía e María e Mari Farche, sobrinos de la dicha Pelegriana, hijos de Mari Garçia de Leçançin, su hermana, e de Martín Ybanes de Larravl. De fecha del año de quatroçientos e ocho años, signado de Miguel Martines de Andresqueta, escrita en pargamino.
- ❖ Yten, otra donaçión de Nafarra de Granada fecha a fauor de María de Granada, su hermana, de todos sus bienes y herençia. Escripto en pargamino, de fecha el año de mill e quatroçientos e treynta e ocho años, signada de Esteban Ximénez de Çuloaga, escriuano.
- ❖ Yten, otra escriptura de vendida que don Juan de Villavona fizo en fauor de Pedro de Ydiaçaua e Joaneta de Mirasun, de vnas casas e tierras del lugar de Pasaje. De fecha de mill e quatroçientos e veynte e tres años e signada de Miguel Martines, escriuano, escripta en pergamino”.

(GPAH-AHPG 3/2013, 37 au.-38 au. folk. -2. foliazioa-).

Aipatzen dugunaren adibide bat Esteban Irizarkoak 1554an egin zuen bere testamentuan dugu. Esteban hau izen bereko eskribauaren semea eta Martin kapitainaren iloba zen. Azken borondatea idazterako garaian bere emazte Juaniza Arrietakoak ez zuen oinordetzarik, baina haurdun zegoenez, ondorengotza izateko aukera zegoen. Estebanek ume hori bere jaraunsle izendatzen zuen. Hau hiltzekotan, bere emaztearen aldeko izendapena egiten zuen, hori bai, “*con que sy estubiere en mi onestidad e biudaje*” baldintzarekin. Juanizak hau errespetatzen ez bazuen eta bigarrenkoz ezkontzen bazen, oinordeko izateari utzi eta 100 dukat besterik ez zituen jasoko, Estebanek “*en remuneración de los servicios que d’ella he rreçebido*” ematen zizkionak³⁵². Neurri hauek Antzinako Erregimenean oso hedatua zegoen iritziaren erakusle dira: emaztearen mailarik eta egoerarik ohorezkoena alarguntasunarena zela, alegia³⁵³. Alabaina, ez dugu ahaztu behar ikuspegi honen azpian ideia askoz sinpleagoa eta praktikoagoa zegoela. Izan ere, alarguntasun egoera mantentzerarekin lotutako neurriak senarraren jaraunspena bermatzeko oinarrizkoak ziren, batez ere bere alarguna etorkizunean ezkontzen bazen eta bikote berri honek ondorengoak ematen bazituen. Bereziki, Estebanen kasuan gertatu bezala, hiltzen zen ezkontidearen gurasoek utzitako ondasunak oraindik eskuratu gabe zeudenean.

Dena den, emakumeak gizonetzkoen menpe bazeuden ere, batzuetan beraien izaera gogorra aditzera ematen duten datuak ditugu, baita senarraren gainetik ere. Aurreko lerroetan Maria Martinez Akordakoaren onartze-eskitura aipatu dugu, bere seme Juan Perez La Renteriakoaren eta Maria Ruiz Elduaiengoa andrearen arteko ezkontza-hitzarmena ospatu eta urte betera emandakoa. Baina, pentsa dezakegunez, ez zen adibide bakarra izan.

Daturik aipagarrienetako bat Esteban Irizarkoak eskribauaren testamentuan dugu, 1539an. Bertan, jasotzeko zuen diruaren artean bere anaia Martinek eta Migel Zuaznabargoak zor ziotena aipatzen zuen. Zor horiek oroitza-txosten batean idatziak zeuden, eta hona hemen testamentu egileak dokumentu horri buruz esaten zuena:

“...digo que e el dicho memorial no osé poner dos capítulos por temor de los enojos que la dicha mi mujer [Maria Perez Garitakoa] abría en que son que yo gasté en el dicho pleyto setenta y tantos ducados que Miguel de Çuaznavar me devía y el presçio de veynte e vna yegoas que vendí en Saluatierra al tiempo que avía de yr a sentençiar el dicho pleyto”³⁵⁴.

³⁵² GPAH-AHPG 3/2009, 121 au.-123 au. folk.

³⁵³ OLIVERI KORTA, O.: *Mujer, casa y estamento...*, aip. lan., 74-76 orr.

³⁵⁴ ARChV. Pleitos Civiles. Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2, 94 at.-95 au. folk.

Adierazpen honekin batera, Maria Perez Garitakoaren izaera gogorra agerian uzten duten beste datu batzuk ere badaude. Irizarren lehenengo testamentu-xedapena zera izango da: batetik, eta ohikoa zena, Mariaren ama Katalina Zuaznabargoa lurperatze-ko bikoteak erosi zuen hilobian Esteban bera ere lurperatzea eta horretarako, Mariak beharrezko ziren hiletak prestatu beharko lituzke. Baina Estebanek bere emaztea oinordeko unibertsal izendatzen duen klausula da benetan arrasto gehien ematen dituenena. Hala, emazteari nahi zuen pertsona beraien oinordeko izendatzeko eskumena emateaz gain, Estebanek Mariari diru kopuru handia zor ziola aipatzen zuen. Dirudienez, eskribauak ez zituen ondasunak ondo kudeatu eta horrek bere emaztearen haserrea eta susmo txarrak piztu zituen.

Amaitzeko, emakumeen izaeraren eta ekimenen inguruan informazioa jasotzen duten beste esparru bati egin behar diogu lekua; protagonisten interesak, gizon nahiz emakume izan, familia eta leinuaren menpe edo hauengatik baldintzatuta zeuden bati: ezkontza-hitzarmenei, alegia. Orokorrean, horietan ematen ziren loturak maitasun edo erromantizismotik aldentuta zeuden eta ezkontideen bitartez familien finkapena bilatzen zen, protagonisten iritziari eta nahiei leku txikia uzten zitzaielarik. Batzuetan, baina, ez zen ala gertatu.

Juanes Pontikakoaren oinordetzaren inguruan izandako auzia, hainbatetan ezkontideek beraien interesen alde eta senideek hitzartutakoaren aurka borrokatzen zutelako adibide oso argia da³⁵⁵. Katalina Camongoak, Maria Pontikakoaren



XVI. mende hasierako bizkaitar neska ezkongabe bat. Cristoph Weiditzek eginiko 1529 urteko marrazki batean. Egileak Bizkaiari aipamena egiten bazion ere, badakigu Gipuzkoan antzeko itxura eta orrazkera zutela

(Iturria: <http://jessamynscloset.com/Basquegallery2.html>).

³⁵⁵ ARChV. Reales Ejecutorias, 269-4, bereziki 6 au., 9 at. eta 23 at. folk.

amaordea eta Juanesen bigarren emazteak, Mariak bere aita Juanesen jaraunspenaren zatirik ezin zuela erreklamatu zioen, izan ere:

“se casó clandestinamente contra proybiçión e entredicho de la Santa Madre yglesia e contra voluntad e consenymiento e syn ninguna liçençia de sus hermanos e de su madrastra Catalina de Camón, que la tenía e trataba como madre propia y la tenía en su casa e poder por mandado del dicho su padre, e syn consentymiento de otros parientes”.

Are gehiago, Maria:

“syendo menor, se casó calladamente e syn consulta ni sabidoría de (...) [Katalina] e contra su voluntad e de los otros parientes e cabeçaleros e contra espresa prohebiçión del dicho su padre e en desagrado e contra la voluntad de los dichos sus parientes e personas, con cuyo consentymiento e consulto el dicho su padre le mandó e dexó por su testamento que se casase”.

Azkenik, Mariak bere betebeharrak ez betetzearen amaiera-ohar gisa, zera adierazten zuen:


“tomó por marido a persona que quería mal y era y es enemigo de sus hermanos de la dicha María, el qual pensó matar e le acuchilló muy mal con vna espada desbaynada en la plasa de la dicha villa e le dio muchas e dibersas cuchilladas a Juanes de Pontica (...) hermano de la dicha María”.

Mariak, ordea, gertakari hauek ukatzen zituen:

“no se podía desir que fuese casada clandestinamente ni contra la voluntad de su padre, que hera defunto quando ella se casó; e que ella no hera thenida de pedir liçençia al dicho su hermano Juanes ni a la dicha Catalina, su madrastra, ni tal ley ni premia se le pudiera poner a ella *porqu’el matrimonio deuía de ser libre e no forçado e no deuía ni podía de poder de voluntad de terçera persona*. E por se casar, ansy como se casó, espeçial con marido digno ygual para ella, no se hizyera ni hera yndigna de la suçesyón e herençia del dicho su padre e madre defuntos, ni gelo podían retener las partes contrarias”.

Funtsean, Mariak bere aita Juanes Pontikakoak utzitako ondare garrantzitsuenen zati bat eskuratzeko aukera zuenez, hori gertatzeko Katalinak zuen beldurra antzematen da. Eta hala, auzia, bere familiek eta senideek ondarea eta ondasunak batuak mantentzeko eta hauen sakabanaketa ekiditeko ahaleginen isla ere bada. Izan ere, Katalinak eta Juanesek, Katalinak bere lehenengo senarrarekin izandako alaba Juan Perez Pontikakoarekin ezkontzea erabaki baitzuten, Juanen eta bere lehenengo emazte Katalina Lasartekoaren semea, hain zuzen ere. Baina apelazioen oinarria edozein izanda ere, Valladolideko Txantzillerritzak Mariaren aldeko epaia eman zuen.

II ZUHAITZ GENEALOGIKOA: LA RENTERIA



AZKEN HITZA

Aurreko lerroen bidez, hasieran burutu nahi genuen helburua bete dugula uste dugu. Nahiko era laburtuan izan bada ere, XVI. mende hasieran gure hiribilduko auzotarrek martxan jarri zituzten estrategiak jarri ditugu agerian; beraien hiri txikia badiako gunerik garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuena izan ez bazen, bihurtzeko balio izan zutenak.

Alabaina, azpimarratu behar dugu garapen eta gorenaldia ez zela gure hiribilduko populazioan bakarrik eman; aitzitik, badian zehar finkatuak zeuden komunitate guztiak izan ziren halako egoeraz baliatu zirenak. Errenterian prozesu horrek ikusgarritasun handiagoa lortuko du badiako hiribildu maila zuen populazio-gune bakarra zelako, bere burua administratzeko autonomia izatea ahalbidetzen zion maila zuen komunitate bakarra, hain zuzen ere.

Autonomia hori mantentzeko eta gozatzeko ahaleginak gure arbasoen gorabeheren esparru handi bat beteko du, beraien kokapenak eskaintzen zien aukera ez galtzeko berebiziko borroka mantendu baitzuten. Baina hau ulertzeko, badiako itsasertzean gertatutakoa bere osotasunean ikusi behar delakoan gaude, behintzat, edozein prozesu behar den moduan ulertzea galerazten duten txokokeriatan erori nahi ez badugu. Horregatik, aurreko lerroetan, badiako komunitate ezberdinetan bizi ziren auzotarren izenak agertu dira.

Beraiek ez ziren izan, ordea, eskualdeak itsas-jardueren garapenaren testuinguruan ezagutu zituen pertsona bakarrak. Izan ere, gure ikerkuntzak egin duen ekarpenik garrantzitsuenetako bat gurean izan ziren atzerritarren etengabeko agerpena izan da, Europako geografiako puntu askotatik etorritakoak baina, bereziki, Ingalaterratik. Gutxi ikertutako gaia dugu, baina eman dugun informazioak ñabardura edo xehetasun asko jartzen ditu mahai gainean, kostaldeari dagokionez behintzat. Izan ere, behin baino gehiagotan jarri dira isolamendua edo beste errealitate batzuen inguruko ezaguera eskasa aurreko mendeetako gizartearen bereizgarri bezala.

Mugimendu honen ondorioak eskualdeko eliz eta arte mundura hedatuko dira. Izan ere, Donibaneko, Lezoko eta Errenteriako elizek, ekonomian oinarritutako merkatal eta kultura-erlazio hauen aztarna argiak gordetzen dituzte. Horregatik, aurreko lerroetan esandakoak, horiek hobeto ulertzeko lagungarri izango direlakoan gaude.

Azkenik, aurreko lerroek, historia ikertzea eta aurreko garaietan bizitako prozesuak ezagutzea interesgarri eta baliagarria delako ideian sakontzeko balio izan digute. Bi ideia hauek ardatz hartuta, paragrafo hauek estrategia politikoen atzean dagoen borondatea eta borondatetasuna erakutsi dutela uste dugu; komunitate batek bide bat zein bestea aukeratzeko duen baliogarritasun eta zilegitasuna azpimarratzen dutelarik. Gure eskualdean 1320tik eta, bereziki, 1495etik aurrera gertatu zen bezala.